

KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkarateak argitaratu du obra hau, elkaratearen sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

Fundación BBVA

•

Bilbao Bizkaia Kutxa — BBK

•

Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA

•

Caja VITAL Kutxa

•

Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU

•

Deustuko Unibertsitatea

GOBERNU ZIBILARI BURUZKO
BIGARREN TRATATUA

JOHN LOCKE

Gobernu zibilarri buruzko bigarren tratatua



Jatorrizko izenburua:
The Second Treatise on Civil Government
Euskaratzailea: *Haritz Monreal*
Berrikuslea: *Lorea Arrieta*
Hitzaurregilea: *Haritz Monreal*

Lehen argitalpena: 2003ko azaroan

© Itzulpenarena: *Haritz Monreal*
© Klasikoak, 2003

Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo
Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia

2003-XII-2

ISBN: 84-88303-09-02
Lege gordailua: BI.-3093-03

Fotokonposaketa: L&A Diseinua
Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

HITZAURREA

Izenak berak aditzera ematen duen bezala, *Gobernu zibilari buruzko bigarren tratatua* John Locke filosofo ingelesak Sir Robert Filmer-en *Patriarcha, or The Natural Power of Kings* liburuan azaltzen diren printzipioak errefusatzeko eginiko tratatuetatik bigarrena da. Kontratuan funtsaturiko Hobbesen teoriari eraso eginez, Filmerrek erregeen botere jainkotiarra defendatzen zuen, horretarako, gobernuaren jatorria teoria patriarkal batean oinarritzen zuelarik. Filmerren postulatuak XVII. mendeko agintari kontserbadoreengan eragin handia izan zutenez, Lockek berauei aurre egiteko beharra sentitu zuen.

Ia osotasunean aipu biblikoz josiriko lehen tratatuan, Filmerren printzipioak baliogabetzeko asmoa du helburu Lockek. Bigarreanean, aldiz, lantzean behin eskritura santuak erabiltzen dituen arren, etorkizunean eragin nabarmena izango duen gobernuari buruzko teoria eraikiko du.

Gobernu zibilar buruzko tratatu bi frantseseratu zuen lehen itzultzaileak, Herbeheretan finkaturiko apaiz higanotak, ez zituen jaso bere itzulpenean lehen tratatua eta hau bigarreanarekin elkartzeko idatziriko pasartea, ez baitzituen aintzakotzat hartu. Ilustrazioaren espirituaz kutsaturiko itzulpen nahiko libre

hau hedatu zen europar kontinentean, eta *Gobernu zibilari buruzko bigarren tratatua*-ren itzulpen askoren oinarri izan zen; modu horretan iritsi zitzairen, esaterako, Montesquieu, Voltaire edo Rousseauri. Ameriketako kolonietan ere eragin handia izan zuen Lockeren lanak; bertan zabaldu zen bertsioan, halaber, bigarren tratatua soilik jasotzen ohi zen.

Laburbilduz, funtsean honakoa da bigarren tratatuan aurkezten den teoria: Hobbesek defendaturikoaren aurka, Lockek natura egoera jatorrian alaitasun, arrazoi eta tolerantziazkoa zeritzon. Egoera horretan pertsona guztiak berdintasunean bizi ziren, eta inork ez zuen beste pertsona baten «bizitza, osasuna, askatasuna edo jabetza» kaltetzerik. Estatua Gizarte akordioaren bidez eraikitzen zen; izan ere, naturazko egoeran bakoitza nor bere epaile zenez, gizabanakoak ez zeukan babesik lege naturala errespetatzen ez zutenengandik. Lege naturalak izan behar zuen estatuaren gidari. Lockek jabego eskumenei ere garrantzia eman zien, pertsona bakoitzak bere lan jardunaren ekoizpenarekiko eskubidea duen heinean.

Gobernu zibilari buruzko bigarren tratatua, normalean, filosofiaren edo teoria politikoaren ikuspuntutik ikertu izan da. Alabaina, eremu hauetatik datozen analisietan zenbait eragozpen edo zailtasun antzematen ahal da.

Filosofia alorreko interpretazioek Lockeren beste lan batzuekin erlazionatu ohi dute tratatua, eta, orokorrean, nola-baiteko inkoherentzia aurkitu izan ohi da lanen artean. Alde batetik, Lockek lege naturalari buruz gaztaroan eginiko idatzietan hemen aztertuko dugun lanean baino tolerantzia eskasagoa azaldu zuen. Bestetik, *Giza adimenari buruzko entseiua*-rekiko zenbait ezberdintasun eta inkongruentzia nabarmen aipatu izan da, batez ere epistemologia eremuari dagokionean. Koherentzia akats horiek ondokoari egotz dakizkioke ziur asko: tratatua, lan filosofiko soil bezala baino, une historiko jakin batean gobernu modu baten alde eginiko apologia moduan sortu zela. Aipagarria da egileak lana bere gain ez hartu izana, eta hil baino pare

bat aste lehenagora arte ez izenpetzea. Litekeena da garai haiek ez izatea aukera politiko baten alde egiteko garaiak; baina, gobernu zibilari buruzko tratatuak, ziurrenik, une historiko hartan Ingalaterran lehian zeuden fakziotako baten alde Lockek hartzen duen jarreraren ondorio dira. Beherago aurkeztuko ditugu ideia hori indartzen edo azpimarratzen lagunduko diguten datu gehiago.

Teoria politikoaren ikuspuntutik Lockeren lanari buruz eginiko analisiek emaitza ezberdinak ematen ohi dituzte ikerlarien eta beraien jatorriaren arabera. Filosofo ingelesaren jaioterrian, haren izaera pragmatikoa baloratzen ohi da, eta, aldiz, haren pentsaeraren zenbait molde atzerakoi zein haren postulatuaren argitasun eta sendotasun eza gaitzetsi. Ingalaterratik kanpo, oster, errazago goraipatzen da iraultza frantsesean edo amerikar estatuen independentzian izan zuen eragina. Ikertzaile batzuek gizabanakoen eskubideen alde eginikoa preziatzen dute, besteek, aldiz, liberalismoaren —hitz honen esanahi gordinenarekin— ideologotzat harturik, arbuiatzen dute. Badago Marxen aurrekari bezala ikusi duenik, lan jardunean oinarrituriko jabegoaren teoria sortzen duen heinean. Interpretazio horietariko baten alde ala aurka egin beharrean, nahiago dugu, Lockek idatzitakoa ikusi eta gero, irakurleak bere iritzia propioa eratu edo moldatzea. Hemen Lockeren lana testuinguru historiko eta biografiko batean kokatzen saiatuko gara, eta azpimarregarriak iruditzen zaizkigun liburuaren edizioaren gaineko datu batzuk emango ditugu.

Lehenik eta behin, XVII. mendeko Ingalaterrako egoera argitzen saiatuko gara. Europako gainontzeko herrialdeetan zegoen absolutismoarekin erkatuta, Ingalaterrako erregeen boterea ez zen inoiz horren latza izan, Parlamentuari zegokion eginkizun garrantzitsua zela eta. Tudor dinastiako erregeek ere, ia mugarik gabeko autoritatea zeukatelarik, biltzar horren esanei jaramon egin behar zieten. Parlamentuaren baimenik gabe, erregeak ezin zuen legerik egin ala baliogabetu, edo zerga berri-

rik jarri. Tudor errege-erreginek zuhurtasunez saihestu zuten Parlamentuarekin liskarretan aritzea, batez ere finantza alorrean. Eskubide jainkotiarrean oinarrituta agintzen bazuten ere, eskubide hori inposatzeko tentazioari eutsi zioten. Erdi mailako klasearen sostenguari esker, beronen interesak zaintzen baitzituzten, Tudorren erregealdiek oparotasuna ekarri zioten herrialdeari.

Elizabeth I hiltzearekin, eta James I Estuardotarren lehen erregearen koroatzearekin batera hasi ziren arazoak sortzen. Eskozian heziriko monarkak ez zuen ingelesez sentsibilitateak antzemateko gaitasunik. Botere monarkikoaren nozio neurritz gainera izateaz gain, erregeen botere jainkotiarra defendatzen zuen. Parlamentuari eskolak emateko aukera ere ez zuen galduko, *Gobernuari buruzko bigarren tratatua*-n zenbait pasartetan jasotzen den moduan. Tudorregandik jasotako boterea ez omen zen nahikoa nonbait, eta iruditzen zitzaion ere erregearen boterea ez zela mugatu behar.

Kontuan hartuta Parlamentuak erregeen jarduera kontrolatzeko zuen tradizio luzea, James I.aren jarrera zeharo zuhurtasunik gabea zen, batez ere erregeak zuen diru behar etengabea ikusita. Parlamentariak hainbestearino haserretu ziren erregearekin, ez zizkioten eman eskatzen zituen diru sarrerak. Liskar horretatik auzi garrantzitsua sortu zen: ea nori zegokion nagusitasuna Ingalaterran, erregeari ala Parlamentuari.

Gizarte ingelesean XVI. mendean zehar gertaturiko aldaketa sakonek larritu zuten arazoa. Bi klase sozialek gizartean zeukaten pisua handitu zen. Alde batetik, behe aristokrazia zegoen, hau da, justu nobleziaren azpiko lur jabeez osaturiko giza taldea. Bestetik, merkatari eta fabrikatzaileak. Talde biek indar ekonomiko handia zuten, eta, erregearen boterearen kontura, Komunaren Ganbararen bitartez euren botere politikoa areagotzen saiatzen ziren.

Erljioa zen beste auzi arazotsutako bat. Komeni zaigu Henry VIII.aren garaira eta Aita Santuaren boterearekiko haus-

turaren garaietara atzera egitea. 1534.eko Nagusitasun Legeak (Act of Supremacy) Ingalaterrako Elizaren buru bakar izendatzen zuen monarka. Auzi politikoa izan zen Erreforma Ingalaterran, dotrina arlokoa baino areagokoa. Eduard VI.aren protestantismoa sendotu zen, eta Thomas Cranmer-en *Book of Common Prayer* hartu zuten liturgiarako liburu. Mary I.aren erreinaldian, berriz, Eliza ingelesa Erromarengandik bereizteko lehendik harturiko neurri guztiak bertan behera utzi ziren. Ostera ere errito katolikoa ezarri, eta Erromaren komuniopean geratu zen herrialdea. Elizabeth I.ak, aldiz, Eliza ingelesaren independentzia berrezarri zuen; haren erreinaldian inposaturiko eliz estatusa katolizismo eta kalbinismo arteko akordioa zen. Dotrina ere egoerara moldatu zuten. Eliza ingelesak apezpikutzatza tradizionala eta aurreko erritoaren zati handi bat mantendu zituen. 1599.eko Nagusitasun Legean oinarrituta, Koroari itzuli zitzaion eliz jurisdikzioa, eta komisio tribunal batek kudeatu behar zuen eskumen hori.

Garai hartan idatzi zuen *Of the Laws of Ecclesiastical Polity* Richard Hooker-ek, *Gobernu zibilar buruzko tratatua*-n horrenbeste aldiz aipatzen den liburua. Testu horrek eliza anglikanoaren kontzeptu intelektualak adierazten lagundu zuen. Bertan azaltzen den arrazoiaren agindutan oinarrituriko gobernuaren (zibil nahiz elizakoaren) teoriak ere eragin handia izan zuen. Elizabeth I.aren garaian erdietsiriko erlijio arloko konpromisoa ingeles askoren onerako izan zen; dena den, talde anitz ez zegoen kontent. Alde batetik, ez ziren gustura katoliko-erromatarrak; ezta ere «High Church party» zeritzenak, izan ere, Eliza anglikanoan zeremonia eta praktika katoliko-erromatar gehiago sartu nahi zituzten. Kontrako muturrean protestante kalbinistak zeuden, behe aristokrazia eta erdi mailako klasearen zati handi bat barne: arlo politikoan gora egin nahi zuten, eta Eliza ingelesa aitasantuzaleegia iruditzen zitzaien. Haietarik asko erreforma baten aldekoak ziren, ez baitziren esaterako eliza liturgian belaunikatzearen edo bataioan eginiko gurutzatzearen aldekoak.

Erreformazale horiek Ingalaterrako Elizaren «purifikazioa» bilatzen zuten heinean, «puritano» izena hartu zuten. Beste talde protestante kalbinista batek, presbiterianoek osatua hain zuzen, gotzainik gabeko estatu eliza nahi zuten; hauek Eskozian zuten indar gehien. Beste talde batek —separatista zeritzaten— erabat burujabe litezkeen kongregazioak gura zituen.

James I tronura iristerakoan, puritanoak erreforma eske azaldu zitzaizkion. Erregeak ez zien bakarrik erreforma horiei uko egin, puritanoak ez baziren Ingalaterrako Elizaren praktike-tara moldatzen, lurraldetik botatzearekin mehatxatu zituen.

1625.ean, James I zendu ondoren, haren semeak Charles I.ak hartu zuen tronua. Aita bezala, absolutismoaren aldekoa zen, eta puritanoei aurre egin zien. Alabaina, Parlamentuak puritano-en ordezkaritza handia zuen, eta Charles I.aren gan zuten konfiantza haren aitaren ganakoa bezain eskasa zenez, diru-sarrerak eragotzi zizkieten, erregea behin eta berriro amorraraziz.

Charles I.ak, hiritarrak gobernuari fondoak ordaintzera behartuz, dirua lortu nahi izan zuen. Ordaintzen ez zuten aberatsak kartzelaratzten zituen, eta txiroak soldadutzara behartzen. 1628.ean diru behar bereziki handia izan zuen erregeak, itsas espedizioak bidali baitzituen La Rochellera bertako higanotak laguntzearren. Parlamentuak egoerari probetxu atera zion, eta monarkak Petition of Right onartu behar izan zuen: zerga eta kartzelaratzte arbitrarioak galarazita gelditu ziren. Nolanahi ere, liskarrek jarraitu zuten, eta une batean Charles I.a eta Parlamentua ez atzera ez aurrerako bidean geratu ziren; hortaz, erregeak azkenik Parlamentu gabe gobernatzea erabaki zuen hurrengo hamaika urteetan.

Charles I.aren ustetan, herriari gobernu kudeaketa eraginkorra eskainiz gero, Parlamentuaren garrantzia txikiagotuko zuen. Hala ere, talde garrantzitsu askoren etsai bilakatu zen ordurako. Puritanoen artean arerio saldoa zuen, bai haien agintarien jazarpenagatik bai High Church party faboratzeagatik. Jazarpenen ondorioz XVII. mendeko hirugarren hamarkadan

milaka puritanok alde egin behar izan zuten Ameriketara. Bestetik, lurjabeak ere aztoratu zituen, bortxazko maileguen bidez dirua jaso nahi izan baitzuen. Eskoziar presbiterianoak 1638.ean erreboltatu ziren, Charles I.a erlijio anglikanoa inposatzen saiatu zenean. Eskoziar errebolta gelditzeko diru beharra sortu zitzaionez, 1640.ean osteraren ostera ere konbokatu behar izan zuen Parlamentua; baina biltzarrek uko egin zion dirua emateari, zenbait aldarrikapen onartzen ez ziren artean. Erregeak errefusatu, eta hiru aste beranduago biltzarra desegin zuen. Hauteskundeak iragarri zituen ondoren, eta hurrengo legealdiak hogeitun urte iraun zuen. Nolanahi ere, biltzarren osaketa aurrekoaren antzekoa zenez, honek ere ez zuen amore emango. Erreforma garrantzitsuak eskatu ziren:

–Parlamentua hiru urtean behin gutxienez biltzea.

–Errege-tribunalak, monarkaren aurrean soilik erantzuten zutenak, desagertzea.

–Erregeak zergarik ez jartzea Parlatuentuaren onespentik gabe.

Erregeak onartu behar izan zituen aldarrikapen horiek, gogoz kontra eta betetzeko prest ez egon arren. Puritanoek Parlatentua aldarrikapen gehiago egitera bultzatu zuten. Erregeak, soldadu talde baten buru zelarik, Komunen Ganbara inbaditu zuen, bost agintari puritano atxilotzeko intentzioarekin; alde eginak ziren ordeak. Londreseko biztanleek armak hartu eta euren agintarien alde egin zuten. Erregeak, 120 lordek eta 200 komunek lagundurik, iparralderantz alde egin zuen, eta «cavaliers»-en gudarostea bildu zuen, hau da, noblezia eta lur jabe nagusien taldea, muturreko protestantismoaren aurkakoa.

30 lord eta 300 parlamentari inguruk —haietarik asko puritanoak— Parlatentuan jarraitu zuten Ingalaterra gobernatzeko asmoarekin. Hauen gudarosteak uharteko hegoalde eta ekialdetik jaso zuen laguntza handiena. Parlatentari eta puritanoi «roundheads» deitu zitzairen, buruko ilea motz ebakita baitzeramaten garaiko orrazkera sofistikatuei aurka egitearren.

Gerrate zibila 1642.ean hasi zen. Hasiera batean, lehen gudak monarkikoen aldekoak izan ziren, baina Oliver Cromwell puritanoak gerrarako eta estratergiarako zuen trebetasunari esker 1645.ean garaipena erdietsi zuten Parlamentuaren aldekoek. Urte bete beranduago erregea errenditu eta gerratea bukatu zen.

Hurrengo bi urteetan erregea eta Parlamentua akordio batera iristen saiatu ziren. Cromwellek ez zeukan batere konfiantzarik monarkarengan, baina Parlamentua uzkur zen erregeari bortizki egiteko. Azkenik, Cromwellek bere kargu hartu zuen auzia, eta bere gudarostearen laguntzaz 100 parlamentari inguru egotzi zituen. Gainontzeko parlamentariak monarkari traizioa leporatu eta kondenatu zuten, eta 1649.ean lepoa moztu zioten.

Charles I.aren heriotzaren ostean, Ingalaterra errepublika libre izendatu zuen Parlamentuak, errege eta Lorden Ganbararik gabea. Errazagoa zen, ordea, monarkia bertan behera uztea, herriari onargarri zekiokkeen gobernu sistema ediretea baino. Lurraldeko hiru fakzio nagusiek (Parlamentuak, armadak eta monarkikoe) gobernuari buruzko kontzeptu berezia zuten. Komunen Ganbara erdi mailako klaseko lurjabe eta merkatariez osaturik zegoen, eta ez zeuden prest gobernu demokratikoa azken muturreraino eramateko. Armadak, berriz, klase xeheenetako jendez osatua zegoelarik, ideia politiko aurrerakoiak zituen, eta idatzizko konstituzioa edo sufragio zabalago bat aldarrikatzen zuen. Monarkikoe, bestetik, monarkia errestatuatzeari nahi zuten.

Alde batetik eta bestetik sortzen ziren liskarrek atsekabeturik, Cromwellek gero eta botere gehiago hartu zuen bere gain. 1653.ean Parlamentua bertan behera utzi eta bere burua Ingalaterrako Lord Protector izendatu zuen, «Instrument of Government» (governurako instrumentua) izeneko konstituzio idatzi baten mende. Cromwellek berak, neurri handi batean, askatasun politiko eta erlijiozkoan sinesten zuen, baina alderdien arteko kalapitek modu diktatorialean gobernatzera bultzatu zuten.

Bestalde, zuhurregiak iruditzen ez zitzaizkion neurriak hartu zituen, hala nola, taberna eta antzezlekuen itxiera, edo oilar jokoan, dantzaldi mistoen edo jaiegunetako jokoaren debekua. Neurri horiek guztiek puritanoek bultzatu zituzten, aisialdiko libertimendu horiek bekatu iruditzen baitzitzaizkien.

Cromwell hiltzerakoan, 1658.ean, ez zegoen pertsona treberik bera ordezkatzeko; bestalde, ingelesez gehiengo zeharo nazkatuta zegoen puritanismoaz. 1660.ean Parlamentu berriak Charles I.aren seme Charles II.ari korroa eskaini zion.

Iraultza puritano deiturikoak aldaketa sakonak ekarri zituzten Ingalaterrako gobernuari. Tribunal arbitrarioak eragotzi zituen, baita ere monarkiak bere kabuz legeak egiteko ahalmena edo Parlamentuaren baimenik gabe zergak jartzekoa. Iraultzak molde demokratikoa zuten ideiak ere bultzatu zituen, esaterako, herriaren boza Parlamentuan entzutea edo erlijio askatasuna. Hala ere, erregeak indar handia zuen oraindik, izan ere, Parlamentuak eta erregeak elkarren artean banatzen zuten boterea.

Charles II alai eta libertimenduzalea zen. Errestaurazioa deritzan hogeitazireko erregealdian ingelesek dibertsioari ekin zioten, aurrerago austeritatearen izenean iritsi ziren bezain urruti joanda. Charles II erlijioz katolikoa zen; hala ere, botere monarkikoa errestitatu nahi zuen arren, ez zuen aitaren patua jarraitu gura. Parlamentuaren susmoa ez eragiteko, arreta handiz maniobratu zuen. Hala ere, bere asmoen konturatu ziren, eta erlijioaren eta aginte monarkikoaren gaia osterik ere plazaratu zen.

Eztabaida horrek kontuan hartzeko ondorio bi izan zituen. Alde batetik, 1679.ean Habeas Corpusaren legea onartu zen. Lege hau atxilotze arbitrarioaren aurkako babesa zen: atxilotketan bidegabekotasun pairatu zuela pentsatzen zuten edonork habeas corpus eskatzeko aukera zuen, hau da, epaile aurrean jarri eta preso hartzeko zuten arrazoiez informatua izateko. Beste ondorioa alderdi politiko modernoaren sorrera izan zen. Batetik,

whig-ak zeuden; erdi mailako klasearen eta goi nobleziaren ordezkari, Parlamentuaren aldekoak ziren. Bestetik, *tory*-ak zeuden, behe noblezia eta lurjabeen ordezkari eta monarkiaren kausaren defendatzaile.

Charles II.ak oinordekorik ez zuenez, erregea nork ordezkatu bilakatu zen *whig* eta *tory*-en eztabaidagai nagusia. Ondorengo legitimoa James II zen, Charles II.aren anaia, katoliko-erromatar sutsua eta monarkia absolutuaren aldekoa. *Whig*-ek kontra ahalegindu arren *tory*-ek James II izendatzea lortu zuten. Izendatu eta segituan bere autoritatea eta Eliza katolikoa indartzen saiatu zen, eta laster egin zitzaion abegikor herriari. Parlamentuari zion errespetu faltak eta Erromari ematen zion sostenguak atzerakoienak ere ikaratu zituen. Aurkariak lasaitzen ziren pentsaturik zahartzen ari zela eta bere heriotzaren ostean lehen ezkontzatik jaieriko alaba protestanteek hartuko zutela tronua. Alabaina, 1688.ean bigarren emazteak haur bat izan zuen, eta horrela, errege katolikoen ondorengotza lerro luze bati bide eman zekioken. *Tory* eta *whig*-ak akordio batera iritsi ziren koroa eskaintzeko James II-aren alaba nagusiari, Maryri. Ingalaterrarako erreginagaia William III Orangekoarekin ezkontuta zegoen, Herbeheretako errege protestantearekin alegia.

1688.ean William eta Mary Ingalaterran lehorreratu ziren gudaroste itzel baten buru. James II.ak ez zuen aurka egiterik izan, bere armadako buruzagiek ez baitzioten laguntzarik eskaini, hortaz, Frantziara alde egin behar izan zuen. Parlamentuaren boterearen baieztapen horri Iraultza Loria-sua edo odol isurketarik gabekoa (Bloodless Revolution) deritzo. Iraultza Loria-tsuan erdietsitakoa mantentzearen, Parlamentuak neurri sail garrantzitsua onetsi zuen, «Revolution Settlement» (iraultzaren finkapena) deiturikoak. Neurri hauetariko batek, 1689.eko «Bill of Rights»-ak, bermatu zuen Parlamentuaren adierazpen askatasuna, baita honen aldiari aldiko bilerak ere, eta erregeari debekatu zion Ganbarako kideen hautaketan sartzea. Beste klausula

batzuen bidez lortu zen Parlamentuari eskaera bat egiteko herriaren ahalmena bermatzea, gehiegizko fidantzak debekatzeta, eta herria babestea armadaren erabilera legez kanpokotik. 1689.ean onartutako beste neurri bat Tolerantzia Legea izan zen, honek talde protestante ezberdinen erlijio askatasuna babesten zuen, nahiz eta Eliza anglikanoko partaide ez zirenek ezin zuten publikoki euren erlijiotasuna adierazi. 1691.eko Finkapen Legearen bidez kontu hartu zuten ezein errege katoliko-erromatar ez zedin Ingalaterrako errege izatera iritsi, honela, James II.aren bigarren emaztearen ondorengoak baztertzin ziren.

Erregea Parlamentuari men egitera behartzean, Iraultza Loriatsuak garaipen handia erdietsi zuen biltzar honen gobernuaren eta legearen izenean. Tiraniari aurre egiteko eskubidearen garaipena ere izan zen. 1688.etik aurrera, monarkaren eta herriaren arteko kontratu bezala hartu zen Ingalaterrako gobernuua, bakoitzari bere erresponsabilitate eta betebeharrak zegozkiolarik. Modu honetan Iraultza Loriatsuak monarkia konstituzionala ezarri zuen. Iraultza horren printzipioak *Gobernuari buruzko bigarren tratatuan* jasotzen dira, eta lan hau aurretik prestatu bazen ere, garai hartan argitaratu zen.

Ondoren John Lockeri buruzko zenbait datu aurkeztuko ditugu, filosofo ingelesaren lana hobeto ulertzen lagundu dezaketelakoan. Locke 1632.ean jaio zen Somerset-en, Ingalaterrako hego-mendebaldeko alde monarkiko batean, eta Bristoletik sei miliatara hazi zen. Joera puritanoak zituen familia anglikanoa zen berea. Aita, gerrate zibilean Parlamentuaren aldeko gudarostean kapitain izan zena, familia aberastu berri baten lehen semea zen. Aitona ehunen negozioan aberastu zen arren, aitek ez zuen negoziotarako trebetasunik, eta, beraz, Lockek familia parlamentarista baten laguntza jaso behar izan zuen ibilbide akademikoan aurrera egiteko. Lehenik Westminster Schoolen izan zen —garai hartan Parlamentuaren aldeko komite batek kontrolatzen zuen ikastetxea—, eta handik 1652.an Oxfordeko Christ Church Schoolera abiatu zen.

Erreforma puritanoek ez zuten unibertsitate horren curriculum tradizionala aldatu, oraindik erretorika, gramatika, filosofia morala, geometria eta grekoa ziren oinarri. Lockeri ikasgaiak funsgabeak iruditu zitzaizkion, eta programatik kanpoko ikasketei jaramon handiagoa egin zien, batez ere zientzia esperimentalari eta medikuntzari. Oxforden ohiko bide akademikoa jarraitu zuen: lehenik «secular», gero «student» edo «fellow», eta hortik irakasle. Hala ere, irakaskuntzan jarraitu nahi izan balu Elizako botoak hartu beharko zituzkeen; horri uko egin eta medikuntzan trebatzea erabaki zuen, botanika espezialitatea aukeratuz. Ez zuen inoiz medikuntzan doktore titulua erdietsi.

Ez zen Oxforden hasi filosofiaz interesatzen, hasieratik arduratu zuten gehiago gai politikoek. Soilik unibertsitatea utzi eta gero hasi zen gai filosofikoez kezkatzen. Oxforden, erlijioaren gainean estatuak zuen autoritatea aztertu zuen, baita autoritate horren funtsa den lege naturala eta lege naturalak esperientzian duen oinarria ere. Lockek unibertsitate garaian —eta beranduago *Gobernuari buruzko bigarren tratatua*-n esango duenaren kontra—, magistratuaren autoritate gorenaren defendatzen zuen, apika Cromwellen interregnumeko segurtasun falta zela eta. 1660.ean, fakultateko tutore izendatu berri zela, pozez hartu zuen errepublika puritanoaren bukaera eta Charles II.aren etorrera.

1661.ean Lockek aitaren lur eta ondasunen zati bat jarauntsi zuen, honek urteko diru-sarrerara xume batzuk ematen zizkion. Aipagarria da, Locke ezkongabe, independente eta ia bizitza osoan mundu akademikoko partaide izan arren, ingeles familia lurjabe baten ondorengo eta ordezkari izan zela. 1665.ean idazkari moduan lan egin zuen Brandeburgon misio diplomatiko batean; itzultzerakoan beste postu diplomatiko bat eskaini zioten, baina uko egin zion. Garai honetako idatziek, gutunak eta irakurketek aditzera ematen dute natur zientzia eta bizitza moral, sozial eta politikoaren printzipioak zirela bere interes nagusiak. Unibertsitateko ikasketen ikuspegi estua eki-

diteko garaiko filosofia irakurtzen zuen, batez ere René Descartes filosofia modernoaren aitzindariaren lanak. Nolanahi ere, zientzia esperimentalak interesatzen zitzaion gehien. Kimika modernoaren fundatzaileetako batekin lan egin zuen, bere lagun on Robert Boyle-rekin hain zuzen, baita une hartan medikuntza alorrean zientifiko ezaguna zen Thomas Sydenham-ekin ere.

Mediku bezala (titulurik izan ez arren), hain zuzen, ezagutu zuen Lord Ashley, beranduago Shaftesbury-ko kondea izango zena. Bizitzaren zati handi batean izan zuen Lockek harreman estua estatu-gizon honekin. Lord Ashleyk medikuzaintza behar zuelarik, elkar ezagutu zuten adiskide komun baten bidez, eta laster egin ziren lagun. Gibeledako eritasun bat zeukan, eta urdailean infiltrazio bat egiteko operazioa zuzendu zuen Lockek. Lehenik urrezko eta beranduago zilarrezko hodi baten bidez abszesua osatu zioten. Medikuntza modernoaren ikuspegitik operazio horren efektua zalantzaragarria bada ere, edonola ere, bizia salbatu zion. Coopertarren mediku izendatu zuten Locke; baina ez zen familiako mediku soilik, baita seme-alaben tutore eta kondearen aholkulari ere.

Shaftesburyko kondea pertsonaia aberats eta boteretsua zen zinez. Bizitzan zehar fideltasun-harreman eta aliantza ezberdinak izan zituen: lehenik erregearekin, Parlamentuarekin ondoren; Cromwellen ministro lehenik, gero aurkari; azkenik Errestaurazioaren sustatzaile. Politiko oldartsua zen, arerio anitzekoa (haietako batzuk letra gizonak, esaterako, Westminster Schooleko Lockeren klasekide zen John Dryden). Honako hauek defendatu zituen besteak beste: monarkia konstituzionala, errege protestanteen oinordekotza, Parlamentuaren nagusitasuna, tolerantzia erlijio arloan, eta Ingalaterraren zabalkunde ekonomikoa. Lockek helburu berak zituenenez, laster sortu zen estatu-gizonaren eta aholkulariaren arteko sintonia perfektua. Lockek kondearekin izaniko hizketaldi luzeetan jasotako esperimentziari zor diogu *Gobernuari buruzko tratatu bi*. Badira zen-

bait datu pentsarazten dutenak liburua kondearen helburuak asetzearren idatzi zuela. Lehenago aipatu dugun bezala, Lockeren filosofiarako interesa ez zen Oxforden piztu, kondearekin harremanetan zegoen garaian baizik. Aipagarria da Shaftesburyko kondeak bazituela zenbait zirriborro ezagutza teoriari buruzkoak, eta hain zuzen ere garai horretan idatzi zela *Giza adimenari buruzko entseiua*. Gai ekonomikoetarako arduraren ere orduan iritsi zitzaion; kondearekin batera interes-tasei buruz eginiko lan batek eragina izan zuen ekonomia britainiarrean. Arlo ekonomikoan tradizionalista zen arren, erlijioari dagokionean, kondearekin zuen harremanak jarrera irekia defendatzera eramanean zuen.

1672.ean eman zioten Lord Ashleyri noblezia titulua, eta urte horren bukaeran Ingalaterrako kantziler nagusi izendatu zuten. Laster galdu zuen influentzia, baina karguan egon zen bitartean Merkataritza eta Plantazio Kontseilua (Council of Trade and Plantations) sortu zuen, eta bi urtez izan zen idazkari Locke erakunde horretan. Kondearen ardurapean, Lockeri dokumentu ofizialen zirriborroak egitea zegokion eta elkarrizketen eta negoziazioen oharra jasotzea. Esaten denez, kondeak diskurtsoak egiten zituenean ere, Locke —haren atzean kokatuta— hitz-emaile zuen, 1673.ean etsai herbeheretarrari zuzenduriko *Delenda est Carthago* hitzaldian gertatu omen zen moduan. Lockeren eginkizun nagusia zenbait gairi buruzko bibliografia jasotzea izaten zen; beranduago bere lanetarako profitatu zen zeregin honekin.

Lockek asma zuen, eta betebeharrek eta Londreseko giro eskasak kalte egiten zioten. 1675.ean Oxfordera itzuli zen ostera; urte berean beranduago Frantziara abiatu, eta lau urtez bertan izan zen. Ingalaterrara bueltatzean, herria banandua topatu zuen. Gehiengo protestanteak, Shaftesburyko kondea buru zuela, ondorengotzatik baztertu nahi zuen James II erregegaia. Kondea urte bete egon zen Londreseko Dorrean kartzelaturik; Locke itzuli zenerako, ordea, influentzia berreskuratua zuen eta

Estatu Kontseiluko buru zen. Alabaina, erregearen eta Parlamentuaren interesak adiskidetzeko ahaleginek huts egite-rakoan, kargutik kendu zuten. 1681.ean Londreseko epaimahai batek atxilotarazi eta kondenatu zuen; hurrengo urtean Herbeheretara alde egin, eta denbora gutxira hil zen.

Lockek azpijoko politikoetan izandako parte-hartzea pen-tsa daitekeena baino handiagoa izan zen. Alde batetik, ez zen kritikoezia izan bere nagusiaren azpilaneekin. Hor dugu, esatera-ko, «aitasantuzaleen konjurazioa» (Popish Plot) kasuan filoso-foak harturiko jarrera. 1678.ean Titus Oates apaiz anglikano jukutriazale batek «aitasantuzaleen konjurazioa» fabulatzea era-baki zuen. Denboraldi baterako erlijio katolikoko fededun bila-katu zen, eta jesuitak salatu zituen Charles II erail eta Jamesen (beranduago James II) ondorengotza inposatzeko plana egiteaz. Istorio osoa asmatua zen noski, eta Estatu Kontseiluaren aurre-an Oatesek damutu eta atzera egingo zuen, ez balitz Yorkeko dukesaren idazkariak François La Chaise jesuita frantsesari bidalitako gutun batzuk aurkitu zituztelako, hauek traizioa ira-dokitzen baitzuten. Bestetik, Oatesen lehen epailea hilik agertu zen; heriotzak ez zuen azalpenik eta katolikoei egotzi zitzairen. Hiru errugabe urkatu zituzten. Katolikoen aurkako amorru bizia piztu zen, eta lord eta komun katoliko anitzen heriotza zigorra eragin zuen, baita beste katoliko askoren jazarpena ere (Oates beste hainbat asmakeriatan saiatu zen, hala nola, senarra pozoi-tzeaz akusatu zuen Catherine erregina. 1685.ean atxilotu zuten eta zin faltsua egiteagatik kondenatu. William III boterera iris-terakoan askatu, eta pentsioa eman zioten). Shaftesburyko kon-dea baliatu zen jendeak katolikoenganako zuen beldur eta histe-riaz, Charles II.ak bazter zezan bere anaia eta ondorengoa, James Yorkeko dukea. Gaitza egiten da irudikatzea Locke ez zegoela gertatzen ari zenaren jakinean; edonola ere, ez zituen kritikatu bortxazko aitortpenak, heriotza zigorrak, oratoria popu-lista eta jendetzaren nahastura. Ez dakigu konjurazioan sinesten zuen, baina kondea ez zuen nolanahi ere horregatik kritikatu.

1681.ean, ondorengo katolikoa baztertuko zuen lege egitasmoak (Exclusion Bill) huts egingo balu, batzuek armetara jotzea erabaki omen zutenean, Lockek aktiboki hartu zuen parte kondearen tesien defentsan. Parlamentuko bozketetarako laguntza biltzen saiatu zen etxez etxe alde batetik bestera ibiliz.

Bestalde, Lockek parte hartu zuen «Insurrection Plot» izeneko altxamendu konjurazioa asmatu zuten *whig*-en konbentzioan. Shaftesburyko kondea hil ondoren ere, bigarren konbentzio batean izan zen. Azken horretan «Assasination, or Rye House Plot» asmatu zuten, erregea hiltzeko plana alegia. Konbentzio horretan Filmerren aurkako idatzi bat ere egin zuten. Bertan parte hartzeagatik, Algernon Sidney eta William Russel agintari garrantzitsuak atxilotu eta burua moztu zieten.

Kondearen lagunak ez ziren salbu, eta Lockek Herbeheretara alde egin behar izan zuen 1683.ean. Charles II.aren agindu adieraziz, Christ Churcheko beka kendu zioten. Hurrengo urtean Lockeren izena azaldu zen Ingalaterrako gobernuak atxilotu nahi zituen 84 traidorez osaturiko zerrenda batean. Denboraldi batean ezkutatu behar izan zuen; hala ere, laster Herbeheretatik libre ibili ahal izan zen. Ingeles filosofoa bost urtez izan zen herrialde hartan, harik eta James II, 1685.ean errege bilakatu zena, tronutik bota zutenera arte. Locke bera Mary erreginagaiarekin zihoan lagun taldearekin batera lehorreratu zen Ingalaterran. Enbaxadore eginkizunak eskaini zitzioten, baina uko egin zien; Apelazio Batzordean (Commission of Appeals) postu bat onartu zuen ordea. 1691.ean herrixka batera erretiratu zen bizitzera, eta noizean behin baizik ez zen joaten Londresera.

Bizitzako azken urteetan eraginik izan ez zuenik ezin da esan, *whig*-en lider intelektuala baitzen. Alderdi horretako parlamentari nagusiak Lockeren lagun zaharrak ziren, eta belau-naldi gaztekoak aholku eske hurbiltzen zitzaizkion. William III.aren garaian *tory*-en indarrak erreformari mugak ezarri bazizkion ere, Iraultza Loriatsuan Locke eta Shaftesburyko

kondearen helburu nagusiak bete ziren. Parlamentuak kontrolaturiko monarkia konstituzionala bilakatu zen Ingalaterra, eta epaimahaien aurrean hiritarren segurtasuna bermatzeko aurre-rapauso handiak eman ziren, baita tolerantzia erlijiosoari eta adierazpen eta pentsamendu askatasunari dagokionean ere.

Azkenik, *Gobernu zibilari buruzko tratatu bi*-ren edizioen gaineko zenbait datu aipatuko ditugu, garrantzitsuak iruditzen baitzaizkigu. Gorago esan bezala, erbesteratzeak errekonozimendua eta influentzia ekarri zizkion Lockeri. Bestalde, *Giza adimenari buruzko entseiua* obrak ospea eman zion nazioartean. Dirudienez bere buruarengan konfiantza hartu zuen Lockek, eta aurretik anonimatuan mantendu zituen lanak argitaratzera ausartu zen. Izan ere, bere heriotzaren ostean soilik hasi ziren erlazionatzen *Giza adimenari buruzko entseiua* eta *Gobernu zibilari buruzko tratatu bi*. Lockek hil baino aste bete edo bi lehenago hartu zuen gobernuaren gaineko tratatuen autoretza bere kargu, lehendik anonimo mantendu zituen liburuak Oxfordeko liburutegi publikoan sailkatu eta gordeak izan zitezkeen euren egiletasuna aitortzera behartuta ikusi zuenean bere burua. Gertuko ahaide bati bidalitako gutunean tratatuak gomendatzen zizkion, baina berak idatzi izan ez balitu bezala; bestalde, Tyrrelekin bizitzan zehar izandako adiskidetasun ona deuseztatzeko zorian izan zen, honek sekretua traditu zuela iruditzen zitzaiolako. Beste lan batzuen kasuan ez bezala, Lockek ez zuen tratatuen eskuizkriburik gorde. 1690.eko lehen edizioan, eskuizkribu batean oinarrituta egin zelarik, Lockeren egiletasuna sala zezakeen ezer deuseztatu zuten. 1694.eko lehen berrargitarapenean anonimotasuna gordetzeko estrategia benetan laberintikoa erabili zuen. Lehen berrargitarapen hori kopia oso merkeetan egin zen, hedapen handia izan zezan eta irakurle xeheari hel zekion. Uste dugu datu hauek guztiek aditzera eman dezaketela haren lana ez zela tratatu filosofiko soil moduan idatzi. 1698.eko hirugarren edizioak oso aldaketa gutxi izan zituen. Lockek idatzizko jarraibideak utzi zituen hil ondoren bete zite-

zen. *Giza adimenari buruzko entseiua* Locke hil eta handik bi urtera argitaratu zen osterera ere, eta *Gobernuari buruzko tratatu bi* bederatzi urte beranduago. Itzulpen honetan erabili dugun 1764.eko edizioak aldaketak jasotzen ditu.

Lehenago aipatu bezala, 1691.ean apaiz higanot batek frantseseratu zuen lana, XVIII. mendeko espiritu iraultzailearen eta Ilustrazioaren norabidean zenbait aldaketa eginez; gainera, lehen tratatua eta hau bigarrenarekin lotzen zuen pasartea ez zituen jaso. Lockek berak tratatu bien arteko loturarik eza aitortu zuen; antza denez, bigarren zatia zen lehendabizi idatzirikoa. European zehar zebilen lanaren eredia onartzen zuelarik ere, ez zuen bere kargu hartu, anonimotasuna mantentzearren. Nolanahi ere, aldaketek ez zuten eraginik izan ingeles bertsioan.

Hemen aztertu dugun lanak amerikar kolonietan hedapen handia izan zuen. Estatu Batuetako Independentzia Deklarazioan bertan jasotzen da Lockeren eragina (deklarazioaren bigarren paragrafoak eta bigarren tratatuaren XIX. Kapituluko 255. atalak antz handia dute zenbait pasartetan). Atlantikotik beste aldean ere lehen trataturik gabe eta aipaturiko pasarte hori barik argitaratu zen. Lana Molyneux-en *Core of Ireland*-en bezala erabiliko zen, «herriak gobernuan boza izan dezan, bere aldarrikapena justifikatzeko».

Aipagarria da nola garai eta gertaera batzuekin ematen den aldi berean liburu honen argitarapena: Estatu Batuetan ez da ia argitarapenik 1733.etik aurrera; hirugarren frantses errepublikan lau edizio egin ziren; gaztelerazko lehen argitarapena 1821.ekoa da, hau da, Trienio Constitucional deritzon garaikoa eta amerikar nazioen burujabetzarako berebiziko garrantzia duen hamarkadakoa hain zuzen. Adierazgarria da ere 1798.eko edizioan gotzain ingeles batek azalpen ohar batzuk idaztea, bereiz zedin «Lockerren sistemaren eta demokrata modernoaren teorien artean».

Ondoren irakurriko duzuen lanak garrantzi historiko nabarmena du. Eragin handia izan zuen ingeles liberalismoan

eta frantses eta amerikar iraultzetan, baita Irlandan edo Indian ere: hiritarren onespak gobernuan eragina duen leku guztietan.

Haritz Monreal

Bibliografia

1. John Lockeren lanak

1.1. Ingelese

The Works of John Locke (P. Nidditch-en eta J.W. Yolton-en argitalpena, G.A.J. Rogers-en begiradapean). Oxford, Clarendon Press, 1997.

A Letter Concerning Toleration (J. Tully-ren argitalpena). Indianapolis, Hackett Pub. Co., 1983.

Epistola de tolerantia = A Letter on Toleration (argitalpen elebiduna, R. Klibansky-ren itzulpena eta hitzaurrea, J.W. Gough-en sarrera eta oharra). Oxford, Clarendon Press, 1968.

A Paraphrase and Notes on the Epistles of St. Paul (A. Waimwright-en argitalpena). Oxford, Clarendon Press, 1987.

An Essay Concerning Human Understanding (J.W. Yolton-en argitalpena eta sarrera). Londres, etab., Dent, etab., 1967-1968.

An Essay Concerning Human Understanding (P. Nidditch-en argitalpena). Oxford, Clarendon Press, 1975.

Drafts for the 'Essay Concerning Human Understanding' and Other Philosophical Writings (P. Nidditch & G.A.J. Rogers argitalpena). Oxford, Clarendon Press, 1990.

Essays of the Law of Nature (W. von Leyden-en argitalpena). Oxford, Clarendon, 1954.

Some Thoughts Concerning Education (J.W. eta J. Yolton-en argitalpena). Oxford, Clarendon Press, 1989.

Two Tracts on Government (P. Abram-en argitalpena). Cambridge, Cambridge University Press, 1967.

Two Treatises of Government (P. Laslett-en argitalpen kritikoa). Cambridge, Cambridge University Press, 1963-1987.

The Reasonableness of Christianity as Delivered in the Scriptures (J. C. Higgins-Biddle-ren argitalpen kritikoa). Oxford, Clarendon Press, 1998.

1.2. Gaztelaniaz

Carta sobre la tolerancia (P. Bravo Gala-ren itzulpena). Madril, Tecnos, 1991.

Dos ensayos sobre el gobierno civil (F. Giménez Gracia-ren itzulpena). Madril, Espasa Calpe, 1997.

Ensayo sobre el entendimiento humano (E. O'Gorman-en itzulpena). Mexiko, Fondo de Cultura Económica, 1956.

Ensayo sobre el entendimiento humano (M.E. García-ren itzulpena, S.

Rábade-ren sarrera eta oharra).
Madril, Editora Nacional, 1980.

Ensayo sobre el entendimiento humano (L. Rodríguez Aranda-ren itzulpena). Madril, Aguilar, 1987.

Ensayo sobre el Gobierno Civil (A. Martínez Paraíso-ren itzulpena), Madril, Ediciones Alba, 1987.

Ensayo sobre el gobierno civil (A. Lázaro Ros-en itzulpena). Madril, Aguilar, 1990.

Ensayo sobre el gobierno civil (A. Lázaro Ros-en itzulpena eta L. Rodríguez Aranda-ren sarrera). Bartzelona, Orbis, 1985.

La conducta del entendimiento y otros ensayos póstumos (A.M. Lorenzo Rodríguez-en itzulpena, sarrera eta oharra). Bartzelona, Anthropos, 1992.

La racionalidad del cristianismo. Madril, Ediciones San Pablo, 1977.

Pensamientos acerca de la educación (D. Barnes-en itzulpena eta oharra, H. Quick-en hitzaurrea eta biografia kritikoa). Bartzelona, Humanitas, 1982.

Pensamientos sobre la educación (R. Lasaleta-ren itzulpena). Madril, Akal, 1986.

Segundo tratado sobre el gobierno civil: un ensayo acerca del verdadero origen, alcance y fin del gobierno civil (C. Mellizo-ren itzulpena, sarrera eta oharra). Madril, Alianza, 1990.

Segundo tratado sobre el gobierno civil (C. Mellizo-ren itzulpena). Ediciones Altaya, 1995.

1.3. Frantsesez

De la conduite de l'entendement (Y. Michaud-en sarrera, itzulpena eta oharra). Paris, Vrin, 1975.

Deux traités du gouvernement (B. Gilson-en aurkezpena eta itzulpena). Paris, Vrin, 1997.

Essai philosophique concernant l'entendement humain (E. Naert-en argitalpena, P. Coste-ren itzulpena). Paris, Vrin, 1989.

Lettre sur la tolérance (J. Le Clerc eta J.-F. Spitz-en itzulpena, J.-F. Spitz-en sarrera, bibliografia, kronologia eta oharra). Paris, Flammarion, 1992.

Quelques pensées sur l'éducation (G. Compayré-ren itzulpena, J. Chateaur-en sarrera eta oharra). Paris, Vrin, 1992.

Textes sur la loi de nature, la morale et la religion (J.-F. Spitz-en aurkezpena, itzulpena eta oharra). Paris, Vrin, 1990.

Traité du gouvernement civil (D. Mazel-en itzulpena, S. Goyard-Fabre-ren kronologia, sarrera, bibliografia eta oharra), Paris, Garnier-Flammarion, 1984.

1.4. Euskaraz

Giza adimenari buruzko entseia I-II (Alberto Gabikagogeaskoaren itzulpena; Andoni Ibarraren hitzaurrea), Bilbo, Klasikoak S.A. 1998.

2. Biografia eta korrespondentzia

G. BONNOT. *Les relations intellectuelles de Locke avec la France (d'après des documents inédits)*. Berkeley, University of California Press, 1955.

M.W. CRANSTON: *John Locke, a Biography*. Oxford, Oxford University Press, 1985.

E.S. DE BEER (argit.): *The Correspondence of John Locke*. Oxford, Clarendon Press, 1979-1989 (8 bol.).

P. LASLETT & J. GOUGH: *The Library of John Locke*. Oxford, Oxford University Press, 1965.

U. THIEL: *John Locke mit Selbstzeugnissen und Bilddokumenten dargestellt*. Reinbek bei Hamburg, Rowohlt Taschenbuch Verlag, 1990.

J. YOLTON: *A Locke Miscellany: Locke Biography and Criticism For All*. Bristol: Thoemmes, 1990.

3. Bibliografiak

J.C. ATTIG: *The Works of John Locke: A Comprehensive Bibliography from the Seventeenth Century to the Present*. Westport, Conn., Greenwood Press, 1985.

H.O. CHRISTOPHERSEN: *A Bibliographical Introduction to the Study of John Locke*. New York, B. Franklin, 1968.

R. HALL & R. WOOLHOUSE: *Eighty Years of Locke Scholarship: A Bibliographical Guide*. Edinburgh, Edinburgh University Press, 1983.

P. LONG: *A Summary Catalogue of the Lovelace Collection of the Papers of John Locke in the Bodleian Library*. Oxford, Oxford University Press, 1959.

J.S. YOLTON (biltz.): *John Locke: A Descriptive Bibliography*. Bristol, Thoemmes Press, 1996.

4. Inuzkin eta Gida Liburu orokorrak

V. CHAPPELL (argit.): *The Cambridge Companion to Locke*. Cambridge, Cambridge University Press, 1994.

J.W. YOLTON: *A Locke Dictionary*. Oxford, Blackwell, 1993.

J.W. YOLTON: *The Locke Reader Selections from the Works of John Locke with a General Introduction and Commentary*. Cambridge, Cambridge University Press, 1977.

J.S. YOLTON: & J.W. YOLTON: *John Locke: A Reference Guide*. Boston, Mass., D.K. Hall, 1985.

5. Monografia orokorrak

R.I. AARON: *John Locke*. Oxford, Clarendon Press, 1971.

R. ASHCRAFT (argit.): *John Locke: Critical Assessments*. Londres, Routledge, 1991 (4 bol.).

M. AYERS: *Locke: Epistemology and Ontology*. Londres, Routledge, 1993 (2 bol.).

V. CHAPPELL (argit.): *Locke*. Oxford, Oxford University Press, 1998.

J. DUNN & I. HARRIS: *Locke*. Cheltenham, E. Elgar Pub., 1997.

E. GARCÍA SÁNCHEZ: *John Locke (1632-1704)*. Madril, Ediciones del Orto, 1995.

N. JOLLEY: *Locke*. Oxford, Oxford University Press, 1999.

J.D. MABBOTT: *John Locke*. Oxford, Oxford University Press, 1980.

J.L. MACKIE: *Problems from Locke*. Oxford, Clarendon Press, 1976.

W.M. SPELLMAN: *John Locke*. New York, St. Martin's Press, 1997.

T.E. WEBB: *The Intellectualism of Locke: An Essay* (J. Yolton-en sarrera berriarekin). New York, B. Franklin, 1973.

R.S. WOOLHOUSE: *Locke*. Brighton, Harvester Press, 1983.

J.W. YOLTON: *John Locke and the Way of Ideas*. Oxford, Oxford University Press, 1956.

J.W. YOLTON: *Locke, an Introduction*. Oxford, Blackwell, 1985.

6. Gobernari buruzko bigarren tatarua eta beronekin erlazionaturiko bibliografia

AGUILAR VIQUEZ, F., *Orígenes del liberalismo: teoría política de John Locke*, Puebla, México, Ed. de la Universidad Popular Autónoma del Estado de Puebla, 1992

ALEXANDER, P., *Ideas, Qualities, and Corpuscles: Locke and Boyle on the External World*, Cambridge, Cambridge University Press, 1985

ASHCRAFT, R., *Locke's Two Treatises of Government* (Londres, Allen & Unwin, 1987)

- *Revolutionary Politics & Locke's Two Treatises of Government* (Princeton, NJ, Princeton University Press, 1986; frantsesez: *La politique révolutionnaire et les «Deux traités du gouvernement»*, Paris, Presses Universitaires de France, 1995)

ASHCRAFT, R., R. Kroll, P. Zagorin (argit.), *Philosophy, Science and Religion in England 1640-1700*, Cambridge, Cambridge University Press, 1992

BILL, E.G.W., *Education at Christ Church, Oxford 1650-1800*, Oxford, Oxford University Press, 1988

BOBBIO, N., *Locke e il diritto naturale*, Torino, G. Giappichelli, 1963

CAPPEL, V. (argit.), *John Locke: Political Philosophy*, New York, Garland, 1992

CHRISTOPHER, C.W. (argit.), *The Social Contract Theorists: Critical Essays on Hobbes, Locke, and Rousseau*, Lanham, Md., Rowman & Littlefield, 1998

COLMAN, J., *John Locke's Moral Philosophy*, Edinburgh. Edinburgh University Press, 1983

DEWHURST, K., *John Locke 1632-1704, Physician and Philosopher*, New York, Garland, 1984 (jatorrizko argit. 1963).

DUNN, J., *The Political Thought of John Locke: An Historical Account of the Argument of the «Two Treatises of Government»* (Cambridge, Cambridge University Press; frantsesez, *La pensée politique de John Locke: une présentation historique de la thèse exposée dans les «Deux traités du gouvernement»*, Paris, Presses Universitaires de France, 1991)

DWORETZ, S. M., *The Unvarnished Doctrine: Locke, Liberalism, and the American Revolution*, Durham, Duke University Press, 1990

FRANKLIN, J.H., *John Locke and the Theory of Sovereignty: Mixed Monarchy and the Right of Resistance in the Political Thought of the English Revolution*, Cambridge, Cambridge University Press, 1978

GOLDIE, M. (argit.), *Locke: Political Essays*, Cambridge, Cambridge University Press, 1997

- «John Locke's Circle and James II», *Historical Journal* 35 (1992), 557-582
- «John Locke and Anglican Royalism», *Political Studies* 31 (1983), 61-65
- GOUGH, J.W., *John Locke's Political Philosophy: Eight Studies*, Oxford, Clarendon Press, 1973
- HARGREAVES-MAWDSLEY, W.N., *Oxford in the Age of John Locke*, Norman, University of Oklahoma Press, 1973
- HARPMAN, E.J. (argit.), *John Locke's Two Treatises of Government: New Interpretations*, Lawrence, Kan., University Press of Kansas, 1992
- HARRIS, I., *The Mind of John Locke: A Study of Political Theory in its Intellectual Setting*, Cambridge, Cambridge University Press, 1994
- HERRERA MADRIGAL, J., *Jusnaturalismo e ideario político en John Locke*, Iztapalapa, México D.C., Universidad Autónoma Metropolitana, 1990
- HOROWITZ, R., J.S. Clay, D. Clay, *Questions on the Law of Nature*, Ithaca, NY, Cornell University Press, 1990
- HUGELMAN, F., *Die Anfänge des englischen Liberalismus; John Locke und der first Earl of Shaftesbury*, Frankfurt am Main, P. Lang, 1992
- HUTCHINSON, R., *Locke in France: 1688-1734*, Oxford, Voltaire Foundation at the Taylor Institution, 1991
- KRAMER, M.H., *John Locke and the Origins of Private Property: Philosophical Explorations on Individualism, Community, and Equality*, Cambridge, Cambridge University Press, 1997
- LEMONS, R.M., *Hobbes and Locke: Power and Consent*, Athens, University of Georgia Press, 1978
- LOGH, J., *Locke's Travels in France*, Cambridge, Cambridge University Press, 1984
- MCCLURE, K.M., *Judging Rights: Lockean Politics and the Limits of Consent*, Ithaca, NY, Cornell University Press, 1996,
- MACPHERSON. C.B., *The Political Theory of Possessive Individualism: Hobbes to Locke*, Oxford, Clarendon Press, 1962 (gaztelatuta, *La teoría política del individualismo posesivo*, Bartzelona, Fontanella, 1979)
- MARSHALL, J., *John Locke: Resistance, Religion, and Responsibility*, Cambridge, Cambridge University Press, 1994
- MYERS, P.C., *Our Only Star and Compass: Locke and the Struggle for Political Rationality*, Lanham, Md., Rowman & Littlefield, 1998
- PANGLE, T.L., *The Spirit of Modern Republicanism: The Moral Vision of the American Founders and the Philosophy of Locke*, Chicago, The University of Chicago Press, 1988
- PETERS, J.T., *Der Arbeitsbegriff bei John Locke im Anhang: Lockes Plan zur Bekämpfung der Arbeitslosigkeit von 1697*, Frankfurt 1997
- PEZOA BISSIERES, A., *Política y economía en el pensamiento de John Locke*, Iruñea, EUNSA, 1997, R. Polin, *La politique morale de John Locke*, New York, Garland, 1984
- RAPACZYNSKI, A., *Nature and Politics: Liberalism in the Philosophies*

- of *Hobbes, Locke and Rousseau*, Ithaca, NY, Cornell University Press, 1987
- RAYNAUD, P. et al., *Dictionaire des Oeuvres Politiques*, Paris, 1986
- ROMANELL, P. , *John Locke and Medicine: A New Key to Locke*, Buffalo, N.Y. Prometheus Books, 1984
- ROWLEY, C.K. (argit.), *Property Rights and the Limits of Democracy*, 1993
- SABINE, G. H., *Historia de la teoría política*, Mexiko, 1994
- SCHOOLS, P.A., *Reasoned Freedom: John Locke and Enlightenment*, Ithaca, NY, Cornell University Press, 1992
- SCHOSLER, J., *John Locke et les philosophes français: la critique des idées innées en France au dix-huitième siècle*, Oxford, Voltaire Foundation, 1997
- *La Bibliothèque raisonnée, 1728-1753: les reactions d'un periodique français à la philosophie de Locke au XVIIIe siècle*, Odense, Odense University Press, 1985
- SELL, A.P.F., *John Locke and the Eighteenth-Century Divines*, Cardiff, University of Wales Press, 1997
- SIMMOS, A.J., *On the Edge of Anarchy: Locke, Consent and the Limits of Society*, Princeton, NJ, Princeton University Press, 1993
- The Lockean Theory of Rights*, Princeton, NJ, Princeton University Press, 1992
- SREENIVASAN, G., *The Limits of Lockean Rights in Property*, Oxford, Oxford University Press, 1995
- STEINBERG, J., *Locke, Rousseau and the Idea of Consent: An inquiry into the Liberal-Democratic Theory of Political Obligation*, Westport, Conn., Greenwood Press, 1978
- STEWART, M.A., «Locke's Professional Contacts with Robert Boyle», *Locke Newsletter* 12 (1981), 19-44
- THOMPSON, M.P. (argit.), *John Locke und Immanuel Kant: historische Rezeption und gegenwärtige Relevanz*, Berlin, Duncker & Humblot, 1991.
- THOMAS, D.LI., *Routledge Philosophy Guidebook to Locke on Government*, Londres, Routledge, 1995
- TULLY, J., *An Approach to Political Philosophy: Locke in Contexts*, - *Locke: droit naturel et propriété*, Paris, Presses Universitaires de France, 1992
- VAN STRIEN, D., *British Travellers in Holland During the Stuart Period: Edward Browne an John Locke as Tourists in the United Provinces*, Leiden, E.J. Brill, 1993
- VIENTNE, J.M., *Experience et raison: les fondements de la morale selon Locke*, Paris, Vrin, 1991
- VON LEYDEN, W., *Hobbes and Locke, the Politics of Freedom and Obligation*, New York, St. Martin's Press, 1982

GOBERNUARI BURUZKO TRATATU BI
IOHN LOCKE
SALUS POPULI SUPREMA LEX ESTO
LONDRESEN ARGITARATUA MDCLXXXVIII

ONDOKO EDITOREEK SEIGARREN ALDIZ ARGITARATUA: A. MILLAR, H. WOODFALL ETA B. WHITE, I. RIVINGTON, L. DAVIS ETA C. REYMERS, R. BALDWIN, HAWES CLARKE ETA COLLINS; W. JOHNSTON, W. OWEN, I. RICHARDSON, S. CROWDER, T. LONGMAN, B. LAW, C. RIVINGTON, E. DILLY, R. WITTHY, C. ETA R. WARE, S. BAKER, T. PAYNE, A. SHUCKBURGH, I. HINXMAN

MDCCLXIII

GOBERNUARI BURUZKO TRATATU BI

LEHENEAN SIR ROBERT FILMER ETA BERE
JARRAITZAILEEN PRINTZIPIO ETA OINARRI
FALTSUAK ATZEMAN ETA BALIOGABETUKO
DIRA.

BIGARRENA GOBERNU ZIBILARI BENETAN
DAGOZKION EREMU ETA JATORRIZKO XEDEEN
GAINEKO ENTSEIUA DA.

1764.EKO ARGITARATZAILEAREN OHARRA

Liburuaren edizio hau autorearen bizitzan zehar argitaratutako beste hirurekin erkatu da. Egileak eginiko azken zuzenketa eta hobekuntzak ere jaso dira, Christ College-en (Cambridge) gordetzen den ale batetik hartu ondoren, berau Peter Coste jaunari bidali zion autoreak berak, eta argitaratzaile honek ezagutzeko aukera izan du.

1.

SARRERA

Irakurle:

Honakoa gobernuari buruzko diskurtsoa duzu, hasieratik bukaeraraino. Ez dizut kontatuko —ez du ahalegina merezi— erdian joan behar zuten orrialdeei zoriak zer nolako patua ekarri dien; hori bai, esan beharra dago bazela gainontzekoa baino luzeago. Espero dut geratzen diren orriak nahikoak izanen direla gure errestoratzailerik handia, gure errege William, tronuan irmo finkatzeko eta dagokion titulua berresteko. Gobernu bat legitimatzen duen herri onespenerekin lortu zuen hark titulua, kristautasuneko beste edozein printzek baino argiago eta osoago. Esperantza dut, modu berean, diskurtso honek Ingalaterrako herria goraiatzeko balioko duela ere; herri honek duen maitasuna bere eskubide natural eta justuekiko eta hauek mantentzeko eginiko ahaleginek salbatu zuten nazioa, esklabotasunean eta hondamendian erortzeko zorian zegoen une hartan. Lortzen badut orrialde hauetan ebidentzia hori aurkeztea, orduan, falta direnen galera ez da handia izanen, eta nire irakurlea kontent dateke beraien faltan ere. Uste dut ez dudala betarik izanen, ez eta gogorik ere, igarotako min eta nekeak osteratzen bizi eta erantzunetik falta dena berriz ere

osatzeko, eta berriz ere jarraitzeko Sir Robert Filmerren arrazoiketaren iluntasun eta makurdura guztiak, haren sistema itzel hori aztertzen duen edozeinek topatuko dituenak. Nazioa gorpuzten duen gure erregek hain argi errefutatu duenez haren hipotesia azken aldi hauetan, ez dut uste inor ausartuko denik gure segurtasun komunaren aurka egiten eta esklabotasuna berriz defendatzen, edo eta inor hain ahul izanen denik taxuz eraikitako paragrafoz eta tankera herrikoiaz apainduriko kontraesan amaraun horretan erortzeko. Inork bere kabuz hartuko balu hemen aztertzen ez diren Sir Roberten pasarteak ikerketa, diskurtsoetatik apaingarri eta zalantzazko adierazpideak erauziz, eta hartuko balu nekea haren hitzak proposizio zuzen, argi eta ulergarri bihurtu eta elkarren artean erkatzeko, laster konturatuko litzateke inoiz ez dela hain ingeles ederrean horren hitz-jario luze eta zentzugabea adierazi. Norbaitek pentsatuz gero ez duela merezi haren lan guztiak aztertea, behintzat egin beza esperimientua usurpazioaren gainean esaten duenarekin, eta saia bedi —ahal balu— bere adimen osoa erabiltzen Sir Robert ulergarri eta zentzuzkoa egiteko, bai hura bere buruarekiko zein sen onak dioskunarekiko. Ez nizkioke horrelako hitz gordinak zuzenduko jaun bati —bestetik, aspalditik ez du merezi erantzutea ere— ez balitz azken urteotan pulpituak haren dotrina bere egin duelako publikoki, egun darabilen teologia bilakatu duelarik. Euren buruak irakasletzat dituzten horiei, modu arriskutsuan hainbeste jende nahastu dituztenei, itsuan jarraitu duten patriarka horren autoritatea zertan datzan erakutsi behar zaie. Horrela, zuzendu ahal izanen dute manten ez daitekeen arren aldarrikatu duten fundamentu ahul hori, edo utz diezaiokeste justifikatzeari Ebanjelioa bailiran predikatzen dituzten oinarri horiek, ez baitute gortesau ingeles bat baino autore hobeagorik. Ez nukeen inoiz Sir Roberten kontra idatziko, ez eta nekerik hartuko nabarmentzen bere akats, kontraesan eta froga biblikoen gabeziak (horrelako frogak harrotasunez aipatzen dituen arren eta dena horietan oinarrituta eraikitzen duela sinistarazi nahi badigu ere), ez balitz gure artean

badaudelako —haren idatziak aldarrikatu eta haren doktrina bere eginez— libratzen nautenak hilda dagoen aurkari bati kontra egiteak dakarren gaitzespenetik. Hain kontu handia hartzen dute gai honetan, ziur nago, zerbaitetan bidezko ez den kalterik egin izan badiot, ez didatela barkatuko. Gustatuko litzaidake, eurek egiari eta publikoari oker egin dietenean, esandakoa zuzentzeko disposizio bera agertuko balute, eta jaramon eginen baliote ondoko gogoeta honi: printzeari eta herriari egin dakiokeen kalte handiena gobernuari buruzko nozio faltsuak zabaltzea da. Azkenik, hori egiteari uzten diotenean, ez dugu arrazoi gehiago izanzen kleriko handiputz horien-gatik kexu izateko. Norbaitek, egiaren bila, nire hipotesiak errefutatuko balitu, nire hitza jateko edo esandakoari erantzuteko prest nago ezbairik gabe. Gauza bi hartu beharko ditu kontuan ordea.

Lehenik, nire diskurtsoaren adierazpen edo xehetasun txiki batzuei bilaturiko oztupoak ez direla nire liburuarentzat erantzun.

Bigarrenik, ez ditudala irainak argumentutzat hartuko, are gutxiago jaramon eginen. Aitzitik, behartutzat dut nire burua gai honi zor zaion arreta ematen dion orori —dauzkan zalantzentzat taxuzko zioak dituenen— erantzuna emateko.

Azkenik, irakurleari ohartarazi nahi nioke testuan *O* agertzen denean, *Observations on Hobbs, Milton & c.* aipatzen dela. Orrialde baten bat aipatzen denean, berriz, haren *Patriarcha*-z ari naiz.

I. KAPITULUA

1. Atala. Lehen tratatuan ondokoa frogatu da:

1. Pentsarazi nahi zigutenaren kontra, Adanek ez zuela munduan aginterik edo bere seme-alaben gaineko autoritate-

rik, ez aitatasunak ematen duen eskumen naturalagatik, ez eta Jainkoak eskainitako kontzesioa dela eta.

2. Hark izatekotan ere, bere oinordekoek ordea ez.

3. Bere oinordekoek izanen balute ere, azaltzen den kasu bakoitzean oinordeko zuzena zein den erabakiko duen lege naturalik edo Jainkoak emanikorik ez dagoenez, ezin dira ziurtasunez erabaki oinordekotza eskumenak, eta hortaz gobernatzea zeini dagokion.

4. Eskumen horiek erabakita egonen balira ere, kontuan harturik aspaldi ahortzi eta galdua dela zein den Adanen leinuko ondorengotza lerro zaharrena, ez dago munduan giza arraza edo sendirik aldarrika dezakeenik bata bestearen gainetik dagoela, eta etxe zaharrenekoa denez jaraunsle izatea dago kiola.

Ene ustez, premisa hauek guztiak aski frogatuak geratu direnez, ezinezkoa da egungo gobernariak probetxurik hartzea edo autoritate izpi tipiena lortzea boterearen iturri kontsideratu den horretatik, hau da, Adanen aginte pribatu eta aitatasun eskumenetatik; osterantzean, zilegi suertatuko litzateke pentsatzea munduko edozein gobernu indarraren eta biolentziaren produktu dela, eta, indartsuena irabazle, gizakiak animalien arauak jarraituz bizi direla elkarrekin. Uste horren arabera bukaerarik gabeko nahasmendu, anabasa, istilu eta sedizioei bide ematen zaienez (eta hauen guztien aurkari sutsuak omen dira aipatutako hipotesi horren jarraitzaileak), beharrezkoa da gobernurako iturri ezberdin bat aurkitzea, beste oinarri bat botere politikoarendako, eta berau eusten duten pertsonak hautatzeko eta ezagutzeko beste modu bat, nolana ere, Sir Robert Filmerrek irakatsi zigunetik ezberdina.

2. Atala. Argi utzi nahi nuke zer ulertzen dudana botere politikoa diodanean; iruditzen zait bereizi behar dela *magis - tratu* batek hiritar batekiko duen boterea, *aita* batek seme-alabekiko duena, *nagusi* batek morroiarekiko duena, edo *sena - rrak* emaztearekiko eta *jaun* batek bere esklaboarekiko.

Botere hauek guztiak pertsona batengan bil daitezkeenez, gaia aztertzen badugu, gobernariaren, sendi bateko buruaren eta itsasontzi bateko kapitainaren botereen artean bereizten ahal dugu.

3. Atala. Hortaz, ene ustetan, *botere politikoa* ondokoa da: heriotza-zigorra dagokien legeak egiteko *eskubidea*, eta beraz gainontzeko zehapen txikiagoetarakoa ere. Lege hauen xedea jabetza arautzea eta babestea da, baita erkidegoaren indarra erabiltzea ere, aipaturiko legeak bete daitezten eta herri-ondarea atzerritarrek eragindako kalteetarik babestuta gera dadin; hau guztia herriaren onerako.

II. KAPITULUA

NATURAZKO EGOERAZ

4. Atala. Botere politikoa ulertzeko eta honek jatorria non duen antzemateko, beharrezkoa zaigu jakitea zein den gizakiaren jatorrizko egoera naturala; honakoa da soilik: askatasun osoko egoera, honen arabera gizakia aske da bere burua eta bere ondasunak iruditzen zaizkion moduan gobernatzeko, beti ere naturaren legeak agintzen duenaren mugen barne. Honetarako ez dauka baimena eskatu beharrik edo eta beste pertsona baten nahien menpe egon behar.

Berdintasun egoera ere bada, horrela, botere eta esku-men oro elkarrenganakoa da, eta pertsona batek ez du besteak baino gehiago. Argi dago maila eta espezie bereko izakiek, promiskuitatean jaio direlarik, naturak eskainitako abantaila eta gaitasun berberez baliatzeko, elkarrekiko berdinak izan behar dutela, lotura edo mendetasunik gabe, beraien jaun eta nagusi den horrek bere nahiaren adierazpen esplizituaz bata bestearen gainetik jartzen ez duen artean, edo eta izendapen argi eta garbi baten bidez haietako bati subiranotasun eta agintetarako eskubide zalantzarik gabea ematen ez baldin badio.

5. Atala. Hooker zuhurraren ustez, gizakien arteko naturazko berdintasuna hain argia eta zalantzarik gabea izanik, parekotasun horretan oinarritzen du gizakiek elkarri zor dioten maitasuna, haren inguruan eraikitzen dira baita ere elkarrenganako betebeharrak, eta bertatik sortzen dira justizia edo karitatea bezalako maxima handiak. Hookerren hitzetan:

«Giza joera naturalagatik bakoitzak bere burua maitatzen duen moduan bere hurkoa ere hala maitatu behar duela konturatu da gizakia, baita, antzekotasunak ikusita, denek neurri bereko arauak jarraitu behar dituztela ere. Izan ere, norberaren arimak biziki desiratzen badu besteengandik gauza onak jasotzea, nola espero dezake desio hori betetzea, ez badu besteengandagoen desio berbera asetua izan dadin zaintzen? Kontuan hartu behar da, natura berekoak izanik, gainontzeko pertsonak ere desio berdina izanen dutela. Beraz, nik desio horren aurkako zerbait egiteak ni lain mindu beharko ditu derrigorrean; kalte eginez gero oinazea baino ezin dut espero, ez baitago arrazoirik pentsatzeko nik eskaintzen dudana maitasuna baino gehiago jasoko dudala besteengandik: hortaz, naturaz nirelakoak diren horiek ni maitatzea biziki desiratzen badut, derrigortuta nago naturaz maitasun bera eskaintzera. Pertsona orok ezagutzen du gu eta gurelakoak direnen arteko berdintasun erlaziotik arrazoi naturalak atera duen arau eta kanon multzoa, bizitza zuzentzeko eratu dena» (*Eccl. Pol.* 1. lib.).

6. Atala. Aitzitik, askatasun egoera bat den arren, ez da orde lizentzia osokoa: naturazko egoeran gizakiak norberaren burua eta ondasunak nahi bezala erabiltzeko askatasun kontrolaezina duen arren, ez dauka bere burua edo bere kargu dauden izakiak suntsitzeko askatasunik, kontserbazio hutsa baino nobleago den xede batek bultzatzen ez duen artean behintzat. Mundu guztia behartzen duen lege natural batek agintzen du naturazko egoera. Arrazoiak —berau baita lege hori— irakasten dio kontsultatzen dionari, guztiok berdinak eta burujabeak izanik, inork ez diela hurkoaren bizitza, osa-

sun, askatasun edo ondasunei minik egin behar. Gizaki guztiak Egile ahalguztidun eta infinituki jakintsu baten sorkuntza direnez, Jaun subirano bakar baten zerbitzari dira, munduan haren nahiagatik eta hura zerbitzatzeko jarriak, harenak hortaz, eta hark eta ez beste inork gura duen artean irautekoak. Denok ahalmen berdinak dauzkagunez, natura beraren partaide garenez, gure artean ez dago elkarren arteko suntsipena baimenduko digun mendetasunik, ez baikara batak bestea erabiltzeko eginak, maila baxuagoko izakiak guretzat eginak diren moduan. Bakoitza bere burua zaintzeko derrigortuta dagoen bezala, ezin duelarik gogoan datorkionean betetzen duen lekua laga, modu berean behartuta dago ahal duen heinean gizateria osoa zaintzera ere, bere bizitza arriskuan ez baldin badago behintzat, eta, hobenduna punitzeko kasuetan salbu, inork ez dezake hurkoaren bizitza ebatsi edo kaltetu, ez eta honen bizitza, askatasun edo osasunari min egin gorputz-atal zein ondasunetan.

7. Atala. Gizakiek hurkoaren eskubideak zapal ez ditzaten, ez diezaioten elkarri min egin eta lege naturala errespetatu dezaten —honen xedea bakea eta gizateriaren osotasuna zaintzea baita— gizaki guztion esku jarri zaigu lege naturalaren gauzatzea, honela, naturazko egoeran edonork du araudi horren hausleak zigortzeko ahalmena, legea bera ez dadin urratuta suertatu. Lege natural hau hutsala izanen bailitzateke, eta honekin batera munduan diren gizonarekiko gainontzeko guztiak, naturazko egoeran inork ez balu edukiko legea gauzatzeko ahalmenik, horrela errugabeak zaindu eta hobenduna zigortzeko. Eta eginiko minagatik pertsona batek bestea zigortzen ahal badu naturazko egoeran, orduan gizaki guztiei dago-kie ahalmen hori. Berdintasun perfektuko egoera horretan batak bestearen gainera ez duenez nagusitasun edo eskumenik, eta lege hori bete dadin pertsona batek egintza bat burutzeko ahalmena badu, nahitaezkoa da gainontzeko pertsonak ere eskubide bera izatea.

8. Atala. Hortaz, hori da pertsona batek besteengan boterea lortzeko daukan modua. Hala ere, ez da botere absolutu edo arbitrarioa, eta ezin da kriminala harrapatzerakoan zehatu momentuko amorruren arabera eta norberaren nahiaren mugarik gabeko nabarkeria jarraituz, baizik eta, lasaituta, arrazoiak eta kontzientziak diotenei erreparatu behar zaie eta legearen urratzeari proportzioz dagokion zehapena ezarri, hau da, konpontzea eta zigorra dakartzanaren arabera. Bi arrazoi hauengatik soilik egin diezaioke min legalki pertsona batek beste bati, eta berez honi deritzogu zigorra. Lege naturala urratzerakoan, hausleak erakusten du ez dela bizi arrazoiaren eta ekitate komunaren arabera, hau da, Jainkoak gizakiei beraien arteko ziurtasunerako jarri dien neurriaren arabera. Beraz, gizateria kalte eta biolentziatik aske mantenduko dituen lotura hori hausten duenean, pertsona hori gizateriarentzat arrisku bilakatuko da. Eta espezie osoari eginiko mina denez, baita honen bake eta ziurtasunari ere, lege naturalak baimenduko du gizaki oro —gizateriaren baitan kaltetuta suertatu gabe biziitzeko eskubidea duen heinean— pertsonen kalte egin diena zigortu edo beharrezko denean suntsi dezan, modu horretan, egindakoagatik damu dadin, eta etsenplu horrek bera edo beste edonor antzeko gaitza egitetik uxa ditzan. Eta kasu honetan, eta zio hauek direla medio, GIZAKI OROK DU ARAU-HAUSLEA ZIGORTZEKO ETA LEGE NATURALA BETEARAZTEKO ESKUBIDEA.

9. Atala. Uste dut batzuei aitzinekoa doktrina arras arraroa irudi dakiekeela; berau kondenatu aurretik, ordea, poztuko ninduke norbaitek azalduko balit edozein estatuk edo printze batek zein eskubideren arabera hil edo zigor dezaketen atzerri-tar bat euren herrialdean eginiko krimen batengatik. Argi dago euren legeek —legegintza-organoak promulgatutako zehapenak direnak direla— ez dutela eraginik atzerri-tarren: ez dira haiei zuzenduak, eta, izatekotan ere, atzerri-tarrak ez leudeke jaramonik egitera behartuta. Erkidego horretako partai-

deen gainean agintzen duen autoritate legegileak ez du atzerri-tarrarengan indarrik. Ingalaterra, Frantzia edo Herbehereetan legegintzarako aginte gorena dutenak, indiar batentzat, beste edonor bezalakoak baino ez dira, autoritate gabeak alegia. Hortaz, lege naturalak ez badu gizakia baimentzen arauen urratzearentzat zigor bat ezartzera, beti ere kasuak eskatzen duen erantzuna ganoraz deliberatu ondoren, ezin dut ulertu edozein erkidegoko magistratuk nola zigor dezakeen beste herrialde batetik datorren atzerritar bat, kontuan izanik azken honen arabera magistratu hark ez duela pertsona orok bestee-gan naturaz duen boterea baino ezer gehiago.

10. Atala. Legea urratzeaz eta arrazonamenduaren arau zuzenetik apartatzeaz gainera —ekintza honek pertsona bat izaki endekatu eta kaltegarri bihurtzen duelarik eta norbera giza naturaren printzipioetatik kanpo dagoela erakutsi—, normalean, beste pertsona bati eginiko kaltea ere egoten ohi da. Kasu horretan, kalteturiko pertsonak, gizaki orok duen zigorra ezartzeko eskubideaz gain, badu kaltea eragin duen horrendik konpontzea eskatzeko izaera bereziko eskubidea. Eta bidezko deritzon beste edonork kaltetutakoarekin bat egin eta lagun diezaioke, kalte egileari ordainaraziz beharrezko estima-tzen den edozer, horrela, eginiko kaltea konpon dezan.

11. Atala. Bi eskubide ezberdin dauzkagu beraz; alde batetik, krimena zigortu eta antzeko deliturik gerta ez dadin neurriak hartzekoa, gizaki orori dagokiona, eta bestetik kaltea konponduko duen konpentsazioa jasotzekoa, kalteturik suerta-tu den horri soilik dagokiona. Magistratuak, duen karguagatik zehapena ezartzeko eskubide orokorra bere esku daukanez, guztion ongiak hala eskatzen duenean legea ez betetzea eraba-ki dezake; hau da, dagokion autoritateagatik delituen zigorra bertan behera utz dezake. Aitzitik, ezin du ezereztu pertsona konkretu bati jaso duen kalteagatik zor zaion konponbidea. Kalteturiko pertsonak du bere izenean konpentsazioa eskatze-ko eskubidea, eta hortaz berak bakarrik egin diezaioke uko.

Kaltetutakoak arau-hauslearen ondasunak edo zerbitzua jasotzeko boterea du, bere burua babesteko duen eskubidea dela eta; modu berean, gizaki orok du —berriz ere gerta ez dadin— krimen bat zigortzeko eskubidea, gizateria osotasunean babesteko denok dugun eskubideak baimenduta, eta xede horrekin arrazoizkoa den edozein egintza burutzeko eskubidea ere badu. Modu honetan, naturazko egoeran, edonork du erailea hiltzeko boterea; alde batetik, beste batzuk horrelako kaltea egitetik uxatzeko, ez baitago konpentsaziorik heriotza konponduko duenik, eta kasu honetan guztioi dagokigu etsenplua emanen duen zigorra ezartzea, eta, bestetik, gizakiak gaizkile baten ekintzetatik babesteko. Gaizkile honek, arrazoiari zein Jainkoak emandako neurri eta legeei uko egin dienez, gizateria osoari gerra deklaratu dio, bere kideetako baten gainean eragindako biolentzia eta hilketagatik; hortaz, lehoia edo tigrea akabatzen diren moduan deuseztatzen ahal da, edo gizakia berarekin erkidegoan ziurtasunez bizi ez daitekeen beste edozein basapiztia bezala. Aitzinean aipatutakoan datza ondorengo naturaren lege garrantzitsua: Gizakiaren odola isurtzen duenak, berea ere galduko du. Kainek berak hain argi zeukanez gizaki orori zegokiola mota horretako gaizkilea hiltzeko eskubidea, bere anaia erail ostean ondokoa egin zuen oihu: «Aurkitzen nauenak, hark hilko nau». Argi denez, gizakiaren bihotzean benetan barneratua zegoen ideia hau.

12. Atala. Modu berean, norbaitek bederen galde lezake naturazko egoeran gizaki batek heriotza-zigorrak punitu dezakeen legearen arau txikiagoen haustea. Nire erantzuna hau da: arau urratze bati dagozkion zigorraren mailak eta gogortasunak nahikoak izan behar dutela urratzailea galtzen irten eta damu dadin eta antzeko ekintzaren bat burutu nahi duena ere izutu dezan. Naturazko egoeran egiten den gaitza errepublika batean eginikoa bezala zigor daiteke. Oraingoan ene helburuetatik haratago dago naturazko legearen zigorraren zehaztasunak aipatzea, hala ere, lege hori egon badago, eta izaki arrazional

batentzat eta legearen adituarentzat herrialde ezberdinen legeak bezain ulergarri eta argia dateke. Are gehiago ez bada, arrazoia errazago ulertzen denez gizakien ameskeria eta amarru okerrak baino, izan ere, mintzatzerakoan interes kontrajarriak ezkututzen baitira. Aitzinekoa argi ikusten da herrialde ezberdinetako udal-legeetan: daukaten zuzentasun maila naturazko legeari hurbiltzen diren heinekoa baita, horren arabera arautu eta interpretatu behar dira eta.

13. Atala. Doktrina bitxi honen aurrean, hau da, naturazko egoeran gizaki orok lege naturala betearazteko boterea duela dioten horren aurrean, ziurrenik norbaiti irudituko zaio ez dela arrazoizkoa gizakiak parte diren kasutan epaile izatea, nork berarekiko maitasunak alderdikieriaz ekitera eraman baititzake, beraien edo lagunen onerako, ala, alderantziz, itsukeriak, grinak eta mendeku nahiak urrunegi eraman ditzakeelako beste pertsonak zigortzeko orduan. Honetatik guztitik anabasa eta nahasmendua baizik ez datoz, hortaz, Jainkoak gobernua eskaini digu gizakien arteko alderdikeria eta biolentzia eragozteko. Ezin ukatu naturazko egoerak eragiten dituen arazoentzat konponbide egokiena gobernu zibila dela. Arazoak larriak izanen dira benetan gizakiak nork beraien kasutan epaile izan badaitezke, ez baita zaila irudikatzea bere anaiari kalte egiteko bezain bidegabea denak ezin duela bere burua kondenatzeko lain zuzena izan. Gustatuko litzaidake, ordea, objekzio hau plazaratzen dutenek gogora dezaten monarka absolutuak gizakiak baino ez direla; beraz, naturazko egoeran, aipaturiko arazo larriak sortzen omen dira, gizakiak parte diren kasutan epaile suertatzen direlako, eta, naturazko egoera ezin delarik berez sostengatu, gobernua beharrezkoa denean. Baina, hala ere, hobe al da jendetza baten gainean agintzen duen gizon bakarraren gobernua, epaile delarik parte den kasuan, bere menpekoak nahi duen bezala manatzen ahal baditu, bere nahiak betearazten dituzten pertsonak inork ezin baditzake kontrola edo zalantzan jarri, eta bere aginduak bete behar badi-

ra, hauek arrazoizkoak, tronpatuak edo pasiozkoak direlarik ere. Hortaz, naturazko egoeran gauzak hobe dira, gizakia ez baitago hurkoaren bidegabeko nahia betetzera behartuta, eta epaile den horrek ez balu zuzentasunez jokatu, bere alde edo beste baten alde epaituz, bere bidegabekerien erantzule izanen da gizateria osoaren aurrean.

14. Atala. Sarritan ondokoa itauntzen da, kontrako arrazoi indartsua balitz bezala: Non dira, edo izan al da inoiz, naturazko egoeran bizi den gizakirik? Oraingoz nahikoa da ihardestea mundu osoko gobernu burujabe guztietako printze eta agintariak naturazko egoeran direla, eta hortaz argi dago inoiz ez dela munduan falta izan, ez eta faltako ere, egoera horretan dagoen gizakirik. Burujabe diren erkidegoetako gobernariak aipatu ditut, kontuan hartu gabe euren herrialdeek elkarte bat osatzen duten ala ez; edozein hitzarmenek ez baitu gizakien arteko naturazko egoera bukatzen, baizik eta, soilik, batasun politikoa osatuz, erkidego bakarrean elkartzeko hitzarmenak. Gizakiek bestelako promesa eta hitzarmenak egin ditzakete, naturazko egoeran jarraitzen duten bitartean. Esaterako, Garcilaso de la Vegak Peruko historia kontatzerakoan aipatzen dituen trukerako hitzarmen eta salerosketa harreman horiek, edo eta Amerikako basoetan suitzar eta indiar baten artean ematen direnak; gizaki hauek harremanetan jartzen dituen arren, naturazko egoeran egonen dira bata eta bestearen arteko erlazioan. Hitza betetzea eta egia gizakiei dagozkie, gizaki diren artean eta ez erkidego baten partaide diren heinean.

15. Atala. Naturazko egoeran gizakirik inoiz ez dela izan dioten horiek errefutatzeko, lehenik, Hooker zuhurrak esandakoa aipatuko dut (*Eccl. Pol*, I. lib., 10. atala): «Orain arte aipu izan ditugun legeak —hau da, naturaren legeak— absolutuki elkar lotzen ditu gizakiak, soilik gizaki diren artean, berdin du elkarren adiskideak ez izatea eta elkarrekin solemneki ez erabaki izana zer egin ala ez egin; ez gara gai, bizitza duin bat izateko lain, gure naturak beharrezko dituen gauzak gure kabuz

lortzeko. Hortaz, bakarrik bizitzeko gai ez garenez, gainontzeko pertsonen adiskidetasuna eta elkartasuna bilatzen dugu naturalki, eta horregatik elkartu ziren lehendabizi pertsonak gizarte politikoetan». Honetaz gainera, esan behar dut halaber, gizakia naturalki dagoela egoera horretan, eta horrela jarraitzen du, nahita, gizarte politiko baten partaide bilakatzea erabakitzen duen unera arte. Ziur nago erabat argi utziko dudala auzia diskurtso hau bukatzen dudanerako.

III. KAPITULUA

GUDA EGOERAZ

16. Atala. Guda egoera areriotasun eta suntsiketa egoera da. Honela, hitzez edo ekintzaz beste pertsona baten bizitzaren kontra egiten denean —ez amorruez eta unean bertan erabakita, baizik eta egitasmo sosegatu baten ostean—, orduan, horrelako intentzioa erakutsi zaionarekiko guda egoeran sartzen da bat. Modu honetan, pertsona bat arriskuan izanen da, beste batek edo hau defendatzeko borroka berean sartu den batek bizitza ken baitiezaioke. Arrazoizko eta bidezkoa baita eta eskubide osoa duzulako suntsi nahi zaituena zuk ere akabatze-ko. Naturaren oinarritzko legea da gizaki batek bere bizitza babestu eta zaintzea, eta ezinezkoa denean pertsona guztien bizitza babestea, errugabearen segurtasunak du lehentasuna. Hortaz, pertsona batek suntsi dezake bere kontra borrokatu eta areriotasuna azaltzen dion hori, lehoia edo otsoa hiltzen diren arrazoi beragatik. Gizaki hori ez baitago arrazoiaren lege orokorrak bultzatuta, ez du indarraren eta biolentziaren araua baino ezagutzen; beraz, ehizakiei bezala egin behar zaio, hau da, beraien hatzaparretan erortzekotan suntsituko gintuzketen animalia arriskutsu eta kaltegarriei bezala.

17. Atala. Modu honetan, beste gizaki bat bere botere absolutuaren menpe jarri nahi duena, harekiko guda egoeran

sartuko da; egoera hau pertsona baten bizitzaren aurkako asmo oker moduan ulertzen delarik. Badaude arrazoiak pentsarazten didatenak nire onespenik gabe bere menpe jartzen nauenak, egoera horretan harrapatzerakoan, nahi bezala erabili eta, gura izanez gero, suntsituko nindukeela; inork ezin bainau bere botere absolutuaren menpe eduki, ez bada, nire askatasun eskubidea zapalduz, egin nahi ez dudana eginarazteko, hau da, bere esklabo bihurtzeko. Horrelako bortxa batetik aske egotea da nire osotasunerako berme bakarra, eta arrazoiak narama askatasun hori kendu nahi didana areriotzat hartzera; modu honetan, esklabo egin nahi nauen orok nirekiko guda egoeran ezarriko du bere burua. Naturazko egoeran dagoen inori askatasuna kentzen dion horrek, nahitaez iruditu behar zaigu gainontzeko guztia ere kendu nahi diola, askatasuna baita gainontzeko gauza guztien oinarria. Modu berean, gizarte egoeran erkidegoko partaideei askatasuna kenduko liekeenak gainontzekoa ere kendu nahi diela pentsatu behar da halabeharrez, eta, beraz, guda egoeran sartuko da haiekiko.

18. Atala. Aitzinekoak legeztatzen du gizaki batek lapurra hiltzea, azken honek minik egin ez badio ere edo haren bizitzaren aurkako asmorik ez badu azaldu ere, nahikoa da soilik indarra erabili badu dirua edo dena delakoa ebasteko. Eskubiderik izan gabe, bere menpe izan nazan indarra erabiltzen badu norbaitek —bere intentzioa edozein izanik ere— ez daukat arrazoirik pentsatzeko, nire askatasuna kendu ostean, gainontzeko guztia ere kenduko ez didala. Hortaz, zilegi zait nirekiko guda egoeran jartzen den hura bezala hartzea; hau da, ahal badut hiltzea. Horretara arriskatzen da, erasotzailea izanik, guda egoeran sartzen dena.

19. Atala. Eta horretan datza naturazko egoeraren eta gudazkoaren arteko ezberdintasun argia. Pertsona batzuek nahasten badituzte ere, bata bestetik erabat ezberdinak dira: bake, intentzio on eta elkarren arteko babes eta laguntasun egoera, alde batetik, eta, bestetik, areriotasun, intentzio oker,

eta elkarren arteko biolentzia eta suntsipen egoera bezain ezberdinak. Naturazko egoera ondokoa da: gizakiak arrazoia-
ren arabera bizitzea, munduan inor bata bestearen gainetik ez dagoelarik eta batzuek besteak epaitzeko ahalmena dutelarik. Alderantziz, bortxa, edo norbaiten aurka indarra erabiltzeko intentzio deklaratu —nagusiago bati laguntza eska ezin dakiokelarik—, hori da guda egoera. Laguntzarik eza da giza-
ki bati gudarako eskubidea ematen diona, erasotzailea erkide-
go bereko partaide izanik ere. Horrela, daukadan guztia ebatsi didan lapurraren kasuan, legeak araututakora jo beharko dut, aldiz, zaldia edo beroki bat baino ez bada ere, indarrez ebasten saiatzen dena hiltzen ahal dut. Nire babeserako sorturiko lege horrek —ezin duenez ene bizitza bortxaren erabileratik babes-
tu, eta bizitza galduz gero konponbiderik ez dagoenez— ahal-
mena ematen dit defenda nadin, baita gudarako aukera ematen ere, eta erasotzailea hiltzekoa, hark ez baitu denborarik lagako epaileak legearen arabera erabakia har dezan, eta gerta daiteke eginiko okerrak konponbiderik ez izatea. Autoritatea duen epaile baten faltan, gizaki oro naturazko egoeran izanen da; bidezko ez den bortxak, aldiz, guda egoera dakar, epailerik egon ala ez.

20. Atala. Indarraren erabilera bukatzerakoan, orde, honekin batera amaitzen da erkidego berean diren horien arteko guda egoera, eta alderdi biak legeak agindutakora behartuta daude. Orduan, eginiko kalteagatik konponbidea lortzeko aukera baitago, eta etorkizunean kalterik gerta ez dadin neurriak hartzekoa. Alabaina, lege positiborik edo epaile aginpi-
dedunik ez dagoen kasuetan —eta hori da naturazko egoeraren kasua—, behin guda egoera hasita, honek ez du bukaerarik, eta errudun ez den alderdiak beste alderdia suntsitzeko eskubidea du, ahal izanez gero; erasotzaileak bakea eskaini eta errekon-
tziliazioa bilatzen duenera arte, nolanahi ere, eginiko kaltea konponduz eta errugabeari ziurtasuna emanda. Are gehiago, legeak araututakora eta epaileengana jotzea dagoenean, baina

justiziak nabarmenki okerreko bidea hartzen badu, eta legeak lotsagabeki desbideratzen badira gizaki edo gizatalde batzuen biolentziaren eta delituen alde, kasu horretan guda egoeraren aukera baino ez da geratzen. Bortxa erabili eta kaltea eragiten den bakoitzean, justizia administratzeko aukeratua izan den horretatik badator ere, beti ere indarkeria eta kaltea izanen da; berdin du legearen izen, antza edo itxurarekin epaitzen bada ere. Legearen xedea errugabeari babeseta eta konponbidea eskaintzea da, haren agintearen menpe dauden guztien gaineko gauzatze inpartzial baten bidez. Legea *bona fide* ezartzen ez den bakoitzean sufritzen dutenei guda egiten zaie; hauek ez dutenez munduan nork defendatu, daukaten irteera bakarra Zeruari laguntza eskatzea da.

21. Atala. Guda egoera (Zeruari laguntza eskatzea baino ez dagoenez, elkarren arteko edozein diferentzia txikik sortu dezake egoera hau, eta ez dago autoritaterik alderdien arteko auzian erabakiko duenik) saihestea da pertsonak gizartean biltzera daramatzan arrazoi handienetako bat, naturazko egoeratik aldenduz. Agintea dagoen lekuan, Lurreko botere bati konponbidea eska dakiokelarik, guda egoerari bukaera ematen zaio, auzia botere horrek erabakitzen baitu. Jefta eta amonitarren garaian Lurrean horrelako gorte gorenik izan balitz, euren arteko auziak ez zituzkeen guda egoerara eramango; Jeftak, ordea, Zeruari laguntza eskatzea baino ez zuen izan. «Izan bedi gaur Jauna gure Epaile», esan zuen hark, «Israelgo seme-alaben eta Amonen seme-alaben artean» (*Jugeak* 11, 27), ondoren, erabakia Jainkoaren epaian esku utzita, borrokara abiatu zen bere gudarostearekin batera. Hortaz, auzi mota hauetan nork izan behar duen epaile itauntzen denean, ez gara ari zein den auzia epaitu behar duenaz; aitzitik, edonork daki Jeftaren arabera Jainkoari dagokiola epaia. Lurrean ez bada epailerik, Jainkoarengana jo behar da. Beraz, itaunaren helburua ez da jakitea nor izanen den epaile norbait ene aurka guda egoeran jartzen denean, edo ea Jeftaren moduan egin dezake-

dan Jainkoarengana joz; ni baino ez naiz epaile nire kontzien-
tziaren aurrean, ni bainaiz egun handi horretan gizaki guztien
Epaile Goren horren aurrean erantzungo duena.

IV. KAPITULUA

ESKLABOTASUNAZ

22. Atala. Gizakiaren naturazko askatasuna honakoan datza: botere lurtar goren baten, edozein pertsonaren autoritate legegilearen edo honen nahiaren menpe ez egotean, beti ere, jarraitu behar den arau bakarra lege naturalak ezarritakoa delarik. Gizartean, berriz, honakoan datza gizakiaren askatasuna: erkidegoaren adostasunez erabakitako boterearen eta ez besteren menpe egotea; eta, beregan jarritako konfiantzaren arabera, soilik botere legegile horrek erabakitakoaren menpe egon behar delarik, jaramonik egin gabe bestelako jatorria duten nahiei edo legearen murrizteei. Askatasuna ez da hortaz Sir Robert Filmerrek dioskuna (*Observations*, A. 55): «bakoitzak nahi duena egiteko eta nahi duen bezala bizitzeko libertatea, eta ezein legeren menpe ez egotea». Alderantziz, gobernupean, indarrean egonen den jokabide-arau bat edukitzea da gizakiaren askatasuna. Araua gizarteko kide guztientzat orokorra izanen da eta aukeratutako botere legegileak eginga; honek kontrakoa agintzen ez duenean, gura dudana egiteko askatasuna ere bada, eta beste pertsona baten nahi aldakor, zalantzatsu, ezezagun eta arbitrarioaren menpe ez egotea. Naturazko askatasuna lege naturalak ezarritako murrizketei soilik jaramon egitea da.

23. Atala. Botere absolutu eta arbitrariotik aske izate hori hain beharrezkoa da, eta gizakiaren iraupenarekin hain du lotura estua, ezin dela alde batera utzi, ez bada gizakiaren osotasuna eta bizitza galtzeko zorian jarri gabe. Gizakiak, ez daukanez bere bizitzaren gainean botererik, ezin du ez akordioz, ez bere nahiaren arabera, bere burua beste pertsona

baten esklabo bihurtu, ezin du ere bizitza ken diezaiokeen beste pertsona baten botere absolutu eta arbitrarioren menpe egon. Inork ezin dio berak ez duen boterea beste bati eman; bere buruaz beste egiteko eskubidea ez duen horrek ezin dio beste pertsona bati haren bizitzaren gaineko botererik eman. Horrela, norbaitek nork bere erruz heriotza merezi duen ekintzaren bat egiterakoan bizitzeko eskubidea galdu badu, honen bizitzaren zordun den hark (bere menpe daukanean) erabaki dezake ez hiltzea, aldiz, zordunaren bizitza bere probetxurako erabiltzea hauta dezake; ez du horregatik kalte egiten. Zordunak, esklabo bizitzaren gogortasunagatik, bizirik egoteak merezi ez duela pentsatzen duenean, badauka bere ugazabaren nahiei uko egitea eta merezi duen heriotza jasotzea.

24. Atala. Berez, esklabotasun egoera ondokoa baizik ez da: konkistatzailearen eta gatibuaren arteko guda egoeraren jarraipena. Hitzarmenaren bidez erabakiko balute alderdi baten boterearen mugatzea eta beste alderdiaren obedientzia maila, guda eta esklabotasun egoera bukatuko lirateke, hitzarmenak dirauen artean. Esandakoaren arabera, beraz, inork ezin dio ez daukana beste bati akordioz eman, kasu honetan, bere bizitzaren gaineko boterea.

Aitortu behar dut judutarren zein beste herrialde batzuetako biztanleen artean ohikoa zela nork beraren burua saltzea. Aitzitik, argi dago derrigorrezko langile moduan jarduteko zela eta ez esklabo bezala; bistakoa da bere burua saldu zuen pertsona ez zegoela botere despotiko, arbitrario eta absolutu baten menpe. Ugazabak ezin zuen inolaz ere hura hil, eta une jakin batean haren zerbitzua amaitzean libre utzi beharko zuen. Horrelako esklaboen ugazaba benetan urruti zegoen botere absolutu horren jabe izatetik, izan ere, ez zeukan nahi bezala haiek elbarritzeko eskubiderik; begi edo hortz baten galera nahikoa zen haiek libre utzi behar izateko (*Exodoa XXI*).

V. KAPITULUA

JABETZAZ

25. Atala. Arrazoi naturala kontuan hartzen badugu, gizakiak jaio ostean bizirik irauteko eskubidea duela ikusiko dugu, eta, ondorioz, jateko, edateko eta naturak eskaintzen diona hartzeko eskubidea ere. Bestetik, Errebelazioaren arabera, Jainkoak Adan, Noe eta honen seme-alabei hainbat dohain eskaini zien munduan. Argi dago, hortaz, —David erregeak dioen moduan (*Salmoak* CXV. 16)— Jainkoak gizakiari eman ziola Lurra, gizateria osoarentzat orokorrean. Aitzinekoa ikusita, askori arras zaila suertatuko zaio irudikatzea nola izan dezakeen inork zerbaiten jabetza. Niri dagokidanean, esan behar dut, Jainkoak mundua Adan eta orokorrean honen oinordekoei emanik, zaila gertatzen bada jabetza ulertzea, are gaitzago, ala ezinezkoa, iruditzen zaidala asmatzea gizaki bakarrik nola izan dezakeen jabetzarik ere, ez delarik monarka unibertsala, suposatuz gero Jainkoak mundua Adani eta honen ondorengoei eskaini ziela, emari honetatik gainontzeko oinordeko guztiak baztertuz. Zinez saiatuko naiz argitzen nola irits daitekeen gizakia Jainkoak gizateriari orokorrean eskainitakoaren zati baten jabe izatera, gainera, emari hori dagokien arteko hitzarmen zehatz baten beharrik gabe.

26. Atala. Jainkoak gizakiari mundua amankomunean emateaz gain, arrazoia ere eskaini zion, honekin bizitzari ahalik eta probetxu gehien atera ziezaion. Gizakiak Lurra eta bertan dagoen guztia jaso zuen, bere ongizaterako eta iraupenerako. Lurrak naturalki emaniko fruituak eta hauetaz elikatzen diren animalia guztiak gizateriari dagozkio orokorrean, naturak espontaneoki ekoizten baititu, eta inork ez dauka printzipioz —gainontzeko gizakiak baztertuz— hauengan jabetza pribaturik, modu horretan daudelako beraien egoera naturalean. Aitzitik, gizaki ororen onerako diren arren, egon behar du moduren bat haiek eskuratzeko, probetxu atera behar bazaie

edo pertsona konkreturen baten onerako izan behar badira. Indiar basatiak ez du ezagutzen mugarik edo esparru itxirik, eta ondasunak auzokideekin batera amankomunean partitzen ditu oraindik. Indiarra elikatzen duen fruitua edo oreina, orde, berea baino ez da; hain da berea —hau da, bere parte edo zati— beste inork ezin lortuko baitu elikagai haiekiko eskubiderik indiar horrek bere bizi-iraupenerako probetxua ateratzen dion artean.

27. Atala. Lurra eta bertan bizi diren azpi-izaki guztiak gizaki orori dagozkio orokorrean; hala ere, gizaki bakoitza da norberaren jabe eta bere gainean ez du beste inork eskubiderik. Bere eskuen lana ere, esaten ahal dugu, berea baino ez da. Beraz, gizakiak zerbait jaso eta naturan zegoen egoeratik apartatzen duenean, bere lana harekin nahastu edo bateratu du, berea den zerbaitekin elkartu du eta hortaz bere egin du. Naturan zegoen egoeratik ateratzerakoan, zerbait jarri du gai hartan gainontzeko gizakiei harekiko eskubidea kentzen diena. Lana langilearen jabetza eztaba daezina denez, berak baizik ez du lan horri elkartu zaionarekiko eskubidea, behintzat gainontzeko pertsonentzat gai horretatik nahikoa, eta langile hark jasotakoa bezain ona dagoen artean.

28. Atala. Arte baten azpitik bilduriko ezkurrez edo basoko sagarrondoetatik jasotako fruituez elikatzen denari, berari dagozkio dudarik gabe elikagai horiek. Inork ezin du uka bereak direnik. Hau da orduan burura datorkidana: Noiztik hasi dira elikagai horiek bereak izaten? Digeritzaerakoan? Jateraerakoan? Egosteraerakoan? Etxera ekartzaerakoan? Jasotzaerakoan? Lehen jasotzeak ez bazituen bere egin, orduan, ez dira inoiz bereak izanen. Lan jardun horrek bereiziko ditu pertsona guztiei komunalki zegokienetik, naturak —gauza guztien ama den horrek— egin ez duen zerbait gehitzen baitaie produktu hauei; beraz, langilearen eskubide pribatu bilakatuko dira. Egon al daiteke inor esango duenik hark ezkur edo sagar horiekiko eskubiderik ez zuela, beretzat hartu zituenean ez zuelako

gizateria osoaren onespénik? Guztioi zegokiguna beretzat hartzea lapurreta al da? Modu horretako guztion adostasun orokorra beharrezkoa balitz, gizaki hori gosez hilik zegokeen, Jainkoak bere esku utzitako oparotasuna usteltzen utziz. Jabego komunala duten gai horietan —adostasunez egoera horretan daudelarik— ikusten ahal da jabetza hasten duena ondokoa dela: naturak utzitako egoeratik zerbait apartatuz, amankomuna zenetik zati baten hartzea. Bestela, komunala den horrek ez luke ezertarako balioko. Zati baten edo besteren hartze hori ez dago komunalki bizi direnen onspén zehatz bati lotuta. Horrela, nire zaldiak jaten duen belarra, nire morroiak biltzen duen soropila edo lurretik jaso dudan minerala —beste pertsona batzuekin eskubidez komunalki badituz ere— nireak izanen dira, beste inoren onspénaren beharrik gabe. Nire lan jardunak gai horiek lehenago zeuden egoeratik aldendu ditue-nez, nireak bihurtzen ditu.

29. Atala. Beharrezkoa balitz mankomunitatean bizi diren bakoitzetakoaren onspéna, komunala den horren zati bat edonork har dezan, orduan, seme-alabek edo morroiek ezingo zuten euren aitak edo ugazabak denentzat emaniko haragia partitu, bakoitzari dagokion zatia ez legokeelako erabakita. Iturriari darion ura denona den arren, nork eztabaida lezake pitxerrean dagoena urez bete zuen horrena dela? Bere lan jardunak naturatik hartu zuen, bertan denona zen, guztiontzat berdín, baina hartzerakoan gai hartaz jabetu zen.

30. Atala. Horrela, arrazoiaren lege hori dela medio, oreina, hil zuen indiarrarena izanen da. Indiarrari zilegi zaio bere ondasuntzat hartzea, gai horren eskuratzéan bere lan jarduna ezarri baitu, ondasun hori lehenago pertsona ororena zen arren. Gizateriaren parte zibilizatuan bizi direnen artean, jabetza finkatzeko hainbat lege egin dituzten horien artean hain zuzen, oraindik indarrean jarraitzen du aurretik komunala zena beranduago norbaitena izanen dela erabakitzen duen lege horrek, naturan jatorria duenak. Eta honen arabera, amanko-

munean gizateria osoarena den ozeanotik arrantzatutako arraina edo bertatik jasotako anbar arrea, bere lan jardunaren bidez naturan zegoen egoeratik ateratzeko nekea hartu duen horrenak dira. Gure artean ere, ehizatutako erbia, harrapatzea erdie-tsiko duen horrena da. Denona den animalia bat izanik eta ez pertsona konkretu batena, haren naturazko egoeratik apartatzeko —bertan pertsona ororena baitzen—, aurkitzeko eta harrapatzeko nekea hartu duenarena izanen da, eta horrela emanen zaio hasiera jabetzari.

31. Atala. Apika baten bati irudituko zaio lurretik ezkur eta fruituak biltzeak hauekiko eskubidea finkatzen duenez, orduan, edonork jaso ditzakeela nahi beste. Honi ezetz iharde-tsi behar diot. Jabetzaren aukera ematen digun lege naturalak berak jartzen dizkio jasotzeari mugak. Inspirazioak berresten du arrazoiaren bozaz, «Jainkoak eskaini dizkigu gauza guztiak oparotasunez» (I *Tim.* VI. 17). Baina zertarako eskaini dizki-gu? Goza ditzagun. Lan jardunaren bidez gai batean jabetza finka daiteke, gai hura galdu baino lehen probetxua atera dakioken heinean. Baina neurri honetatik kanpo egiten denean, pertsona bati dagokiona eta gainontzekoena dena gaindi-tzen da. Jainkoak ez zuen ezer sortu gizakiak suntsi edo gal-tzen utz zezan. Hortaz, kontuan hartuta antzinatek munduan izan den elikagai eta hornidura piloa, kontsumitzaile eskasak, eta —gainontzeko pertsonen kalterako— gizakiaren ahalmen murrizta hornidura hori eskuratu eta beretzat gorde eta meta-tzeko, argi dago aipatutako moduan sortutako jabetzatik ez dela liskar edo kalapita handirik hasiko.

32. Atala. Oraingoan, berriz, ez gara arduratuko lurrak emandako fruituez eta lurrean bizi diren animaliez, baizik eta lurraz beraz, honek ematen baitu gainontzeko guztia. Ene iru-diz argi dago lurraren jabetza gainontzeko gauzentzat aitzine-an aipatu dugun modu berean sortzen dela. Lur jabetzaren neurria gizaki batek landu, erein, zaindu, laboratu, eta probe-txu atera diezaiokeen araberakoa izanen da. Bere lan jarduna-

rekin hesitzen du —nolabait esateko— lur hori, komunala denetik bereiztuz. Eta eskubide hau ez du baliogabetzen esateak lur eremu horren gainean edozeinek duela pertsona haren eskumen bera, eta, hortaz, honek ezin duela beretzat hartu, ezin duela hesitu ez bada bere kideen onespenez, gizateria osoarenaz. Jainkoak mundua gizateria osoari orokorrean eskaini zionean, lan egiteko beharra ere inposatu zion. Eta gizakiaren izaera eskasak hala eskatzen du. Jainkoak eta bere arrazoiak behartu zuten gizakia lurra menderatzera, hau da, bizitzarako lurretik ahalik eta ondasun gehien ateratzera, eta etekin hau lortzeko berea den zerbait eman beharko du: lana. Jainkoaren agindu hau betetzen duenak, lurra menderatzean eta honen zati bat erein eta laboratzerakoan, berea zen zerbait eman zuen, beste inorena ez zena eta inork har ez zezakeena kalterik egin gabe.

33. Atala. Eta ustiaketaren bidez egiten den jabetze honek ez zien gainontzeko gizakiei inolako kalterik suposatzen, oraindik landu gabeko lur sail piloa geratzen baitzen, probetxua atera zekiokeena baino askoz ere lur gehiago, nahikoa eta kalitatez landuarena bezain ona. Modu horretan, pertsona batek lur eremu bat hesitzen bazuen ere, ez zuen gainontzeko-entzat geratzen zena gutxitzen. Beste batek erabiltzen ahal duena adina lur uzten denean, ezer ere hartuko ez balitz bezala da. Inor ez da kalteturik suertatzen norbaitek ur hurrupa handia egiten badu, bedi nahi bezain handia, alboan egarria asetzeko ibai bat ur dagoenean. Urarena eta lurrarena, bietatik nahikoa dagoenean, kasu berbera da.

34. Atala. Jainkoak gizaki guztiei eskaini zien mundua, baina kontuan harturik beraien onurarako eta ahalik eta etekin gehien lortzeko eman ziela, ez da suposatzekoa lurrak komunal eta landu gabe egon beharko zukeenik betiko. Gizaki langile eta arrazoizkoari eskaini zion (eta lan jardunak emanen zion hari lurraren gaineko titulua), ez liskarzale eta alferren ameskeria eta zekenkeriak elikatzeke. Beste batzuek hartuta-

koa adina beretzat daukanak ez du zergatik hurkoaren lanak hobetutakoaz atsekabetu behar, ez eta hura beretzat eskatu behar. Eginen balu, argi geratuko litzateke bere intentzioa beste pertsona baten nekeak sortutako etekina lortzea dela, horretarako eskubiderik gabe, eta ez zaizkiola interesatzen Jainkoak denoi amankomunean emandako lurrak, hauetarik oraindik inork hartutakoa bezainbeste geratzen da gainera, eta edonork laboratu edo erabiltzeko baino askoz ere gehiago.

35. Atala. Egia da Ingalaterran edo hiritar asko dagoen beste edozein herrialdetan, merkataritza eta moneta ezagunak direlarik eta gobernu bat gidari delarik, lur eremu komunalak ezin daitezkeela hesitu edo norberarentzat hartu, ez bada jabe-kide guztien onespenez. Komunala baita, horrela onetsi delako eta herrialdeko legeak horrela arautzen duelako, eta legea lege den heinean ez da hautsi behar. Gizaki batzuek elkarren artean banatu badute ere, jabetza ez dagokio gizateria osoari, baizik eta herrialde edo parrokia horretako pertsoneri. Bestalde, zati bat hesituko balitz, beharbada gainontzeko lurrak beste jabekideentzat ez lirateke lur eremu osoa bat eginda zegoenean bezain onak. Mundua jendeztatzen hasi zenean, aldiz, egoera oso bestelakoa zen. Egoera hartan, gizakia gidatzen zuen legeak lurraz jabetzera eramaten zuen. Jainkoak gizakiak lan egin zezan nahi eta agintzen zuen. Lan jardun hori pertsona bakoitzaren jabetza zen eta ez ziezaiokeen inork ken behin zerbaite-tan finkatzerakoan. Horregatik beti doaz batera lurraren laborantza eta jabetza. Batak besterako titulua ematen du. Modu horretan, bada, Jainkoak gizakiari lurra labora dezan agintzen dionean, hartaz jabe dadin ere baimentzen du. Giza bizitzaren kondizioak —lana eta lan hori aplikatzeko materiala beharrezko direlarik— eskatzen du derrigor jabetza pribatua.

36. Atala. Naturak ongi irakatsia du jabetzaren neurria zein den: giza lanaren eta bizitzako erosotasunaren eskueran dago muga. Inork ezin ditu lur guztiak bereganatu, aldiz, zati txiki batez baino ezin du gozatu; modu honetan, ezinezkoa zen

inork besteren jabetzan muturra sartzea edo bere auzokidea kaltetuz lur eremu bat bereganatzea; auzokideak oraindik bazeukalako lur nahikoa (beste haren bereganatzearen ostean) jabego are handiagoa sortzeko. Neurri honek gizaki baten jabetza taxuz mugatzen du; honela, munduaren lehen denboratan gizakiak arrisku handiagoa zuen gainontzeko pertsonetatik aldentzerakoan lurralde basati eta zabaletan galtzeko, erein daitekeen lur faltagatik kezkatzeko baino. Egun mundua guztiz populatuta dagoela iruditzen bazaigu ere, neurri bera aplika daiteke inor kaltetuta suertatu gabe. Irudika dezagun Adanen edo Noeren egoera berberean bizi den gizaki edo familia bat: bere soroak Amerika barneko eremu jabegabe batean ezarriko balitu, aipatutako neurria kontuan hartuta, bere jabetza ez litzaiteke handiegia izango, eta gaur egun ere ez lituzke gainontzeko gizakiak kaltetuko, ez lieke kexu izateko arrazoirik emanen, eta ez lituzke gizaki haren inbasioak kaltetuko; eta hau guzti hau horrela da, egun gizakia lurreko zoko guztietara barreiatu den arren, eta hasieran bizi zen jende kopurua erabat gainditzen delarik ere. Are gehiago, laboratu gabeko lurraren balioa hain da txikia, entzun dudanez, Espainian pertsona batek lur eremu bat golda eta erein dezakeela eta bertako uzta jaso, inork enbarazu egin gabe, eremu horrekiko titulurik ez duen arren, erabilerarena soilik. Are gehiago, bertako biztanleak eskertuta daude bere esfortzuarekin lugorria baizik ez zenetik hain beharrezko zaien zereala lortzeagatik. Edonola ere, ez naiz ausartuko gai hau larregi azpimarratzen; ondokoaz ziur nago berriz: jabetzarako neurri berak —hau da, gizaki bakoitzak erabil dezakeena eduki behar duela— munduan indarrean jarrai dezakeela inor kaltetu gabe, munduan lur nahikoa baitago egun bizi diren biztanleen bikoitza elikatzeko. Gauzak horrela ez badira ondokoagatik izanen da: diruaren asmakuntzak eta lurrari balorea emateko gizakien arteko akordio adierazi gabeak jabetza handiagoen ezarpena eta honetarako eskubidea suposatzen duelako (adosturik). Aurrerago itzuliko naiz gai honetara lasaitasun handiagoz.

37. Atala. Argi denez, hasiera batean, beharrezkoa dena baino gehiago edukitzeko gurariak gauzen berezko balioa eraldatu baino lehen —benetako balioa gizakiaren bizitzarako duenaren araberrakoa baita—, eta hondatzen edo alferrik galtzen ez zen metal horiko puzketatxo batek okela zati eder baten edo gari ale pilo handi baten balioa izan behar zuela erabaki baino lehen, garai haietan, bada, gizakiak lan jardunaren bidez naturatik hartzen ahal zuen erabil zitzakeen gauza guztiak; hala ere, inoiz ez zen larregi izanen eta inor ez zatekeen kalte-tuta suertatu, beti geratzen baitzen nahikoa esfortzu bera egitera prest zeudenentzat. Gainera, ez zait iruditzen bere lan jardunaren bitartez lur eremu bat bereganatzen duen horrek gizateriaren bizigaiak txikiagotzen dituenik, handiagotu baizik. Lur eremu hesitu eta laboratuko akre batetik lortzen den moz-kina, lugorrian dagoen kalitate bereko jabetza komuneko lur akre batetik ateratzen denaren hamar aldiz handiagoa da (estimazio txikiaren arabera). Hortaz, lurra hesitu ostean, pertsona horrek elikagai gehiago lortzen du hamar akretik, naturazko egoeran dauden hamarretik lortuko lituzkeenak baino; esan daiteke gizateriari laurogeita hamar oparitu dizkiola, hamar akretik lortzen baitu amankomunean zeuden ehunetik aterako litzatekeena. Laboratutako lurrak emanikoaren estimazioa oso behetik egin dut, benetan proportzioa, hamarretik batekoa barik, ehunetik batekoa baita. Itau haur otutzen zait: Ba al dira Amerikako biztanle dohakabe eta behartsuentzat basa-oihan eta lur laboratu gabeetako mila akre, naturan dauden egoeran daudela, Devonshire-ko hamar akre ongi laboratu baino probe-txugarriagoak?

Lurraren jabetzea baino lehen, basa-fruituak jaso, edo ahal bezain beste animalia ehizatu ala etxekotu, eta naturak berez sortzen zituen produktuak jasotzen zituenak, bere lan jarduna erabiltzerakoan haiekiko jabetza lortzen zuen. Baina bereak zirelarik galtzen baziren, fruituak edo ehizakiak beraietaz baliatu baino lehen usteltzen baziren, orduan naturaren lege

orokorra hautsiko zuen, eta zigorra jasotzen ahal zuen; bere auzokideari zegokiona inbaditu baitzuen, bizitzeko behar zuen horretarako baizik ez baitzuen eskubiderik.

38. Atala. Lurraren jabetza ere neurri berak arautzen zuen. Erein ostean uztan jasotakoa, galtzen utzi gabe jaso eta erabilitakoa, hura zen bakoitzari zegokiona eskubidez. Pertsona batek bere sailetan jaso eta elikatzen zituen abereak ere, eta beraietatik jasotako gaiak, bereak zituen. Bere lur eremuetakoa belarra zoruan usteltzen bazen edo bere alorretako fruituak galtzen uzten bazituen, lur eremu hori, hesitua egon arren, beste edonoren jabetza izatera pasa zitekeen. Horrela, hasieran, Kainek labora zezakeen lur sail adina bereganatu bazuen ere, nahikoa utzi zuen Abelen ardiak bazka zitezen. Familiak handitu eta lan jardunarekin euren aziendak hazi ziren heinean, ordea, erabilitako lur sail kopurua ere handiagotzeko beharra gertatu zen. Aitzitik, normalean lurraren jabetza ez zen zehaztasun osoz zedarritu, harik eta elkarrekin bildu, bizitzeko leku jakinetan finkatu eta hiriak eraikitzea erabaki zuten arte. Denbora igaro ahala, akordioz erabaki zituzten bakoitzaren lurren mugak, auzokide bakoitzari zer zegokion deliberatu, eta gizarte bereko partaide zirenen jabetzak arautuko zituen legeak asmatu. Eta ikus dezakegunez, munduan lehendabizi populatutako leku horretan, eta hortaz jende gehien egonen zen eskualdean, oraindik Abrahamen garaian alde batetik bestera joaten ahal ziren artalde edo abere-taldeekin, askatasun osoz elikatzeko. Abrahamek bera atzerritar zen lurraldean egin zuen hau. Argi geratzen da, beraz, gutxienez lurraren zati handi bat komunala zela; bertako biztanleek ez zutela baloratzen eta ez zutela jabetzarik aldarrikatzen erabiltzen ez zuten heinean. Baina denontzat lekuri ez zegoenean abere-taldeak bazka zitezen, orduan hitzarmen batera heltzen ziren —Abraham eta Lotek egin zuten moduan (*Genesisia* XIII. 5)—, eta horren bidez bakoitza bere aldetik joanen zen eta bere larreak handituko zituen. Arrazoi horrexegatik Esau bere aita

eta anaiarengandik aldendu zen eta Seir mendian finkatu zituen bere lurrak (*Genesisia XXXVI*, 6).

39. Atala. Hortaz, ez dago zergatik pentsatu behar Adanek munduan nagusitasuna edo gainontzeko pertsoneri galara-zitako jabetza pribatua zeuzkanik; uste hau ezin da frogatu, ez du gainera azaltzen nola sortzen den gainontzeko pertsonen jabetza. Alderantziz, suposatuko bagenu mundua gizakiaren seme-alabei eskaini zitzaizela elkarren artean bana zezaten, ikusiko genuke lan jardunak titulu bereziak ematen dituela lurraren sailez probetxu hartzeko; eta horrela ez legoke eskubideekiko zalantzarik, ez eta liskarretarako ziorik.

40. Atala. Ez da ere arras arraroa —lehen begiratuan irudi lezakeen moduan— lan jardunaren jabetzak lurraren komunalatasuna baliogabetzea. Berez, lana baita gauza bakoi-tzari bere balioa dakarkiona. Bestela, ikus bedi tabakoa, azukrea, garia edo garagarra ereinda dauzkan akre baten eta laboratu gabeko lur komunaleko akre baten arteko aldea; argi dagoenez, laborantzak balioa handituko dio. Ez dut uste gehiegizkoa dela esatea lurrak gizakiari bere probetxurako eskaintzen dizkion produktu guztietarik hamarretik bederatzi lan jardunaren ondorio direla. Are gehiago, lasai hausnartuko bage-nu eta zehaztasunez finkatu, erabiliko ditugun gaien kostutik zenbat den natural eta zenbat lana, ikusiko genuke gehienetan ehunetik laurogeita hemeretzi lan jardunari dagokiola.

41. Atala. Aitzinekoa hala dela ondokoak frogatzen du: Ameriketako hainbat nazio lurretan oparo badira ere, bizitzarako erosotasun guztiak falta zaizkie. Gainontzeko herrialdeen kasuan bezala, naturak lehen-gaiez hornitu dituen arren —hau da, lur emankorraz; eta elikagaia, jantzia eta gozamena emanen dien lur naroz—, ez diotenez lan jardunaren bitartez taxuzko probetxurik atera, ez dute gozatzen geuk dauzkagun erosotasunetik ehunen batean ere: lurralde zabal eta oparo bateko erregea etxola zatar batean bizi da eta Ingalaterrako jornalari bat baino okerrago elikatzen eta janzten da.

42. Atala. Hau guzti hau argitzeko, azter dezagun bizi-tzarako beharrezko suertatzen zaizkigun zenbait gaik jarraitzen duten bidea eta guk erabiltzeraino jasango dituzten alda-ketak; berehala ikusiko dugu daukaten balioaren zenbat zor dioten giza jardunari. Ogia, ardoa eta jantziak eguneroko gaiak dira, edonon topa ditzakegunak. Hala ere ogi, ardo edo jantzien lekuan ez genituzke ezkurak, ura eta hosto zein larruak baizik izanen, hain beharrezko zaizkigun gai hauek ez bagenu gure lan jardunaren bidez sortuko. Ogia ezkurak baino estimagarragoa bada, ardoa ura baino, eta jantziak eta zeta, berriaz, hostoak, larruak edo goroldioa baino, hau guztia lanari eta industriari zor zaio. Batzuk naturak laguntzarik gabe eskaintzen dizkigun elikagai eta jantziak baitira, besteak, gure lan jardunak eta nekeak ematen dizkigun bizigaiak; bien arteko aldea aztertzen duen edonork antzemango du diferentzia hori lan jardunak sortzen duela, beronek ematen baitio mundu honetan gozatzen ditugun gauza guztiei daukaten balioa. Eta, emaritzan, lurrari berari zor zaiona ez da kontuan hartzekoa ere, benetan txikia baita; hain da txikia, ezen izenak berak dioen moduan, lur eremu bat naturazko egoeran utzi eta artzaintza edo laborantza bidez ustiatu gabe uztean, *lugorri* deritzogu eta ia ez du onurarik ematen.

Beraz, hobe da pertsona asko egotea, lur sailak arras handiak izatea baino. Lur eremuen handiagotzea eta ustiapena gobernuari dagokio. Boterearen zapalkuntza eta alderdien interes estuen aurka eginez, gizateriaren lan jardun ondradua bultzatzeko eta babesteko gai diren lege askatzaileak burutuko dituen printze jakintsu eta jainkotiarra berehala bilakatuko da indartsuegi alboko lurraldeentzat. Baina hau beste gai bat da, eta goazen harira.

43. Atala. Hemen akre bateko lur eremu batetik hogeitane ga gari ekoizten badira eta Ameriketara, esfortzu berdina erabiliz, kopuru bera ematen badu, orduan berez balio natural berdina dute. Hala ere, beharbada gizateriak batetik lortzen

duen onura bost liberakoa izanen da, baina Ameriketako indiar batek bestetik ateratzen duena balora baledi, ez genuke txakur txiki bat ere erdietsiko, mila aldiz gutxiago lortuko genuke ziu-rrenik. Horrela, bada, lurrari balioa ematen diona lan jarduna da, hau gabe lurrak ez du ia ezertxo ere balio. Lanari zor dizkiogu lurrak ematen dituen gai guztiak; hari esker ere gari akre horretatik lortzen dugun lastoa, zahia eta ogia hobeak dira, laboratu gabe dagoen eremu batekoak baino, lur eremu hau bestea bezain ona den arren. Ogiaren balioa neurtzean ez dugu bakarrik kontuan hartu behar lurra goldatu zuenaren nekea, segelariaren esfortzua eta garia eultzitu zuenarena, edo okinaren izerdia, hor daude ere idiak gidatu zituenaren lana, harriak eta burdina jaso eta galdatu zituztenena, goldean, errotan, labean edo ogia egiteko gainontzeko tresnetan erabiltzen den zura moztu eta tailatu zutenena, hau guzti hau hartu behar da lan jarduntzat, eta kontuan izan bere eragina. Naturak eta lurrak, besterik gabe, ez dute gai erabilgarririk sortzen. Harrituko ginатеke benetan, jakingo bagenu ogi zati bat iristen zaigunerako industrian zein material andana erabili behar izan den: burdina, zura, larrua, egurra, egur-azalak, harriak, adreiluak, ikatza, ongarriak, ehunak, tindagaiak, galipota, mundrunak, mastak, unamak, eta langileei beharrezko zitzaizkien gauzak ekarri dituzten ontzietan erabiltzen diren gai guztiak, lan horretarako erabilitakoak; zerrenda bukaezina benetan, edo behintzat luzeegia.

44. Atala. Honetatik guztitik ikusten da, naturazko gaiak komunean eskaintzen bazaizkigu ere, gizakiak —bere buruaren jaun eta jabe denez eta bere lan jardunaren produktuen— jabetzaren oinarria bere esku zuela. Adimenak eta trebeziak bizitzari erosotasuna ekarri ahala, gizakiak beharrezko eta onuragarri zituen gai horiek beretzat baino ez ziren izanen, eta ez zituen amankomunean partitu beharrik.

45. Atala. Horrela, antzina jabetzarako eskubidea ematen zuena lan jarduna zen, norbaitek komunala zen horri erans-

ten zion bakoitzean. Lur gehiena denbora luzez komunala izan baitzen, eta oraindik ere honelako eremu saldoa geratzen da; gizakiak erabil dezakeena baino askoz ere gehiago. Hasiera batean gizakiari nahikoa zitzaion bere beharrak asetzeko naturak berez ematen ziona, baina beranduago munduko zenbait lekutan (pertsona kopuruaren eta abere-taldeen hazkundeak eta diruaren erabilerak lurra murritzuta eta, aldiz, balioa eman zieten lekuetan) erkidego ezberdinek beraien lurraldeen mugak finkatu zituzten, eta lege propioen bidez erkidegoko partaide bakoitzaren ondasunak arautu; horrela, itun eta akordioen bidez, lan jardunak eta industriak hasitako jabetza finkatu zuten. Estatu eta erreinu ezberdinen artean sortutako aliantzek gainontzekoen lurrei —adierazita edo adierazi gabe— uko egitea suposatu zuen; honela, eskubide natural komunaren arabera lurralde horiekiko zuten edozein aldarrikapen bertan behera utziko zen. Modu honetan, estatuen artean lorturiko akordio positibo baten bitartez, lurraren jabetza erabaki zen, sail eta eremuak elkarren artean banatuz. Hala ere, oraindik lur mordoa geratzen da aurkitzearren, bada biztanle saldoa ere ez zaiona oraindik gizateria osoari batu diruaren erabilerari dagokionean, eta euren lurra laboratu gabe daude oraindik. Lugorrian daudenez eta bertako biztanleak erabil dezaketena baino askoz ere eremu gehiago dagoenez, lurra oraindik komunalak dira. Arraroa da honelako zerbait gertatzea diruaren erabilera ezagutzen duten herrialdeetan.

46. Atala. Gure bizitzarako benetan garrantzitsuak diren gauzetarik gehienak, munduko lehen biztanleek bizirik irauteko beharragatik bilatzen zituztenak, baita egungo amerikarrek ere, gauza horiek, bada, normalean iraupen gutxikoak dira; hau da, ez badira berehala kontsumitzen, azkar usteltzen edo galtzen dira. Bestalde, apetak edo bat-etortzeak urreari, zilarrari edo diamanteei balio handia eman diote, gure bizitzako beharrak asetzeko ematen diegun erabileragatik legokiena baino askoz ere handiagoa. Lehenago aipatu den bezala, pertsona

orok zuen eskubidea naturak gizaki denoi komunean eskainitako gauza on guztiekiko, erabiltzeko gai zen heinean. Bazuen ere naturazko bere egoeratik eralda zitzakeen gauzen jabetza: bere lan jardunaren bidez naturazko egoeratik aldatutako edo zer berea zuen. Ehun anega ezkur edo sagar jasotzen zituenak, jasotzeagatik, horien jabetza zuen; jasotzen zituen eran bere ondare bilakatzen ziren. Baldintza bakarra litzateke usteldu baino lehen erabiltzea, osterantzean berari zegokiona baino gehiago hartu eta gainontzeko pertsoneri ostuko zien. Benetan ergelkeria litzateke, lotsagabekeria izateaz gain, erabil daitekeena baino gehiago jaso eta metatzea. Bestalde, zeukanetik zati bat beste norbaiti emanen balio, —modu horretan, bere gain zegoena usteltzen utzi gabe— zati hori erabili duela kontsidera daiteke. Eta trukean aldatuko balitu aste betean ustelduko litzaizkiokeen aranak urte osoan iraungo lekizkiokeen intxaurren ordez, ez lioke inori kalterik egingo; ez da guztioi dagokiguna xahutzen: bere esku dagoen artean ez bada zerbaite alferrik galtzen, ez da besteei dagokiona suntsituko. Eta laketaion koloreko metal zati baten ordez trukean aldatuko balitu bere intxaurrak, edo bere ardiak maskorren ordez, edo artilea bitxi edo diamante baten ordez, hauek guztiak bizitza osorako irauten duten gauzak izanik, ez luke inoren eskubiderik zapalduko; horrelako gauza iraunkorretarik nahi beste metatzen ahal du. Zuzen lortutako jabetzaren mugak igaroko ditu norbaitek, dauzkan gauzak galtzen uzten dituenean, ez asko metatzen dituelako.

47. Atala. Modu horretan hasi zen erabiltzen dirua, galduko ez zen gauza iraunkorra, elkarren arteko bat-etortzez gizakiek benetan erabilgarriak eta bizitzarako beharrezkoak diren gai iragankorren trukean erabiliko zuten hori.

48. Atala. Lan jarduna maila ezberdinetan burutzeak proportzio diferenteetako jabetzak zekartzanez, diruaren askakuntzak jabetza hauek handitzen jarraitzeko aukera eman zuen. Ezen, demagun badela uharte bat, munduko gainontzeko lekue-

tatik merkataritza harremanetarako erabat apartatua. Bertan ehun familia-edo bakarrik bizi arren, badaude ardi, zaldi, behi eta beste animalia probetxugarri saldoa, fruitu osasungarriak, eta bertakoa baino ehun mila aldiz handiagoa den biztanleria elikatzeko zereala emanen duen lur eremu anitz. Hala ere, gauza gehienak zeharo arruntak edo galkorrak direnez, ez da uharte osoan diruaren funtzioa beteko duen ezer. Horrela, ez dagoke arrazoirik familia baten kontsumoa gaindituko duen jabetza kopurua inork bil dezan, ez eta hornigai kopuru handia metatzekoa ere, soilik lan jardunak eta antzeko gai erabilgarri eta iragankorrak elkar trukatzeko posibilitateak mugatuko lukeelako metaketa. Ez dagoenean urria eta iraunkorra den zer-bait, eta baliotsua izanik gordetzea merezi duena, gizakiak ez ohi ditu bere lur jabetzak handitzen, eremuak oso oparoak izan arren eta berauek metatzeko askatasun osoa eduki arren. Zenbatean baloratuko luke pertsona batek hamar edo ehun mila akre lur bikain, laboratzeko ezin hobeak eta ganaduz hornituak, baldin eta Ameriketako lurretan barren-barrenean baleude, eta han ezin balu munduko gainontzeko lekuekin merkataritza harremanik bideratu eta, hortaz, bere produktuak salduz diruririk lortu? Ez luke lur eremu horiek hesitzeak esfortzua mereziko, eta pertsona hori laster ikusiko genuke norbera eta familia asetzeko beharrezko ez den guztia lehenik naturan zegoen egoeran berriz ere uzten.

49. Atala. Beraz, hasiera batean mundu osoa zen Amerika bezalakoa, orain baino askoz ere antzeragokoa, orduan ez baitzen diruaren erabilera ezagutzen. Auzo batean diruaren erabilera eta balioa aurkitzen den bakoitzean, han ediren duzu, halaber, pertsona bat bere jabetza handiagotzen hasiko dela.

50. Atala. Baina urrea eta zilarra gizakiaren bizitzarako ez direnez probetxuzkoak —janari, jantzi eta garraiobideekin alderatuta—, balioa gizakien arteko bat-etortzean oinarrituta hartu dute, eta horretarako lan jardunak ematen du hein handi

batean neurria. Argi dago adierazi gabeko borondatezko bat-etortze horregatik gizakiek lurra proportzio ezberdinetan metatu dutela. Gizaki batek erabil dezakeena baino gehiago bilduko du, soberakinarekin urre eta zilar kopuru bat lortuko baitu; honela inori kalte egin gabe, metalak ez baitira galtzen gordetzen dituen horren eskuetan. Proportzio ezberdineko jabetza pribatu hauen banaketa gizartearen mugetatik at gertatzea posible izan da, hitzarmenik gabe, soilik urre eta zilarrari balio jakin bat emanda eta diruaren erabileraren aukera ematen duen adierazi gabeko akordio baten bidez. Gobernuetan, berriz, legeak dira jabetza arautzen dutenak, eta lurraren gaia konstituzio positiboek erabakitzen dute.

51. Atala. Modu honetan, iruditzen zait ez dela inolaz ere pentsaezina lan jardunak naturan amankomunean dauden gauza horien gainean titulua ematen ahal izatea, kontsuma zitekeena zelarik muga ezarriko ziona jabetza horri. Honela, ez zegoen titulu horren gainean eztabaida edo liskarrik, ez eta hark baimentzen zituen jabetzen tamainaren gainean zalantzarik. Zuzenbidea eta komenientzia eskutik zetozen beraz, pertsona batek bere lan jardunaren emarirako baizik eskubidea ez zuen artean, ez zuelako tentaziorik izanen beharrezkoa baino gehiago lortzearren lan egiteko. Horrela, ez zegoen titulu horren gainean eztabaidatzeko betarik ere, ez eta hurkoaren eskubideak zapaltzeko; norberarentzat beharrezko zena baino gehiago biltzea alferrikakoa zein bidegabea suertatzen zen.

VI. KAPITULUA

GURASOEN BOTEREAZ

52. Atala. Munduan orain arte erabilitako zenbait hitz eta izenen akatsak aipatzea lekuz kanpo eginiko kritika irudi lezake mota honetako testu batean. Hala ere, beharbada beharrezkoa da hitz berriak aurkitzea zaharrek errakuntzara gara-

matzatenean; hau da *botere aitatiarraren* [*paternal power*] kasua, ematen baitu adierazten duela gurasoen boterea aitari soilik dagokiola, amak gai honetan zereginik ez balu bezala. Errebelazioak edo arrazoiak dioena aztertuko bagenu, ordea, ikusiko genuke guraso biei dagokiela botere horretarako titulua. Hortaz, ez al litzateke egokiago *gurasoen botere* deituko bagenio? Sorrera eskubideak edo naturak behartzen baditu seme-alabak, obligazio horretan sortzaile biei zor zaie obedientzia. Jainkoaren lege positiboak seme-alabei gurasoen hitza obeditzea agintzen dienean aita eta ama aipatzen ditu, bereizketarik egin gabe: «Aita-amak ohoratuko dituzu», *Exod.* 20.12., «Aita edo ama iraintzen dituen...», *Lev.* 20.9., «Denek behar dituzte aita eta ama errespetatu», *Lev.* 19.3., «Haurrok, gurasoen esanei men egiezue...», *Eph.* 6.1., eta abar. Tankera honetakoa da Testamentu Zaharrean eta Berrian aipatzen dena.

53. Atala. Puntu honi buruzko hausnarketa taxuzkoa egin izan balitz —gaian orokorrean gehiago sakondu gabe— gurasoen boterearen gainean egin diren hutsak saihestu izanen zituzkeen gizateriak. Botere aitatiarraz ari bagara, izenagatik beragatik zailtasun handirik gabe kontsidera genezake aginte edo nagusitasun absolutuaz eta erregeren mailakoaz ari garela. Aldiz, botere hori gurasoena dela esaten bada, seme-alabekiko dagoen boterea absolututzat jotzea zentzugabea irudituko zaigu berehala, izenean bertan ikusten baita botere hori amari ere badagokiola. Aitatasunari aginte edo botere absolutua dagokiola pentsatzen duten horiek okerrean daudela konturatuko dira antzematerakoan amak ere parte hartzen duela botere horretatik; hortaz, eurek defendatzen duten monarkia oinarri barik geratuko zen, izenak berak baitio —eta pertsona bakarreko gobernua defendatzeko honetan oinarritzen ziren— funtsezko autoritatea ez dagokiola pertsona bakarrari, biri baizik. Baina utz dezagun alde batera izenen kontu hau.

54. Atala. Bigarren kapituluan gizaki guztiak naturaz berdinak direla esan dudan arren, ez da ulertu behar berdinta-

sun mota oroz ari naizela. Adinak edo bertuteak lehentasun eskubide justua eman lezake. Norberaren izaeraren edo merituen bikaintasunak pertsona batzuk besteetatik bereiz ditzake. Jaiotzak, aliantzak edo laguntzak behartu ditzake batzuk besteenganako errespetua izatera, naturak edo esker onak hala eskatzen duelako. Hau guztia, ordea, bateragarria da gizakiek elkarren artean dituzten nagusitasun edo eskumen harremanetan egon behar duen berdintasunarekin. Aitzinean aipaturiko berdintasunarekin esan nahi nuena hori zen, alegia, gizaki guztiek naturazko askatasuna izateko eskubide berbera dutela, inor ez dagoelarik besteren nahiaren edo agintearen menpe.

55. Atala. Aitortu behar dut haurrak ez direla berdintasun perfektuzko egoera horretan jaiotzen, horrelako egoerara iristeko jaioak dira ordea. Euren gurasoek badute beraiekiko arau edo jurisdikzio moduko bat mundura datozenean; eskumen honek denbora batean irauten du, ondoren iraungi egiten da. Lotura hauek haurtzaroko ahultasunean ezartzen dizkiegun troxak bezalakoak dira, haurrak handitzen eta heltzen doazen eran lotura hauek laxatzen doaz, guztiz askatu arte, gizakia erabat libre geratzen denera arte.

56. Atala. Adan gizon perfektu izan zen sortua, bere gorputza eta burua indar eta arrazoi osoz hornituak, eta horregatik gai zen lehen unetik bere elikagaiak eta ziurtasuna eskuratzeko zein Jainkoak emaniko arrazoiaren legearen arabera bere ekintzak burutzeko. Bere ondorengoek mundua populatu zuten, baina guztiak jaio ziren haur ahul eta babesgabe, ulermen eta ezagumenik gabeak. Egoera inperfektu honen hutsuneak gainditzeko, Adan eta Eba, eta euren ondoren guraso guztiak, lege naturalez behartuak ziren euren seme-alabak zaindu, elikatu eta heztera; ez beraien lana zelako, eurak ere sortu zituen egile horren lana ere bazelako, eta hari zor ziotelako.

57. Atala. Adan gobernatzen zuen lege berak gidatu zituen bere ondorengo guztiak, arrazoiaren legeak alegia. Bere ondorengoak, ordea, mundura oso modu ezberdinean gatoze-

nez, hau da, jaiotza naturalez, ezjakitun, eta ez dugula arrazoiak erabiltzen ahal, denbora batez lege horretatik kanpo izaten ohi gara; inor ez baitaiteke beretzat promulgatu ez den lege baten menpe egon. Lege hori arrazoiak erakutsi edo promulgatu due-nez, arrazoirik gabeak ezin du haren menpe egon. Benetan dagokion esanahian, legea ez da eragile aske eta adimentsu bati mugak ezartzen dizkion zerbait, baizik eta eragile hura bere interes propiora gidatuko duena. Legeak soilik derrigor-tzen du beronek manatzen dituen pertsonen onerako; hauek legerik gabe pozago balira, lege hori desagertuko litzateke, ez luke deus balioko eta. Lokazti edo amildegietan erortzen era-gozen digun horrek ez du konfinamendu deitzea merezi. Horregatik, erratua egon daitekeen arren, legearen xedea ez da askatasuna bertan behera uztea edo mugatzea, berau babestea eta areagotzea baizik. Legearen menpe egon daitezkeen iza-kiek, legerik gabe, ez dute askatasunik. Askatasuna gainontze-ko pertsonen biolentzia eta errepresiotik libre egoteari deritzo, eta hau ezinezkoa da legerik ez badago. Baina askatasuna ez da, sarritan esaten zaigun moduan, bakoitzak nahi duena egi-tea (nor izan zitekeen aske, beste edozein pertsonaren nahien menpe egon behar balu?); baizik eta bakoitzak bere burua, ekintzak eta ondasunak nahi bezala antolatu eta erabiltzea, beti ere legeak baimentzen duenaren arabera. Hortaz, inor ez daite-ke beste pertsona baten nahi arbitrarioaren menpe izan; libre-ki, bere nahia baino ez du jarraitu behar.

58. Atala. Honela, gurasoek haurrengan duten boterea-ren jatorria, egoera imperfektua den haurtzaroan seme-alabak jagoteko duten derrigorrezko betebeharrean dago. Ondokoa da haurrek gura dutena eta gurasoak betetzera behartuta daudena: haurren adimena garatzea eta beraien ekintza guztiak goberna-tzea adin txikikoak eta ezjakitun diren artean, arrazoiak dago-kion lekua hartu eta ezintasun horretatik libratzen dituen arte. Jainkoak gizakiari bere ekintzak gida ditzan adimena eskaini dio, eta, beraz, erabakiak hartzeko eta ekintzak burutzeko

askatasuna ere, nolanahi ere, legearen mugen barne. Baina ebazteko gai egiten duen adimenik ez duen artean, ez dauka borondaterik bere erabaki propioak hartzeko. Haurrak ez duen adimena daukan horrek, haren ordeztatu behar ditu erabakiak; harengan agindu behar du eta haren ekintzak zaindu. Baina semeak, aita gizon aske egin zuen estatura iristerakoan, berak ere aske izan beharko du.

59. Atala. Aurrekoak, gizakiak gobernatzen dituen lege guztientzat balio du, natural zein zibiletarako. Lege naturalak gizakiengan agintzen al du? Zerk libratu zuen lege horretatik? Zerk baimendu zuen ondasunak norbere nahierara antolatzea, lege horren eremuaren barne? Hau da erantzungo dudana: heldutasun egoera dela legea ezagutzeko ahalmena ematen diona, eta hortaz bere ekintzak honen mugetan burutzeko aukera ematen dio. Egoera honetara iristerakoan jakingo du noraino gida dezakeen lege horrek, noraino erabil dezakeen bere askatasuna, eta horregatik gozatu ahal izanen du honetaz. Momentu horretaraino, norbaitek gidatu beharko du; lege horrek baimentzen duen askatasunaren mugak ezagutzen dituen norbaitek. Egoera arrazoidun horrek, adin zuhurtasun emaila horrek gizon aske egin bazuen, gauza bera gertatu behar da semearekin. Noiz da pertsona bat Ingalaterrako legearen menekoa? Zerk egiten du lege horretatik aske? Hau da, noiz dago baimenduta bere ondasunak eta ekintzak nahi bezala, eta lege horren arabera antolatzeko? Lege hura ezagutzeko duen gaitasunak; lege beraren arabera, hogeita bat urterekin lortzen da, eta kasu batzuetan lehenago. Hori bada aita askatzen duena, semea ere libre egingen du. Une horretara arte legeak ez du semea baimentzen bere kabuz ekitera, bere tutoreak edo gurasoek gidatu beharko dute, haiek izanen baitira bere ordeztatu erabakiko dutenak. Eta aita hilko balitz, bere eginkizunean zeinek ordezkatu beharko duen erabaki gabe, semea adimenik gabea eta adin txikikoa den artean gidatuko duen tutorea aukeratu barik, orduan, legeak hartuko du horren ardura.

Beste batzuek gidatuko dute eta bere ordezt hartuko dituzte erabakiak, bere adimenak gaitasuna ematen dionera arte erabakiak hartzeko eta gizon aske izaera lortzen duenera arte. Egoera hori lortzen duenenean, aita zein semea aske dira maila berean. Gauza bera gertatzen da tutore eta apopiloaren artean, azken honek adin txikikoa izateari uzten dionean. Biak dira lege beraren meneko, aitzak ez du semearen bizitza, askatasun edo ondarearekiko nagusitasunik; berdin du lege naturaleko egoeran badaude zein gobernu finko baten lege positiboen menpe.

60. Atala. Aitzitik, naturaren bide arruntetik aldenduz sorturiko hutsak direla-eta, norbaitek ez badu lortzen arrazoi maila jakin bat, ez bada legea ezagutzeko beste, eta ezin badu honen arauen baitan bizi, orduan, ez da inoiz pertsona libre izanen eta ezin zaio bere borondatearen arabera aske bizitzen utzi (ez duelako mugarik ezagutzen, ez du adimen gidatzaile-rik). Hortaz, beste pertsona batzuen tutoretza eta gobernuaren menpe jarraitu beharko du, bere adimenak eginkizun hura betetzen eragozten dion artean. Horrela, esaterako, ilargi-jotakoak edo idiotak ez dira inoiz euren gurasoen gobernupetik aske geratuko; haurrak, adimena lortzen ez duten artean, ezta ere; inuzenteak, akats naturalagatik ez baitute inoiz lortuko; eta azkenik, eroak, ziurrenik ez baitute unean gidatuko dituen arrazoi zuzenik. Guztiek, bada, euren ongia bilatzen edo lortzen saiatuko diren tutore batzuen arrazoia izanen dute gidari; hori da Hookerrek dioena (*Eccl. Pol.* I. lib., 7. atala). Hau guzti hau, dirudienez, Jainkoak eta naturak gizakiari eta beste izaki batzuei ezarri dieten betebeharra da, honen arabera euren ondorengoak zaindu behar dituzte, hauek bere kasa defenda daitezkeen artean. Zaila egiten da pentsatzea hau gurasoen errege mailako autoritatearen frogara edo adibidea denik.

61. Atala. Horrela, aske jaioak gara, arrazoidunak jaioak garen heinean. Bi elementu hauek ez doaz bereiztuta: adinak bata dakar, eta honekin badator bestea ere. Modu berean, ikus-

ten ahal dugu askatasun naturala eta gurasoekiko lotura elkarrekin bateragarriak direla, eta biak printzipio berean oinarritzen direla. Haur bat libre da bere aita ere badelako; aitaren arrazoiari esker, honek gobernatuko du haurra, berak ere entendimentua lortzen duen artean. Gizaki baten askatasuna, zuhurtasuna izateko adinera heltzean, eta haur baten gurasoekiko lotura, adin hartara iritsi artean, hain dira argiak eta bereizten errazak, aitatasunean oinarrituta monarkiaren defendatzaile sutsuenek ere derrigorrean bereiztu behar dituztela, burugogorrenek ere ezin dute hauen sendotasuna uka. Beraz, beraien dotrina erabat egiazkoa balitz eta jakingo bagenu egun nor den Adanen oinordeko legitimoa, titulu horren arabera tronuan ezarriko bagenu eta sir Robert Filmerrek aipatzen duen botere absolutu eta mugagabea eskainiko bagenio, orduan ere, jaraunslea jaio bezain pronto hilko balitz erregea, haur horrek, erabat subiranoa eta librea balitz ere, bere amaren eta jagolearen, tutore eta gobernatzaileen menpe egon beharko luke, adinak eta hezkuntzak bere burua eta gainontzeko pertsonak gobernatzeko arrazoia eta gaitasuna dakarkioten artean. Bere bizitzako beharrek, bere gorputzaren osasunak eta bere adimenaren formakuntzak eskatzen dute beste pertsona batzuek goberna dezaten, norberak ezin duen artean. Eta ez dut uste inork pentsatuko duenik mugatze eta lotura hauek bateraezinak direnik, edo galarazten diotenik dagozkion subiranotasun eta askatasuna, edo bere agintea lagatzen diela adin txikikoa den artean gobernatzen duten horiei. Ezartzen zaion gobernuak, aitzitik, prestatuko luke —eta ondo gainera— berorrek gobernatzeko unea iristen denerako. Norbaitek itaunduko balit noiz izanen duen ene semeak aske izateko adina, erantzungo diot erregeak gobernatzeko adina duenean. Horrela irakurtzen ahal dugu Hooker zuhurraren liburuan (*Eccl. Pol.*, I. lib., 6. atala): «esaten ahal dugu gizaki bat arrazoiaren erabilerara iritsi dela, bere ekintzak gidatuko dituen legeen arabera jarduteko gai denean; hau noiz gertatzen den zehazki erabakitzea zentzu onari dagokio, beste ezeri baino.»

62. Atala. Herrialdeek berek baimentzen eta onartzen dute badela garai bat gizakiek pertsona aske moduan jarduten hasi behar dutena. Horregatik, une hori iritsi arte, ez zaie eskatzen herri horretako gobernuarekiko fideltasuna, leialtasuna edo mendetasuna zin egitea edo publikoki adieraztea herrialde horretan duten partaidetza.

63. Atala. Gizakiaren askatasuna zein bere nahierara jarduteko gaitasuna, beraz, arrazoia izatean oinarritzen dira, honek ematen baitio aukera gobernatuko dituen legeak ezagutzeko eta jakinarazten dio noraino iristen den bere nahierara jarduteko askatasuna. Arrazoi gidatzailea izan aurretik pertsona bat askatasun mugagabea uztea ez da naturaz dagokion aske izateko aukera ematea, piztien artean uztea eta egoera deitoragarri batean abandonatzea baizik, gizaki bezala merezi duenaren oso azpitik. Horregatik dute gurasoek beraien seme-alabak adin txikikoak diren artean gobernatzeko autoritatea. Jainkoak eman die eginkizun hori, eta beraierengan ezarri ditu samurtasuna eta ardura botere hori eztitzeko eta haren zuhurtasunak agindutakoaren arabera gauza dezaten, seme-alaben onerako eta hauek beharrezko duten artean.

64. Atala. Dena dela, aitzinekoak ez du esan nahi gurasoek beraien ondorengoei eskaini behar dieten zaintze hori aitaren aginte arbitrario absolutu bihurtu behar denik. Seme-alaben gorputzak osasuntsu eta indartsu eta adimenak zuzen eta kementsu gara daitezen diziplina ezartzera mugatzen da botere hori, modu honetan beraien buruei eta gainontzeko pertsonaei lagundu ahal izanien dietelako, eta ahal dutenean beraien ogia lortzeko lanean jartzea ere, seme-alaben egoerak hala eskatuko balu. Botere honetan amak aitarekin banatzen du eginkizuna.

65. Atala. Botere hau ez dagokio aitari eskubide natural jakin bat dela-eta; soilik, bere seme-alabak zaintzen dituelako. Hortaz, ez balitu behar bezala zainduko, haiekiko boterea galduko luke. Botere hau banaezina da elikatze eta heziketatik,

eta adopziozko aitari, haur abandonatu baten kasuan, eta aita naturalari, bere seme-alabekin, botere berdina dagokie. Haurrak sortzeak ematen duen eskubidea benetan txikia da; ez bada ondoren zaintzarik ematen, orduan, aitaren titulua eta autoritatea sorkuntza horretara mugatuko da. Eta zertan gertatuko da aitaren autoritatea emakume batek senar bat baino gehiago izan ditzakeen lekuetan? Edo, Ameriketako hainbat lekuren kasuan, senarra eta emaztea bereizten direnean —hau maiz gertatzen den gauza da— seme-alabak amaren esku gertatzen dira, aurrerantzean bera arduratzen delarik beraien sostenguaz. Eta, edonon, seme-alabak adin txikikoak diren artean aita hilko balitz, haurrak adin horretakoak diren artean bere amari obeditu beharko diote, aita bizirik zegoenean hari obeditzen zioten moduan. Eta ez du inork horregatik esango amak hurrekiko botere legea duenik eta horren arabera seme-alabak behartuz beraien ondasunen gainean arautzea duenik edo beraien bizitza osoan askatasuna muga diezaiekeenik. Ez dauka ere heriotza zigorra ezarriz lege horiek betetzera behartzerik. Botere hori magistratuari dagokio, eta haren aurrean aitaren irudia ez da itzal bat baino. Honek bere haurrengan aldi baterako boterea baizik ez du, ez duelarik haien bizitzan edo ondasunetan eraginik, beraien adin txikiaren ahultasuna eta inperfekzioak gainditzeko laguntza baino ez da, beraien hezkuntzarako beharrezkoa den diziiplina ezarlea. Eta aitak bere ondasunak nahi bezala erabil baditzake ere, behin bere seme-alabak beharrak hiltzeko arriskutik urrun daudenean, aitaren boterea ez da iritsiko beraien bizitzetara edo beraien lan jardunetatik edo beste norbaiten eskuzabaltasunetik lortu dituzten ondasunetara, ez eta beraien askatasunera, behin heldutasunera iritsiak direnean. Aitaren agintea hor bukatzen da, eta une horretatik aurrera ezin du bere seme-alaben askatasuna manatu, beste edonorena ere ezin duen moduan. Honek guztiak betiereko edo erabateko jurisdikziotik aldentzen du, gizakiak autoritate jainkotiarraren baimena baitu aita eta ama utzi eta emaztearekin bat egiteko.

66. Atala. Nolanahi ere, garaia iristerakoan, semea aitar-
ren autoritate eta loturatik aske den arren, aita gainontzeko
pertsonen nahieratik libre den moduan, eta elkarrekiko ez
duten arren beste beharrik lege naturalak edo herrialdeko udal-
legeek inposatzen dutena baizik, hala ere, askatasun honek ez
du semea libratzen bere gurasoak ondratzetik, lege naturalak
eta jainkotiarrak eskatzen duten arabera. Jainkoaren asmo han-
diak arrazaren iraupena gurasoengan jarri zuen moduan,
beraiei egokituz euren seme-alaben elikatze, zaintze eta hezi-
keta, aurrera egin dezaten, modu berean seme-alabei ezarri die
euren gurasoak ohoratzeko betiereko betebeharra. Honek eska-
tzen du seme-alabek euren kanporako ekintza guztietan era-
kustea barneko estimu eta errespetua, eta eurei bizitza eman
zieten haien zorientasuna zaputz dezakeen edozein min, irain,
eragozpen, edo arrisku ekiditea. Bestalde, konpromisoa hartu-
ko dute ere bizitzako gozamen guztien aukera eman zieten
haiek defendatu, lagundu, sorotsi eta konfortatzeko. Ezein
egoerak edo askatasunek ez ditu behar horietatik libratzen.
Honek ez du suposatzen inola ere gurasoek seme-alaben gai-
neko aginte boterea dutenik, ez eta legeak egiteko ahalmena
edo beraien bizitza eta askatasuna nahi bezala erabiltzekoa.
Gauza bat da ohoratu, errespetatu, esker onekoa izan eta lagun-
tzea, eta beste bat, oso ezberdina, obediencia eta mendetasun
absolutuak exijitzea. Gurasoei zor zaien ondra, errege batek
bere amari ere zor dio, ez da horregatik erregearen autoritatea
murrizten, eta ez dago amaren gobernuari lotuta.

67. Atala. Haur baten gurasoekiko loturak hauei behin-
behineko gobernu ematen die, haren adin txikia bukatzean
hura ere amaituko delarik. Seme-alabek gurasoei zor dieten
ohoreak betiko behartzen ditu haiei errespetua, erreberentzia
eta laguntza eskaintzera, hein handiago edo txikiagoan, gura-
soek bere garaian seme-alaben hezkuntzan izandako gastu eta
emandako zaintza eta maitasunaren arabera. Betebehar hauek
ez dira bukatzen adin txikia amaitzerakoan, bizitza osorako

diraute. Bi botere hauek ez bereizteak (aitak seme-alaben haurtzaro eta nerabezaroan tutoretzarako duena, eta bizitza osoan ohoratua izateko duena) eragin ditu gai honen inguruan sortu diren hainbat arazo. Zehazki mintzatzen bagara, botere horietatik lehena haurren pribilegioa eta gurasoen betebeharra da, gurasoen aginte boterea baino. Seme-alaben heziketa eta hezkuntza —euren onerako— gurasoen derrigorrezko betebeharra da, eta ez ditu ezerk haren betetzetik libratzen. Eta betebeharrak horri lotuta dago ere nolabaiteko agintzeko eta zigortzeko boterea, hala ere, Jainkoak giza printzipioetan ondorengoekiko halako maitasuna jarri duenez, ez dago arriskurik gurasoek botere hori gehiegizko gogortasunarekin erabil dezaten. Oso lantzean behin gaudituko da zorroztasunaren muga, naturak alderantzizko norabidean bultzatzen baikaitu indar handiz. Israeldarrei eskainitako arreta adierazterakoan Jainko ahalguztidunak, zigortzen dituen arren, aita semea zigortzen duen moduan zigortzen dituela dio (*Deut.* 8. 5); hau da, samurtasunez eta maitekiro, eta ezarritako diziplina beraien onerako modukoa zen, gutxiago balitz haien zat kaltegarri zatekeen eta. Botere honi zor diote obedientzia seme-alabek, eta gurasoek hartutako nekeak eta emaniko arreta ezin zitezkeen handiagotu ala txarto sarituak izan.

68. Atala. Bestalde, gurasoengandik jasotako onura guztiak direla-eta esker onak inposatzen duen erantzuna eta haiek ohoratu eta sostengatzea, seme-alaben ezinbesteko betebeharra dira eta gurasoen pribilegioa. Azken hau gurasoen onerako da, lehena seme-alaben mesedetan den moduan. Hala ere, gurasoen betebeharrak, hezkuntzak alegia, dirudienez botere handiena suposatzen du, haurtzaroko ezjakintasun eta ahultasunek zuzenketa eta mugatzea eskatzen baitute, eta hauek autoritatea ezartzearen zeinu argi dira eta nolabaiteko menperatze ekintza. Ohoratze hitzak adierazten duen betebeharrak obedientzia txikiagoa eskatzen du; hala ere, obligazioa handiagoa da seme-alaba zaharragoetan gazteenetan baino.

«Haurrak, obedi itzazue zuen gurasoak» dioen agindua ezin zaio jada seme-alabak dituen pertsona bati bere haurren aitonarekiko exijitu bere seme-alabei exijitzen zaien moduan, edo aitonak, gehiegizko autoritatez, haur bati bezala agintzeko aldrebeskeria burutuko balu, ez litzateke haren manuak betetzera behartuta egonen.

69. Atala. Hortaz, gurasoen boterearen —edo hobe betebeharraren— lehen zatia, hezkuntza hain zuzen, denboraldi baten ondoren iraungiko da. Berez bukatzen da hezkuntza finitzerakoan, lehenago transferitu badaiteke ere, gizon batek bere semearen tutoretza beste pertsona baten eskuetan ezar dezake, seme bat beste pertsona bati apendiz moduan gomendatzen zaionean gertatzen den bezala, orduan, berari eta bere amari zor zien obedientziatik parte handi bat transferituko dio pertsona horri. Ohoratzeko betebeharra, ordea, beti mantenduko da osorik eta berdin; ezin du ezerk bertan behera utzi. Bi gurasoetatik bereiztezin da, aitaren autoritateak ezin dio amari eskubide hori kendu; ezingo du inola ere seme-alabak mundura ekarri zituen horren ohoratzetik salbuetsi. Baina seme-alaben ondasun, askatasun, gorputz-atal edo bizitzan eragina izanen duten legeak ezin ditu bietako inork egin, eta zigorrak ezarri betearazi. Aginte boterea seme-alaben adin txikiarekin bukatzen da, eta denboraldi horren ostean seme-alabek gurasoak ondratu, errespetatu, sostengatu, defendatu eta esker on amaigabea adierazten jarraitu behar duten arren, honek ez du esan gura aitzak zetroa duela bere eskuetan edo aginte botere subiranoa duenik. Ez du inolako nagusitasunik seme-alaben ondasun edo ekintzetan, ez eta inongo eskubiderik gauza guztietan bere nahiera inposatzeko. Honek ez du esan nahi batzuetan seme edo alabak, beraiei eta beraien familiari eragozpenik sortzen ez dien artean, aitaren esanei begiramena ez dietenik eduki behar.

70. Atala. Agurea edo gizaki zuhurra ohoratu eta errespetatzera behartuta egon daiteke pertsona bat; semea edo lagu-

na defendatzera; penatua lasaitu eta laguntzera; ongileari esker ona adieraztera; hau guztia bere posibilitateetatik gain ere. Nolanahi ere, haietako inori ez dio autoritate edo eskubiderik ematen behartuta dagoen horren gainean legeak egiteko. Eta argi dago aita izatetik ere ez dela etorriko; lehenago esan bezala, amari ere zor baitzaio betebeharrori. Aitzitik, gurasoekiko betebeharroriek eta seme-alabek hauek betetzerakoan izanen dituzten maila ezberdinak aldatu eginen dira seme-alaba bakoitzaren baitan ezarri den maitasun, arreta, neke eta gas-tuen arabera.

71. Atala. Honek erakusten digu nolatan gurasoek, eurak menpeko hiritar diren gizarteetan, botere bat duten seme-alaben gainean. Beraz, hauek gurasoen menpe daude, naturazko egoeran daudenen kasuan bezala. Ziurrenik hau ezinezkoa litzateke botere politikoa soilik aitatiarra balitz, hau da, botere biak gauza bakarra balira. Gurasoen botere osoa aitatiarra balitz eta printzearen esku balego, menpeko hiritarrak ez luke botere izpirik ere izanen. Aitzitik, botere politikoa eta gurasoena hain dira diferenteak eta bereizgarriak, hain dira desberdinak beraien oinarri eta xedeak, ezen aita edo ama den edozein hiritarrek bere seme-alabekiko printzeak bereekiko duen botere bera izanen du. Eta gurasorik duen edozein printzek horiekiko hiritar xeheenak bereekiko eduki behar dituen obligazio eta obedientzia berdinak izan beharko ditu. Hortaz, gurasoen botereak ez du ezein mailatan batere harremanik printze edo magistratuak bere menpe dituenekikoarekin.

72. Atala. Gurasoek seme-alabak hezteko duten betebeharrean eta seme-alabek gurasoak ondartzeko dutenean, botere osoa alde bati badagokio eta mendetasun osoa besteari, normalean badago beste botere bat gurasoei dagokiena eta seme-alabak hura obeditzera bultzatzen dituen. Beste pertsona batzuekin batera banandu behar bada ere, arruntena familia mailan ematea izaten da eta gutxitan hortik kanpo —kasu hauek gainera ez lirateke seinalagarriak—, beraz, gurasoen

boteretzat hartzen ahal da. Aziendak gehien atsegin dituzten pertsonen emateko botereaz ari gara hain zuzen. Herrialde bakoitzeko lege eta ohituren arabera, arruntena den arren seme-alabek proportzio handiagoan edo txikiagoan gurasoen ondasunak jaraunstea, normalean gurasoek esku zabal edo murriztagoz banatzeko boterea dute, seme-alaba bakoitzaren jarrera eta izaera gustuko izan dituzten neurrian.

73. Atala. Ez da hau harreman eskasa seme-alabak obeditzera erateko; eta lurraz gozatzea lur hori parte den herrialdeko gobernuaren menpe egotea dakarrenez, hortaz, normalean suposatu izan da aita batek behartu ahal dituela bere oinordekoak gobernu horren menpeko hiritar bihurtzera eta berak horrekiko duen paktua bere semeengana ere luzatzen dela. Baina halabeharrez lurrari loturik dagoen baldintza baino ez da, gobernu baten menpe dagoen azienda bat jasotzeak baldintza horietan onartzen dutenengan bakarrik du eragina. Ez da hortaz lotura edo konpromiso naturala, nork beraren borondatez erabakitako mendetasuna baizik. Nornahiren seme-alabak gurasoak edo arbasoak bezain aske dira naturaz; horrela, askatasun horretan dauden artean, aukeratzen ahal dute zein gizarteren partaide ala zein lurraldeko hiritar izan nahi duten. Euren asaben azienda jaso nahi badute, ordea, haiek eduki zuten baldintza beretan izan beharko da, eta jabetza horrek dakartzan baldintza guztiei men egin beharko diete. Botere honen bitartez gurasoek seme-alabak obeditzera behartzen dituzte, behin adin txikia igaro ondoren ere, eta arras arrunta da botere politiko baten edo besteren mendetasunera behartzea ere. Baina hau guztia ez da gertatzen aitasun eskubidea dela-eta, gurasoen esku dagoen sari bati esker baizik, honen arabera golar datu eta indar dezakete seme-alaben onespena. Eta hau ez litzateke desberdina izanen frantses batek ingeles batekiko lukeen boterearekiko; hark honi azienda bat ematea erabakiko balu, benetan arrazoi edo lotura ona litzateke lehenari obeditzeko. Behin azienda hori jasoz gero, lurraren jabetzak herrial-

de horretan dauzkan baldintza guztiak onartu beharko lituzke, dela Frantzia zein Ingalaterra.

74. Atala. Hortaz, gurasoen botereak seme-alaben adin-txikia igaro ondoren irauten ez duen arren, soilik adin horri komeni zaion gobernu eta diziplina maila egokian ezarri behar bada ere, eta seme-alabek gurasoei ondratzea eta erromatarrek pietate zeritzotena zor badiote ere bizitza osoan —edozein une eta egoeratan eta ahalegin guztiak eginez—, honek guztiak ez du esan nahi gurasoek gobernatzeko eskubidea dutenik, hau da, legeak egiteko eta seme-alabei zehapenak ezartzeko. Aitzitik, honek guztiak seme-alaben ondasun edo ekintzetan nagusitasunik ezartzen ez duen arren, ez da zaila pentsatzea munduaren lehen denboratan, lasaitasuna jaun eta jabe zenean, jende gutxi zegoenez familia osoek leku batetik bestera joan eta lehenago populatuak ez ziren lekuetan finkatzea zutenean, erreza zitekeela familia burua printze bilakatzea¹. Bere seme-alabentzat haurtzarotik gobernari izan zenez eta beraiei oso gaitz eginen zitzaenez nolabaiteko gobernurik gabe bizitzea, ez da harritzekoa, seme-alabak heldutasunera iristerakoan beraien onespén adierazi edo adierazigabez aita aukeratu izana; modu horretan, dagoeneko bazeukan gobernua mantentzen zuen. Hau da gertatzen ahal zena, aitari —lege naturalak edozein gizaki askeri eskaintzen dion boterearen arabera—, berari bakarrik eta familia eremuan, botere legegilea izatea uzten zitzaionean; emaniko baimen horren bidez botere monarkikoa eskaintzen zitzaion. Ezin esan dezakegu, ordea, hau eskubide aitatiarra zenik, botere honek seme-alaben onespén adieraziaren beharra zuen. Inork zalantza eginen ez duen ondoko kasuan ikus daiteke esandakoa: halabeharrez edo negoziotan etxera iritsitako atzerritar batek seme-alabetako bat hilko balu edo beste edonolako hobenen bat eginen balu, aitik hiltzera kondena lezake edo beste zehapen bat ezar liezaioke, eta berdin bere seme-alabetako baten kasuan; hau ez litzateke posible aitatasunari dagokion botereagatik burutzea,

atzerritarra ez baita bere seme-alabetako bat, baizik eta gizaki orok duen lege naturalaren arabera botere legegile horretan oinarrituta egin dezake aipaturiko zigorra. Aita zen senitartean zehapenak ezar zitzakeen bakarra, seme-alabek zioten errespetuagatik; botere horren gauzatzean, familiako gainontzeko kideen gainetik maila eta autoritate handiagoa eskaini zioten.

75. Atala. Errazena eta kasik naturala zen seme-alabek —ia ezinbestekoa zatekeen onespen adieraziz— aitari autoritatea eta gobernua eskaintzea. Haurtzarotik ohitu ziren bere aginduak jarraitzera eta euren arteko desadostasun txikien gaineko bere erabakietara, hortaz, heldzerakoan ez zuten inor hobeagorik aurkitu goberna zitzaizkien. Zeuzkaten ondasunak eskasak zirenez eta kodizia txikiagoa oraindik, euren artean oso gutxitan sortzen ziren eztabaida larriak; gertatzen zirenean, nor epaile hobe, elikatu eta hezi eta beraianenganako maitasun handia erakutsi zuen hura baino. Ez da harritzekoa, hortaz, haurtzaroa eta heldutasun garaia ez ezberdintzea, eta ez itxarotzea larritasunez hogeita bat urte betetzeko unera arte, edo ondasunez eta norbera aske izateko dena delako unera arte, ez baitzioten apopilo izateari utzi nahi. Haurtzaroan izan zuten gobernua, muga baino, babesa baitzen. Aitaren gobernupean baino leku hoberik ezin zuten aurkitu euren bake, askatasun eta ondasunen babesteko.

76. Atala. Modu honetan, aita natural zirenak, eraldaketa sumagaitz baten bidez, euren senitarteetako monarka politiko ere bilakatu ziren. Eta luzaroan bizi zirenez eta belaunaldi askotan gaitasun handiko jaraunsle duinak izan zituztenez, jaraunspenezko edo hautapenezko erreinuen oinarria ezarri zuten. Erreinu hauek konstituzio eta izaera ezberdinak edukiko zituzten, zoriak, estrategiek edo egokierak inposatzen zutenaren arabera. Baina printzeen tituluaren jatorria aitatasunetik datorren eskubidean aurkitu nahi bada, eta hori nahikoa bada aitek eskubide naturalez autoritate politikorako eskubidea

dutela frogatzeko, *de facto* gobernua orokorrean beraien esku baitzegoen, orduan, modu berean balioko du frogatzeko printze guztiak —hobe, printzeak bakarrik— izan beharko liratekeela apaiz, ezen hasieran familia burua gobernari izateaz gain senitarteko apaiz ere bazen.

VII. KAPITULUA

GIZARTE POLITIKO EDO ZIBILAZ

77. Atala. Jainkoak, berorrek dioen moduan, bakarrik bizitzea komeni ez zaion izaki egin zuenez gizakia, derrigortu zuen premia, komenientzia eta tendentziagatik gizartean bizitzera. Era berean, adimena eta lengoaia eskaini zizkion gizarte horretan bizi zedin eta hartaz goza zezan. Gizartea hasiera batean senar-emaztearen elkartea izan zen, eta hortik sortu zen guraso eta seme-alaben artekoa, eta denborarekin nagusi eta morroiaren artekoa. Baina, hauek guztiak aldi berean eman zitezkeen arren —izatez hala gertatzen zen—, eta familia bakarra sortzen ahal zen arren, bertan jauna edo anderea zuzendari antzekoa zirelarik, hala ere, bada, guztiak batuta ere ez dute gizarte zibil bat osatuko, beraien xede, lotura eta mugak aztertuta ikusiko dugun bezala.

78. Atala. Ezkontideen gizartea gizon eta emakumearen arteko borondatezko paktu baten bidez sortzen da. Oinarrian bi kideen arteko gorputzen elkarketa eta bata bestearenganako eskubidea den arren, xede nagusiari —hau da, ugaltzeari— komeni zaionaren arabera, elkarrekiko laguntza ere bada, eta elkarren arteko interesen batzea; beharrezkoak baitira bai elkarren arteko ardura eta maitasuna bat egiteko, bai beraien ondorengoentzat ere. Seme-alabek elikatuta manten ditzaten esku-bidea baitute, beraien kasa bizitzeko gai diren artean.

79. Atala. Arraren eta emearen arteko elkartzea ez denez ugalketa besterik gabe, espeziearen jarraipena baizik, elkartze-

ak ugaltzearen ostean ere iraun behar du, gazteen elikadurarako eta sostengatzerako beharrezko den denbora igaro arte. Euren gurasoek elikatu beharko dituzte, beraien kasa sostengua erdiesteko gai diren artean. Infinituki zuhurra den Egileak berak sorturiko guztiei ezarri zien arau hau; izaki beherenetan zehaztasunez betetzen dela ikusten ahal da. Belarraz elikatzen diren animalia bibiparoen kasuan arraren eta emearen elkarke-tak ez du ernalketak dirauena baino gehiago iraungo, amaren titiak nahikoa baitira kumea elikatzeko, belarra jateko gai den artean; arrak ugalketan parte hartzen du soilik, eta ez da amaz eta kumeaz arduratzen, euren elikaduran ezin baitu ezertan lagundu. Harraparien artean, ordea, elkarketak denbora gehi-ago irauten du, emea ez baita gai berak ehizatzen duenarekin bakarrik bere ondorengo ugariak elikatu eta sostengatzeko. Belarrez elikatzen diren horiena baino bizimodu neketsu eta arriskitsuagoa denez, beharrezkoa da arraren laguntza bion familia sostengatzeko, honek ezin baitu aurrera egin arraren eta emearen elkarketa barik, kumeak beraien kasa ehizatze-ko gai ez diren arte. Gauza bera gertatzen da hegaztien artean (etxekoenean izan ezik, zenbait kasutan elikagaia hain oparoa denez, oilarra ez dago behartuta txituez arduratu eta haiek eli-katzera), kumeak habian elikatu behar baitituzte, hortaz, arrak eta emeak elkarrekin diraute kumeek hegan egin eta beraien kasa elika daitezkeen artean.

80. Atala. Hau da nire ustez arrazoi nagusia, ez bada bakarra, gizakien artean ar eta emearen arteko elkarketak gai-nontzeko izakien artean baino denbora gehiagoz irauteko: emea gai baita haur gehiago sortzeko, eta *de facto* haurdun egoten da, aurreneko umeak gurasoekiko dependentzia galdu baino lehen; haurra oraindik ez denez gai bere kasa ibiltzeko gurasoen laguntza beharko du. Horregatik aita amarekin elkar-tuta egon beharko da beste espezie batzuen kasuan baino askoz ere denbora luzeagoan, hauetan kumeak gai dira beraien buruak elikatzeko ugalketa garaia ostera ere iritsi baino lehen.

Azken kasu hauetan bikotea berez bereiztuko da, eta aske izanen dira Himeneoren garaia edo bere urteurrena iritsi arte, orduan, kide berriak aukeratuko dituzte. Egile ahalguztidunaren zuhurtasuna mirestekoa da benetan, gizakiari etorkizunera-ko prestatuta egoteko ernaitasuna eta trebetasuna eman baitzizkion, baita unerako beharrezkoa dena eskuratzeko ere, eta senar eta emaztearen arteko gizarteak beste espezie batzuetako ar eta emeen arteko elkarketak baino gehiago irautea eragin zuen. Modu honetan euren ardura bultzatzen da eta elkarren arteko interesak batzen dira, bien erabilerarako ondasunen bilketa sustatuz. Helburu hauek oztopatuak lirateke kide biek osatutako gizartea lotura zalantzazkoan oinarrituta balego, edo erraz eta sarritan bereiztuko balitz.

81. Atala. Hala ere, gizateria osoari dagozkion loturak diren arren, kideen arteko loturek luzeago dirautelarik giza-kiengan gainontzeko izakietan baino, pentsatzekoa da ea zergatik paktu hori ez den bukatzen behin ugalketa eta heziketa amaitu eta jarauspenaren ardura hartu ondoren, bai elkarren arteko akordioz, edo denboraldi bat pasa ondoren, baldintza zehatz batzuen arabera, beste edozein borondatezko pakturen kasuan gertatzen den moduan; kontuan hartuta ez dagoela behar naturalik —xedeak bete daitezen— bizitza osoan irauteko. Kontratua betiko dela erabakitzen duten lege positiborik gabeko kasuez dihardut noski.

82. Atala. Baina senar eta emazteek ardura bakarra duten arren, euren pentsaerak ezberdinak direnez eta euren nahiak ere ez direnez berdinak batzutan, eta kontuan hartuta azken erabaki bat beharrezkoa izaten dela, hau da, gobernua alde batean egotea beharrezkoa denez, honegatik guztiagatik naturaz gizonezkoari dagokio boterea, trebeagoa eta indartsuagoa delako. Aitzitik, honek guztiak elkarrekin dituzten ondatsun eta interesen gainean du eragina soilik, eta, kontratuz emakumearen eskubide partikularra denean, hari dagokio askatsun osoz. Bestalde, emaztearen bizitzan ez du senarrak esku-

bide gehiago emazteak senarrarenean duena baino. Senarraren boterea hain dago urruti monarka absolutuarenetik, emazteak sarritan bereiztea erabaki dezakeela, beti ere, zuzenbide naturalak edo beraien kontratuak baimentzen dienean; bai beraiek naturazko egoeran eginiko kontratua denean, bai bizi diren herrialdeko ohitura edo legeek hala diotenean. Bereizketa gertatzen denean seme-alabak aitarekin edo amarekin geratuko dira, kontratuak diotenaren arabera.

83. Atala. Ezkontzaren xede oro gobernu politikopon naturazko egoeran bezain ondo burutu behar denez, xedeak bete behar badira, magistratu zibilak ez ditu eskubide edo botereak murriztu behar. Aipaturiko xede hauek ugalketa eta —ezkontideak elkarrekin dauden artean— elkarrekiko laguntza dira. Magistratuaren eginkizun bakarra senar-emazteen artean eztabaidaren bat sortzen denean artekariarena egitea izanen da. Gauzak ez balira horrela, senarrari balegozkio naturaz bizitza eta heriotzaren gaineko subiranotasun eta botere absolutuak, senar-emazteen arteko gizarteak hala eskatzen duelako, orduan, ez litzateke posible ezkontzarik senarrari horrelako autoritate absolutua ematen ez zaion herrialdeetan. Ezkontzaren xedeek ez dute beharrezko senarraren botere hori ordea; ezkontideen gizarte horrek ez du berezitasun hori, ez baita inolaz ere beharrezkoa egoera horretarako. Ezkontideen gizarte horrek autoritate hori gabe aurrera egin dezake eta bere xedeak bete. Are gehiago, ondasunen komunitatea, hauekiko boterea, elkarrekiko laguntza eta sostengatzea, eta ezkontideen gizarte horretako beste hainbeste gai alda eta arautu daitezke senar-emazteak gizartean elkartzen dituen kontratua dela medio, bakarka mantentzen daitezkeen neurrian. Edozein gizartetan beharrezko gauza bakarra ondokoa baita: gizarte hori sortu zuen xedea bera burutzeko baliozkoa dena.

84. Atala. Aitzineko kapituluan aritu naiz seme-alaben eta gurasoen arteko gizarteaz zein bakoitzari dagozkion eskubide eta botere ezberdinez, beraz, ez dut uste beharrezkoa

denik honen gainean ezer berririk esatea. Bestalde, uste dut argi dagoela erabat ezberdin dela gizarte politikotik.

85. Atala. *Nagusi* eta *morroi* aspalditik datozen izenak dira, historia bezain aspaldikoak, baina kondizio ezberdinetan dauden pertsonen ematen zaizkie. Pertsona libre bat beste baten morroi bilaka daiteke bere zerbitzuak denboraldi baterako salduko balitu soldata baten ordeztu. Morroiarentzat nagusiaren familiaren barne sartzea suposatzen duen arren eta honen diziplinaren menpe egotea, hala ere, honek ez du esan gura nagusiak harekiko behin betiko boterea duenik, inoiz ezingo da izan kontratuan erabakitakoa baino luzeago. Aitzitik, badago beste morroi mota bat *esklabo* deritzona; guda justu batean harrapatua delarik, zuzenbide naturalez, ugazabaren nagusitasun absolutura eta botere arbitrarioa behartua den hori izan da. Pertsona honek, diodan moduan, haren bizitzarekiko eskubidea galdu du, eta horrekin, bere azienda eta askatasuna. Esklabo egoerak edonolako jabetza galarazten duenez, ezin da gizarte zibilaren partaide kontsideratu, honen xede nagusia jabetzaren iraupena eta zaintza baita.

86. Atala. Azter dezagun familia burua eta honek emazte, seme-alaba, morroi eta esklaboekin dituen harremanak, guztiak ere familiaren etxe mailako gobernupean bilduta daudelarik. Ordenamendu, lanbide eta pertsona kantitateari dagokionean herrialde txiki baten antza duen arren, egikera, botere eta xedeetan handia da dagoen aldea. Monarkiatzat hartzen badugu eta bertako *paterfamilias* monarka absolututzat, orduan, oso botere txiki eta zatikatua litzateke monarkia absolutu horrena. Lehenago esan dugun moduan, familia buruak duen boterea oso zehatza eta mugatua da subirano batenarekin alderatuz gero, bai denborari dagokionean eta bai familia horretan dauden pertsonengan noraino luzatzen den kontuan hartuta. Esklaboak izan ezik (eta familiak familia izaten jarraituko du, eta *paterfamilias* horren botereak handia izaten, esklaborik egon ala ez), familia buruak ez du inoren gaineko

bizitza edo heriotza arautzeko botere legegilierik, ez eta beste-lako botererik ere familiako buru ere baden emazteak eskubide berarekin burutu ez dezakeenik. Eta egiazki ez du, bere osotasunean, familiaren gainean botere absoluturik, partaide bakoitzarekiko duen boterea oso mugatua baita. Baina, gizarte politikoak eta familia baten edo gizakien arteko beste edozein elkarteren arteko diferentzia ikusteko, onena izanen da aztertzea zertan datzan gizarte politikoa.

87. Atala. Frogatu dugun bezala, gizakia askatasun osorako tituluaz jaiotzen da, eta lege naturalak eskaintzen dituen ahalmen eta eskubide guztiez gozatzeko mugarik gabe, gaitzetzeko pertsonen maila berean. Naturaz pertsona bakoitzak du, halaber, bere jabetza babesteko boterea, hau da, bere bizitza, askatasun etaazienda beste edonoren aurrean babestekoa eta lege hori hausten dutenak epaitzeko eta zehatzekoa, bere arrazoiak esaten dionaren arabera, heriotza zigorra ezartzekoa ere, eginiko krimena benetan krudela dirudielarik bere ustetan holako zigorra merezi duenean. Baina ezein gizarte politiko ez daiteke existitu ez bada jabetza babestu dezakeelako eta gizarte horren edozein partaidek jabetzari egin liezaiokeen edozein kalte zehatzen ahal duelako. Beraz, gizarte politikoa soilik emanen da partaide bakoitzak botere natural horri uko egin badio, eta gizartearen esku utzi badu boterea, legearen babesera jo dezakeen kasu orotan. Modu honetan, baztertuta dagoe-nez partikular ororen edozein epaiketa pribatu, gizartea izanen da arbitro edo epaile, eta, indarrean egonik, alderdi ororentzat berdinak izanen diren promulgaturiko lege inpartzialen bitartez eta lege horiek bete daitezen legeak autoritadedun eginiko pertsonen laguntzaz hartuko ditu gizarteak erabakiak, bertako kideen arteko desadostasunak sortzen direnean eta, beti ere, zuzenbide kontuak direnean. Modu berean, zehatuko du partaide batek gizarteari eginiko edozein kalte, legeak ezarritakoren arabera. Hortaz, erraza da ezberdintzea nortzuk dauden eta nor ez gizarte politiko batean bilduta. Gorputz bakarrean

elkartu diren pertsonak biziko dira gizarte zibilean, euren arteko ezadostasunen gainean erabaki eta gaizkileak zigortzeko autoritatea duen epailetza baten ofizioa eta lege komuna dituztelarik. Aldiz, nori apelatu ez daukatenak —mundu honetan esan nahi dut— oraindik naturazko egoeran daude, eta, beste epailerik ez dagoenez, bakoitza da epaile eta betearazle; aitzinean esan bezala, honetan datza naturazko egoera perfektua.

88. Atala. Horrela, herrialde batek lege hauste bakoitzari dagokion zigorra erabakitzeko ahalmena izanen du, urratze hori gizarte horretan gertatuz gero (honi deritzo botere legegilea); badu halaber herrialde horretako ez den norbaitek partaide den bati eginiko kaltea dela-eta zigortzekoa (hau da guda eta bakerako boterea); hau guztia, ahal den heinean, gizarte horretako partaideen jabetzen babeserako izanen da. Alabaina, pertsona bat gizarte zibilean sartu eta erkidego baten partaide bihurtzen denean, bere juzku pribatuaren arabera lege naturalaren aurkako delituak zigortzeko ahalmenari uko eginen dio. Magistratu batengana jotzea daukan kasutan, botere legegilearen esku uzten duenean berak daukan delituak epaitzeko ahalmena eta, hala eskatzen zaionean, erkidegoaren esku utziko duelarik ere indarraren erabilpena, bertako epaiketetan erabakitakoa betearazi behar bada; benetan norberak eginiko epaiketa baita, berak edo bere ordezkari batek eginikoa. Hau da, beraz, gizarte zibilaren botere legegilearen eta betearazlearen jatorria, esan nahi baita, indarrean dauden legeen arabera herrialde horretan gertatutako delituak epaitzea eta —egoera bakoitzari dagozkion epaiketen bidez— erabakitzea kanpotik eginiko kalteak zein puntutaraino izan behar duten zigortuak; kasu bietan herrialdea bere partaideen indar guztiaz balia daitke beharrezkoa izanez gero.

89. Atala. Hortaz, pertsona multzo bat erkidego batean bildu eta lege naturalak eskaintzen dion botere betearazleari uko egin dionean erkidego horren esku utzita, soilik orduan izanen da gizarte politiko edo zibila. Natura egoeran bizi den

pertsona taldea erkidego bat, herri bakar bat, gobernu goren batek zuzendutako gorputz politikoa bilakatzean gertatzen da, edo jada osatuta dagoen gobernuari elkartzan zaionean. Ekintza honekin gizarteari —edo, berdina dena, indarrean dagoen botere legegileari— baimena ematen zaio norberaren izenean legeak egin ditzan, erkidego horretako on publikoaren mesederako; lege hauek betearazteko erkidego horretako kideen laguntzaz balia daiteke (dekretu horiek beraienak ere baitira). Hau da gizakia naturazko egoeratik ateratzen duena eta erkidegoan barneratu: Lurrean epaile bat ezartzea, autoritatea izanen duena auzien gainean erabakiak hartzeko eta herrialde bateko kideei eginiko kalteei konponbidea emateko. Gizaki horrek aukeratu duen botere legegilea edo magistratua izanen da epaile hori. Eta pertsona multzo bat daukagunean, erkidegoan bizi den arren, ez daukana botere erabakitzaile hori, oraindik naturazko egoeran dela esaten ahal dugu.

90. Atala. Hortaz, esan daiteke monarkia absolutua —bartzuentzat gobernu posible bakar den hori— gizarte zibilarekin zinez bateraezina dela, eta beraz ez dela inolaz ere gobernu zibil modu bat. Gizarte zibilaren xedea naturazko egoerak dituen desegokitasunak saihestea eta konpontzea da. Huts hauek pertsona bat bere arazoetan epaile eta alderdi denean gertatzen dira, eta erremedioa epaile ezagun bat ezartzean datza, honengana jo dezake edonork, kaltetua suertatu edo eztabaida batean sartzean, eta gizarteko kide guztiek errespetatu behar dute². Pertsona batzuk, ez daukatenean norengana jo beraien arteko diferentzien gainean erabakia har dezan, orduan, naturazko egoeran bizi dira oraindik; hau da hain zuzen edozein printze absoluturen eta beronen menpean dauden pertsonen artean gertatzen dena.

91. Atala. Printzeak botere legegilea eta betearazlea baditu bere esku, ez da izanen norengana jo, edo epailerik aurkitzea justiziaz, inpartzialtasunez eta autoritatez erabaki eta konponbidea emanen duenik printzeak —ala bere aginduz

beste edonork— eginiko kalte edo minengatik. Hortaz, pertsona hori, Tsarra, Jauntxo Gorena edo dena delakoa izanik ere, bere mende daudenekiko zein gizateria osoarekiko naturazko egoeran izanen da. Pertsona bi bagenitu epailerik edo indarrean egonen den araurik gabeak, ez luketenak Lurrean norengana jo beraien arteko auzien gainean erabaki zezan, orduan esan daiteke naturazko egoeran biziko liratekeela eta, beraz, honek sortzen dituen eragozpenen menpe³, ezberdintasun deitoragarri bakarra printzearen mendekoaren —edo, hobe, esklaboaren— kaltetan honakoa delarik: naturazko egoera normalean norberaren eskubide eta ahalmenaren arabera epaitzen ahal delarik, kasu honetan, ordea, erregeren gurariak eta aginduak norberaren jabetza inbaditzen badu, ez dago norengana jo, gizarte batean bizi direnen artean gertatzen den moduan. Eta, beraz, pertsona hori animalia arrazoigabe baten mailara degradatua da; ezin izanen du juzkatu, naturazko egoeran oztupo edo mugarik gabe bizi delarik, harrokeriaz puztua eta botere mugagabeaz armatua den hori.

92. Atala. Botere absolutuak gizakien odola araztu eta giza naturaren doilorkeriak zuzentzen dituela pentsatzen duen horrek ez du gure garaiko historiara baino jo behar, edo beste edozeinetara, tronpaturik dagoela ohartzeko. Ameriketako oihanetan lotsagabe eta arriskutsu dena, ez da hobetuko tronu batean eseriz gero. Alderantziz, heziketak eta erlijioak irakatsiko liokete bere mendekoei eginiko edozer justifikatzen, eta ezpata izanen liteke berori zalantzan jarriko zutenen artean isiltasuna inposatuko lukeena. Sri Lankako azkenaldiko egoera aztertzen duenak ikusiko du zein den monarkia absolutuak eskaintzen duen babesa, zer nolako aita den printzea bere herriarentzat, eta zer zoriontasun eta segurtasun maila edireten duen gizarte zibilak gobernu mota hau perfekziora daramaten herrialdeetan.

93. Atala. Izan ere, monarkia absolututan zein bestelako munduko gobernutan, herritarrek lege edo epaileengana jo

dezakete euren arteko auzien gainean erabakiak har ditzaten eta eragoz dezaten herritarren artean sor daiteken edozelako biolentzia. Pertsona guztientzat da printzipio hau beharrezkoa, eta hau ezeztatzen duen edonor gizartearentzat eta orokorrean gizateria osoarentzat arerio bilakatuko da. Zalantza egin daiteke joera hau gizarte eta gizateriarekiko maitasunetik, eta bata besteari zor diogun karitatetik sortzen den, jarrera honetan ez baita desberdintasunik sumatzen norberaren boterea, onura edo handitasuna maitatzen dituen horrek berorren animaliak elkarren artean zauritu edo suntsi ez daitezen hartzen duen arretatik. Animalia hauek esklaboak bezala egiten dute lan beraien ugazabarentzat, honen probetxurako; hortaz, jasotzen duten ardura ez dator beraien ugazabak haiekiko duen maitasunetik, hark bere buruari eta animaliek ematen dioten probetxuari dienetik baizik. Galde daiteke egoera horretan agintari absolutuaren biolentzia eta opresioa saihesteko zer muga edo ziurtasunik dagoen, baina ez dizute galdera ere onartuko. Soilik segurtasuna eskatzeak ere heriotza merezi duela erantzungo dizute. Herritarren arteko bakea eta ziurtasuna bermatzeko neurriak, legeak eta epaiak eskainiko dizkizuite. Agintariak, ordea, absolutu izan behar du eta baldintza horietatik at dago; kalte eta min gehien egiteko gaitasuna duenez, horregatik beragatik, egiten duenean zuzen jokatzeko du. Indartsuena den horren min edo kalteak bat nola babes daitekeen galdetzeak matxinatuen alderdian ezarri eta erreboltaren partaide eginen du. Badirudi gizakiak naturazko egoeratik irteten direnean adostu zutela guztiak —bat izan ezik— legeen mende izanzen zirela, eta mende ez den horrek natura egoeraren askatasun osoa mantenduko zuela; horri gehitu beharko litzaioke boterea eta zigorgabetasunaren lotsagabekeria. Honela, bada, ematen du gizakia hain dela ergela, ezen erbinudeak edo azeriak egiten dituzten kalteak saihesteko, lehoiak jaten utziko lukeela bere burua; ez bakarrik pozik, segurtasuna bermaturik daukala pentsatzen ere.

94. Atala. Hala ere, lausengariek jendearen adimena lautzeko diotena diotela ere, ezinen dute lortu pertsonak sentitzeari utz diezaieten, eta ikusten dutenean gizaki batek —berdin du zein den bere egoera— bizi direneko gizarte zibilaren mugetatik at egiten duela eta haiek ez dutela mundu honetan zeinengana jo, gizaki hark eraginiko kaltea saihets dezan, orduan prest egonen dira kaltegilearekiko eurak ere naturazko egoeran ezartzera, kaltegilea ere egoera berdinean baita beraiekiko. Ahal bezain pronto saiaturiko dira gizarte zibilaren ziurtasuna eta segurtasuna lortzen, hau baitzen lehenik ere gizarte zibil hori sortzeko arrazoia eta bertan sartzeko zutena. Baliteke hasiera batean —diskurtso honen hurrengo zatian ikusiko dugun moduan— pertsona on eta bikain bati, besteengandik aparta zenari, bere izaera on eta bertutetsua eskertzeko, eta bat-etortze adierazi baten ondoren, nolabaiteko autoritate natural batez ematea agintaritza nagusia, auziak erabakitze ahalmena, berme bakarrak pertsona horren zintzotasuna eta jakinduria liratekeelarik. Alabaina, denborak autoritatea eta —batzuek pentsarazi nahi digutenaren arabera— sakratutasuna eman zienean ohitura horiei (lehen adin horietako inozentzia zabar eta zuhurtasunik gabean oinarri duten ohitura horiei) eta beste molde bateko oinordekoak hasi zirenean agertzen, jendeak ikusi zuen beraien jabetzak ez zeudela salbu gobernu horren mende (eta gobernuaren xedea jabetzaren babesa⁴ baizik ez da), eta ez zirela inoiz ziur eta lasai izanen ez eta gizarte zibil baten partaide izan, senatari, parlamentari edo dena delakoek osaturiko giza taldeak botere legegilea bere esku ez zuen artean. Modu horretan pertsona bakoitza, baita pertsonetarik umilena ere, herritar bilakatu zen eta, botere legegilearen parte zen heinean, sorturiko legeen mende ezarri zuen bere burua. Eta inork ezin du bere autoritate propioan oinarriturik legearen indarra saihestu, behin hau sortua denean; ezin du ere besteak baino handiago dela pentsatuta hartatik salbuespena eskatu, horrela bere bidegabekeriei edo bere menpekoenei lizentzia eman nahian⁵. Esan bezala, gizarte zibilean inor ez da salbue-

tsia indarrean dauden legeetatik, norbaitek gogoan datorkiona egin badezake eta ez badago mundu honetan norengana jo hark eginiko edozein kaltegatik konponbidea eta segurtasuna eskatzeko, orduan, pertsona hura naturazko egoeran legoke eta hortaz ez litzateke gizarte zibilaren partaide. Noski, norbaitek ez baldin badu esaten naturazko egoera eta gizarte zibila gauza bera direla; orain arte ez dut topatu horrelakorik baieztatuko duen anarkiaren mezenasik.

VIII. KAPITULUA

GIZARTE POLITIKOEN HASIERAZ

95. Atala. Jada esan dugunez, gizaki oro naturaz libre, berdin eta burujabe izanik, inork ezin dezake egoera horretatik irten eta bere burua beste norbaiten botere politikoaren menpe ezarri; bere kabuz onespina ez badu ematen behintzat. Pertsona batek naturaz duen askatasunari uko egin eta bere burua gizarte zibilaren mugen barne ezartzeko modu bakarra ondokoa da: beste pertsona batzuekin akordio batera iritsi ondoren, elkarrekin bildu eta erkidegoan bizitzeko erabakia hartzea, modu honetan elkarren artean bakean, lasaitasunean eta eroso bizitzeko, beraien jabetzaz gozatuz eta erkidego horren parte ez direnetik babestuta. Hau pertsona kopuru mugagabeak burutu dezake, ez baitaio kalterik egiten gainontzekoen askatasunari; besteak naturazko egoeran, zeuden moduan, geratuko dira. Gizatalde bat erkidego edo gobernu bat sortzeko adostasunera iristen denean, une horretan beraiek osatzen duten gorputz politikoan sartuko da, eta bertan gehien-goak gainontzekoen izenean ekiteko eta erabakiak hartzeko eskubidea dauka.

96. Atala. Izan ere, zenbait pertsonak erkidego bat sortzen dutenean —haietako bakoitzaren adostasunez—, erkidego hori gorputz bakar batean eratuko dute, eta hau gehiengoaren

nahia eta erabakiarekin egiten da. Erkidegoan eragiten duena norbanakoen bat-etortzea soilik baldin bada, eta beharrezkoa bada gorputz osoa norabide berean mugitzea, orduan, beharrezkoa izanen da ere indar nagusiak —hau da, gehiengoaren bat-etortzetik datorrenak— daraman norabidean mugitzea. Bestela ez litzateke posible gorputz osoak bezala egitea, erkidegoak bezala, eta hau zen erkidego horri batu zitzaizkien guztiek erabaki zutena; hortaz, bat-etortze horregatik pertsona oro dago gehiengoak harturiko akordiotara behartua. Horrela, ikusten ahal dugu lege positiboen bidez eraturiko biltzarretan —boterea ematen dien legeak ez duelarik finkatzen kopuru jakinik—, gehiengoaren erabakia osotasunaren erabaki izanen dela, eta zalantzarik gabe, naturaren eta arrazoiaren legearen arabera, osotasunaren boterea bere baitan dela ulertuko da.

97. Atala. Modu honetan, beste pertsona batzuekin elkartu eta gobernu baten menpeko gorputz politikoa osatzea erabakitzen duen gizabanako bakoitzak bere burua gizarte horretako kide guztiekiko behartzen du gehiengoaren erabakiak konplitzera. Osterantzean, bai bera bai gainontzekoak erabakiriko hasierako akordioak ez luke esanahirik, eta ez litzateke akordio bera izanen, aske utzi eta naturazko egoeran zituzkeen muga berak balitu. Akordioaren itxurarik ere izanen al luke? Zer esanahi du gizartearekiko engaiamenduak, ez bagara sentituko behartuak haren erabakiekiko, komenigarriak iruditzen ez zaizkigunean edo ados ez gaudenean? Kasu honetan, norbanakoak akordioaren aurretik zuen askatasun bera izanen luke, naturazko egoeran duen berbera, soilik komeni zaionaren menpe dagoelarik.

98. Atala. Gehiengoaren onespina ez bada osotasunaren ekintza kontsideratuko eta gizabanako bakoitza ez badu behartuko, orduan beharrezkoa da pertsona bakoitzaren onespina osotasunak zerbait egin behar badu. Alabaina, ezinezkoa da horrelako oniritzia jasotzea; osasun kaskarrak edo negozio kontuek hainbeste pertsona aldenduko ditu biltzar publikoeta-

tik, kopurua inoiz ez bada ere herrialdea osatzen duten pertsona guztiak izatera iritsiko. Honetaz gainera, kontuan harturik iritzi eta interes kontrajarri eta anitzak, modu horretan ezinezkoa litzateke erkidego bat osatzea; Katoren antzerti-lanetan gertatzen dena suertatuko litzateke: taulara bertaratzea berriz ere eszenatokitik irteteko. Horrelako egikera batekin Leviatan indartsua ere izakirik arruntena bezain gutxi biziko litzateke, bere jaiotza eguna ere ez luke iraungo. Ez dut uste izaki arrazionalek gizarteak desiratu eta osatuko dituztenik hurrengo unean desegiteko. Gehiengoak gainontzekoak behartzen ez dituen artean gorputz politikoak ezin du ekin gorputz bakarrak bezala, eta hortaz berehala deuseztatuko da.

99. Atala. Beraz, naturazko egoera utzi eta erkidegoan biltzen denak jakin behar du gehiengoaren esku lagako duela erkidegoak funtziona dezan —horretarako bildu baitziren— honek beharrezko duen boterea, ez bada aurrez erabaki eta adierazten gehiengoa baino kopuru handiagoa beharrezkoa dela. Honetarako, gizarte politikoan sartzea onartzearekin nahikoa da; hau da erkidegoa eratzeke beharrezko den akordio bakarra. Hortaz, ondokoa da gizarte politikoa sortu eta osatzen duena: erkidegoan sartu eta bilduz, gehiengoa eratzeke gai diren pertsona askeen talde baten adostasuna. Eta hau da, eta ez beste, munduko edozein gobernu legitimori hasiera eman ziona.

100. Atala. Bi dira honi topa dakizkikeen oztopoak:

Lehenik, historian zehar ez dugula aurkitzen adibiderik, burujabeak eta elkarren artean berdinak izanik, gizaki taldea bildu eta gobernua eratzea erabaki zuenenik.

Bigarren, aitzinekoa egitea ere ezinezkoa dela: gizakiak gobernu jakin baten mende jaiotzen direnez, berau onartu beharko dute, eta ez dute askatasunik bestelakoren bati hasiera emateko.

101. Atala. Lehen oztopoari ondoko erantzuna eman dakioke. Ez da inolaz ere harrigarria historiak naturazko egoeran bizi ziren horiei buruz ezer gutxi esatea. Egoerak zekarz-

kien arazoak, eta gizarte baten beharrak, elkarrekin irauteko-
tan bildutako zenbait pertsona erkidegoan elkartzera eraman
zituen berehala. Ez badugu zilegi pentsatzea gizakiak noizbait
naturazko egoeran bizi izan direla, horren berririk ez dugula-
ko, orduan, Salmanaser edo Xerxesen soldaduek haurtzarorik
ez zutela izan pentsatu beharko dugu ere, ez baitakigu ezertxo
ere beraietaz gizon bihurtu eta gudarostea osatu zuten arte.
Gobernuak beti datoz erregistroen aitzinetik, eta herri batek ez
du idazkera lantzen, beste trebetasun beharrezko batzuek
segurtasuna, erosotasuna eta oparotasuna ziurtatzen dizkieten
artean; une horretan hasten dira fundatzaileen historiak ardura-
tzen eta jatorriaz kezkatzen; inor hartaz gogoratzen ez denean.
Herrialde desberdinei pertsona konkretuei bezala gertatzen
baitzaie, normalean ezer gutxi dakite beraien jaiotza eta haur-
tzaroaz. Eta beraien jatorriaz ezer badakite besteen halabeha-
rrezko kontakizunengatik jakingo dute. Jasota dauzkagun
herrialde ezberdinen kondairak (juduenean izan ezik, hauen
kasuan Jainkoa bera da artekari, eta ez dago aipamenik aitaren
nagusitasunaz) adibide argi dira aitzinean aipaturiko moduko
hasiera batenak, edo behintzat badira seinale adierazgarriak
hala zela suposatzeko.

102. Atala. Tematsua izan behar du batek gauza argiak
ukatzeko, norberaren hipotesiekin bat ez datozenean. Holakoa
da ukatzen duena Erroma edo Veneziaren jatorria elkarren
arteko nagusitasunik edo lotura naturalik gabeko gizaki aske
eta burujabeen elkartzean dagoela. Eta Josephus Acosta-ren
kontakizunak sinetsiz gero, Ameriketan ez zen inolako gober-
nurik; hark dioskunez, seinale asko eta argiak daude pentsa-
tzeko denbora luzean perutarrek ez zutela izan ez erkidegorik
ez eta erregerik ere, gizatalde saldotan bizi zirela, egun
Floridako Cheriquanak edo Brasilgo indiarrek eta beste hain-
beste bizi diren moduan, eta ez zutela agintaririk, aitzitik,
guda edo bake egoeran izanaren arabera hautatuko zutela
agintari bat edo beste (I. lib., 25. kap.). Esaten bada pertsona

hauek aitaren edo familia-buruaren mende jaio direla, erantzun behar da —dagoeneko frogatu dugun bezala—, aitareki-ko mendetasunak ez duela eragozten norberak gustuko duen gizarte politikoan sartzea. Zena zelakoa izanik ere, argi dagoena da gizaki hauek erabat libre zirela. Eurek ez zuten aitortuko politikoek egun egotzi nahi dieten edozein elkarren arteko hierarkia, aitzitik denak ziren adostasunez erabat berdin elkarren artean, ez bazuten akordioz ere uneren batean erabakitzen agintariren bat hautatzea. Hortaz, pertsonen borondatezko elkartetik eta elkarren arteko akordiotik sortzen dira beraien gizarte politikoak; gobernariak eta gobernu motak libreki aukeratzen dituztelarik.

103. Atala. Nork uka lezake Palantorekin Espartarantz abiatu ziren haiek (Justin., 3. lib., 4. kap.-an aipatzen den bezala) denak gizon libre zirela, elkarren artean independente, eta akordioan oinarrituriko gobernu bat eratu zutela. Modu hone-tan, aske izanik eta naturazko egoeran bizi zirelarik erkidegoa osatu zuten zenbait pertsonaren adibide dagoeneko aurkeztu dudala iruditzen zait. Eta adibideen gabeziak frogatuko balu gobernu ez zela, ez eta ezin ere, modu horretan hasi, orduan, aginte aitatiarraren defendatzaileek hobe lukete askatasun naturalaren aurkako saiakera hori bertan behera utzi, ezen guk aurkeztu dugun adibide kopuru bera emateko gai balira, orain-goan, eskubide aitatiarra frogatzeko (hala ere, adibidea iraganean gertatutakoa esplikatzeak arras ona balitz ere, ez luke izanen balore handirik etorkizunean gertatuko dena azaltzeko), kasu horretan eta arrisku handirik gabe, onartuko genituzke euren arrazoiak. Aholku bat emanen nahi nieke, hobe lukete larregi ez arakatzea gobernuen jatorrian, hau da, ea *de facto* nola hasi ziren, oso gutxi ediren baitute ziurrenik gobernuen hasieran eurek defendatzen duten modeloaren euskarri izanen denik.

104. Atala. Hortaz, arrazoia gure alde dago gizakia natu-raz libre dela baieztatzen dugunean, eta historiatik datozkigun

adibideek erakusten digute munduko gobernuak bakean hasi zirela, beraien oinarria horretan zetzan, eta herriaren bat-etortzean oinarritu ziren sortu ziren momentuan. Argi dago, bada, gizateriak gobernuak lehendabizi sortu zituenean zein eskubidetan oinarritzen zen edo nola eraikitzen zituen, eta ez dago ikuspuntu hau zalantzan jarriko duen argumentu indartsurik.

105. Atala. Ez dut ukatuko, historiak lagatzen digun heinean, atzera egin eta erkidegoen jatorria aztertzen badugu, hauek gizaki bakarraren gobernuaren menpe eta gidaritzapean aurkituko ditugula. Onartzen ahal dut familia bat tamainaz nahiko handia zelarik, bere kasa aurrera egiteko ahalmena zuenean eta beste inorekin nahastu gabe elkarrekin bizi zirenean —sarritan gertatzen ohi den bezala lur asko eta jende gutxi dagoenean— gobernua normalean aitaren baitan hasi zela. Aita batek badu, lege naturalaren arabera eta beste edozein pertsonak duen moduan, beharrezko estimatzen duenean lege horren aurkako delituak zigortzeko eskubidea; beraz, izan beharko luke ere bere seme-alabek eginiko arau urratzeak zigortzekoa, haiek nagusiak direnean eta apopilo izateari uzten diotenenan ere. Ziurrenik aitaren zigorrak onartuko zituzten eta berarekin elkartuko ziren errudunaren aurka; modu horretan, edozein arau hausteren aurkako zehapenak burutzeko ahalmena eskainiko zioten, eta familiaren inguruan biltzen ziren guztien gainean legegile eta gobernari izendatuko zuten. Konfiantza gehien aitarengan zuten denek: aitaren maitasunak eta zaintzak beraien jabetza eta interesak ziurtatzen zituen, eta haurtzarotik zeukaten aitari obeditzeko ohiturak beste inori baino errazago egiten zuen hari men egitea. Beraz, norbaitek gobernatu behar balitu —gobernua normalean ezinbestekoa baita elkarrekin bizi diren gizakien artean—, ez legoke guztion aita baino pertsona aproposagorik; arduragabekeriak, ankerkeriak edo bestelako adimenezko edo gorputzezko akatsen batek ezgaituko ez balu. Alabaina, aita hil, eta gobernatzeko gaitasun txikiagoa zukeen jaraunsle bat utziko balu —adina, adimena,

adorea, edo dena delakoa falta litzaizkiokeelako—, edo eta zenbait familia biltzen baziren eta elkarrekin bizitzea erabaki, kasu bietan zegokien naturazko askatasuna erabil zezaketen, gai zen norbait eta ongi gobernatuko zituena aukeratzeko. Aitzinekoa zen Ameriketako hainbat herrialdetan gertatzen zena, Peru eta Mexikoko inperio handien nagusitasunaren eta ezpata konkistatzailearen irismenetik at bizi zirelarik, beraien askatasun naturalaz gozatzen zuten; baina *ceteris paribus* nahiago zuten zendutako erregearen ondorengoa. Hala ere, ezgaitasun edo ahultasunen bat edireten ziotenean, alde batera utzi eta guztietarik indartsuena eta kementsuena hautatzen zuten.

106. Atala. Horrela, bada, aztertzen badugu munduaren populatzeaz eta nazioen historiaz dokumentuek kontatzen digutena, ikusiko dugu gobernu pertsona bakarraren esku zegoela. Honek ez du ordea nik baieztatzen dudana deuseztatzen, hau da, gizarte politikoaren hasiera elkarrekin biltzea eta gizartea eratzea erabaki duten gizabanakoen bat-etortzean oinarritzen dela, eta, behin gizartea osatuta, erabakitzen ahal dela gobernu modurik egokiena zein den. Eta puntu honetan sortzen ohi da errakuntza, pentsatu izan baita gobernu naturaz monarkikoa zela eta aitari zegokiola; beraz, komeni da aipatzea zeintzuk izan diren gizakiak gobernu modu hau aukeratzera eramán dituen arrazoiak. Hasiera batean aitaren gailentasunak eragingo balu ere zenbait erkidegotan boterea pertsona bakar baten esku egotea, aitzitik, argi denez, pertsona bakarrean oinarritzen den gobernu mota honen mantentzeak ez dauka botere aitatiarrarekin zerikusirik; monarkia txiki guztiek—hau da, ia monarkia guztiek— bere hasieran noizbait behintzat hautaketan oinarritu dira.

107. Atala. Horrela, bada, hasiera batean seme-alabak haurtzarotik aitaren gobernura ohitu zirenez, pertsona bakarrean agintaritzara kostumatu ziren, eta ikasi zuten menpe zudenekiko arduraz, trebetasunez eta maitekiro ezartzen zenean

agintea, orduan nahikoa zela pertsonen gizartean aurkitu nahi duten zoriontasun politikoa lortu eta mantentzeko. Ez da harritzekoa, beraz, gobernu modu hau hautatu eta bertan sartzea, haurtzarotik ohituta baitzeuden, eta esperientzia propioagatik eroso eta ziurtzat zeukaten. Bestalde, kontuan harturik esperientzia edo ikasketarik ez dutenentzat beste gobernu mota batzuk baino argiago eta ulerterrazagoa dela monarkia, eta agintarien askonahiak eta lotsagabekeriak ez diela botere absolutuaren bidegabekeriei aurre egiten irakatsi —monarkiak botere hori eskatu eta beraian inposatuko zuen—, orduan, ez da harritzekoa ez zutela ardura gehiegi hartu neurriak asmatzeko autoritatea eman zitzaaien haien gehiegikeriak gelditzearren, edo ez zirela saiatu orekatzen gobernuaren boterea, zenbait zatitan bananduz eta pertsona ezberdinen esku utziz. Agintaritza tiraniko baten zapalkuntzarik ez zuten ezagutu, eta garaiko ohiturek, beraien jabetzek eta bizitzeko erak ez zieten kodizia edo askonahiari bide ematen, ez zuten zergatik harekiko errezelarik edo babes beharrik sentiarazi behar. Beraz, ez da batere harrigarria gobernu modu horretan sartzea, ez bakarrik —aipatu dugun bezala— argiena eta errazena zelako, baita beraien egoera eta kondizioari gehien komeni zitzaiena zelako une hartan ere. Izan ere, garai haietan komenigarriago zen kanpotik zetozen inbasio eta kalteei aurre egitea, lege mordoia izatea baino. Bizitza umil eta txiroak beraien nahiak bakoitzaren jabetza txikietara mugatzen zituen, eta, beraz, eztabaida gutxi sortzen zen eta ez zegoen hauen gainean erabakiko zuen lekeen beharrik; ez zen justiziarik behar, delitugileak zein biktimak gutxi baitziren. Bestalde, ziurrenik elkarren adiskide zirenak —gizartean biltzeko adina—, beraien artean harreman edo adiskidetasun maila bat izanen zuten, baita elkarren arteko nolabaiteko konfiantza; hortaz, beraien lehen pentsamendua eta ardura kanpotik etorririko eraso bat izanen zen eta ez adiskideengandikoa. Horrela, xede hori beteko zuen gobernu egituran sartu ziren, eta gizonik jakintsu eta ausartena hautatuko zuten gudetan zuzen zitzan eta buru izan zedin are-

rioen aurka defendatzeko garaian; honetan zen gehien bat agintari.

108. Atala. Amerikan —Asia eta Europaren lehen garaian gertatzen zenaren eredu datekeelarik— herrialdearen tamainarako gutxi dira biztanleak, eta jende eta diruak eskasak izanik gizakiek ez dute lur jabetzak handitzeko tentaziorik, ez eta lur eremu handiagoak lortzearren borrokatzeko. Bertako indiarren erregeak gudarosteen buruzagi baino ez dira, eta guda garaian beraien agintea absolutua bada ere, bake garaian, berriz, etxean daudenean oso gutxi agintzen dute, eta beraien subiranotasuna mugatua da, herriari edo kontseiluari dagokio bakea edo guda deklaratzeko. Guda izanen da —ez baititu agintari anitz ametitzen— erregearen autoritate bakarrari agintaritza itzuliko diona.

109. Atala. Israeldarren artean ere, lehen errege eta epaileen eginkizuna gudako buru izatea eta gudarostea zuzentzea omen zen. Herri aurrean jarri eta kentzea dioen espresio edo adierazpide horrek gudarostearen buru gudara joatea eta etxera itzultzea dakar gogoan, eta Jeftaren istorioan islatzen da hoberen. Amonitarrek Israeli guda deklaratu zioten. Egoerak kezkatuta, gileaditarrek Jeftari —beraiantzat bastart zenez arbuiatua zuten— paktu bat eskaini zioten, horrela, amonitarren aurka lagunduz gero euren agintari eginen zuten. Honako hitzekin dago adierazia: «Eta herriak bere buruzagi hautatu zuen» (*Jug.* xi, ii), antza denez, epaile izendatzea modukoa omen zen. «Eta Israelen jujatu zuen» (*Jug.*, xii, vii), hau da, sei urtez kapitain-jeneral izan zen. Horrela, Jotam-ek xekemitarrei gogorarazi zienean Gideon-ekiko zuten betebeharra —haien epaile eta agintari izan baitzen—, ondokoa esan zien: «Zuentzat borrokatu zuen eta bere bizitza arriskuan jarri, midiarren menpetik atera zintuzten» (*Jug.*, ix, xvii). Ez da aipatzen jeneral moduan eginikoa baino, izan ere, hori da bere historian eta gainontzeko epaileenean ediren duguna. Abimelek-i errege deritzate, gehienez ere beraien jeneral zen

arren. Eta Samuelen semeen jarreraz nazkatu zirenean, Israelgo seme-alabek errege baten beharra sentitu zuten, «gai-nontzeko nazioen moduan, epai zitzan eta gudatan beraien buru bezala borroka zezan» (*Sam.*, i, viii, 20); eta beraien nahiari erantzunda, Jainkoak ondokoa esan zion Samueli: «Igorriko dizuet gizon bat, eta zuk oliatuko duzu ene Israelgo herria zuzen dezan, berak salbatuko du nire herria filistiarren-gandik» (ix, 16). Ematen du errege baten eginkizun bakarra gudarosteak zuzendu eta hauen defentsan borrokatzea zela; hortaz, Saulen izendapenean flaskotxo batetik olioia isuri zuen haren gainean eta deklaratu zuen, «Jainkoak bere oinordekoen kapitain izendatu zuela» (x, 1). Mispah-ko tribuek solemneki gantzutu eta errege bezala agurtu ostean, oraindik baziren ez zutenak erregetzat nahi, eta ondokoa zen ikusten zuten eragozpen bakarra: «Nola salbatuko gaitu gizon honek?» (v., 27), honekin esan nahi baita, gizon hori ez zela duin, ez zelako gai beraiek defendatzeko. Eta Jainkoak agintea Davidi transferitzea erabaki zuenean, hitz hauek erabili zituen: «Zure erreinuak ez du jarraituko, Jainkoak bere bihotzeko gizon bat aukeratu du eta Jainkoak beronen herria gida dezan erabaki du» (xiii, 14). Dirudienenez erregearen autoritate osoa jeneral batek daukanera mugatzen da; hortaz, Saulen familiarekiko leial mantendu eta Daviden erreinuari oposatu zitzaizkion tribuak Hebron azaldu zirenean azken honi men egitera, horretarako arrazoi bezala esan zuten Saulen garaian ere errege zela, eta hortaz erregetzat hartu behar zutela, eta «iraganean, Saul gure artean errege zenean, zu izan zinen gidatu eta Israelera bueltan ekarri gintuena, eta Jaunak esan zizun, ‘Zuk elikatuko duzu Israel, ene herria, eta zu izanen zara bere kapitain’».

110. Atala. Horrela, familia hazten joan zen, erkidegoa eratzeraz arte, eta autoritate aitatiarrak seme nagusiarengan jarraitu zuen indarrean. Jendeak gobernu horren mende jarraitu zuen, adierazi gabeko onespina emanez. Gobernu modu hau eroso eta denekin berdinean zenez, eta inor ez zenez ofenditurik

sentitzen, pertsona orok ematen zion bere oniritzia, harik eta dirudienez denboraren igarotzeak berretsi zuenera arte eta derrigorrezko ondorengotza eskubidea ezarri. Baliteke ere, zoriak, auzotasunak edo negoziok elkarturiko zenbait familia eta beraien oinordekoak erkidegoan biltzea eta beharrezko izatea gudan arerioen aurka defendatuko zituen buruzagi bat; honi gehitzen badiogu pertsonak zeukaten elkarren arteko konfiantza, zintzotasun eta inozentzia, garai txiro baina bertuteak baitziren —munduan izan diren gobernu iraunkor guztiei egokitu zaien bezala—, horren guztiaren emaitza erkidegoen lehen sortzaileek orokorrean gobernua pertsona bakarraren esku uztea izan zen, gobernuaren naturak eta xedeek inposatzen zituzten limitazio edo muga adierazi soilekin. Pertsona bakarrak boterea bere esku jasotzeko izan zuen modua dena delakoa izanik ere, gauza ziurra da harengan ezartzen zela konfiantza, herriaren onerako eta segurtasuna lortzeko; xede hauek zituzten buruan erkidegoen hasieran agintari zirenek. Ez balitz horrela erkidego gazte horiek ez zuketean aurrera eginen. Herriaren onaz arduratzen ziren aita bihozbera eta arretatsu horiek gabe gobernu guztiak suntsituko ziren, haurtzaroaren ahultasun eta akatsak zirela medio, eta printzea eta bere herria laster hilko ziren elkarrekin.

111. Atala. Urrezko Garaian (handinahi hutsalak, *amor sceleratus habendi*-ak eta grina gaiztoak gizakiaren adimena galbideratu eta boterearen eta ohorearen kontzeptu erratu bat eman baino lehen) bertutea handiagoa zen, hortaz gobernariak hobeak ziren eta herritarrak ez hain bizioz beteak, eta gainera, alde batetik, ez zegoen herriarekiko pribilegio zapaltzailerik eta, bestetik, ez zen sortzen magistratu baten boterea txikiagotu edo mugatuko zuten pribilegioen gaineko eztabaidarik. Arrazoi horiengatik, ez zen hasten ere agintari eta herriaren artean liskarrik, erabakitzeko nori gobernatu behar zuen edo zein gobernu modu zen egokiena⁶. Alabaina, beranduago handinahiak eta lizunkeriak boterea gorde eta handitzea ekarri

zuen. Botere hori xede baterako eskaini zen baina ordurako ez zen betetzen, eta lausenguek bultzatuta printzeen interesak herriarenarengandik bereizten joan ziren, eta hortaz gizakia hasi zen konprenitzen arreta handiagoarekin aztertu behar zela zein zen gobernuaren jatorria eta zein ziren zegozkion eskubideak, eta beharrezkoa suertatu zen baita ere zenbait neurri hartzea botere horren gehiegikeriak mugatzeko eta nagusikeriei aurre egiteko. Boterea denon onerako utzi baitzen beste norbaiten esku, baina beranduago botere honek kalte baizik ez zuela egiten konturatu ziren.

112. Atala. Horrela, ikusten ahal denez, pertsona libreek aitaren gobernupean ezarri zituzten euren buruak —ziur asko beraien erabaki propioz—, edo bestela familiatan elkartu ziren gobernu bat osatzearren. Kasu bietan agintea pertsona bakarren esku jartzen zuten eta euren jarduera ere pertsona baten menpe uzten, botere hori arautuko lukeen adieraziriko baldintzarik gabe, uste baitzuten nahikoa zela haren zintzotasuna eta zuhurtasuna. Inoiz ez zuten amestu ere eginen, ordea, monarkia *iure divino*-z zela, ez baita horrelakorik entzun gizateria osoan, azken aldiko teologiak ezagutzera eman digun arte behintzat; ez zuten behin ere onartuko botere aitatiairrak nagusitasun eskubidea zekarrenik ere, edo eta edozein gobernuaren oinarria zenik. Honek guztiak pentsatzera garamatza, historiak argiren bat dakarren heinean, gobernuen hasiera baketsu guztiak herriaren onespenean oinarritu direla. Baketsu, diot, ezen beste leku batean izanen baitut abagunea konkistaz aritzeko, batzuek gobernu bati hasiera emateko modu kontsideratzen duten horretaz.

Gobernu moduen hastapenetarako nik eman dudan teoriaren aurka ondoko oztopoa aipatzen da:

113. Atala. Pertsona guztiak gobernu baten mende —edonolakoa dela ere— jaiotzen dira, hortaz, ezinezkoa da inor inoiz libre izatea beste norbaitekin elkartu, gobernu berri bat sortu edo eta gobernu legitimo bat eratzeko.

Argudio hau ona balitz, galde liteke ea nolatan eratu diren horrenbeste monarkia legitimo munduan. Hipotesi hone-tatik abiatuta, norbaitek esaten badu bazela pertsonaren bat aske monarkia legitimo bat hasteko, ziur nago nik ere aipa ditzakedala garai bererako beste hamar prest egonen zirenak gobernu berri bati hasiera emateko, monarkikoa edo beste edo-nolakoa. Honek frogatuko luke beste norbaiten menpe jaiotzen denak askatasun nahikoa daukala beste batzuei agintzeko esta-tu berri eta ezberdin batean, askatasun nahikoa du ere gobernu ezberdin bateko agintari edo hiritar izateko. Eta printzipio honi atxikitzen bagatzaizkio, edo jaio diren pertsona guztiak libre dira, edo munduan gobernu legitimo bakarra egon beharko da. Beraz, egin beharko duten gauza bakarra gobernu hori zein den azaltzea da; horren ostean ziur nago gizateria osoa izanen dela prest hari obeditzeko.

114. Atala. Aitzinekoa nahikoa den arren aipaturiko oztopo horri aurre egiteko, frogatzen baitu oztopo berak beste hainbeste eragozpen planteatzen dituela, hala ere, oraindik aurkeztuko ditut argudio horren beste zenbait ahultasun. Diotenez, pertsona guztiak jaiotzen gara gobernu baten menpe eta, beraz, ez gara libre berri bati hasiera emateko. Denok jaiotzen gara aitaren edo printzearen agindupean eta, hortaz, beti-ko behartuta gaude mendetasun eta fideltasun lotura bati eus-tera. Alabaina, argi denez, gizateriak ez zuen inoiz ere onartu edo aintzakotzat hartu jaiotzetik datorren mendetasun hori, ez aitarekiko ez eta printzearekiko, haren arabera lotuta leudeke-elarik pertsona bat zein bere ondorengoak ere.

115. Atala. Historia, bai sakratua zein profanoa, hainbat pertsonaren adibidez josita dago, jaio zireneko jurisdikzioari obedientzia ukatu, hezi zitueneko familia edo erkidegotik alde egin eta beste leku batzuetan gobernu berriak sortu zituztene-nak. Hortik datoz gizakiaren lehen garaitan hain ugariak ziren erkidego txikiak. Lekurik zegoen artean ugaritzen joan ziren, harik eta indartsu edo zorionekoenek ahulenak irentsi eta, aldi

berean, handitu ondoren, zatitu eta lurralde txikiagotan banatu zirenera arte. Honek guztiak dira subiranotasun aitatiarraren aurka areagoko frogak, eta egiaztatzen dute gobernuak ez direla hasten seme-alabei transmititzen zaien aitaren eskubide naturaletik, hau bateraezina baita hainbat erreinu txiki egotea- rekin. Pertsonak ez balira libre beraien familiengandik eta bertan zegoen edozein gobernutik, bereiztu ezinik eta beste erki- dego edo gobernu batzuk beraien gustura ezin osatuz, ez lego- ke monarkia unibertsal bakarra baizik.

116. Atala. Hori izan da munduan gertatu izan dena lehen garaietatik orain arte. Egun ere, aspalditik eraturako lege eta gobernu moduak dituen gizarte politiko batean jaiotzeak ez du suposatzen bertako pertsonen askatasunerako oztoporik, baso eta oihanetan libre bizi diren pertsonekin alderatuz ez behintzat. Gobernu jakin baten menpe jaio- rik, naturaz beroni lotuta gaudela eta ezin dugula naturazko egoerako askatasuna eskatu diotenek ez dute beste arrazoirik (botere aitatiarrarena alde batera utzi ondoren, hau dagoeneko errefutatu baitugu) ondokoa baino: uste dute gure guraso edo arbasoak naturaz zegokien askatasuna emateagatik eurak eta bere ondorengoak men eginiko gobernu horren azpian geratu behar zirela. Egia da norberak egiten dituen konpromiso edo promesak betetzera behartuta dagoela, baina inolako paktuk ezin ditu bere seme- alabak behartu eta are gutxiago ondorengoak. Semea gizon bilakatzen denean aita bezain libre izanen baita, eta azken honen inolako ekintzak ezin du semearen askatasuna murriztu, beste edozein pertsonaren askatasuna murrizt ez dezakeen modu berean. Herrialde bateko hiritar bezala, lur baten jabe- tzari zenbait baldintza ezar diezazkioke, horrela, semeak aita- ren lurrez gozatu nahi balu, herrialde horretako herritar izan beharko luke; hau honela da, ezen ondarea aitarena izanik, har- taz nahi bezala balia daitekeelako.

117. Atala. Hau izan da orokorrean gai honen gainean hainbat gaizki-ulertu sortu dituen. Herrialde ezberdinek ez

dutenez utziko beraien lurraldeak sakabana edo bereiz daitez-
zen eta herrialde bertakoa ez den inork beraietaz goza dezan,
seme-alabek normalean ezin dute beraien gurasoen ondareaz
goza ez bada hauek zeuzkaten baldintzapean, hau da, herrialde
berek hiritar izanda. Hortaz, semea edo alaba bertan dagoen
gobernaren mende izanen da, herrialde horretako beste edo-
zein hiritar bezala. Modu honetan, gobernu baten mende jaio-
tako pertsona libreen adostasuna —hau delarik erkidego baten
partaide egiten dituen— gizaki bakoitzak adin-nagusitasune-
ra iristerakoan eginen du, eta ez kolektiboki. Jendea ez da
honetaz ohartu, pentsatzen du ez dela beharrezko egitea eta,
horrela, iruditzen zaie naturaz direla menpeko, gizaki izatea-
gatik soilik.

118. Atala. Alabaina, argi dago gobernuek berek beste
modu batean ulertzen dutela auzia. Ez dute seme-alaben gai-
neko nagusitasuna dutela kontsideratuko gurasoekiko bazute-
lako; ez dituzte hiritar bezala hartuko gurasoak bazirelako.
Ingalaterrako hiritar batek Frantzian seme edo alaba bat izanen
balu emakume ingeles batekin, nongo hiritar litzateke?
Ingalaterrako erregearen menpekoea ez, horretarako baimena
beharko bailuke. Ezta Frantziako erregearena ere, bestela aita-
ezinen luke seme edo alaba noranahi eraman eta nahi bezala
hezi. Inor izan al da traidore edo desertore moduan epaitua
herrialde batetik alde egiteagatik edo honen aurka borrokatze-
agatik, bere gurasoak lurralde horretan atzeritarrak baziren?
Horrela, bada, gobernuen jardueratik beratik eta arrazoi zuzen-
ak dioenetik, argi dago seme-alabak ez direla jaiotzen herrial-
de edo gobernu baten menpeko. Adin-nagusitasunera iritsi
artean gurasoen tutoretza eta agindupean daude; honen ostean
gizabanako aske batek aukera lezake zein gobernuen menpe
egon nahi duen, zein gorputz politikoren partaide izan nahi
duen. Frantzian jaiotako ingeles baten seme edo alabak askata-
sun hori badu, argi dago bere aita herrialde horretako hiritar
izateak ez duela beretzat inolako betebeharririk suposatzen; are

gutxiago bere arbasoek eginiko paktuek. Eta hau horrela bada, berdin du semea beste edonon jaio bada ere, gurasoek seme-alabekiko duten boterea berdina baita, ez dauka garrantzirik non jaioak diren; eta betebeharrak naturalek ez dituzte lotuko erreinu eta errepubliketako muga positiboetara.

119. Atala. Frogatu dugun arabera, pertsona oro naturaz libre bada eta ez badago ezer —norberaren onespina salbu— botere lurtar bati lotuaraziko dionik, aztertu beharko da zer onspen deklarazio den nahikoa pertsona bat edozein gobernuaren legeen menpeko dela argi uzteko. Aztertzen ari garen kasurako badago ezberdintasun garrantzitsu bat adierazi eta adierazi gabeko onspenaren artean. Inork ez du ukatuko pertsona batek gizarte batean sartzeko ematen duen onspen adierazia nahikoa dela gizarte horren eskubide osoko partaide izateko, gobernu horren menpeko. Zailtasunak datoz, ordea, jakiteko zer den adierazizko onspina eta noraino behartzen duen, hau da, noiz kontsideratuko duen norbaitek onspina eman duela eta hortaz gobernu bati menpekotu, inolaz ere adierazi ez duenean. Ene iritzia da, edozein gobernuaren eremuetako jabetza edo usufruktua duenak, horregatik beragatik bere onspen adierazigabea ematen duela eta —beste edonor bezala— behartuta dagoela gobernu horren legeak betetzera, jabetza horrek irauten duen artean. Hau horrela izanen da, pertsona batek bai beretzat eta bere ondorengoentzat jabetzarik betiko izaterakoan, edo aste betez baino ez badago bertan, edo bideetan zehar bidaiatzen ari bada; hau da, gobernu horren eremuetan dagoen edonori dagokio onspen adierazigabea.

120. Atala. Hau guztia hobeto ulertzeko komeni zaigu kontuan izatea pertsona bat lehendabizi sartzenean errepublika batean, dauzkan eta izanen dituen jabetza guztiak ematen dizkiola erkidegoari eta honen mende jartzen dela sarrerarekin berarekin, beti ere ez badira dagoeneko beste gobernuaren batenak. Kontraesan handia litzateke norbaitek beste batzuekin batera erkidego bat osatzea, jabetza babestu eta arautzeko, eta

aldi berean suposatzea bere lurra, erkidego horretako legeek arautu behar dutena, gobernu horretako jurisdikziotik kanpo geratu behar dela, bera lurraren jabe izanik gobernu horren menpeko ere baita. Hortaz, libre den norbait errepublika batean sartzearekin bere jabetza guztiak ere, lehenago libre zirenak, berarekin batera erantsiko zaizkio. Pertsona eta jabetzak, beraz, gobernuaren menpeko eta errerepublikaren eremu bilakatu dira, honek irauten duen artean. Modu honetan, ordutik aurrera, jaraunspen, erosketa, baimen, edo dena delako moduan, errerepublikako gobernuaren lur eremu bat eskuratzen duenak gobernu horren mende egoteko baldintzapean izan beharko du, beste edozein hiritarrek bezala.

121. Atala. Alabaina, gobernuak lurrarekiko jurisdikzio zuzena duenez eta hau jabeei (gizartean sartu baino lehen) luzatzen zaionez, lur horiez gozatu edo bertan bizi diren heinean soilik, orduan, lur horien erabileragatik gobernuari men egiteko hartzen den betebeharra lurraren gozatzea amaitzen denean bukatzen da. Horregatik jabeak, gobernuari adierazi gabeko onespena soilik eman dionak, bere jabetzaz libratzen denean, dohaintza, salmenta, edo dena delako moduz, askatasun osoa dauka alde egin eta beste errepublika batean sartzeko edo beste pertsona batzuekin batera bildu eta errepublika berri bat sortzeko, *in vacuis locis*, libre eta jaberik gabe topatzen duten munduko edozein lekutan. Aitzitik, errepublika bateko partaide izatearen onspena hitzarmen adierazi baten bidez eman duenak halabeharrez betiko izan beharko du hartako hiritar edo menpeko, eta ezin izanen du ostera ere naturazko egoerara itzuli, ez bada, edozein zorigaitz dela medio, berarekiko nagusi zen gobernua deuseztatuko balitz edo akto publiko baten bidez partaide izateari utziko balio.

122. Atala. Baina herrialde bateko legeei men egiteak, lasai bizi eta arauk eskaintzen diguten pribilegio eta babesaz gozatzeak ez dute inor gizarte horretako partaide bihurtzen. Hau guztia ez da guda egoeran ez dagoenari eskaintzen zaion

omenaldi edo babesaz; edozein gobernuaren eremutan sartzen denean —haren legeak iristen diren edozein lekutan—, hori zor baitzaio. Honek ez du esan nahi, ordea, pertsona horrek gizarte horretako hiritar, errepublika horretako menpeko, bihurtu behar duenik, pertsona bat beste batenaren familiarekin denbora batean bizitzeagatik menpeko bilakatzen ez den hein berean; hori bai, han legokeen artean indarrean dagoen gobernuaren legeak betetzera behartuta dago. Horrela, ikusten ahal dugu atzerritarrek bizitza osoa igaro dezaketen arren beste gobernu baten mende eta honen pribilegio eta babesaz gozatzen duten arren, behartuta daude, kontzientziaz ere, haren administrazioari men egitera, eta ez dira horregatik errepublika horren hiritar edo partaide bihurtuko. Ez du inork egoera hori lortuko ez bada konpromiso positibo ala promesa edo paktu adieraziz. Hau da ene iritzia gizarte politikoen hasierari buruz eta pertsona bat edozein errepublikako partaide eginen duen onespenaz.

IX. KAPITULUA

GIZARTE POLITIKOAREN ETA GOBERNUAREN XEDEEZ

123. Atala. Esan bezala, gizakia naturazko egoeran hain libre baldin bada; horren jabe absolutua bada bere buruarena eta ondasunena, pertsona garrantzitsuenaren moduan, eta ez bada inoren morroi, zer dela eta eginen dio uko bere askatasunari? Zergatik ematen du dagokion burujabetza eta beste bote-re baten aginte eta kontrolaren mende uzten du bere burua? Erantzuna begi bistakoa da, naturazko egoeran eskubide hori duen arren, hartaz gozatzeko aukera oso zalantzazkoa da eta beste pertsonen inbasioak mehatxatzen du aldi oro. Pertsona guztiak errege direnez, eta gehienak ez direnez berdintasunaren eta justiziaren jarraitzaile, jabetzaren gozatzea ez da bate-re ziurra. Horregatik utzi nahi izanen du egoera hori, askatasun

handikoa delarik ere, etengabeko beldur eta arriskuz beteta baitago. Eta ez zaio arrazoirik faltako, nahi duenean, beste batzuekin gizartean elkartu eta saiatzen bada gizartean dauden edo sortzeko intentzioa duten horiekin biltzen, beraien xedea ondokoa babestea delarik: euren bizitza, askatasuna eta ondarea, hau da, orokorki «jabetza» deitu diodan hori.

124. Atala. Hortaz, gizakiak errepublikatan biltzera eta gobernu bati men egitera daramatzen xede nagusia beraien jabetzaren babesa da; naturazko egoeran erdiestea oso zaila den zerbait.

Lehenik eta behin, lege ezarri bat falta delako, tinkoa eta ezaguna, kontsentsu komunetik jasoa eta onartua, eredu izan dena bidezkoa eta bidegabea bereizteko, eta jendearen arteko eztabaidak konpontzeko neurri amankomuna izateko ere balio-ko duena. Lege naturala izaki arrazoidun guztiontzat argia eta ulergarria den arren, bakoitzak bere interesei begiratzen dienez, eta ezjakitun direnez ez baitute ikasi lege hark dioena, bakoitzaren kasu partikularra erabaki behar denean ez dira gai halabeharrezko arauditzat hartzeko.

125. Atala. Bigarren, naturazko egoeran ez dago epaile ezagun eta inpartzialik, dagoen legearen arabera eztabaidak erabakitzeko autoritatea izan denenik. Egoera honetan bakoitza denez lege naturalaren epaile eta betearazle, eta pertsonak beraien onerako egiten dutenez, pasioak eta mendekuak urrutegi eraman ditzakete beraien kasuak oso sutuki hartzen badi- tuzte; arrazoi beragatik gainontzeko pertsonen arazoak axolagabeki eta alaiegi har ditzakete.

126. Atala. Hirugarrenik, naturazko egoeran normalean ez da izaten botere betearazlerik epai justuak jagon eta babes ditzan. Bidegabekeriaren bat egiten dutenak, ahal duten guztietan saiaturiko dira indarra erabiliz aurrera egiten. Erresistentzia honek askotan arriskutsu egiten du zigorrak ezartzen saiatzea; askotan hilgarri suerta daiteke ezarlearen- tzat.

127. Atala. Hortaz gizakiak, naturazko egoerak dituen abantaila guztien arren, kondizio kaskarrean daude egoera horretan dauden bitartean eta laster bultzatuak dira gizartean sartzera. Hortaz, arras zaila da naturazko egoeran denbora luzez bizi diren pertsonak aurkitzea. Jasan behar dituzten eragozpenak, batzuek besteen arau hausteak zigortzeko duten ahalmen irregular eta zalantzazkoa dela-eta, eramango dituzte gobernuek eginiko legeetan babesleku bilatzera eta esparru horretan beraien jabetzen babesa aurkitzen saiatzera. Hori da arrazoia, beraz, zigortzeko ahalmenari uko egin eta hautatzen dutenaren esku uzteko, hau guztia erkidegoak edo honek erabakitzen duen horrek sortutako arauen arabera. Eta hau da botere legegilearen eta betearazlearen ahalmena eta sorburua, baita gobernu eta erkidegoarena berarena ere.

128. Atala. Naturazko egoeran, zenbait plazer hobenik gabe gozatzeko ahalmenaz gain, gizakiak baditu bi botere:

Lehena, bere burua eta gainontzeko pertsonak babesteko edozein ekintza burutzekoa da, beti ere lege naturalak ametitzen duenaren barne. Lege amankomun honek gizateria erkidego bakar egiten du, gainontzeko izakietatik bereiztua. Ez balitz pertsona endekatuen bizio eta ustelkeriagatik, ez legoke beharrik ezertxo gehiagorako ere: ez litzateke beharrezkoa gizakiak erkidego natural itzel honetatik bereizteko eta elkarte txiki eta bereiztuago batzuetan berrantola zitezen.

Honetaz gain, naturazko egoeran, pertsona batek lege horren haustea zigortzeko boterea ere badu. Botere bata zein bestea emanen ditu gizarte pribatu edo partikular batean — horrela dei badakioke— edo errepublika batean sartzerakoan, modu horretan gizateriaren gainontzeko partaideez bereizten delarik.

129. Atala. Botere hauetarik lehena, hau da, norbera eta gizateriako gainontzeko pertsonak babesteko edozein ekintza burutzekoa, eman egingen du pertsona batek gizarteak sorturiko legeek arau dezaten, norberaren zein gizartearen babesak

hala eskatzen duen heinean. Eta gizarteko lege horiek modu askotan naturazko egoerako askatasuna murrizten dute.

130. Atala. Bestalde, zigortzeko boterea ere entregatzen du, eta aldi berean bere indar naturala erabili beharko du (lehenago lege naturala betearazteko erabiltzen zuena, norberaren autoritatean oinarrituta eta zeritzonaren arabera) gizarteko botere betearazleari laguntzeko, legeak hala eskatzen duenean. Egoera berrian gizarte bereko pertsonen laguntza, elkarkidetzeta eta lanaren abantailez balia daiteke, baita gizartearen indar guztiaren babesaz ere; hortaz, itzulean, dagokion askatasun naturalaren zati bati uko egin beharko dio bere onerako. Hau ez da bakarrik beharrezkoa, bidezkoa ere bada, gizarteko gaintzeko kideek gauza bera egiten baitute.

131. Atala. Pertsonak gizarteratzen direnean, naturazko egoeran zuten berdintasunari, askatasunari eta botere betearazleari uko egiten diote, eta gizartearen esku utziko dituzte, lege-gileak erkidegoaren onerako erabil ditzan. Hala ere, hau guztia bakoitzak norbere askatasuna eta jabetzak hobe babes ditzan egiten da (ezin baita pentsa izaki arrazoidun batek txarreratze-ko aldatuko duenik bere egoera); hortaz, gizarteak edo eta honek osaturiko botere legegileak ezin du guztien onetik aldendu. Bere betebeharra kide bakoitzaren jabetzak babestea da, eta naturazko egoera eroso eta ziur ez izateko hiru eragozpen horien aurka bitarteko guztiak erabiltzea. Horregatik, errepublika bateko botere legegilea edo gorena daukanak indarrean dauden eta herriak egin eta ezagutzen dituen legeen arabera gobernatu beharko du eta ez dekretu desegokien bidez. Eztabaidak lege horien arabera finkatuko dituzten epaile inpartzial eta zuzenekin bideratuko dira. Eta gizartearen indarra, barne esparruan, lege horiek betearazteko erabiliko da, eta, kanpokoa, edozein kalte arrotzi aurre egiteko neurriak hartu edo eta borrokatzeko, arerioen erasoaldi eta inbasioen aurka babesa ematearren. Hau guztia herriaren bake, ziurtasun eta on orokorrera zuzendu behar da.

X. KAPITULUA

ERREPUBLIKA FORMEZ

132. Atala. Frogatu dugun moduan, behin pertsonak gizartean elkartzen direnean, gehiengoak izanen du erkidegoan botere osoa. Gehiengo honek bere botere osoa erabil dezake, aldian behin, erkidegoarentzat legeak egiten, eta horiek betearazten xede horretarako hautaturiko ofizialen bidez. Gobernu modu hau demokrazia perfektua da. Legeak egiteko boterea pertsona gutxi eta berezi batzuen esku utz daiteke, eta kasu honetan oligarkia izanen dugu. Pertsona bakarraren esku ere uztea badago, orduan monarkia genuke; pertsona baten eta bere ondorengoaren esku utziz gero, oinordetza monarkia genuke, eta pertsona bakarrak boterea bizirik dagoen artean badu soilik eta gizarteak bere oinordekoa hautatzeko aukera badu, hautazko monarkia genuke. Sortu daitezke ere aurreko formen elementuak nahastuko dituzten gobernu moduak. Hasiera batetik gehiengoak botere legegilea pertsona bati edo zenbaiti ematen badie bizi diren artean edo denbora jakin batez, hau bukatzean boterea berriz ere erkidegora itzuliko da, eta honek erabaki dezake nahi duenaren esku uztea, horrela gobernu modu berri bati hasiera emanez. Horrela, bada, botere gorena —hau da botere legegilea— norengan dagoen arabera denez gobernu modua, eta ezinezkoa denez beheragoko botere batek gorenarengan manatzea, ez eta inork legeak egitea ez bada botere gorenak, hortaz, non dagoen legeak egiteko boterea, halakoa izanen da errepublika forma.

133. Atala. Errepublika [common-wealth] hitza erabiltzen dudanean ez dut esan gura demokrazia edo eta nolabaiteko gobernu modu jakin bat, aldiz, edozein erkidego independentez ari naiz, latindarrek *civitas* zeritzoten hartaz, gure hizkuntzan itzulpen onena errepublika hitza den hori, eta bat datorrena latindar hitzarekin. Erkidego edo hiri hitzak ez letozke lar ondo, erkidego asko izan baitaitezke gobernu baten mende

edo azpian, eta hiri hitzak gure artean erabat esanahi ezberdina dauka. Horrela, bada, anbiguotasunak ekiditeko errepublika hitza erabiliko dut zentzu horretan eta James I.-ak erabiltzen zuen zentzuarekin, hau baita ene ustez benetako esanahia. Norbaiten irudiz ez balitz egokia, prest nago hobe batekin ordezkatzeko.

XI. KAPITULUA

BOTERE LEGEGILEAREN EREMUAZ

134. Atala. Pertsonak gizartean sartzearen xede nagusia euren jabetzaz bake eta lasaitasunean gozatzea denez, eta horretarako dagoen tresna eta bitarteko nagusia erkidego horretan indarrean dagoen legea denez, errepublika guztietako lege positibo lehena eta nagusia botere legegilearen eratzeari dagokiona da; modu berean, botere legegile bera ere gobernatu behar duen lege natural nagusi eta lehena gizartearen babesa da, eta (guztion onarekin bateragarria den artean) pertsona bakoitzaren eta guztien babesa. Botere legegilea ez da errepublikako botere gorena soilik, gizarteak beraien esku utzi duen horiengan sakratua eta aldaezina ere bada, ez da inoren edikiturik —berdin du zer itxurakoa den edo zein den bermatzen duen boterea— legearen indarra eta betekizuna duenik, ez bada herriak hautatu eta izendaturiko organo legegilearen onespenearekin. Baldintza hori gabe legeak ez baitauka lege izateko erabat beharrezko duen hori, hau da, gizartearen kontsentsua⁷. Honen gainetik inork ez dauka legeak egiteko aukerarik, herriaren onespenearekin eta harengandik jasotako autoritatearekin ez bada. Hortaz, lotura solemneen bidez behartzen gaituen obediencia horrek botere goren horretan du helmuga, eta honek promulgatzen dituen legeak zuzendua da. Edonongo botere atzeritar bati edo herrialde bereko lurralde txikiago bateko botere bati egiten zaion juramentuak ez du inor botere

legegileari zor zaion obedientziatik aske uzten, honek bere gain jarritako konfiantzaren arabera jarduten duen artean; ezin du ere modu horretan promulgaturiko legeen kontrako den zer-bait obeditzera behartu, ezta haiek ahalmentzen dutenaren gainetik doan zerbait ere. Zinez pentsaezina da inork gorena ez den botere bati obeditu beharko ziokeenik iruditzea ere.

135. Atala. Berdin du botere legegilea pertsona bati edo zenbaiti dagokion, betiko den edo aldi batzuetarako soilik, eta zein errepublikako botere gorena den ere; dena dela:

Lehenik eta behin, ezin daiteke herriaren bizitza eta ondasunen gaineko botere absolutu eta arbitrarioa izan. Pertsona edo biltzar legegileari boterea eman dion gizarte horretako partaideen botere batuketa baizik ez denez, naturazko egoeran zeudelarik gizartean sartu eta erkidegoari boterea eman zieten pertsona horien gainetik ezin da egon. Inork ezin baitu daukan boterea baino gehiago eman. Inork ez du ere bere buruaren gaineko botere absolutua, bere buruaz beste egiteraino edo beste bati bizitza edo ondasunak kentzeko. Frogatu dugun moduan, pertsona batek ezin du beste baten botere arbitrarioaren menpe egon; eta naturazko egoeran beste pertsona baten bizitza, askatasun edo jabegoan ez duenez botere arbitrariorik —lege naturalak bere iraupenerako eta gizateriarenerako eskaintzen diona baizik— hori izanen da soilik errepublikaren eta botere legegilearen esku utz dezakeena, hortaz, azken honek ere ez du izanen aipaturiko boterea baino gehiago. Botere legegileak gizartearen ona du azken xede. Hortaz, botere honek iraupena baizik ez du helburu, eta ezin ditu horregatik nahita hiritarrak suntsitu, txirotu edo esklabo bihurtu⁸. Naturazko egoerako betebeharrak ez dira deuseztatzen gizartean sartzerakoan; alderantziz, askotan estuago bete behar dira eta, giza legeei esker, badira betebeharrak horiek konpli daitezen hainbeste zehapen. Horrela, bada, lege naturala betiereko araua da, bai legegileentzat zein gainontzeko pertsonentzat. Pertsonak euren ekintzak gidatzeko egiten dituzten arauak,

beraien eta gainontzeko pertsonen ekintzak bezala, lege naturalari atxiki behar zaizkio, hau da, Jainkoaren borondateari, lege naturala honen adierazpena baino ez baita. Eta naturaren oinarritzko legea denez gizateriaren iraupena, giza zehapenek ez dute balioko iraupenaren aurka badoaz.

136. Atala. Bigarrenik, botere legegileak edo autoritate gorenak ezin du bat-batean asmatu-rik dekreto arbitrarioen bidez gobernatu⁹; aitzitik, indarrean dauden promulgaturiko lege ezagunen arabera eta epaile ezagunen bidez justizia eman eta hiritar bakoitzaren eskubideak erabakitzea behartua dago. Lege naturala ez dagoenez idatzia eta pertsonak burmuinean gordeta daramatenez, epaile ezagun baten laguntzarik ez badugu, ez da erraza pasioak edo interesak bultzatuta gaizki interpretatu eta oker ez ezartzea lege hau. Horrela, legeak ez du balioko bere xede den horretarako, hau da, eskubideak ezarri eta legearen mende bizi diren horien jabetza defendatzeko; batez ere, bakoitza bere auzi propioan epaile, interpretatzaile eta betearazle bilakatzen denean. Eta benetan arrazoia duen hark, normalean bere indarra baino ez duenez lagun, ezin du jasotako kalteez babestu, eta ez da gai ere gaizkilea zigortzeko. Eragozpen hauek guztiak ekiditeko, ez baitituzte naturazko egoeran gizakiek dituzten jabetzak nahastu baino egiten, sartuko dira pertsonak gizarte-*an*. Modu horretan beraien jabetzak defendatu eta babestuko dituzte, eta indarrean egonen diren legeekin jabetza horiek mugatuko, berauei esker jakiten ahal duelarik bakoitzak berea zer den. Horretarako, pertsonak daukaten botere guztiari uko egiten diote, eta botere legegilea hoberen dagokiola iruditzen zaionari ematen dio erkidegoak, lege adierazien bidez gobernatuak izan daitezen. Bestela, beraien bakea, lasaitasuna eta jabetzak ez lirateke ziur egonen, naturazko egoeran zeuden moduan.

137. Atala. Botere arbitrario absolutua, indarrean egonen diren lege finkorik gabeko gobernu-*a*, ez dator bat ez gobernuaren ez eta gizartearen helburuekin; gizakiak ez bailioke natu-

razko egoerari uko egingen eta legeen mende jarriko, ez balitz bere bizitza, askatasunak eta ondasunak babesteko, eta eskubide eta jabetzaren gainean ezarritako arauen bidez bere bakea eta lasaitasuna bermatzeko. Pentsaezina dirudi gizakiek pertsona baten edo zenbaiten esku uztea —ahalmen hori izanen balute— beraien buruak eta ondasunak, eta magistratuei ematea boterea, hauek ahalmenduko lituzkeelarik beraierengan erabat arbitrarioki bere nahia inposatzea. Hau naturazko egoeran baino okerrago egotea litzateke, han libre baitziren beste batzuek eraginiko kalteetarik defendatzeko, eta beste edonork lukeen indar bera erabil zezaketen eurek ere pertsona batek zein askok inbadituz gero. Alabaina, legegilearen botere absolutu eta arbitrarioaren mende utzi balituzte beraien buruak, pertsona horiek norbere burua desarmatuko lukete hura armatzeko, hark nahi lukeenean pertsona horiek harrapakin bihurtuko lituzkeelarik. Ehun mila pertsona bere esanetara dituen norbaiten aurrean dagoena, ehun mila pertsona bakanen aurrean dagoena baino askoz ere okerrago dago. Nork esan baitezake ehun mila pertsona gidatzen dituen gizaki horren borondatea beste pertsona batzuen baino hobea dela, ehun mila handiz indar gehiago badu ere. Hortaz, errepublikak daukan gobernu mota dena delakoa izanik ere, promulgatu eta onarturiko legeen bidez gobernatu behar dute agintariek, eta ez bat-batean asmatutako ediktuen eta erabaki zehaztugabeen bidez. Bestela, gizateria naturazko egoeran baino okerrago legoke, pertsona gutxi batzuei talde boteretsu oso baten indarra ematen baitzaio. Horrela, talde horretako pertsona haiek unean bertan otuko zaizkien dekretu neurrigabe eta gehiegizkoak obeditzera behar ditzakete, euren nahiera ertsatugabe eta ezezagunei eta uneko gogoei jarraituz. Gobernuak duen botere osoa gizartearen onerako bideratu behar bada, bere jardura ezin daiteke arbitrarioa eta gogoaren araberakoa izan, eta hortaz lege finko eta promulgatuen bidez gidatu beharko da. Modu honetan herriak jakin ahal du zein den bere betebeharra, eta gobernariek, era berean, muga horien barne egon beharko dute. Baina tentazio-

an erorita, ezin dute beraien esku daukaten boterea erabili inork aurretik ezagutzen ez zituen neurriak hartzeko eta beraien helburuak betearazten saiatzeko; inork ez bailituzke borondate propioz beteko aurretik ezagutu izan balitu.

138. Atala. Hirugarrenik, botere gorenak ez dauka inori, baimenik gabe, bere jabetzen zati bat ere kentzerik. Gobernuaren xedea jabetzaren babeseta bada eta horrek bultzatzen baditu pertsonak gizartean sartzera, erabat beharrezkoa da herriak bere jabetzez gozatzea, inork ez lizkiekeelarik ebatsi ahalko gizartean sartzera —bertan jabetza babesteko sartu baita—, arras zentzugabea bailitzateke horrelako zerbait. Hortaz, gizakiak jabetzekin gizartean sartzera, erkidegoak onartuko du beraien ondasunen jabetzaren eskubidea; beraz, inork ezin dizkie kendu, ez zati bat ez osorik ere, beraien onespenik ez badute. Bestela ez lukete inolako jabetzarik; nik ez baitut benetan jabetzarik beste edonork eskubidea badu gura duenean nirea hartzeko ene baimenik gabe. Horrela, akats bat litzateke pentsatzea errepublika bateko botere gorenek edo legegileek nahi dutena egin dezaketela eta herritarren ondasunez arbitrarioki jabe daitezkeela, edo gura dutenean ondasun hauen zati bat hartzen ahal dutela. Ez da hain ohikoa horrelako zerbait gertatzea botere legegilea —osorik edo zati batean— aldizkako biltzarrez osaturik duten gobernuetan. Biltzarraren desegitearen ostean partaide ohiak hiritar arrunt bilakatuko dira, herrialdeko legeen mende, beste gainontzeko hiritar guztiak bezalaxe. Aitzitik, biltzar iraunkorrrak —hau ez da inoiz desegiten— edo pertsona bakarrak botere legegilea osatzen duen gobernuetan, monarkia absolututan gertatzen den moduan, badago arriskua hauen interesak gainontzeko herritarren interesetik aldentzeko, baita beraien aberastasun eta boterea handitzeko ere, herriari dagokionetik nahi dutena hartzen ahal dutelarik. Izan ere, pertsona baten jabetzak ez dira ziur izanen, gainontzeko pertsonenekiko bereizi eta mugak jarriko dizkien lege on eta justuak egon

arren, hiritarrak gobernatzen dituen horrek boterea badauka bere nahierara hiritarren jabetzen zati bat beretzat hartzeko, eta nahi duenerako erabiltzea badu.

139. Atala. Hala ere, gobernuak, dagoenaren esku egonik ere, frogatu dugunez boterea jaso du ondoko baldintzatan eta xedearekin: gizakiek jabetzak izan eta seguru mantentzen dituzten. Horrela, bada, printzeak edo senatuak boterea duten arren hiritarren jabetzak arautuko dituzten legeak egiteko, ezin dute inola ere bere mendekoen jabetzen zati bat edo osotasuna beraientzat hartu hauen baimenik gabe. Izan ere, jabetzarik gabe uztea bezala litzateke. Eta konturatu behar gara, botere absolutua beharrezko den kasu horietan ere, boterea ez dela arbitrarioa absolutua delako, arrazoiak mugatuko du eta xede jakin horien burutzero zuzendua dago; nahikoa dugu borroka-diziplina aztertzea. Gudarostearen iraupenak, eta hortaz errepublikarenak, buruzagi guztien aginduak absolutuki obeditzea eskatzen du, eta bidezkoa da heriotza zigorra ezartzea edozein agindu eztabaidatu edo desobeditzen duenari, berdin du aginduak ausartegia eta zentzugabea badirudi ere. Alabaina, soldadua kainoi baten muturrera bidal dezakeen sarjentuak, edo lubakian tinko mantentze dadin agin dezakeenak, soldadua bertan hiltzeko zorian izanen delarik, hark ere ezin dio agindu soldaduari txakur txiki bat ere eman diezaion; edo jeneralak, bere postutik desertatzeagatik edo agindu eroena ez obeditzeagatik heriotza zigorra ezar badiezaioke ere, bere bizitza eta heriotzarako daukan botere horrekin, ezin du bere jabetzen zatitxo txikiena ken edo ondasunen puzketatxo txipiena ere hartu; edozer agin badiezaioke ere, eta urkatu ez badu obeditzen. Agintea duen horrek bere xedea bete dezan beharrezkoa da honelako obedienciaz itsua; hau da, guztion iraupen eta babeserako. Aitzitik, mendekoen ondasunen erabilerak ez du horrekin zerikusirik.

140. Atala. Egia da gobernuak gastu handia behar dute-
la aurrera egiteko, eta komeni dela beraien babesaz gozatu
nahi duen edonork dauzkan ondasunen arabera ordain dezan

horretarako. Hala ere, onespena jaso behar da, hau da, gehien-
goak onespena eman behar du, bere kabuz edo ordezkatzai-
en bidez. Norbaitek bere aldetik herriari zergak ezartzeko eta
jasotzeko boterea bere kabu hartzen badu, autoritatea berorrek
hartuz eta herriaren adostasunik gabe, horrekin jabegoaren
oinarrizko legea urratzen du eta gobernuaren xedea irauli du.
Zer jabetza du norbaitek edonor edozein unetan ahalmenduta
badago nahi duenean berea dena kentzeko?

141. Atala. Laugarrenik, botere legegileak ezin diezaio-
ke beste inori legeak egiteko ahalmena transferitu. Botere hori
herriak esku emanda lortu duenez, ezin dio inori pasa. Herriak
bakarrik erabaki dezake zein izan behar den errepublikaren
antolaketa edo modua, hori botere legegilea eratuz eta karguak
bete behar dituzten pertsonak aukeratuz egiten da. Eta herriak
onartzen duenean arau batzuen mende bizitzea eta pertsona
jakin batzuek eginiko legeen arabera gobernatuak izatea, inork
ez dauka esaterik beste norbaitek egin ditzakeela legeak. Eta
hiritarrak ez daude behartuak hautaturiko eta baimenduriko
pertsona horiek eginikoetara baizik. Botere legegilearen inda-
rra adierazitako kontzesio eta ezarpen herritar batetik datorre-
nez, inork ez dauka legeak egiterik kontzesio adierazi hori
zegokienak baizik; legeak egitea dagokie soilik, eta inolaz ere
legegileak hautatzea. Botere legegileak ez dauka ahalmenik
beraiei dagokien legeak egiteko autoritatea beste pertsona
batzuei transferitzeko.

142. Atala. Ondokoak dira herriaren konfiantzak eta
lege natural eta jainkotiarrek errepublika bakoitzeko botere
legegileari jarri dizkion mugak, errepublika horretako guber-
nua edozein motakoa delarik ere.

Lehenik, gobernatu behar da ezarritako eta promulgatu-
riko legeen bidez, hauek ezin dira kasu partikularretarako
ezberdinak izan. Arau bakarra egon behar da aberatsarentzat
eta txiroarentzat, gorteko kuttunarentzat eta goldearekin dabi-
len baserritarrarentzat.

Bigarren, lege hauen azken helburua guztion ona baino ez da.

Hirugarren, ezin daiteke hiritarren jabetzen gain zergarik ezarri ez bada herriaren onespenearekin, herriak berak emanda edo bere diputatuek. Hau, berez, botere legegilea disolbatzen ez den gobernuetan gertatzen da, edo behintzat hiritarrek aldian-aldian aukeratutako diputatuei botere legegilearen zati bat ematen ez dieten kasuetan.

Laugarren, botere legegileak ez du legeak egiteko ahalmena beste inori transferitzerik, ez eta herriak aukeratu ez duen beste inoren esku uzterik ere.

XII. KAPITULUA

ERREPUBLIKAREN BOTERE LEGEGILE, BETEARAZLE ETA FEDERATZAILEARI BURUZ

143. Atala. Botere legegileak errepublikaren indarra erkidegoaren eta kide guztien babesera bideratzeko ahalmena du, eta hori da bere eginkizuna. Baina etenik gabe bete behar diren lege horiek, beraien indarra beti berdina delarik, oso denbora laburrean egin daitezkeenez, botere legegileak ez du zergatik beti lanean egon behar, beti ez baitu zereginik. Bestalde, giza ahultasunari —botereari gogor atxikitzeko duen joerarekin— tentazio handiegia suerta dakioke legeak egiteko boterea duten pertsonak euren esku izatea legeak betearaztekoa ere. Egiten dituzten legeak betetzetik salbuetsi ditzakete euren buruak, eta legea molda lezakete, bai egikeran eta betearazpean, euren on propiorako; hortaz, euren interesak erkidegoarenaren kontrakoak izan litezke, gizartearen eta gobernuaren aurkakoak. Beraz, ongi antolaturik dauden errepublikatan, guztion ona kontuan hartzen den horietan, botere legegilea zenbait pertsonaren esku uzten da; hauek, batzarretan bilduta, beraien kabuz edo beste norbaiten laguntzaz legeak egiteko

ahalmena dute. Behin eginkizun hau amaituta oster bereiziko dira, eta egin dituzten legeen menpeko bilakatuko dira. Modu horretan, saiatu beharko dira egin dituzten legeak guztion onerako izan daitezen.

144. Atala. Baina behin —eta oso denbora laburrean— egiten diren lege hauek etengabeko indar konstantea izateaz gain, betiko betearaztea eskatzen dutenez, betearaziko dituen norbait beharko dute. Premiazkoa da botere iraunkor bat, indarrean dauden legeen betearaztea zainduko duena. Hortaz, botere legegilea eta betearazlea sarritan bereizturik daude.

145. Atala. Bada errepublika orotan beste botere bat «natural» dei dakiokeena, pertsona bakoitzak gizartean sartu baino lehen naturaz zuena delako. Errepublikako kideak elkarren artean ezberdinak diren arren, eta gizartearen legeak gobernatzen baditu ere, gainontzeko gizateriarekin erreferentzian gorputz bakarra osatzen dute, eta hau naturazko egoeran dago, lehenago kide bakoitza gizateriarekiko zegoen moduan. Hortaz gizarte horretako kide batek kanpoko batekin dituen eztabaidak erkidegoak bere bezala hartuko ditu, eta gorputz horretako kide batek kalterik jasotzerakoan, konponbidea bilatzera bultzatzen du osotasuna. Horrela, bada, erkidego bat bere osotasunean gorputz bakarra da naturazko egoeran dagoena erkidego horretatik kanpo dauden estatu edo pertsonetikiko.

146. Atala. Hortaz, erkidegoak guda deklaratzeko edo bakea izenpetzeko ahalmena du, eta elkarreak eta aliantzak eratzekoa, edo errepublikatik kanpoko pertsona eta erkidegoekin edonolako negoziaketak burutzekoa. Botere honi «federatzaile» dei dakiokegu, izena gutxienez bada ere, zeri buruz ari garen dakigun artean.

147. Atala. Botere bi hauek, betearazlea eta federatzaileria, elkarren artean ezberdinak diren arren, lehena udal-legeak betearazteaz arduratzen baita eta bestea bizitza publikoko kanpo eremuaren interes eta segurtasunaren kudeaketaz —lagundu edo kaltetu diezaioketen horien erlazioan—, hala ere,

ia beti batuta daude. Botere federatzaile horren kudeaketa — on ala txarra— errepublika batentzat oso garrantzitsua den arren, botere betearazlearekin alderatuta, askoz ere zailagoa da aurretik ezarririko lege adierazien bidez gidatzea. Beraz, botere hori daukatenen zuhurtasun eta jakinduriaren esku utzi behar da, guztion onerako kudea dezaten. Hiritarren arteko harremanei dagozkien legeak beraien ekintzak gidatzera zuzenduta daude, eta hortaz, ekintza hauek baino lehenagokoak izan daitezke. Baina atzerritarrekiko egin behar den orok hein handi batean haien ekintzekin erlazioa izanen du, eta botere federatzailea haien esku utzitakoei laga beharko zaie interes eta intentziotan gerta daitezkeen aldaketak beraien prudentzia eta zuhurtasunaren arabera kudea ditzaten, daukaten trebetasunik handiena errepublikaren onera zuzen dezaten.

148. Atala. Esandakoaren arabera, botere betearazlea eta federatzailea elkarren artean ezberdinak diren arren, normalean ez dira bereizten eta ez dira pertsona ezberdinen esku uzten; biek gizartearen indarra behar baitute funtzionatzeko, eta ia ezinezkoa da errepublikaren indarra esku ezberdinetan uztea, bata bestearen menpeko ez delarik. Bereizita lan egiteko gai diren pertsona ezberdinen esku baleude botere betearazlea eta federatzailea, orduan indar publikoa agintaritza ezberdinen mende legoke eta honek noizbait eragin lezake gizartean anabasa eta hondamendia sortzea.

XIII. KAPITULUA.

ERREPUBLIKAKO BOTEREEN MENDE TASUNAZ

149. Atala. Osatuta dagoen errepublika batean —oinarri tinkoan datzalarik eta bere naturaren arabera funtzionatzen duelarik, momentu oro erkidegoaren babesa bilatuz—, botere goren bakarra egon daiteke, hau da, botere legegilea. Gainontzeko guztiak honen mende egon behar dira; hala ere,

legegilea ez denez xede jakin batzuk betetzeko dagoen botere fiduziario bat baino, herriak badu botere legegilea kendu edo aldatzeko eskubide gorena, beronengan jarri den konfiantzaren aurka egiten duela kontsideratzen duenean. Helburu bat betetzeko ematen zaion botere orok helburu bera du jomuga eta xede hori ez bada betetzen edo aurka egiten bazaio, orduan konfiantza galdu, eta kendu egingen zaio, eta boterea halabeharrez eman zuten haiengana itzuliko da. Haiek, bestalde, beste norbaiten esku utz dezakete, beraien segurtasun eta babeserako hala egokien iruditzen zaienean. Hortaz, erkidegoak beti dauka inoren azpikeria eta joko txarrak saihesteko botere gorena, baita legegileenak ere, euren jokabidea hiritarren askatasun edo jabetzen aurka neurriak asmatu eta burutzeko bezain ergela edo maltzurra denean. Baina ez da erkidego edo pertsonarik bere bizi-iraupenari eta hau erdiesteko bitartekoei uko egin diezaiekeenik, beste norbaiten nahiera absolutuaren eta nagusitasun arbitrarioaren onerako. Beraz, norbaitek pertsonak esklabotasun egoeran ezarri nahi dituenen, beti izanen dute uko egin ezin dioten hori babesteko eskubidea; eta norbere iraupenaren lege oinarritzko, sakratu eta aldaezina zapaldu nahi duten haietaz libratzen ahal dira, lege hori zelako gizartean sartzera eraman zituenen. Hortaz, esan dezakegu erkidegoa dela botere gorena, ez gobernu moduan kontsideratuta, herriaren botere hau ez baita gauzatzen gobernu desegiten ez den artean.

150. Atala. Nolanahi ere, gobernuak dirauen artean legegilea da botere gorena. Beste norbaitengan legeak ezar ditzakeenak derrigorrean izan behar baitu harekiko goragokoa. Eta botere legegilea gizartearekiko —alderdi guztiekiko eta gizarteko partaideekiko— maila gorengoan dagoenez, legeak egiteko ahalmena baitu, baita ekintzak arautzerakoan eta arauak hausten direnean botere betearazlea ematekoa ere, horregatik guztiagatik da botere legegilea gorena, eta gizarteko kide edo zati batek duen botere guztia hartatik dator eta haren menpe dago.

151. Atala. Errepublika batzuetan ez du etengabe funtzionatzen botere legegileak eta berau botere betearazlean ere parte hartzen duen pertsona bakarrean gauzatzen da. Kasu horietan esaten ahal dugu, zentzu zabal batean, pertsona hori botere gorena dela; ez berak botere gorena duelako, hau da, legeak egitekoa, baizik eta botere betearazle gorena harengan dagoelako, eta harengandik jasoko dituztelako azpiko magistratuek —behintzat haietako batzuek— maila beheragoko botereak. Ez dagoenez botere legegilearen gainetik inor, ezin denez legerik egin bere onespentik gabe, eta ez denez pentsatzekoa botere legegilearen zati batek gainontzekoa mendera dezakeenik, zentzu horretan goren dela esaten ahal da. Alabaina, argitu behar da hartzen zaizkion leialtasun eta fidelitasun juramentuak ez direla legegile goren moduan, legearen betearazle goren moduan baizik, botere hori beste pertsona batzuekin banatuta duelarik. Hortaz, leialtasunak ez du legearekiko obedientzia baizik esan nahi, eta legea hautsiko balu, obedientziatzko eskubidea galduko luke, errepublikaren aurpegia, irudia edo ordezkaria den heinean baitu eskubide hori, gizarteak izendatua eta beronen legeetan azaltzen den moduan. Ez du, beraz, legearen arabera nahiera edo boterea baizik. Baina ordezkari funtzio horretatik aldentzen denean, guztion borondatea ahaztu eta bere nahiera propioaren arabera jarduten duenean, bere burua degradatzen du, eta botererik eta borondaterik gabeko pertsona soila bilakatuko da, eta ez zaio ezertarako ere obeditu behar. Gizarteko partaideek ez diote obedientzia zor gizarte honen borondateari baino.

152. Atala. Botere betearazlea, ez daukanean legegilean ere parte hartzen duen pertsonarik, argi dagoenez, legegilearekiko menpekota izanen da eta hari kontuak eman beharko dizkio, nahi denean alda edo ken daitekeelarik. Horrela, bada, ez da botere betearazle gorena mendetasunik gabea dena, pertsona bakarrarengan gauzatzen ez den artean eta pertsona honek ez badu aldi berean botere legegilean parte hartzen; kasu

horretan ez baitu bere gainerik kontuak eman eta hari men egin beharko dion beste botere legegilerik, ez bazaio hari elkartu eta ez badio onespena ematen. Horrela, esan dezakegu norbaiten menpekoa izanen dela soilik berak nahi duen heinean, eta ziu-rrenik ez du larregi nahi izanen. Ez gara arituko beste errepu-blikatan aldi berean dauden menpeko botere eta ministerioei buruz; herrialde bakoitzeko ohitura eta konstituzioen arabera hainbat eta hain ezberdinak dira, ezinezkoa litzateke haietako bakoitzaren azalpen bat ematea. Oraingoan dagokigunerako, nahikoa litzateke azaltzea haietako batek ere ez duela positi-boki emaniko autoritatea baino gehiago, eta denek erantzun behar dutela errepublikako beste botereen aurrean.

153. Atala. Ez da beharrezkoa, ezta komenigarria ere, botere legegilea etengabe jardunean egotea; bai ordea botere betearazlea, beti ez baitago lege berriak egiteko beharrik, baina bai dagoeneko promulgatuak direnak betetzekoa. Botere legegileak egin dituen legeak beste batzuen esku uzten ditue-nean, hala deritzon, izendapena bertan behera uzteko ahal-mena izanen du beti, eta legearen administrazio okerra zigor-tzekoa ere. Gauza bera gertatzen da botere federatzailearekin ere, berau eta betearazlea legegilearekiko menpekoak eta ministerio mailakoak dira; aipatu bezala, osaturiko edozein errepublikatako botere gorena baita botere legegilea. Kasu honetan, eta suposatzen badugu botere legegilea zenbait per-tsonen osatzen dutela (pertsonek bakarrik balitz, bizitza osorako litzateke; eta botere gorena izanik, botere legegileaz gainera betearazlea ere beteko luke), pertsona hauek batzarretan bil daitezke, jatorrizko konstituzioak hala eskatzen duenean, dese-gite momentuan erabakitzen dutenaren arabera edo gogoak ematen dionean, deialdia bi prozedura hauen edo bestelako baten bidez ez bada gauzatzen. Herriak eman dienez botere gorena, beti da indarrean, eta atsegin dutenean erabil dezake-te; beti ere, jatorrizko konstituzioak sesio jakin batzuetara ez badu mugatzen, edo beraien botere gorenaren jardura denbo-

raldi batez desegitea erabakitzen ez badute, denbora hori igarota, biltzeko eta jarduteko aukera izanen dute ostera ere.

154. Atala. Botere legegilea edo beronen zati bat herriak hautaturiko ordezkariez osatua dagoenean aldi baterako —hau igaro ondoren hiritar estatus arrunta berreskuratuko dutelarik eta legegintza arloko partaide ez direlarik izanen—, ez badira ostera ere aukeratuak, kasu horretan herriaren hautaketa ahalmena aldi jakinetan edo deialdia egiten denean gauzatu behar da. Azken kasu honetan, denborari dagokionean ondoko mugak izanen ditu: edo jatorrizko konstituzioak [original constitution] eskatuko du aldi jakinetan bil eta jardutea, eta kasu honetan botere betearazleak ez du ministro mailako jardueraren eginkizuna baizik, hautaketa eta bilkura gerta dadin, dagokien arauen arabera; edo, bestetik, legegilearen adimen, uste edo juzku onaren arabera, bizitza publikoaren gertakizunek edo beharrek eskatzen dutenean, edo eta herria mehatxatzen duen edo pairatzear dagoen edozein ezbehar saihestu behar denean, zaharkituriko lege baten aldatzea edo berrien idazketa eginen da.

155. Atala. Puntu honetara iritsi garelarik, galde genezake ea zer gerta litekeen botere betearazleak, errepublikaren indarra kontrolpean duelarik eta jatorrizko konstituzioak edo politikaren beharrek eskatuta, indar hori erabiliko balu botere legegilea biltzea eta jardutea galarazteko. Esan beharra daukat herriaren aurka indarra erabiltzea, autoritate gabe eta honek emaniko konfiantza tradituz, hala jarduten duenarentzat herriaren aurka guda egoeran jartzea suposatuko duela. Herriak eskubidea izanen du botere legegilea bere eginkizuna betetzera berrezartzeko. Botere legegilea hautatu baitu legeak egiteko boterea gauzatu dezan, garai jakinetan edo beharrezko suertatzen denean; hortaz, legegileari indarrez eragozten bazaio gizartearentzat erabat beharrezkoa den eginkizun hori betetzea, herriaren segurtasuna eta iraupena honetan baitautza, herriak bere defentsan indarra erabiltzeko eskubidea du.

Egoera eta baldintza guztietan, baimendu gabeko indarraren aurka dagoen konponbide bakarra indar berarekin erantzutea da. Baimenik gabeko indarraren erabilera, horrela darabilena-rentzat, beti izanen da guda egoeran sartzea, eta erasotzaile moduan hala merezi du har dezaten.

156. Atala. Botere legegilea biltzeko eta desegiteko ahalmena botere betearazleari badagokio ere, honek ez dio lehenarekiko nagusitasunik ematen, herriaren segurtasunerako beregan ezarri den konfiantza, fiduziarioa baizik ez da, giza arazoen ezegonkortasun eta aldakortasunak arau finko eta iraunkor baten aukera ematen ez dutenean. Normala da gobernu-a lehendabizi eratu zutenek ez izatea igarle trebe baten zehaztasunik, jakiten ahal izateko zeintzuk izan zitezkeen botere legegilearen biltzarren iraupen aldi egokiak errepublikaren etorkizuneko beharrei aurre egiteko. Akats honi aurre egiteko konponbiderik onena eginkizun hori guztion ona etengabe zainduko zuen norbaiten ardura eta zuhurtasunaren esku uztea suertatu zen. Legegileen bilera ugariak eta beharrik gabeko batzar luze eta etengabeak zama astun bilakatu ziren herriarentzat, eta luzarora eragozpen arriskutsu gehiago ekar zitzaketen. Bestalde, bat-batean arazoren bat jazoz gero, beraien jarduna beharrezko gertatzen zen, eta, beraien biltzarra luzatuko balitz, bizitza publikoari kalte handia egin ziezaiokeen. Bestetan, berriz, beraien eginkizuna hain zatekeen handia, zeukaten lanerako asti eskasak beraien eginkizuna taxuz betetzeko nahikoa ez zen izaten ahal, horrela, deliberamendu sosegatu eta heldu baten onuraz gabetzen zen gizartea. Botere legegilearen biltzarrak eta jarduerak finkatzeko tarte eta aldiak erabakitzeak gizarteari zekarzkion arriskuak saihesteko modu bakarra, eginkizun hori beti jardunean eta gauzen egoeraz informatua zegoen norbaiten ardurapean uztea gertatu zen, ahalmen honen bidez guztion onerako egin zezan. Eta zeinen esku hobe, xede berarekin legeak betearazi behar zituen horrenean baino? Beraz, jatorrizko konstituzioak ez balitu ezarriko

botere legegilearen biltzar eta jarduera aldiak, eginkizun hau botere betearazleari legokioke, ez honen nahieraren arabera botere arbitrario baten moduan erabil zezan; konfiantza hori beraien esku jarriko litzateke, beraien jarduna guztion onera zuzendua legokeen artean, denboraren kariak eta gertakizunen aldaketak agintzen zutenaren arabera. Ez dut orain aztertuko zein sistemak sortzen dituen eragozpen gehien, edo biltzar aldiak finkatzeak, edo printzeari deialdiak egiteko askatasuna emateak, ala bien nahaste batek; frogatu nahi dudana da botere betearazlea, botere legegilearen konbentzioak konbokatatu eta desegiteko ahalmena duen arren, ez dela horregatik lehena baino goragokoa.

157. Atala. Mundu honetako gauzak etengabeko fluxu batean daude eta hortaz ezin dute egoera berean luzez egon. Horrela, aberastasunek, herriak, merkataritzak, edo botereak etengabeko aldaketak pairatzen dituzte; garatze bidean ziren hiri boteretsuak hondamendian amildu eta txoko mortu eta biztanlerik gabeak bilakatu ziren, eta edozein bazterretan ustekabeen herrialde aberats eta biztanle anitzekoak sortzen dira. Baina gauzak ez dira beti modu berean aldatzen, eta interes pribatua beti saiaturiko da ohitura eta pribilegioak mantentzen, jatorriz sortu zituen arrazoia galdu denean ere; horregatik, sarritan, herriak hautatu dituen ordezkari osaturiko gobernue-tan, ordezkaritza hori denboraren kariaz jatorriz sortu zeneko arrazoiekiko oso bestelakoa eta desorekatua suertatuko da. Ikus dezagun zein zentzugabekeria punturaino eraman gaitza-keen sorburua galdu duen ohitura bat mantentzeak. Demagun badela hiri bat izena baino gelditzen ez zaiona, aurri egoeran baitago, bertan ez da ardi borda bat baino, eta artzain bat-edo bizi da; alabaina, biztanle eta aberastasun anitz dituen konde-rri batek adina ordezkari bidal ditzake biltzar legegile nagusi-ra. Honelako egoera ikusita, atzerritarrak benetan harrituta geratzen dira; argi dago konponbidea behar duela. Hala ere, gehienek ez diote konponbide erraza ikusten, botere legegilea-

ren konstituzioa gizartearen oinarritzko ekintza gorena bada, bertan dauden lege adierazi guztiak baino gehiago, eta herriarekin erabat lotuta dagoenez, orduan, ez dago azpiko botererik alda dezakeenik. Beraz, ikusi dugunaren arabera, behin botere legegilea eratu denean eta gobernuak dirauen artean, herriak ez badu botererik ekintzarako, arazo honek ez du izanen konponbide egokia.

158. Atala. *Salus populi suprema lex maxima* hau hain da arau justu eta oinarritzkoa, zintzotasunez jarraitzen duenak ezin izanen du arriskutsuki erratu. Hortaz, botere betearazleak — botere legegilea konbokatzeke ahalmena izanik — antzemango balu zein den ordezkartzan dagoen proportzio egokia eta, ohitura zaharkitua jarraitu gabe eta arrazoi zuzenak gidatuta, arautuko balu zein den ordezkartua izan behar den leku bakoitzari dagokion ordezkari kopuru egokia, begiratzuz era berean populazioaren ezein partek ez duela eskatuko gizartean daukan proportzioa gaintutako duen ordezkartza, kasu horretan ez da kontsideratu behar botere legegile berria sortu duela. Egin duena, antzinakoa eta benetakoa berreskuratzea izan da, denboraren kariak ezinbestean sortutako aldaketa sumaezinak zuzenduz. Herriaren nahia eta intentzioa ordezkartza sistema justu eta zuzena edukitzea baita; hortaz, hori eman nahi dion edonor laguntzat hartu beharko da, gobernuaren euskarritzat, eta ezin du erkidegoaren onespena eta oniritzia gal. Ahalmen hau ez da printze baten esku uzten den boterea, guztion onerako lan egin dezan baizik, ustekabeko egoera zalantzatsuetan legeei ezinezkoa zaienean finkatzea guztion onari zer komeni zaion; eta oinarri honetan datzan gobernuaren eraketa, egun eta beti, ahalmen justua izan da. Korporazio berriak osatzeko boterea ondoan datza: denborarekin ordezkartza proportziotan aldaketak gerta daitezke, lehenago ordezkartirik ez zuten zenbait lekuk beranduago eskubide osoa izan dezakete edukitzeko, eta, alderantziz, lehenago bazuten beste batzuek beharbada ez dute mereziko pribilegio hori. Momentuko egoeran edozein aldake-

ta, beronen xedea alferkeriak edo ustelkeriak sortutako egoera zuzentzea denean, ez da gobernuari egiten zaion asaldaketa; bai ordea aldaketa horrek herria kaltetu edo zanpatzen duenean, eta hiritar gehienek kalterako alderdi edo parte baten mesederako egiten denean. Gizartearen eta herriaren onerako egiten den edozer, neurri justu eta iraunkorren arabera, aintzat hartu behar da eta berez justifikatzen da. Herriak bere ordezkariak irizpide justu eta zalantzarik gabe zuzenen arabera —eta gobernuaren jatorrizko egiturekin bat datoze— aukeratzen dituenek, hau honela izan dadin baimendu edo eragin duenak gizartearen borondatearen arabera jardun du.

XIV. KAPITULUA

AHALMENEZ

159. Atala. Botere betearazlea eta legegilea esku ezberdinetan daudenean (monarkia moderatuetan eta ongi eratutako gobernuetan gertatzen den moduan) gizartearen onak eskatzen du botere betearazleari hainbat arazo konfiatzea. Legegileek ezin dute beraien legeen bidez erkidegoari mesedegarri izaneko guztia aurreikusi eta eman. Hortaz, legeak betearazteko boterea eman zaion horrek ahalmen osoa du —lege natural orokorrean oinarrituta— botere hori erabiltzeko gizartearen onerako; udal-legeek ezertxo ere ez dioten kasu horietan, eta botere legegilea modu egokian biltzen den artean dagokion gaiaz jarduteko. Gainera, badira hainbat gauza legeek ezin dituztenak inolaz ere aurreikusi, eta derrigorrean utzi beharko dira botere betearazlea duten horiengan guztion onak eskatzen duenaren arabera jardun dezaten. Are gehiago, komenigarria da legeek berek zirrikituak izan ditzaten botere betearazlearen jardunari leku uzteko edo, hobe, naturaren eta gobernuaren oinarritzko legeari; honen arabera gizarte bateko partaide guztiak babestuak behar dira izan, posible den heinean. Izan ere,

askotan gertatzen dira legeen jarraipen estu batek sorturiko min handi eta ezbeharrak (esaterako, errugabea den pertsona baten etxea ez botatzea sute bat gelditzeko, alboko etxea sutan denean), eta pertsona batek legearen zama paira dezake, honek ez baititu pertsonak ezberdintzen, eta barkamena —edo saria ere— merezi duen ekintza bategatik zigorra jasotzen ahal du. Sarritan komenigarria da gobernariak boterea izatea legearen zorrozatasuna leundu eta zenbait arau hauste barkatzeko. Gobernuaren xedea guztion babesia izanik, ahal denean behintzat, hobendunak ere barkamena merezi du, errugabeari kalterik egiten ez zaiola frogatzen den guztietan behintzat.

160. Atala. Guztion onerako, legearen preskripziorik gabe eta batzuetan aurka ere, arduraz eta zuhurtasunez jarduteko gaitasun horri «prerrogatiba» [prerogative] deritzogu. Zenbait gobernutan legeak promulgatzen diharduen boterea ez dago une oro funtzionamenduan, sarritan ugariegia da, eta hortaz geldoegia zenbait kasuk eskatzen duten azkartasunaz jarduteko. Ezinezkoa denez legeak egiterakoan gizartean eragin dezaketen akzidente eta behar guztiak aurreikusi eta beraiei konponbidea ematea, edo zorroztasun handiz aplikatuz gero onura baino kaltea egingen duten legerik ez egitea, horregatik guztiagatik, legeek ezer ez dioten kasu ugarietan, badago tarte bat botere betearazleak erabaki dezan.

161. Atala. Botere hori erkidegoaren onerako eta gobernuaren xedeen arabera erabiltzen den heinean prerrogatiba hori zalantzaezina da. Herriak ez du puntu honetan eskrupulu edo milikeriarik agertzen. Inork ez du ahalmen hori ezbaian ipiniko, maila jasangarri batean eta herriaren onerako eta ez kalterako erabiltzen den artean. Botere betearazlearen eta herriaren artean eztabaidaren bat sortuko balitz prerrogatibatzat hartu nahi den zerbaiti buruz, herriaren ona litzateke auzi hori erabakitzeko irizpide argia.

162. Atala. Erraza da ulertzea gobernuen haurtzaroan, errepublikak elkarren artean ez zirenean familiengandik ezber-

dinegiak kide kopuruari dagokionean, lege kopuruan ere ezberdintasun handirik ez izatea. Gobernariak beraien seme-alabez arduratzen ziren gurasoak bezalakoak ziren ia-ia, hortaz gobernatzea kasik bere osotasunean prerrogatiba zen. Nahikoak ziren ezarririko zenbait lege, eta gainontzekoa gobernariaren ardurak eta zuhertasunak osatuko zuen. Printze ahulen hutsek eta koipekeriak, ordea, interes propioak eta gertuan zituen pertsonenak mesedetzera bultzatu zituenean, eta ez guztion interesak, orduan prerrogatiba desegoki zirudien puntu horietan argitasunez definitzeko nahia sortu zen herriarengan. Modu honetan, prerrogatibari — beharrezko zirudien kasuetan— mugak ezarri zitzaizkion; lehenago prerrogatiba hori herriaren onerako soilik erabili zuten printze horien eta beraien arbasoen jakiturian konfiantza osoa izan zuten arren.

163. Atala. Horrela, bada, gobernuaren kontzeptu erabat okerra eta erratua dute pentsatzen dutenek herriak prerrogatiba usurpatu duela, beronen zati batzuk lege adierazien bidez mugatzerakoan. Hala jarduterakoan, herriak ez dio kendu printzeari beronena zen ezer, soilik adieraziko du, printzeari eta bere arbasoei definizio edo zehaztasunik gabe eskaini zioten botere hori, gizartearen onerako erabiltzekoa zela, ez ziotela eman beste xede batzuekin erabil zezaten. Gobernuaren xedea erkidegoa baldin bada, helburuak hobe bete daitezen gertatzen den edozein aldaketa ezin daiteke inoren eskubideen usurpaziotzat jo, gobernatzen duen inork ezin baitu aipatu dugun xede hori betetzera bideratuta ez dagoen inolako eskubiderik izan. Usurpazio bakarrak guztion ona kaltetzen edo mintzen duten horienak dira. Beste ezer dioenak, esan nahi izanen du printzearen interesak ezberdinak eta kontrakoak direla erkidegoaren onarekiko, eta bere kargua ez dela sortua xede horretarako hain zuzen. Hori da monarkiatan sortzen diren gaitz eta nahasmendu guztien iturburu eta jatorri. Izan ere, modu hartan balitz, gobernu mota horren mende legokeen herria ez litzateke izaki arrazionalen erkidegoa, gizartean bildu zena guztion

onerako, gobernariak izendatu zituena on hori babes eta zain zezaten; alderantziz, irudituko luke azpiko mailako animalia talde bat, ugazabak menperatuta, honek bere probetxurako zaindu eta lan eginarazten duena. Gizakia hain arrazoigabea eta astakirtena balitz, gizartean baldintza horietan sartzeko modukoa, orduan, prerrogatiba benetan izanen litzateke zenbait iruditzen zaiona, hau da, herriaren aurka bidegabekeriak egiteko botere arbitrarioa.

164. Atala. Alabaina, ez da bidezkoa pentsatzea izaki arrazional eta libre batek beste baten mende jarriko duenik bere burua norbere kaltetan (gobernari on eta jakitun bat aurkituko balu, beharbada ez luke beharrezko kontsideratuko haren botereari arlo guztietarako muga zorrotzak jartzea). Prerrogatiba ondokoan datza: herriak bere gobernari, legeak aurreikusten ez dituen arlotan, erabakiak hartzen utziko die, batzuetan legeak dioenaren aurka bada ere, guztion onerako den orotan eta gizartearen onespina jasoz gauzatzen denean. Monarka onaren prerrogatiba, hau da, ona egiteko duen gaitasuna, printzea bere esku utziriko botereaz jabetu eta bere herriaren onaren ardura badu, ezin da inoiz gehiegizkoa izan. Aldiz, subirano ahul eta ezgaia, bere arbasoek zuten boterea inongo muga legalik gabe eskatzen duena, ogibidearen eskubidez berezko balu bezala, datorkion moduan jarduteko eta gizartearenak ez diren interesak bultzatzeko, printze horrek herria bultzatuko du herriarena den eskubidea erreklamatzerantz eta botere hori mugatzera; eskaini baitzitzaion herriaren onerako erabiltzen zen artean soilik.

165. Atala. Honen arabera, Ingalaterrako historia aztertzen badugu, ikus daiteke prerrogatiba handiena printze jakitun eta onenetan ezartzen zela, herriak sumatzen baitzuen beraien ekintzen joera orokorra guztion onera zuzendua zela eta ez zen kexu zentzu horretan zerbait egiten zenean, legetik kanpo egiten bazen ere. Eta giza ahultasun edo akatsen bat suertatzen zenean (printzeak gizakiak baitira beste pertsona guztiak beza-

la), xede horretatik pittin bat aldentzen zirelarik, hala ere, argi zegoen orokorrean beraien jarrera erkidegoaren onera zuzendua zela. Modu honetan herriak arrazoi zuen monarka hauekin pozik egoteko, legeak zioenaren aurka jarduten bazuten ere, eta beraien prerrogatibak handitzen uzten zieten kexa gabe hala eskatzen zutenean, iruditzen baitzitzaien —zuzen iruditu ere— beraien legeen kaltetan ez zela, haien jarduera lege ororen oinarri eta xedearen araberakoa zelako, hau da, guztion onerako.

166. Atala. Printze Jainkolako hauek uste dute botere arbitrarioak eskubidea dutela ondoko arrazoiari oinarrituta: monarkia absolutua gobernu modurik onena da, Jainkoak ere horrela gobernatzen duelako unibertsoa. Errege horiek haren jakituriatik eta ontasunetik parte hartzen dutela uste dute. Hortik dator printze onen erreinutzak herrialdeen askatasunentzat okerrenak izan direla dioen esaera. Ondorengoek gobernua beste pentsaera batekin gidatzen zutenean, gobernari onen ekintzak aurrekaritzat hartzen zituzten eta euren prerrogatibentzako eredu moduan; aurrekoek gizartearen onerako egin zutenagatik, oraingoan, euren nahi izanez gero, gizartearen kalterako egiteko eskubidea emanen balie bezala. Honek sarritan herriaren bat-bateko erantzuna eragin du, batzuetan anabasa publikoa ere sortu duelarik, harik eta herriak bere jatorrizko eskubideak berreskuratzea lortu eta inoiz benetan prerrogatiba izan ez zena deuseztatzea lortzen duenera arte. Ez baita posible inork herriari kalte egiteko eskubidea izatea; oso litekeena bada ere, baita zentzuzkoa ere, herriak ardurarik ez hartu izana mugak jartzeko guztion onaren mugak gainditzen ez zituzten errege eta gobernariak. Prerrogatiba ez baita arauetatik kanpo guztion ona bultzatzeko boterea baizik.

167. Atala. Ingalaterran parlamenturako deialdia egiteko boterea, leku eta une jakin batzuetan eta denboraldi jakin baterako, erregeren prerrogatiba da. Beregan ezartzen da konfiantza hau, nazioaren onerako erabiliko duenaren baldintza-

pean, uneak eta egoerak eskaturikoaren arabera. Ezinezkoa suertatzen denez aurreikustea zein izanen den parlamentariak bil daitezen leku eta une aproposena, erabakia botere betearazleari dagokio, aukera dezan guztion onari eta parlamentuaren xedeei komenigarrien zaiena.

168. Atala. Hemen sortzen da betiko itauna, nor izanen da botere hori zuzen erabiltzen ari dela erabakiko duen epailea? Ene erantzuna ondokoa da: Lurrean ez da epailerik indarrean dagoen botere betearazle prerrogatibadun baten eta konbokatua izateko haren borondatearen menpe dagoen botere legegile baten artean. Egon ez dago ere halako epailerik botere legegilearen eta herriaren artean; botere legegilea edo betearazlea — behin botere osoa euren eskuetan dutela— saiatzen badira edo lortzen badute euren herria esklabo egin edo berau suntsitzen. Kasu honetan, eta epaile lurtar baten falta dagoen guztietan, Zerura laguntza bila jotzea baino ez zaio geratzen herriari. Agintariek horrela jokatzeko dutenean, beraien esku inoiz utzi ez zen boterea ari dira herriarengan erabiltzen (nork utz liezaioke inori bere kaltetan gobernatzen) eta, hortaz, haien ekin-tzak ez dira oinarritzen inolako eskubidetan. Eta herria edo pertsona bakar bat bere eskubideez gabetuak direnean, edo eskubiderik gabeko botere baten menpe ezarriak direnean, munduan laguntza eske nora jo ez dutelarik, Zeruari laguntza eska diezaiokete, beharrezkoa baderitzote. Hortaz, herria epaile izan ez daitekeen arren, gizarte honen egikerak ez baitio ematen botererik gorena kasu horretan epaia emateko, hala ere, badauka azken aukera bat ere, gizateria osoari dagokiona, edozein adierazitako giza lege baino lehenagoko lege goren batean oinarrituta: gizakiak Zeruari laguntza eskatzen ahal dio, Lurrean nora jo ez duenean. Gizakiak ezin dio inoiz aukera honi uko egin, ez baitu eskubiderik beste baten menpe ezarri eta suntsi dezan uzteko. Jainkoak eta naturak ez dute onartuko gizakiak bere burua abandonatu eta bere iraupena arriskutan laga dezan. Eta bere buruaz beste ezin badu egin, ezin dio beste

bati utzi bizitza kentzeko boterea ere. Ez beza inork pentsa hau anabasarako oinarri betierekoa denik, honek ez baitu eraginik, harik eta eragozpenak hain handiak izanik, herriaren gehiengoa ohartu eta nazkatzen denera arte, orduan, erabat beharrezko irudituko zaie konponbidea bilatzea. Arduratsua eta zuhurra den botere betearazleak edo monarkak ez dute euren burua inoiz honelako egoera batean ikusiko. Izan ere, hau da gehien saihestu behar duten egoera, arriskutsuena ere baita.

XV. KAPITULUA

BOTERE AITATIARRAZ, POLITIKOAZ ETA DESPOTIKOAZ, OSOTASUNEAN KONTSIDERATUTA

169. Atala. Dagoeneko jardun badut ere hiru botere hauetaz, bakoitza bere aldetik aztertuta, beharbada beharrezkoa izanen da guztiak batera aztertzea; garai hauetan gobernuari buruz sortu diren gaizki ulertu gehienak, ene ustez, botere ezberdin hauek elkarren artean nahastean dutelako jatorria.

170. Atala. Botere aitatiarra edo gurasoena gurasoek beraien seme-alabak gobernatzeko duten boterea baino ez da, beraien onerako, arrazoia erabiltzeko gai diren arte, edo ezagutza nahikoa dutenera arte errespetatu beharreko legeak ulertzeko, bai lege naturalak zein herrialdeko udal-legeak. Hau da, gai diren arte legeak ezagutzeko, berorien mende bizi diren gai nontzeko pertsona aske horiek beste. Jainkoak gurasoen bihoztzean jarri zuen maitasun eta samurtasunak argi uzten du ez dela gobernu zorrotz eta arbitrarioa; ondorengoen laguntza, heziketa eta babesa baino ez dela. Nolanahi ere, frogatu dut botere hau ez dela iristen seme-alaben bizitza eta heriotzaraino, beste inorenera iristen ez den bezala. Ezin da pentsa gurasoen botere honek seme-alabak gurasoen borondatearen menpe ezar ditzakeenik behin hauek adin nagusitasunera iristerakoan; gurasoengandik jasoriko bizitza eta heziketak haiek errespeta-

tzera behartzen ditu seme-alabak, esker ona adieraztera, bizitza osoan lagundu eta mantentzera, bai aita zein ama. Hortaz, egia da gobernu aitatiarra gobernu naturala dela, baina ez du ezertan botere politikoaren xede eta jurisdikzioaren tartean sartu beharrik. Aitaren botereak ez du ezertan seme-alaben jabetzan eraginik, haiek bakarrik dute beraien jabetzarekiko eskumena.

171. Atala. Bigarrenik, botere politikoa da gizaki orok naturazko egoeran zuen boterea, horri uko egin ondoren, gizar-teari eta, modu berean, bere gobernariiei ematen die; guztion onerako eta jabetzen babeserako erabiliko den baldintza esplizitu edo inplizituarekin. Horrela, bada, gizaki orok naturazko egoeran duen botere hau, gizar-tearen esku utzirikoa babesa eskaintzen dion artean, honakoan datza: pertsona bati komenigarri iruditzen zaion moduan eta naturak lagatzen dion heinean, bitarteko zehatzak erabiltzea bere jabetzak babesteko, eta lege naturalaren hausteak zigortzeko, modu horretan (bere arrazoiak hoberen laguntzen diolarik) bere iraupena eta gizateriarena ahalik eta hoberen erdiesten ahal da. Horrela, botere horren helburu eta neurria, pertsona guztiak naturazko egoeran daudenean, gizar-tearen iraupena da, hau da, gizateria osoaren eta, hortaz, magistratuaren esku dagoenean, bere helburu edo neurria ezin daiteke ezberdina izan bere gizar-teko kideen, beraien bizitzen, askatasunen eta jabetzen iraupenetik. Beraz, ez daiteke izan botere absolutu eta arbitrarioa hiritarren bizitza eta ondasunekiko, hauek ahalik eta gehien babestu behar baitira; aldiz, legeak egiteko eta zigorrak ezartzeko boterea izan behar da, osotasunaren iraupena jagoteko, eta soilik, hain ustelduta egonik, gainontzeko osasuntsua mehatxatzen duena deuseztatzeko. Ez balitz modu honetakoa, bestelako zorrotzasunak ez lirateke legítimoak. Botere honek jatorria paktu eta akordio batean du, baita erkidegoa osatzen duten haien elkarren arteko bat-etortzean ere.

172. Atala. Hirugarrenik, botere despotikoari dagokionean, hau pertsona batek beste batengan duen botere absolutu

eta arbitrarioa da; horren arabera nahi duenean hari bizitza ken diezaioke. Botere hori ez da naturak emana, honek ez baitu ezberdintzen gizaki baten eta besteren artean. Are gutxiago etorriko da paktu edo hitzarmen batetik; pertsonak ez baldin badute beraien buruaz beste egiteko botere arbitrarioa, erabat ezinezkoa da beste bati ematea ez daukaten hori. Bizitzarako eskubidearen galera gertatzen da erasotzaile batek norbera beste norbaitekiko guda egoeran ezartzen duenean. Baita Jainkoak eman digun arrazoia alde batera uzterakoan ere, hau baita pertsonen artean erabili behar den eredu eta araua, eta gizateriak erkidego bakarra osatzeko darabilgun lotura. Arrazoiak erakutsiriko bakezko bideari uko egitean eta indarra erabiltzean ere, gudaren bitartez gainontzeko pertsonen xede bidegabeak inposatzeko eta lege orotatik kanpo, indarra arau egiten delarik, animaliaaren jokabidea jarraituz gizakiarena baino, horregatik guztiagatik, kaltegileak merezi du kaltetuta izan denak suntsitzea. Gizateriaren gainontzeko kideak elkartuko zaizkio, harekin batera justizia inposatzeko, basapiztia batekin eginen zuketzen moduan, harekin ezin baitu gizateriak inoiz ere segurtasunik zein erkidegorik izan, naturaz hondagarria baita. Horrela, guda justu eta legitimo batean preso hartutako gatibuak soilik izanen dira botere despotiko baten menpe, hau ez da sortu —ez eta sortuko ere— inolako paktutik, aitzitik, guda egoeraren luzapen bat da. Zein paktu egin daiteke bere bizitzaren jabe ez denarekin? Zein baldintza bete ditzake? Bere bizitzaren jabe izaten utziko balitzaio, momentu horretan bertan desagertuko litzateke bere nagusiaren botere despotiko eta arbitrarioa. Bere buruaren eta bizitzaren jabe denak berau babesteko bitartekoetarako eskubidea du; akordiora iristerakoan esklabotasuna bukatzen da, horrela nagusiak bere botere absolutua galtzen du eta guda egoerari bukaera ematen dio.

173. Atala. Naturak gurasoei seme-alabekiko botere aitatiarra ematen die, hauek adin txikikoak diren artean beraien onaz ardura daitezen, trebetasun eta adimen faltagatik

ezin baitituzte beraien kabuz jabetzak jagon (jabetza diogunean ulertzen da, hemen eta beti, bere buruekiko eta ondasunekiko dutena). Gobernarien botere politikoa akordio baten bidez lortzen da, hiritarren onerako erabiliko den baldintzapean, eta euren jabetzen edukitze eta erabilerarako. Hirugarrenik, ezertxo ere ez daukaten horien gainean, eskubideen galerak ematen die nagusiei beraien probetxurako botere despotikoa.

174. Atala. Botere hauen jatorri, irismen eta xedeak kontsideratzen dituenak erraz ulertuko du botere aitatiarra magistratuarenarekin alderatuta erabat aspikoa dela, azken hau despotikoarekin erkatzerakoan gertatzen den bezala. Eta nagusitasun absolutua hain dagoela urruti gizarte zibiletik, erabat batezagaitza suertatzen da honekiko, esklabotasuna jabetzarekiko den moduan. Botere aitatiarra seme-alabak beraien jabetzaz arduratzeko ezgai diren artean emanen da; politikoa, pertsonak beraien jabetzaz gozatzen dutenean; eta despotikoa inolako jabetzarik ez duten horien gainean ezartzen da.

XVI. KAPITULUA

KONKISTARIBURUZ

175. Atala. Gobernuak ezin badute lehenago aipatu dugun jatorria baizik eduki, ez eta politikak herriaren bat-etortzea ez den beste oinarri bat, hala ere, handinahiak ekarri dituen anabasak hain izan dira handiak, gizateriaren historiari itxura eman dion gudaren berotan erraza izanen dela bat-etortze honetaz ahaztea. Horrela, askok armen indarra eta herriaren bat-etortzea nahasten dituzte, eta konkista gobernuaren jatorrietako bat kontsideratzen dute. Alabaina, konkista arras urruti dago gobernuaren eratzetik, etxe bat eraikitze besterik botatzea dagoen modu berean. Izan ere, errepublika baten deuseztatzeak berri bat sortzea dakar, baina hau ezin da inoiz gerta herriaren adostasunik gabe.

176. Atala. Beste pertsona batekiko guda egoeran jarri, eta honen eskubideak zapaltzen dituen erasotzaileak inolaz ere ezin du bidezko ez den guda baten bitartez konkistatuaren gaineko eskubiderik izan. Lapur eta piratek indarrez menperatzen dituztenengan eskubiderik ez dutela pentsatzen duen edonork erraz ulertuko du hau, edo pertsonak biolentziapean eginiko promesetara behartuta ez daudela uste duenak. Lapur bat ene etxean sartuko balitz, eta, saman labana ezarrita, behartuko banindu ondasunak ematera dokumentu batzuk izenpetuaraziz, titulurik izanen al luke horrela? Hauek dira eta ez beste, ezpataz men egitera behartuko nauen konkistatzaile bidegabeak lortuko dituen tituluak. Kaltea eta krimena berdinak dira koroa daramanak zein bilau arrunt batek egiten baditu. Kaltegilearen tituluak eta hark dituen jarraitzaile kopuruak ez du diferentziarik sortzen ofentsari dagokionean, ez bada larriagotzeko. Diferentzia bakarra da lapur handiek txikiak zigortzen dituztela, obedi ditzaten, baina handiek txapela eta garaipena daramate, handiegiak baitira justizia lurtar ahularentzat, eta kriminalak zigortzeko boterea dute beraien esku. Zein da nire etxean modu horretan sartzen den lapurraren aurka dudak konponbidea? Legea jotzea justizia bila. Baina beharbada justizia ukatuko zait; elbarrituko naute eta ezinen naiz mugitu; ostuko didate eta ez dut justizia eskatzerik izanen. Jainkoak konponbidea erdiesteko bitarteko guztiak kendu badizkit, pazientzia baino ez zait geratuko. Baina baliteke, nire semeak —gai denean— berak bilatzea legeak niri ukaturiko laguntza hori. Eta bera ez bada apika bere semeak saiatzen jarraituko du, dagoen eskubidea berreskuratu arte. Konkistatuak eta bere semeek, ordea, ez dute Lurrean epaile edo arbitrorik beraiengana justizia bila jotzeko. Orduan, Zerura jo dezakete, eta Jeftak bezala behin eta berriro eskaera errepikatu, azkenik lortu baitzuen berreskuratzea bere arbasoek zeukaten botere legegilea, gehiengo baten erabaki librean arabera gidatutakoa. Honek arazo zenbakitza sortuko lituzkeela esaten bazait, nire erantzuna ondokoa da: ez dituela sortuko justiziak, mundu guztiak

harengana jotzen duenean, sortzen dituenak baino gehiago. Bere auzokidea arrazoirik gabe asaldatzen duenak justiziaren zigorra jasoko du hartara jotzerakoan. Zerura jotzen duena ziur dateke zuzenbidea bere alde izanen dela, eta eskubide horrek merezi dituela apelazioaren eragozpen eta kostuak; erantzun beharko du iruzur egin ez dakiokeen epaile baten aurrean, eta bakoitzak hurkoari —hau da, edozein gizakiri— eginiko kaltearen arabera ordaina jasoko du. Honetatik, argi dago bidegabeko konkistatzaileak ez duela konkistatuarekiko mendetasun eta obedientzia titulurik jasotzen ahal.

177. Atala. Baina demagun garaipena arrazoia duenak erdietsiko duela, ikus dezagun zein den konkistatzaile batek guda legitimo batean lortuko duen boterea eta noren gainean eragingo duen.

Lehenik eta behin, argi dago ez duela botererik lortzen konkista horretan lagundu diotenengan. Bere alboan borrokatu ziren pertsonak ezin dituzte konkista horren ondorioak pairatu; behintzat, lehenago ziren bezain libre jarraitu beharko dute. Normalean, zenbait baldintzapean ematen da laguntza, eta buruzagiarekin banatzekoa da harrapakina eta beste zenbait abantaila ezpata konkistatzaileak dakartzanak, edo, behintzat, konkistaturiko herrialdearen zati bat eman behar zaie. Konkistatzaileak ezin dira esklabo bilakatu eginiko konkistagatik, eta ez daramate irabazleen ikurra soilik beraien buruzagiaren garaipenean eginiko sakrifizioak erakusteko. Monarkia absolutuaren oinarria ezpatak emaniko tituluan ezartzen dutenek, beraien heroiak, monarkiaren sortzaileak, handiputz arrunt bihurtzen dituzte. Ahazten dute haien alboan beste horrenbeste buruzagi eta gerlarik hartu zutela parte, garaipenetan lagundu eta menpekoturiko herrialdeak lortzen jardun zutenak, gainera, herrialde horien jabetza ere elkarren artean banatu zuten. Batzuek diote, ingeles monarkia normandiarren konkistan oinarritzen dela eta gure printzeek horregatik nagusitasun absoluturako titulua erdietsi zutela. Hau egia balitz (eta

historiaren xehetasunak aztertuz gero ematen du ez zela hala izan) eta William hark uharte honen aurka guda egiteko esku-bidea baldin bazuen, horrela ere, bere konkistaren bidez erdie-tsitako nagusitasunak garai hartan lur honetan bizi ziren saxoi eta britoiak bakarrik eragiten zien. Harekin iritsi eta borrokatu ziren normandiarrek pertsona askeak ziren denak, baita beraien ondorengoak ere, eta ez konkistaturiko edo menpeko-ak, lortu zuten nagusitasuna zena zelarik ere. Nik, edo beste edonork, nire askatasuna eskatuko banu konkistatzaileen ondorengo naizelakoan, oso zaila gertatuko litzateke alderan-tzizkoa frogatzea. Argi dago legeak ez badu batzuen eta beste-en artean ezberdintasunik egiten, ezin dela ere diferentziarik egin askatasun eta pribilegioei dagokionean.

178. Atala. Alabaina, momentu batez, demagun konkis-tatzaile eta konkistatuak ez direla herri bakarrean elkartuko, lege berdinek ez dituztela denak gidatuko, eta ez dutela aska-tasun beraz gozatuko (ia inoiz ez bada horrelakorik gertatzen ere); kasu horretan badago itauntzea zein izanen den konkista-tzaile legitimo batek menpekotu dituen horiekiko duen bote-rea. Ene ustez, botere despotikoa baizik ez da izanen. Garaipena lortu duenak bere aurka bidegabeko gudan borroka-tu direnen bizitzen gaineko botere absolutua izanen du; baina inolaz ere guda horrekin harremanik ez zutenen bizitza eta ondasunekiko, ezta harremana zutenen ondasunekiko ere.

179. Atala. Bigarrenik, ene ustez konkistatzaileak bere aurka ezarritako indar bidegabe horri lagundu, atxiki edo kon-tsentitu zuten horiekiko baizik ez du botererik. Herriak ezin baitie bere gobernariak boterea eman bidegabekeriaren bat egi-teko, esaterako guda bidegabe bat egiteko, beraiek ere ez bai-tzuten inoiz horretarako botererik. Ezin zaie, beraz, bidegabe-ko guda batean ematen den biolentzia eta injustizia leporatu, soilik guda horren konplize diren heinean baizik. Modu bere-an ezin zaie egotzi beraien gobernariak eurengan edo beste hiritar batzuegan ezarritako biolentzia edo zapalkuntzaz,

gobernariak kasu bietan erabilitako boterea ez baitzien herriak inoiz ere eman. Egia da, hala ere, konkistatzaileak ez direla inolaz ere arduratuko ezberdintasunak egiten, nahita zabaltzen dute gudaren nahasmendua denak zaku berean eramateko. Honek zuzenbidea ez du aldatuko ordea. Konkistatzaileek konkistatuekiko duten boterea azken hauek injustizia bat egin edo mantentzeko indarra erabili zutelako badaukate, botere hori indar horretan parte hartu zutenengan heda daiteke, eta beste pertsona guztiak erabat errugabe dira. Inolako kalterik egin ez zutenez, bizitzarako eskubidea galdu ez zuten hiritar horiekiko ez dute inolako eskubiderik, harreman onean dauden beste edozein herrialdeekiko ez duten moduan.

180. Atala. Hirugarrenik, guda justu batean, konkistatzaileak gailenduekiko erdiesten duen boterea erabat despotikoa da. Botere absolutua du, beraien buruak guda egoeran jartzeagatik, euren bizitzarako eskubidea galdu zuten horiengan. Baina horrek ez die ematen titulurik edo eskubiderik beraien ondasunekiko. Hau, behintzat lehen begiratuan, doktrina arras arraroa iruditu daiteke, hain baita ezberdina mundu honetan gertatzen ohi denarekin. Ez da ezer ohikoagorik herrialdeen mendetasunaz ari garenean konkistaz jardutea baino; konkistak berak jabetza eskubidea suposatuko balu bezala. Baina kontuan izan behar dugu indartsu eta boteretsuen ekintzak, oso unibertsalak izanda ere, ez direla zuzenbidearen arau normalean oinarritzen, nahiz eta galtzaileari egoerak inposatzen dion ez kexu egitea ezpatak agindutako baldintzei.

181. Atala. Guda guztietan ohikoena indar eta kalteen nahasmendu handia ematea bada ere, eta erasotzaileak aurkari-azienda hondatzen baditu ere, indarraren erabilera da benetan pertsona bat guda egoeran jartzen duena. Berdin du kaltea indarra erabiliz hasi bazuen, edo isilean, iruzurraren bidez, eta konpontzea errefusatzeko badu, kaltea indarraren bidez mantenduz (aurrekoaren gauza bera baita azken finean); nolanahi ere, indarraren erabilera bidegabeak bultzatzen du

gudara. Norbaitek nire etxean sartu eta indarrez botatzen banau, edo etxea modu baketsu batean hartu eta gero indarrez sartzen utziko ez balit, ekintza bera izanen bailitzateke. Une batez, demagun egoera horretan gaudela eta ez dugula noren-gana jo, hau da, alderdi biak bere erabakiari atxikiaraziko gaituen epailerik ez dugula (hau baita dagokigun kasua). Kasu honetan, bada, indar bidegabea erabiltzeak jartzen du guda egoeran pertsona bat beste batekiko, eta errudunak, hortaz, bizitzarako eskubidea galduko du. Arrazoa abandonatzerakotan, hau baita gizakiak gidatzen dituen araua, eta indarrera jotzerakoan, hau da animalien jarduera ohikoa, erasotzailea arriskuan egonen da, erasotuak suntsi baitezake, honen bitzta mehatxatzen duen basapiztiak bezala jokatzeko baitu.

182. Atala. Gurasoen akatsak ez dira seme-alaben erru, hauek arrazoidunak eta baketsuak izan baitaitezke, beraien aita basakeria eta injustiziaz jarduten bazuen ere. Aitaren jokabide okerrak eta biolentziak bere bizitzan soilik dute eragina, eta ez seme-alabenarengan. Naturak, gizateria osoaren iraupena gura baitu ahal den heinean, gurasoen ondasunak — gal ez daitezen — seme-alabentzat izatea deliberatu du. Horrela, seme-alabek ez badute gudan parte hartu txikiegiak zirelako, ez zeudelako edo hala erabaki zutelako, ez dute ezer egin beraien ondasunak galtzeko; eta konkistatzaileak ez du inongo eskubiderik ondasunak ebasteko, daukan titulu bakarra suntsitu nahi izan zuen hura gailentzea baita. Aitzitik, izan dezake nolabaiteko eskubidea kalte-ordaina jasotzeko, bere eskubideak defendatzeko egin behar izan zuen guda hori zela-eta; segituan aztertuko dugu nola eragiten dien honek konkistatuen ondasunei. Horrela, norbaitek eskubidea badu, konkistan oinarrituta, nahi izanez gero beste pertsona bat suntsitzeko, horrek ez du suposatzen bere aziendaz jabetu eta gozatu deza-keenik. Erasotzailearen indar basatia izan da bere aurkariari, gura izanez gero, haren bitzta hartu eta suntsitzeko eskubidea eman diona, animalia arriskutsua bati bezala. Etengabeko kalte

luzea da soilik pertsona bati beste baten ondasunekiko eskubidea ematen diona. Bidean lapurreta egin didan ebasle bat hiltzeko aukera badut ere, horrek ez du esan nahi bere dirua ken diezaiokeidanik (truke leunagoa ematen duen arren) eta lasai asko partitzen utz dezakedanik; kasu horretan, ni bilakatuko bainintzatekeen lapur. Bere indarkeriak eta horrek eragiten duen guda egoerak bizitza galtzera eraman dezakete, baina niri ez dit bere ondasunekiko titulurik emanen. Konkista eskubideak, bada, gudan parte hartu duten horiengan du eragina, baina ez beraien aziendetan; ez bada jasoriko kalteengatik eta gudak sorturiko kostuak konpontzeko. Aparte daude, noski, seme-alaben eta emaztearen eskubideak, errugabe direnean.

183. Atala. Konkistatzaileak arrazoi osoa bere alde izan dezakeen arren, konkistatuak galtzea merezi zuen gauzatarako eskubidea izanen du bakarrik. Konkistatuaren bizitza irabazlearen esku geratu zen eta honek bere zerbitzuak eta ondasunak jaso ditzake konponbide moduan. Baina ez dauka haren emazte eta seme-alaben ondasunez jabetzeko eskubiderik; haiek ere bazuten titulua hark gozatzen zituen ondasunekiko, eta aziendaren zati bat beraiena zen eskubide osoz. Esaterako, naturazko egoeran (eta errepublika guztiak egoera honetan daude bata bestearekiko) pertsona bati kalte egiten badiot eta konponbide bat eskaintzera errefusatzen badut, honek guda egoera ekarriko du, eta defendatzeko indarra darabildanean erasotzaile bihurtuko naiz. Horrela, nire bizitza haren esku izanen da, baina ez nire emaztearena edo seme-alabena; ez zuten gudan parte hartu eta ez zidaten lagundu. Ezin nuen beraien bizitza arriskuan jarri, ez baitziren nireak. Nire emazteari aziendaren zati bat zegokion, hori ere ezin nuen arriskuan jarri. Berdin nire seme-alabek, nigandik jaioak zirenez, nire lanetik edo ondasunetatik bizitzeko eskubidea dute. Horrela legoke egoera: konkistatzaileak eskubidea du jasotako kalteengatik konponbidea jasotzeko; seme-alabek aitaren aziendaz baliatzeko, bertatik elikagaiak jasotzeko; emaztearen partea, bere eskubi-

dea eginiko lanetik zein paktu batetik badator ere, ezin du senarrak arriskuan jarri. Zer egin behar da kasu honetan? Ene ustez, lege naturalaren oinarrian dagoenez guztion iraupena, ahal den heinean, horrela, ez badira ondasun nahikoak alderdi guztiak asetzeko, hau da, konkistatzailearen galerak konpontzeko eta seme-alabak mantentzeko, soberan duen horrek bere eskubidearen zati bati uko egin beharko dio berea kenduz gero hil zorian leudekeen horien onerako.

184. Atala. Konkistatzaileak gudak eraginiko gastu eta kalteengatik azken txanpona ere jaso beharko balu, eta gailenduaren seme-alabak, beraien aitaren ondasunez gabeturik, gosez hiltzera beharturik baleude, kasu horretan irabazleak ezin du izan konkistaturiko herrialdeaz jabetzeko eskubidea. Ez baitzait iruditzen guda batek eraginiko kaltea eta eremu morturik ez duen herrialde bateko lur zati handi jabedun bat baliokideak direnik. Ni, gailendua izanik, ez banaiz bere lurrez jabetu —erabat ezinezkoa baita galdu dudan aldetik—, ezin izan dut ziurrenik horrenbeste kalte egin, nire lur guztiak eman ez konponbidea emateko beste, ongi kultibatuak direla eta bereak adina direla suposatzen badugu. Gehienik ere, bi edo hiru urteko uzta suntsi diezaioket (gehien jota lau zpabost urtekoa). Eraman nizkion diru, aberastasun eta altxorrei dagokienean, ez dira ondasun naturalak, hortaz, daukaten balioa irudimenak ematen diena da; naturak ez die balorerik eman, ez lukete gehiago balio behar, europar printze batentzat beiraalezko lepoko batek balio duena edo Amerikako indiar batek zilarrezko txanpona baloratzen duena baino. Bost urteko uztak ezin du balio landaturiko lur eremu baten betiereko jabetzak beste. Txanponen balio irudikatua alde batera uzten duen edonork erraz uler dezake; desproporzioa bostetik bostehunera-koa bailitzateke, edo are gehiago. Era berean, uzta baten balioa handiagoa da, jendeak oraindik erabil eta landa ditzakeen eremu libreak dituen herrialdean lur sail batek balio duena baino. Hala ere, kasu honetan, irabazleek ez dituzte normalean

gailendutakoen lurrak hartzen. Horrela, bada, naturazko egoeran (eta printze eta gobernu guztiak egoera honetan daude elkarren artean) inork ezin diezaioke beste bati kalte egin, honen konponbideak gailenduaren jaraunsleak jabetzarik gabe utziko baditu, eta beraiena eta ondorengoena hainbat belaunalditan zehar dirauen jaraunspen batez gabetuz gero. Izan ere, irabazleak bere burua ugazabatzat hartzen du, eta gailenduak, dagoen egoeragatik, ez dauka bere eskubidea defendatzeko ahalmenik. Baina hau indartsuenak ahularengan duen eskubidea baizik ez da. Eta hori bidezkoa balitz, indartsuenak nahi lukeen beste har lezake.

185. Atala. Guda justu batean ere, konkistatzaileak ez du nagusitasun eskubiderik ez bere alboan borrokatu dutenekiko, ez herrialde arerioan bizi zirenekiko —ez bazuten erresistentziarik agertu— ez eta bere aurka egin zutenen ondorengoekiko. Haiek guztiak libre dira irabazlearen edonolako nagusitasunaz, eta aurreko gobernua desegingo balitz, aske dira beste berri bat beraien kabuz osatzeko.

186. Atala. Egia da normalean konkistatzaileak indarrez behartuko dituela herrialdeak hark nahi dituen baldintzetara eta gobernuaren menpe egotera. Baina, zer eskubide du horretarako? Erantzungo balitz beraien borondatez jartzen direla haren menpe, orduan aitortzen da beharrezkoa dela haien onespena konkistatzaileak gobernatzeko eskubidea izan dezan. Aztertu behar da, dena dela, inolako eskubiderik gabe, indarrez eraginiko promesak noraino kontsidera daitezkeen onespen, eta zein puntutaraino behartzen dituen zin egiten dutenak. Ene erantzuna ondokoa da, ez dute inolaz ere promesak betetzera behartzen; norbaitek zer bait indarrez kenduko balit, horrek ez du esan nahi gauza horrekiko eskubiderik galdu dudarik, eta gainera niri itzultzer behartuta legoke. Inork zaldia indarrez ebatsiko balit, itzultzeko obligazioa izanen luke, eta nik berreskuratzeko eskubidea dut oraindik. Arrazoi beraigatik, promesa bat egitera behartu ninduenak itzuli beharko

lidake, hau da, obligazio horretatik libratu beharko ninduke, edo bestela neronek erabaki beharko nuke bete ala ez. Lege naturalak behartzen nau berorrek emaniko arauak betetzera; hortaz, ezin nau bere arauen aurka egitera behartu, zerbait indarrez egitera behartzen nauen horren kasuan gertatzen ez den bezala. Nik promesa egiteak ez du ezer aldatzen, modu berean ez da indarraren erabilera barkatuko, ez eta eskubide bat transferituko, nik eskua poltsikoan sartu eta pistola batekin apuntatzen nauen lapurrari diru-zorroa ematen badiot.

187. Atala. Honetatik guztitik, argi dago konkistatzaile batek indarraren bidez inposaturiko gobernuak ez dituela inolaz ere behartzen gailendurikoak. Hala ere, gobernu horrek guda zuzenbidea ezar ez diezaieke, ez baitzuten bere aurka egin.

188. Atala. Alabaina, ulertuko bagenu erkidego horretako pertsona guztiak, gorputz politiko bereko kide izateagatik, guda horretako parte hartzaile direla, orduan beraien bizitzak konkistatzailearen menpe egonen dira.

189. Atala. Hala ere, hau ezin zaie adin txikikoak diren haurrei aplikatu. Aita batek ez duenez bere haurraren askatasun edo bizitzarekiko botererik, haren ekintzek ez dute adin txiki-koaren gain eraginik. Hortaz, haurrak —gurasoek egin dutena eginda ere— pertsona askeak dira, eta konkistatzailearen botere absolutua menpekoturiko pertsonetara iritsiko da soilik, eta hor bukatuko da. Konkistatzaileak bere botere absolutuaren menpe, esklabo bailiran gobernatzea deliberatuko balu, seme-alabenganako ez luke horrelako nagusitasunik. Ez du eurenganako inolako botererik euren onespina jasotzen ez duen artean, behartzen dituenara behartzen dituela ere. Ez du izanen beraianengan inolako autoritate legitimorik, indarra eta ez auke-
ra librea den artean bere menpe jartzen dituen.

190. Atala. Pertsona oro eskubide bikoitzarekin jaioko da: alde batetik, pertsonaren beraren askatasunerako eskubidea; honen gainean beste inork ez du erabakitzerik, bakoitzak

baitu bere buruaz libre jarduteko eskubidea. Bigarrenik, beste edozein pertsonaren aurretik, anai-arrebekin batera, gurasoen ondasunak jaraunstekoa.

191. Atala. Lehen eskubide horren arabera, edozein gobernu menperatzaileren aurrean, gizakia libre da, gobernu jurisdikzioaren menpeko lurralde batean jaioko balitz ere. Alabaina, jaio den herrialdeko gobernu legitimoari uko eginen balio, bertako eskubideei ere uko egin beharko lieke eta bere arbasoengandik jaso beharko zituzkeen ondasunei, haien onespenerekin osatua balitz gobernu hori.

192. Atala. Bigarren eskubideagatik, gailenduak izan ostean, norberaren borondatearen aurka gobernua inposatu zaien edozein herrialdetako ondorengoek —gurasoengandik jaraunspen titulu bat jasotzen dutelarik— arbasoen jabetzekiko eskubidea mantenduko dute; herrialde horretako gobernuari libreki onespena eman ez dioten arren, eta inposatu zaizkien baldintzak oso gogorrak izanik ere. Herrialdearen lehendabiziko konkistatzaileak ez zuen lurralde horrekiko inolako eskubiderik izan inoiz ere, hortaz, gobernu horren menpe bizitzera indarrez kondenatuen ondorengoek —edo hala direla diotene— beti izanen dute ezpataren bidez inposaturiko mendetasun eta usurpazio horretaz libratzeko eskubidea; horrela, harik eta agintariek beraien gustuko gobernu egitura eskaintzen dietenera arte, beraien onспенaz egitura horren menpe jartzea onartuko dutelarik. Nork uka lezake greziar kristauak, herrialde horretako antzinako jabeen ondorengo direnek, aukera iristean eskubidea dutenik turkiar menperatzetik libratzeko? Ezein gobernu ez dezake eska justiziaz onspena eman ez duen herri baten obedientzia. Ez da zilegi hori gertatuko denik pentsatzea, harik eta herriak gobernua eta gobernariak aukeratzeko askatasun osoa duen artean, edo behintzat eurek edo euren ordezkariak adosturiko legeak dituzten arte eta, noski, beraien jabetzez goza dezaketen arte; honek esan nahi du inork ezin diezaiekeela beraien onspenik gabe zati bat ere kendu,

hau guztia falta bada, gobernu baten mende dagoen inor ezin da libre kontsideratu, aldiz, gudaren legearen menpe ezarritako esklabo izanen da.

193. Atala. Hala ere, guda justu batean konkistatzaileak menpekoturiko pertsonenganako eta aziendetarako eskubidea duela onartu arren (eta argi dago hau ez dela egia), honek ez luke balioko gobernu horren iraupenean oinarrituriko ezein botere absolutu funtsatzeko. Gailendutakoen ondorengoak pertsona aske izanen dira irabazleek herrialdean bizitzeko azien-dak eta jabetzak eman artean (bestela herrialde horrek ez luke baliorik), eta emategatik beragatik jabe bihurtuko dira. Hortaz, horrek esan nahi du, pertsona baten onespenik gabe ezin zaizkiola jabetzak kendu.

194. Atala. Pertsonak jaiotzez libre dira, eta beraien jabetzak —handi edo txiki— eurenak izanik, euren eta ez gobernariaren eskura daude. Demagun gobernariak pertsona bati mila akre ematen dizkiola, berak eta bere ondorengoek goza ditzaten, beste bati, berriz, beste mila emanen dizkio akuran, bizitza osoan urteko berrogeita hamar edo bostehun liberako errentarekin. Lehenak betiko izanen du bere mila akreen jabetza, bigarrenak bizitza osorako, errenta ordaintzen duen artean. Lurra akuran duenak jasoriko guztiaren jabetza izanen du, bere trebetasun eta lanari esker, errentan eskatzen zaionaren bikoitza bada ere. Inork esan al lezake errege edo konkistatzaileak eskubidea duenik lurren zati bat kentzeko, konkistatzailearen boterean oinarrituta eta kontzesioa egin ostean, baten ondorengoei, edo besteari, errenta ordaindu eta bizirik dirauen artean. Batari zein besteari ezin izanen die beraien lurretatik lorturiko ondasun edo dirurik ken, hala nahi duenean. Hori gerta baledi, munduan egiten diren kontratu aske edo borondatezko guztiak deuseztatuak eta hutsik leudeke, bertan behera uzteko beharko litzatekeen baldintza bakarra indarra izatea bailitzateke. Boterean diren pertsonen kontzesio eta promesa guztiak amarru eta trikimailuak baizik ez lirateke. Ez

baitago lotsagabekeria handiagorik pertsona bati eta bere ondorengoei gauza bat betiko ematen zaiola esatea, ekintza hori berme eta solemnitaterik guztiez apaindu, gero beranduago esateko eskubide osoa mantentzen dela hurrengo egunean kentzeko hala nahi izanez gero.

195. Atala. Ez dut orain eztabaidatuko printzeak salbuesita dauden beraien herrialdeko legeak betetzetik; baina erabat ziur nago Jainkoaren eta naturaren legeen arauak bete behar dituztela. Ezein pertsonak edo boterek ez ditzakete betiereko lege hauetatik aske utz. Promesen kasuan, hain dira obligazio handiak eta saihestezinak, tartean Ahalguztiduna ere izan baitaiteke. Zin egiteak, kontzesio eta promesek Ahalguztiduna behartzen dute. Lausengariek printzei esaten dietena diotelarik ere, printzeak eta inguratzen duten jende hori guztia Jainko handiaren alboan pitxer batean dagoen ur tanta edo balantza batean hauts ale bat adina dira; huskeria bat!

196. Atala. Laburbilduz, konkistaren gaia honetan datza: konkistatzaileak, bere zioa justua izan baldin bada, gudan bere aurka borrokatu diren horiekiko botere despotikoa dauka, baita kalte eta esfortzuagatik konponbidea eman dakion gailenduen lan eta azienden bitartez, honek hirugarren baten eskubideari kalte egiten ez dion bitartean. Gudan parte hartu ez zuten gailentzeko herrikideekiko zein gailenduen jabetza eta seme-alabekiko ez du botererik batere; hortaz, konkistak ez dio ematen bere ondorengoei pasa dakioken inongo titulu legitimorik. Aitzitik, gailenduen jabetzen aurka eginen balu, erasotzaile bilakatuko da eta beraiekiko guda egoeran ezarriko du bere burua. Berak eta bere ondorengoei monarkiarako duten eskubidea ez da Hingar edo Hubba daniarrek Ingalaterran zutena baino hobea izanen; edo Espartakorena, Italia konkistatu izan balu. Beraien nagusitasuna hautsia litzateke Jainkoak menpekoei indarra eta aukera emanen lieken unean. Horrela, Asiriako erregeek ezpatari esker Judah-ren gaineko titulua zuten arren, Jainkoak Hezekias lagundu zuen inperio horretan

tik libratzen: «Eta Jainkoa Hezekiasekin zegoen, eta honek aurrera egin zuen, burua altxatu eta Asiriako erregearen aurka errebelatu eta zerbitzatzeari utzi zion» (*Erregeak*, 2, xviii, 7). Hortik argi dago indarraren bidez eta ez zuzenbidearen arabera inposatu den botere bat deuseztatzea, errebolta dei dakiokeen arren, ez dela Jainkoari egiten zaion ofentsa bat; alderantziz, Jainkoak berak baimendu eta onartzen du, tartean indarrez lortutako promesa eta paktuak dauden arren. Ahaz eta Hezekiasen historia zehaztasunez irakurtzen duen oro konturatuko da asiriarrek Ahaz gailendu, zeukan guztia kendu, eta Hezekias errege bihurtu zutela, bere aitak oraindik bizirik zirauela; honen ostean, Hezekiasek onartu zuen hura omentzea eta errespetatzea.

XVII. KAPITULUA

USURPAZIOAZ

197. Atala. Konkista kanpo usurpaziotzat har daitekeen moduan, usurpazioa barne inbasio moduko zerbaiten antzera kontsidera daiteke, honako diferentziarekin: usurpatzaileak ezin izanen duela inoiz ere zuzenbidea bere alde izan, usurpazioa norbaitek beste bati dagokiona hartzea baita. Usurpazioa den artean, pertsonen soilik eragiten dion aldaketa da, baina ez gobernu modu edo araua. Usurpatzailea areago badoa eta herrialdeko printze edo gobernari dagokien boteretik harago badoa, usurpazioaz gainera tirania ere izanen dugu.

198. Atala. Gobernu legitimo guztietan, gobernatu behar duten pertsonen izendapena gobernu modua bezain gauza naturala eta beharrezkoa da, eta hau herriak hasieratik erabakitakoa baizik ez da. Gobernu modu bat ez izatea anarkia baita; monarkia dagoela onartzea bezala, baina erabakitzeko modurik gabe zein izan behar den monarka edo boterea zeinek eduki behar duen. Hortaz, gobernu modua ezarrita duten erre-

publika guztiek autoritate publikoa zeinek bete behar duen arautzeko prozedura finkoak dituzte, eta eskubide hori transmititzekoak ere. Boterearen edozein zatiren gauzatzera iristen den edonork, erkidegoak erabakitako bideetatik aparte, ez du obeditua izateko eskubiderik, errepublika horretako gobernu modua mantenduko balitz ere. Hori horrela da pertsona hori ez delako legeek baimendutakoa, eta ez da, beraz, herriak aukuratu duena. Usurpatzaileak, edo bere ondorengoak, ezin du inolako titulurik eduki, herriak askatasuna duenera arte onsepena emateko, eta onesten duenera arte eta baieztatu usurpatzaileak ordura arte usurpaturiko botere hori.

XVIII. KAPITULUA

TIRANIAZ

199. Atala. Usurpazioa beste bati zegokion boterearen hartzea bada, tirania, berriz, zuzenbidetik kanpoko boterearena izanen da, eta honetara ez du inork eskubiderik. Hau gertatzen da boterea bere esku daukanak ez duenean bere menpekoen onerako erabiltzen harenerako baizik; gobernariak, daukan titulua daukala, arau bezala bere borondatea jarraitzen duenean eta ez legea, eta bere agindu eta ekintzak ez daudenean zuzenduta bere herriaren jabetzen babesera, bere askonahi, mendeku, kodizia eta bestelako pasio txarrak asetzera baizik.

200. Atala. Eta inork zalantzan jarriko balu esandakoa egia edo arrazoizkoa denik, hiritar ilun batengan duelako jatorria, uste dut errege baten autoritateak lagunduko didala haren sinistarazten. James Lehenak, 1603. ean parlamentuan emaniko hitzaldi batean, ondokoa esan zuen: «Beti izanen dut nahiago guztion ona, taxuzko lege eta konstituzioak egiterako orduan, eta ez niri laket dakidakeen beste edozein xede. Beti izanen dut agerian erkidegoaren ona eta arrakasta nire zoriontasuna eta nahi preziatuena direla; eta hau da errege legitimoa tiranoaren-

gandik bereizten duena. Iruditzen zait errege zuzen baten eta tirano usurpatzailearen artean dagoen diferentzia honetan datzala: tirano askonahi eta handiputzak bere erreinua eta herria bere nahierak eta gutizia irrazionalak guztiz betetzera behartuta dagoela pentsatzen duen artean, errege zuzen eta legezkoak pentsatuko du berorrek bermatu behar dituela herriaren jabetzak eta oparotasuna». Ostera ere, 1609.ean parlamentuan emaniko hitzaldian, ondokoa dio: «Erregeak juramentu bikoitz baten bidez behartzen du bere burua erreinuko oinarrizko legeak betetzera. Tazituki, errege izatearekin bera-ekin behartuta baitago bere erreinuko hiritarrak eta legeak babestera, eta, adierazita, bere koroatze zeremonian juram-entua egin behar baitu. Horrela, bada, herrialde finkatu bateko edozein errege zuzenek herriarekin —beronen legeen bitar-tez— eginiko paktua mantendu behar du, honen arabera, bere gobernuak herriaren gustukoa izan behar du, Jainkoak Uholdearen ostean Noerekin egin zuen paktuan bezalaxe, ‘oraindik aurrera, ereiteko aroa eta uzta jasotzekoa, hotza eta beroa, uda eta negua etengabe izanen dira Lurrak dirauen arte-an’. Hortaz, finkatutako erreinu batean agintzen duen errege batek errege izateari utziko dio tirano bilakatzeko, bertako legeetatik aparte gobernatzen hasten denean. Beraz, tiranoak edo gezurrezko zin-egileak ez diren erregeek ez dute izanen beraien buruak herrialdeko legeen mugetan sartzeko eragozpe-nik. Eta aurrakoa esaten dieten horiek ez dira izurrite eta suge-gorri batzuk baizik, bai beraien erregeentzat bai erkidegoaren-tzat». Ikusten ahal dugunez, beraz, errege zuzen honek, gauzak hain argi ulertzen zituenak, errege eta tiranoaren arteko dife-rentzia ondokoa baizik ezin zitekeela izan pentsatzen zuen: batek bere boterea legeetara mugatzen duela eta bere herriaren onerako gobernatzen duela, bestea, aldiz, dena bere boronda-tea eta gutizia asetzera zuzentzen duela.

201. Atala. Oker gabiltza pentsatzen badugu huts hau monarkiei dagokiela soilik; beste gobernu modu batzuetan ere

eman daiteke. Boterea norbaiten esku uzten den bakoitzean herria goberna dezan eta bere jabetzak babes ditzan, eta hark beste xede batzuetarako erabiltzen badu, boterea duten horien mandatu arbitrario eta ezohikoak hiritarrak txirotzen, zigortzen eta menderatzen dituztenean, kasu horietan tirania sortzen da, bat edo asko badira ere agintea daukatenak. Dakigunagatik, Atenaseko hogeita hamar tiranoek, Sirakusa gobernatu zuen hark edo Erromako *Decemviri*-ek, denek ere gobernu jasangaitza osatu zuten benetan.

202. Atala. Legea bukatzen den lekuan, norbaiten kaltetan hausten bada, han hasten da tirania. Autoritatearen gauzatzean, legeak botereari inposatzen dizkion mugak gainditzen dituztenean, eta bere esku daukan indarra bere helburuak erdies-teko erabiltzen duenean, legeak baimentzen duen hartatik haratago, une horretan magistratu izateari utziko dio, eta autoritaterik gabe jarduteagatik, buru egin dakioke, indarrez beste norbaiten eskubideak zapalduko lituzkeen beste edonori bezala. Hau gauza argia da menpeko diren magistratuetan. Kanean atxilotzeko autoritatea duen horrek bidelapur edo mandil bati egiten zaion moduko oposizioa jaso lezake, bere intentzioa manamendu judizial bat betetzearren nire etxea inbaditzea bada; berdin dio epailearen bermea badu ere eta autoritate legala etxetik kanpo atxilotu nazaten. Jakin nahi nuke ea zergatik magistratu gorenen kasuan ez den hau mantentzen, azpiagokoekin gertatzen den moduan. Ez da bidezkoa anaia nagusiak, aitaren aziendaren zati handiena jaso duelarik, gainera nahi duenean eskubidea izatea anaia txikiagoen lurren zati bat hartzeko. Ez eta pertsona aberats bat, herrialde oso baten jabe dena, bere auzokide txiroaren etxaldeaz edo lorategiaz jabetzea. Adanen seme-alaba gehienek dutena baino botere eta aberastasunen jabe legitimoa izatea ez da aitzakia, are gutxiago lapurreta eta zapalkuntzarako arrazoia —hau da beste bati egiten zaion kaltea horretarako autoritaterik izan gabe—, aitzitik, zirkunstantzia astungarria izanen da. Autoritatearen

mugak igarotzea ez da zuzenago ofizial handian txikiaren kasuan baino, justifikagarriago erregearen kasuan poliziarenean baino. Alderantziz, larriago da berarengan konfiantza gehien ezarri den horrengan, bere anai-arrebek baino gehiago duen horrengan, eta dauzkan hezkuntza, lanbide eta kontseilarien laguntzarekin suposatu beharko litzateke hobeto dakiela zein den ongiaren eta okerraren arteko alde eta neurria.

203. Atala. Printze baten aginduei aurka egin al dakieke? Oposa al gataizkio laidoztatuta sentituko bagina eta pentsatuko bagenu zuzenbidea ez dela bere alde? Beti horrela jardungo bagenu, gizarte politiko guztiak desegin eta erreboltatzeko arriskuan ginateke, eta ordena eta gobernuaren lekuan anarkia eta nahasmendua baizik ez leudeke.

204. Atala. Ene ustez indarra erabiltzea dago soilik beste indar bidegabe eta legez kanpoko bati aurre egiteko. Beste kasuren batean erabiliko balitz, Jainkoaren eta gizakien gaitzespena mereziko luke. Baldintza hau betetzen den artean, ez da arriskurik ez nahasmendurik izanen, sarritan esaten den moduan, ezen:

205. Atala. Lehenik eta behin, herrialde batzuetan printzea sakratua da legez, eta horregatik, edozer egiten edo agintzen duelarik ere, ez dago eztabaidatzerik edo aurka egiterik, ezin du biolentziarik pairatu, ez eta inolako epaileen gaitzespenik. Hala ere, honek ez du eragotziko azpiko ofizial bati edo bere ordezkari bati aurre egiteko ahalmena. Hau horrela izanen da, printzea ez bada herriarekiko guda egoera batera iristen, gobernua desegin eta hiritarrak bakoitza naturazko egoeran norberaren babes propioan zeuden egoeran uzten ez dituen bitartean. Kasu horietan, nork aurreikus lezake gertaeren bukaera zein izanen den? Auzoko erreinu batek adibide bitxi bat eman dio munduari. Gainontzeko kasu guztietan monarkaren izaera sakratuak eragozpen guztietatik salbu utziko du, eta gobernuak dirauen artean seguru dago edonolako biolentzia edo minetik. Hori baino konstituzio zentzudunagorik ez daite-

ke egon. Ez da normala monarkak bere buruari min handirik egitea; berak ez du indar nahikoa bere kabuz herriaren legeak iraultzeko, ez eta herria zapaltzeko ere. Eta horren bidegabekeria maltzurak burutzeko prest dagoen printze gaizto eta ahulik agertzea suerta badaiteke ere, arriskuak merezi du monarka jakintsu batek tronura iritsi eta magistratu nagusi bilakatzerakoan —edonolako minetik salbu— ekar ditzakeen bake publikoa eta gobernu segurtasunak konpentsatzen baitu. Hobe da gorputz politiko horren segurtasunerako pertsona gutxi batzuk kaltea jasateko posibilitatea edukitzea, errepublikako burua, erraz eta edozein arrazoi dela medio, kalteturik suertatzea baino.

206. Atala. Bigarrenik, pribilegio hori erregeari bakarrik dagokionez, indarraren erabilera ez legitimoa eta bidegabea egiten duenari, ordea, haren ordezkari moduan erabiltzen duela badio ere, aurka egin, oposatu edo eztabaidatu dakioke. Hau argi ikus daiteke pertsona batek beste baten atxiloketa agintzen duen errege dokumentua, hau da, erregearen mandatu zuzena eramaten duenean. Dokumentu horren eramaileak ezin du bere eginkizuna burutzeko pertsona baten etxea inbaditu. Erregearen manu hori ezin da ere egun edo leku jakin batzuetan burutu, dokumentuak ez baditu salbuespen horiek aipatzen, legeak berak inposatzen baititu mugak, eta inor ez dago baimenduta muga horiek haustera, erregearen ordezkari bera bada ere. Erregearen autoritateak legean duenez jatorria, hark ezin dio inori legearen aurka egitea agindu, ez eta, bere izenean egiten duelako, arrazoa izan. Edozein magistraturen manamendua edo agindua, ez duenean gai horretan autoritaterik, beste edozein pertsonarena bezain hutsa eta baliogabea da. Alde bakarra da magistratuak xede jakin batzuk betetzeko nolabaiteko autoritatea duela, eta pertsona konkretu batek batere ez. Ez da ordezkaritza edo manamendua ekintzarako eskubidea ematen duena, autoritatea baizik; eta legeen aurka, ez dago inolako autoritaterik. Alabaina, aurka egiten jakin arren, erre-

gea eta bere autoritatea erabat seguru daude; eta gobernua eta gobernaria arriskutik kanpo.

207. Atala. Hirugarrenik, magistratu nagusiak izaera sakratua ez balu ere, haren boterearen erabilera ez bidezkoari aurka egitearen doktrina horrek ez du esan nahi aldi bakoitzean arriskuan egonen denik, edo gobernua nahastuko denik. Kalteturiko alderdiak konponbidea aurki balezake legera jota, ez da lekurik indarrarentzat, hau bakarrik erabiliko baita pertsona bati legera jotzea uzten ez zaionean. Legeari bidea ixtea indar erasotzaile baten bidez oposatzea baita, eta horrela egiten duenak bere burua guda egoeran ezarri eta hari aurka egitea zilegi bilakatzen du. Pertsona batek, eskuan ezpata daramala, bidean erasotzen banau eta diru-zorroa eskatu, beharbada hamabi penike baino ez baditut ere, eskubide osoa dut hura akabatzeko. Aldiz, beste bati ehun libera dauzkan diru-zorroa eusteko eskatzen diot zalditik jaisten naizen bitartean, eta ostera igotzerakoan itzultzeari uko egiten dio eta bueltatzera behartu nahi dudanean bera ezpataz defendatuko da. Kasu honetan, pertsona honek egiten didan kaltea ehun edo mila handiz handiagoa bada ere lehengoa baino (kaltea egin baino lehen hilko bainuen), hala ere, lehenak legalki hiltzen ahal dut baina azken hau ez dezaket zauritu ere egin. Arrazoa argia da, lehenak indarra erabili zuen nire bizitza mehatxatuz, horregatik ez nuen denborarik izan legera jotzeko babesa eman ziezadan, bat hilda dagoenean beranduegi baita apelatzeko. Legeak ez dio nire gorpu hilari bizitza berreskuratuko, eta galera konpongaitza litzateke. Honelako kasuei aurre egiteko, lege naturalak gurekiko guda egoeran ezarri eta bizitza mehatxatzen diguna suntsitzeko eskubidea ematen digu. Beste kasuan, aldiz, nire bizitza ez dagoenez arriskuan, legera jotzen ahal dut eta modu horretan nire ehun liberak berreskuratu.

208. Atala. Laugarren, magistratua bere botereaz balia baledi ekintza bidegabe ugari egiteko, eta botere hartaz abusatuz justiziaren jarduera oztopatuko balu ere, horren aurka egi-

teko eskubideak, aukerarik txikienean edo horrelako tirania kasu argitan ere, ez luke bat-batean gobernua nahastuko. Gutxi badira kaltetutako pertsonak, eskubide osoa badute ere indarrez berreskuratzeko biolentzia bidegabe batek kendu diena, duten eskubidea dutela ere, gaitza da ziur asko hilda suerta litezkeen borrokan sartzea. Zaila baita pertsona batek edo zenbaitek gobernu oso batean eragina izatea gizartea ez bada gai horretan kaltetua sentitzen. Zoro amorratu batek edo kontentagaitz burugogor batek finko ezarrita dagoen estatua hautsi nahi balu bezala zatekeen. Jendea ez da izanen batari zein besteari laguntzeko prest.

209. Atala. Alabaina, legez kanpoko ekintza horiek herriaren gehiengora zabaltzen badira, edo eta zapalkuntza eta bidegabekeriak gutxi batzuen gain erori arren, gehiengoa mehatxatuta sentitzen bada horren aurrean, eta pentsatzen badute beraien legeak arriskuan daudela eta hauekin beraien azienda, askatasun eta bizitzak, beharbada erlijioa ere, kasu horietan ezin dut asmatu nola ez zuketen indarra erabiliko beraien aurka eragin den biolentziari aurre egiteko. Uste dut gobernu guztietan influentzia duen arazoa dela, gobernariak beraien herriarengan errezeloa sortzen dutenean. Modu horretan, gobernariak egoera arriskutsuenean jarriko dituzte beraien buruak; baina ez da beraientatik erruki izan behar horregatik, oso erraz saihesten zezaketen egoera baita. Erabat ezinezkoa baita gobernari batek horrelako susmoak eragitea, benetan nahi duena bere herriaren ongia bada, bere babesa eta bere legeena; familia batean aitaren kasuan gertatzen den bezala, bere seme-alabek derrigorrean ikusi behar dute beraieganako duen maitasuna eta arreta.

210. Atala. Baina mundu guztia konturatuko da gauza bat esaten denean baina alderantzizkoa egin, hau da, legeak saihesteko amarruak erabili eta prerrogatibaz abusatu (prerrogatiba kasu batzuetan herriaren onerako printzearen esku uzten den botere arbitrarioa da), eta herriarenak ez diren xedeetara-

ko desbideratzen dela; herriak sumatuko du ministro eta azpiko magistratuak xede jakin batzuk burutzeko hautatuak direlarik, karguan jarraituko dutela ala baztertuak izanen, halako bidegabekeriatan eroriko balira, ala ez. Ikusiko da etengabe botere arbitrarioa gauzatzen ari dela eta faboratzen dela — publikoki ez bada ere— botere mota honi gehien laguntzera prest dagoen erlijioa, eta nola laguntzen eta bihotz ematen zaien erlijio horren buruei ahal den bakoitzean, horrelakorik egin ez badaiteke ere. Argi ikusten denean ekintza multzo handia, helburu bidegabe berera zuzendua, halabeharrez mundu guztiak antzemango du gertakizunek zer norabide duten, eta dudarik gabe beraien buruak babesten saiatuko dira. Modu berean bat konturatuko litzateke bere itsasontziko kapitainak bera eta beste bidaiariak Argeleko esklabo merkatura daramatzala, ikusiko balu kapitainak beti mantentzen duela banda bera, nahiz eta aurkako haizeek, itsasontziaren ezusteko matxurek, gizon eta elikagai faltak norabidea aldi batez aldatu, banda bera berreskuratuko balu, eguraldiak eta gainontzeko zirkunstantziek ahalmentzerakoan.

XIX. KAPITULUA

GOBERNUAREN DESEGITEAZ

211. Atala. Gobernuaren desegiteaz argi hitz egin nahi duen orok lehenik eta behin ezberdindu beharko ditu gizartearen desegitea eta gobernuarena. Pertsona batek gainontzekoe-kin duen akordioa, elkarrekin bildu, gorputz bakar gisa jardun eta errepublika bat besteengandik bereiztua osatzeko, hori da erkidegoa sortzen duena eta pertsonak naturazko egoera segurtasun gabekotik ateratzen dituen. Elkarte hau desegiteko modu normalena, bakarra ez esatearren, elkartea konkistatzea lortzen duen indar atzerritar baten inbasioa izaten ohi da. Kasu honetan, ez denez posible pertsona guztiak gorputz politiko

bakar eta independentean mantentzea, derrigorrean bukaera emanen zaio erkidegoaren batasunari; bakoitzak antzinako egoeran topatuko du bere burua, eta pertsona libre da bere segurtasuna nahi bezala bilatzeko, beste gizarte batean sar daitekeelarik. Gizartea desegiten bada, halabeharrez desegingo da gizarte horretako gobernua ere. Horrela, konkistatzailearen ezpatak errotik moztuko du gobernua, gizarteak bereiztuz eta menpekotu eta sakabanaturiko pertsona saldoa biolentziaz askatu behar zuen gizarte horren babes eta dependentziaz gabetuz. Munduak badauka honetan eskarmentu nahikoa desegite modu hau ontzat emateko; horrela, bada, ez da beharrezkoa ezer gehiago esatea honen gainean. Ez da zio garrantzitsurik aipatu behar frogatzeko gizartea desegiten denean, gobernuak ezin duela iraun, etxebizitza baten enkofratuak ezin baitu iraun haizete edo lurrikara batek hondakinetan utzi eta materialak hortik zehar barreiatzen dituenen.

212. Atala. Gobernuak kanpoaldetik datorren eraginagatik desegiteaz gainera, barnekoagatik ere desegiten ahal dira.

Lehenik, botere legegilea aldatzen denean. Gizarte zibila osatzen duten pertsonak bake egoeran daude, beraien artean sor daitezkeen diferentzien gainean erabakiko duen botere legegileari esker guda egoera baztertuko da; legebiltzarrean elkartzen baitira errepublikako kideak eta elkarren artean bilduko dira gorputz bizi koherente bat osatuz. Hau da errepublikari egitura, bizitza eta batasuna emanen dion arima. Berari esker, gizarteko kide askok elkarren gainean eragina izanen dute, batzuk besteekin harremanetan jarri, eta denek batera sentitzen ahal dute. Hortaz, botere legegilea hausten denean, gizartearen heriotza eta suntsipena dator. Gizartearen esentzia eta batasuna borondate bakarrean izatean badatza, botere legegilea —behin gehiengo batek eratu duenean— izanen da borondate hori eza-gutaraztera eman eta mantentzen duena. Botere legegilearen sorkuntza da gizartearen lehen eta oinarrizko ekintza, honen bidez bermatuko da batasun hori, beti ere zenbait pertsonaren

gidaritzapean eta baimenduriko pertsonak egin dituzten legeen arabera. Baimen hori izateko herriaren bat-etortzea eta izendapen adierazia behar da, hori gabe, ezein pertsonak edo pertsona taldek ez du izanen autoritaterik gainontzeko pertsonak behartuko dituen legeak egiteko. Norbait ausartuko balitz legeak egitera herriak horretarako ez duelarik izendatu, hark egingen dituen legeak ez dute inolako autoritaterik, hortaz, herria ez dago behartuta obeditzera. Kasu horietan mendetasunik eza izanen dute ostera ere eta beraiek osa dezakete botere legegile berri bat, hoberen iruditzen zaien moduan, eta askatasun osoa dute indarra erabiliz aurka egiteko beraiei nagusitu nahi zaien edonori, honek ez badu inolako autoritaterik. Horrela, bada, bakoitzak bere borondate propioaren arabera jardun dezake, borondate publikoaren adierazpenean gizartearen ordezkaritza zuten horiek egozten direnean eta beste batzuek beraien lekua usurpatzen dutenean, autoritate edo ordezkaritzarik izan gabe.

213. Atala. Errepublikak batean boterea eduki eta modu okerrean erabiltzen dutenek eragiten dute normalean egoera hori. Zaila da gai honen inguruan zehaztasunez ezer jakitea, eta ezagutzea nortzuk diren arduradunak, jakin gabe zein gobernu modutan gertatzen den egoera hori. Demagun botere legegilearen osieran hiru pertsona mota biltzen direla:

1. Jaraunsle den pertsona bat, behin betiko botere legegile gorenaren duena, eta hortaz aldiro beste bi botereak deitu edo desegitekoa.

2. Noblezia jaraunsle batek osatutako biltzarra.

3. Herriak *pro tempore* hautaturiko ordezkarien biltzar bat.

Gobernu modu hau suposatuko bagenu, gauza argia da:

214. Atala. Lehenik eta behin, pertsona bakarrak edo printzeak, botere legegilearen ahoz islatzen dituztelarik legeak eta gizartearen borondatea, haien bien lekuan bere borondate arbitrarioa ezartzen duenean, orduan, botere legegilearen alda-

keta bat gertatzen da. Izan ere, botere legegilea bada indarrean jarri behar diren arauak eta legeak ezarriko dituen guztiek obedi ditzaten, gizarteak osatzen duen botere legegile horri indarrez beste arau edo lege batzuk inposatu nahi zaizkionean, orduan, botere legegileak aldaketa jasango du. Lege berriak egin edo zaharrak iraultzen dituen edonork, horretarako gizartearen oinarritzko izendapena eduki gabe, aurreko legeak egin zituenaren boterea gaitzetsi eta baliogabetuko du, hortaz botere legegile berri bat osatuko du.

215. Atala. Bigarrenik, printzeak legebiltzarrari eragozten dionean dagokion unean biltzea, edo ez badio libreki jarduten uzten, eratua zeneko xedeak bete ditzan, botere legegileak aldaketa pairatuko du. Botere legegilea existitu dadin ez da nahikoa pertsona kopuru jakin bat egotea biltzeko prest egonen dena, beharrezkoa da eztabaidatzeko askatasuna, eta gizartearen ona izan behar duen hori perfektionatzeko astia izatea ere. Osagai hauek falta direnean edo aldagetaren bat izan badute gizarteari dagokion boterea gauzatzea eragotziko diona, kasu horietan esan genezake botere legegileak aldaketa jasan duela. Izenek ez baitituzte gobernuak osatzen, gauzatu behar dituzten botere horien erabilerak eta errealizazioak baizik. Hortaz, botere legegilearen askatasuna deuseztatu edo, dagokionean, honen jarduera eragozten duenak, izan ere, egiten duena botere legegilea egotzi eta gobernuari bukaera ematea da.

216. Atala. Hirugarren, printzearen botere arbitrarioak hautesleak edo hautespenak egiteko moduak aldatzen dituenen, herriaren oniritzia jaso gabe eta interes komunaren aurka, orduan ere botere legegileak aldaketa bat jasango du. Hautatutakoak gizarteak baimendutakoak ez badira, edo beraien hautaketa gizarteak erabakitako moduan ez bada egin, hortik ateratzen den botere legegilea ez da izan herriak izendatu zuena.

217. Atala. Laugarren, printzeak edo botere legegileak herria botere atzerritar baten menpe utziko balu, ekintza honek

botere legegilearen aldaketa eta gobernuaren desegitea eragingo du zinez. Herria gizartean sartu zenean, bere xedea erkidego oso, libre eta burujabea osatzea baitzen eta bere lege propioz gobernatzea. Hau galduko da herria beste norbaiten menpe erortzen denean.

218. Atala. Honelako konstituzioarekin, eta kasu haue-tan, argi dago zergatik egotzi behar zaion printzeari gobernuaren desegitea: berak bere aginduetara dituen ez indarra, altxorra eta funtzionarioak, pentsatzera iritsi daitekeelako —bere kabuz edo besteen lausenguengatik—, estatuko magistratu gorena izateagatik ez zaiola inolako kontrolik ezarriko, eta baldintza horretan bera dela aldaketak burutu ditzakeen bakarra, autoritate legitimoa duelakoan, eta baduelako botere nahikoa berari aurka egiten diotenak segi, harrapatu eta suntsitzeko, errebol-tari, sediziozile eta gobernuaren etsaiak direla esanez. Alabaina, herriaren edo botere legegilearen zati bat ezin da saiatu, berez eta besterik gabe, botere legegileari aldaketa bat eragiten, ez bada errebolta zabal eta ikusgarri baten bidez; errebolta hau arrakastatsu balitz, ondorioak ez lirateke atzeritarren konkista batetik oso ezberdinak. Bestalde, gobernu modu haue-tan printzeak botere legegilearen gainontzeko atalak desegiteko ahalmena badu, osterik ere pertsona pribatu bilakaraziz, legegileek ezin izanen dute inoiz printzearen esku hartzerik gabe botere legegilea aldatu, honen onspena behar baita promulgatutako edozein dekretu onartzeko. Alabaina, botere legegilearen beste bi alderdiek edonola parte hartuko balute gobernuaren aurkako eraso batean, bultzatuz edo, besterik gabe, aurrera egiten utziz aurka ezer ere egin gabe, eragile dira eta errudun elkarri egin dakioken krimen handienaz.

219. Atala. Bada beste modu bat tankera honetako gobernu bat desegiteko: botere legegile gorena duenak kargua abandonatu edo beharrezko den ardura jartzen ez badu, horrela ezin direlarik indarrean dauden legeak gauzatu. Hau guztia anarkian erortzearen eta gobernu desegitearen baliokide da. Legeak ez

baitira egiten egitearren, gauzatu behar dira gizartea batzeko, gorputz politikoaren atal bakoitza bere tokian izan dadin eta bere funtzioa bete dezan; eginkizun hau bukatzen denean, gobernua ere amaituko da, eta herria jende saldo nahasia bilakatu da, ordena eta loturarik gabea. Hiritarren eskubideak bermatuko dituen justiziaren administrazioa bukatzen denean eta ez dagoenean jada beste botererik erkidegoaren beharrez arduratuko denik, baldintza horietan ez dago gobernurik. Legeak ezin badira gauzatu, legerik ez balego bezala da; eta iruditzen zait lege gabeko gobernua, politikan, misterio bat dela, giza gaitasunaren arabera ulergaitza eta gizarte batekin bateraezina.

220. Atala. Kasu horietan eta antzekoetan, gobernu bat desagiten denean, herriak bere buruaz arduratzeko askatasuna du, pertsonatan ala forman, edo gauza bietan aurrekotik ezberdinduko den botere legegile berri bat osatuz, herriaren onaren eta segurtasunerako egokiena iruditzen zaiona. Gizarteak ezin baitu inolaz ere eta beste norbaiten erruz, berez bere iraupenerako daukan eskubide oinarritzkoa galdu. Gizartearen iraupena posible da soilik botere legegilea ezarria badu eta honek ematen dituen legeak justuki eta inpartzialki gauzatzen badira. Hala ere, gizateriaren jokaera ezin da izan hain ziztrina, beranduegi izan baino lehen konponbidea ez jartzeko beste. Herriari esatea hark eratu dezakeela botere legegile berri bat, zapalkuntzak, amarruek edo atzerritarren inbasioak zeukatena kendu diotenean, konponezina denari konponbidea jar dakiokeela edo gaixotasun sendagaitzaz osatu daitezkeela esatea beste da. Lehenik esklabo bihurtzera bultzatu eta ostean askatasunaz beranduago arduratuko direla esatea bezala da; behin katez zamatuta daudenean, pertsona libre bezala jardun dezaketela esango bagenie bezala. Horrelako jarduera bat iseka litzateke konponbidea baino. Pertsonak ezin dute tiraniatik salbu egon, hartatik libratzeko modu bakarra lehenik botere arbitrario horren menpe egotea bada. Hortaz, herriak tirania horretatik askatzeko eskubide osoa du eta, nola ez, hari aurre egiteko.

221. Atala. Bada beste modu bat gobernuak desegiteko; botere legegileak edo printzeak beraiengan ezarri zen konfiantza traditzen dutenean ematen da.

Botere legegileak berorrengan ezarririko konfiantza tradituko du hiritarren jabetzak inbaditzen dituenean, eta legegilearen beraren edo erkidegoaren zati baten nagusi bihurtzen denean, eta herriaren bizitza, askatasun eta ondasunen jabe.

222. Atala. Pertsonak gizartean sartuko dira beraien jabetzak babesteko; eta botere legegile bat hautatu eta baimentzen badute, erkidego horretako kideen jabetzak gorde eta babestuko dituzten legeak eta arauak egon daitezten izanen da, baita kide bakoitzaren botere eta nagusitasuna mugatzeko eta moderatzeko. Hortaz, ez da pentsatzekoa gizartearen borondatearen arabera botere legegileak suntsi dezakeenik bakoitzak gizartean sartzerakoan babestu nahi duen hori; herria berorrek hautaturiko legegileen mende jartzen bada, babes horregatik baita. Beraz, legegileek herriaren jabetza deuseztatu edo bereganatzen duten bakoitzean, edo botere arbitrario baten bidez esklabo bihurtzen saiatzean, beraien herriarekiko guda egoeran ezarriko dituzte euren buruak; hortaz, herria libre da obeditzen jarraitzeko ala ez, eta babes daiteke Jainkoak guda eta biolentziaren aurka eman dion aterpean. Modu honetan, botere legegileak arau hau hausten duen bakoitzean, eta handinahiak, beldurrak, burugabekeriak edo ustelkeriak bultzatuta, beraien edo beste norbaiten esku jarriko balituzte herriaren bizitza, askatasun eta ondasunak, herriak beraiengan ezarririko konfiantza haustean, herriak emaniko boterea galduko dute, eskaini zitzaizenean xedek erabat ezberdinak baitziren. Beraz, herriak oster berreskuratuko du jatorrian zuen askatasuna eta norberaren segurtasunaz eta babesaz ardura hartuko du, botere legegile berri bat eratuz (egokien iruditzen zaiona), gizartean sartzerakoan kide guztiek erdietsi nahi dituzten xede horiek beteko dituen. Orokorrean botere legegileari buruz hemen esaten dena betearazle gorenari ere aplikatu dakioke; honek eginkizun bikoitza du betetzeko:

botere legegilearen parte izatea eta legearen betearazpen gorena gauzatzea. Hortaz bere nahia legearen betearazpen gorena bihurtzen duenean, haren jarduerak bi aldiz saltzen du beregan ezarri zen konfiantza. Indarra, altxorra, eta esku dauzkan kar-guak erabiltzen dituenean ordezkariak usteltzeko, eta norbera-ren helburuetarako bereganatzen saiatzen denean, orduan, bere-gan ezarririko konfiantzaren aurka ere egiten du. Halaber, jen-dea estutuz, mehatxuz, eskaera edo promesaz edo nolanahi ere bere helburutarako irabazi dituen pertsona horiek hautatzera bultzatzen duenean, modu horretan herriaz baliatzen baita bote-re legegilean ezartzeko hark nahi duena, eta komeni zaiona bozkatu eta promulgatuko duten pertsonak lortzeko. Hautagai eta hautesleen kontrol horrek, hautespen bideen manipulazio horrek gobernua errotik moztea suposatzen du eta segurtasun publikoaren benetako iturburua pozoitzea. Herriak bere orde-zkariak hautatzeko aukera beretzat gorde zuenean, jabetzak babesean egon zitezen, beti askatasun osoz hautatuak izatekotan egin zuen, eta modu horretan izendatuak zirelarik, etsamina eta eztabaida publiko baten bidez guztion onerako komenigarria zatekeenaren arabera jardun eta erabaki zezaten. Alderdi guz-tien arrazoiak erkatzeko aukerarik izan gabe, eztabaida gertatu aurretik botoa dagoeneko eman dutenak ez dira inolaz ere fun-tzio hori betetzeko gai. Biltzarraren tankera honetako manipula-zioa, herriaren benetako ordezkari eta legegileen ordezkari triki-mailu horietan konplize direnak han kokatzeko, zalantzarik gabe, bere esku jarritako konfiantzaren haustura argia suposa-tzen du, baita gobernua iraultzeko helburua daukanaren begi bistako aitorpena. Eta zalantzarik balego, nahikoa da ikustea, eta aurrekoari gehi dakiokelarik, xede horiek lortzearren egiten den sari eta zigorren banaketa, eta herriaren askatasunak tradi-tzera errefusatzen duenari —haren helburuei aurka eginez— aplikatzen zaizkion trikimailu legalak. Ez da zaila erabakitzea beraien esku utziriko konfiantza lehen aldiz traditu dutenek zein den gizartean merezi duten boterea; behin bakarrik horretan saiatzen denak ez du gehiago konfiantzarik merezi.

223. Atala. Apika esango didate, herria ezjakina denez eta inoiz ez dagoenez pozik, gobernuaren oinarria haren iritzi aldakor eta umore zalantzatsuan kokatzeak hondamendira daramala estatua, eta gobernu batek ezin duela asko iraun herriak botere legegile berria izenda badezake aurrekoaz asperetzen denean edo enbarazu egiten dion bakoitzean. Ene ustez, alderantzizkoa gertatzen ohi da, herriak ez ditu forma zaharrak hain erraz abandonatzen, jendeari irudi dakiokkeen moduan. Zaila da sinestea haietara ohituriko formen akatsek, forma hauen aldaketa beharra dakarrela. Jatorriz, edo ustelkerien eta denboraren poderioz zenbait akats baleuzkate ere, oso gaitza litzateke konpontzea jende guztiak horretarako aukera dagoela ikusiko balu ere. Jendeak konstituzio zaharrak aldatzeko daukan geldotasun eta uzkurtasun horrek, erreinu honetan —lehenago eta garai honetan ikusi diren iraultza ugari izan arren— gure sistema legegile zaharra mantentzea eragin du (bere errege, parlamentari [common] eta Lor-ekin) edo, zenbait alferreko saiakera ondoren, sistema honetara bueltatzea ere. Zenbait probokaziok errege batzuk beraien koroak galtzea eragin bazuen ere, herria ez da inoiz iritsi ondorengotza lerro berri bat ezartzeko punturaino.

224. Atala. Hala ere, baten batek esango du hipotesi honek maiz emanen diola bide erreboltari. Honakoa ihardetsi behar dut:

Lehenik eta behin, ez diola bide ematen beste edozein hipotesik baino gehiago. Herria miseria gorrirantz bultzatua denean eta botere arbitrarioaren gehiegikeriak pairatzera kondenatua, berdin du oihukatzea gobernariak Jupiterren semeak, sakratu edo jainkotiarrek direla, Zerutik jaitsiak edo bertatik bidaliak beraien karguak bete ditzaten; edonola ere, emaitza berdina izanen da. Zuzenbidearen aurkako tratu txarra jasaten duen herriak astunegia bilakatu zaion zama horretaz libratzeko urratsa emanen du aukera duenean. Desiratu eta aurkituko dute aukera egokirik txipiena, hau —giza arazoan aldagarritasuna,

ahultasuna eta akzidenterako gertutasuna kontuan hartuta— ez da berandu etorriko. Gure garaian adibiderik ikusi ez duela dioenak ez darama mundu honetan denbora larregi. Oso gutxi irakurriko zuen, munduan izan den edozein motatako gobernutan honen adibiderik aurkitu ez duenak.

225. Atala. Bigarrenik, erantzun behar dut, iraultzak ez dira gertatzen arazo publikoen kudeaketan gertatzen den edozein akats txipiengatik. Herriak jasango ditu, murtik atera gabe, edo erreboltarako izpirik gabe, agintarien hutsegite larriak, bidegabeko lege desagoki ugari eta giza ahultasunak dauzkan akats guztiak. Alabaina, larderia, prebarikazio eta azpijoko kate luze bat ematen denean, gobernu norantz doan ezkutatzea ezinezkoa suertatzen da eta herriak argi ikusiko du bere agintarien natura zein den eta nora daramatzan; orduan ez da harritzekoa herria esnatzea eta neurriak hartzea gobernuak jatorrian zituen xedeak bete ditzan. Helburu horiek ez badira betetzen, antzinako izenak eta hitz lodiak kaltegarri suertatuko dira, gobernu modu horiek ez baitute ezertan gaintitzen naturazko egoera edo anarkia hutsa, azaltzen dituzten arazoak handiak eta gertukoak balira ere, baina konponbide askoz ere zailagoak.

226. Atala. Hirugarrenik, ene ustez, legegileek herriaren jabetzak inbaditu eta konfiantza traditzeagatik, herriak babesa botere legegile berria osatuz lortuko duela defendatzen duen doktrina hau iraultzaren aurka edo saihesteko bide eta erremedio onena da. Errebolta ez da pertsonen aurka zuzenduriko aurkaritza, autoritatearen kontrakoa baizik, eta honen oinarria gobernuaren konstituzio eta legeetan datza; hortaz, indarraren bidez bortxatu eta ondoren justifikatzen dutenak —edonor dela ere— dira zentzu zehatzago batean benetako erreboltariak. Pertsonak gizartean sartzen badira eta gobernu bat osatzen badute, indarra baztertzeko izanen da, eta elkarren arteko bakea, batasuna eta beraien jabetzen babesa bermatuko dituzten legeak sortzeko. Horrela, legearen aurka indarra erabiltzen

dutenak dira benetan erreboltariak, guda egoera baitakarte ostera ere. Hori errazen egin dezaketenak boteredunak dira, daukaten autoritatearen aitzakiaz, duten indarraz tentaturik edo inguratzen dituztenen lausenguen erruz. Beraz, oker hori saihesteko modurik egokiena beronen bidegabekeria eta dakarren arriskua —bertan erortzeko tentatuak izan daitezkeen haiei— erakustea da.

227. Atala. Aipatu ditugun kasu bietan, botere legegilea aldatzen denean edo legegileek ez dituztenean betetzen izendatuak zireneko xedeak, horien eragileak errebolta egitearen errudun dira. Norbaitek indarrez desegiten baditu gizartearen botere legegilea eta beronek promulgaturiko legeak, elkarren arteko eztabaidak modu baketsuan konpondu eta guda egoeratik pertsona guztiak alden zitzan onarturiko arbitratzea deuseztatu du. Botere legegilea suntsitzen dutenek edo botere erabakigarri hori beraien esku hartu —berau ezin delarik egon herriak izendatu ez duen inoren esku—, eta modu honetan herriarena baino ez den eta herriari soilik dagokion autoritatea eskuratu, eta herriaren onespenik gabe botere bat osatzen badute, guda egoera da benetan sortuko dutena, hau baita autoritate gabeko indarraren erabilerak dakarrena. Horrela, gizarteak sorturiko botere legegilea deuseztatzerakoan (herriak honen erabakiak obeditzen zituen, bere borondatearen islatzat baitzituen) herria batzen zuen lotura hautsiko dute; herria guda egoera zorian ezarri ostera ere. Botere legegilea indarrez deuseztatzen dutenak erreboltariak badira, ez dira gutxiago izanen legegileak, herria eta honen askatasun eta jabetzak babesteko hautatuak zirenak, babestu behar duten hori guztia zapaltzen eta eskuratzen saiatzen direnean. Honekin, herriaren bakea babes eta zain zezaten aukeratu zituztenekiko guda egoeran ezarriko dituzte euren buruak; hortaz, kontsidera daitezke, astungarri handienekin, benetako erreboltariak.

228. Atala. Beharbada, nire doktrina hau erreboltarako oinarria dela diotenek, esan nahi dute gerrate zibil edo gatazka

amorratuen sortzaile dela; herriari esaten diodalako, bere jabetza eta askatasunei erasotzen bazaie, libre direla ez obeditzeko eta horretaz gain biolentziarekin aurka egin diezaieketela beraien magistratuak zirenei, haiengan ezarririko konfiantza tradituz, indarra bidegabeki erabili baitzuten herriaren jabetzak inbaditzeko. Hortaz, doktrina hau ezin dela ametitu uste dute, munduaren bakerako erabat kaltegarria baita. Arrazoi beragatik, hiritar ondratu bati esan beharko litzaioke ezin zaie-la lapur edo piratei aurre egin, honek anabasa eta odol jarioa ekar baitezake. Honetatik kalterik sortzen bada ezin zaio errua egotzi bere eskubidea defendatzen duen horri, auzokidea inbaditzen duenari baizik. Pertsona zintzo errugabeak bakearen onerako daukan guztia eman behar badu, beregan biolentzia ezartzen duen edonori txintik esan gabe, jakin nahi nuke zer bake mota izanen den munduan, honen oinarria biolentzia eta lapurreta badira eta lapur eta zapaltzaileen onerako mantendu behar bada. Benetan bake miresgarria legoke ahularen eta indartsuaren artean, bildotsak adeitsuki eta prestutasunez eskainiko balio otsoari lepoa, honek akaba dezan. Polifemoren kobazuloetan gertaturikoa bake eta gobernu mota honetarako adibide egokia litzateke, bertan Ulises eta bere adiskideek ez zuten ezer egin behar, soilik irentsiak izateko itxoin. Dударик gabe, Ulisesek, pertsona zuhurra izanik, obedientzia pasiboa aholkatzen zien bere lagunei, modu baketsuan men egin zeza-ten. Azalduko zien gizateriaren bakerako zein garrantzitsua zen horrela jardutea, eta erakutsiko zizkien Polifemori —bera baitzen agintaria une hartan— aurka egiteak zekarzkien ondo-rio latzak.

229. Atala. Gobernuaren xedea gizateriaren ona da; eta zer da gizateriarentzat hobe horiak etengabe tirania baten nahikari mugagabea pairatzea ala gobernariak batzuetan aurkaritza izateko arriskuan egotea, neurritz gaineko boterearen erabilera egin eta herriaren jabetzak babestu beharrean suntsitzeko erabiltzen dutenean?

230. Atala. Ez du inork pentsatu behar kalte handiak izanen direnik buru lausotu edo izpiritu asaldatu bati gobernua aldatzeko gogoak ematen dion bakoitzean. Egia da honelako pertsonak edozein momentutan sor ditzaketela errebolta, baina beraien hondamen eta galbiderako izanen da. Kalteak orokorrak ez diren artean, agintarien amarru ilunak guztientzat argi geratzen ez badira, eta beraien saiakerak ez baditu gehien-goak nabaritzen, herria —prestago baitago txintik esan gabe sufritzera bere eskubideak indarrez defendatzera baino— ez da altxatuko aurka egiteko. Han hemenka pertsona konkretuei gerta dakizkiekeen bidegabekeria eta zapalkuntza kasuek ez dute herria mugituko. Aitzitik, uste osoa badute, ebidentzia nabariak daudelako, jukutria argiak daudela beraien askatasuna kentzeko eta gauzek daramaten bideak pentsarazten badu gobernariak intentzio okerrak dauzkatela, nor izanen da egoera horren errudun? Nori egotzi behar zaio errua, egoerak sortzen duen susmo txarra saihets dezaketenek ez badute ezer egin hura konpontzeko? Herria ezin daiteke izan errudun, izaki arrazoidun bezala ekin eta gauzak dauden bezala eta diruditen modukoak direla kontsideratzeagatik; errua izatekotan, egoera horretan jarri dituztenena izanen da. Aitortu behar dut zenbait pertsonaren harrokeriak, handinahiak eta arrazoigabekeriak batzuetan nahasmendu handia ekarri diela zenbait errepublikari, eta erreinu eta estatuentzat oso kaltegarriak izan diren alderdiak sortzea eragin duela. Alabaina, historiak inpartzialki erabaki beharko du kalte handiena normalean herrien zentzugabekeriak eta gobernarien autoritate legitimoa akabatzeko desioak dakarren ala, aldiz, gobernarien lotsagabekeriak eta beraien herriengan botere arbitrarioa ezartzeko saiakerek sortu dituzten erreboltarik gehienak; hau da, desordenaren iturburua zapalkuntza ala desobedientzia izan den. Ondokoaz ez daukat inolako dudarik: gobernaria edo hiritarra delarik indarraren bidez printzearen edo herriaren eskubideak zapaltzen dituen ala gobernu zuzen baten konstituzioa eta egitura suntsitu nahi dituen, ene ustez, pertsona batek egin ditzakeen krimenik

okerrenen errudun izanen da; erantzun beharko baitu odol jario guztiaz, lapurretez eta gobernu baten desegiteak herrialde bati dakarkion desolazioaz. Hori egiten duena denon areiotzat eta gizateriarentzat izurrite bezala hartu behar da; eta horren arabera tratatu beharko zaio.

231. Atala. Mundu guztia egonen da ados herriaren jabetzen aurka egiten duen hiritar edo atzerritarrari indarrez aurre egin dakiokeela badiot. Hala ere, herriaren aurka egiten duena magistratua bada, normalean ukatzen da honi aurre egin dakiokeenik. Badirudi pribilegio eta abantaila legal handienez gozatzten duten horiek horregatik beragatik eskubidea izan beharko luketela lege horiek hausteko, beraien anai-arrebak baino leku egokiagoan kokatuak daudelako soilik. Aldiz, beraien delitua askoz ere larriago da, ez dira bakarrik esker txarrekoak, legeak faboratzen dituenagatik, gainera anai-arrebek beraengan ezarri zuten konfiantza traditzen dute.

232. Atala. Indarra erabiltzen duenak, horretarako eskubiderik gabe —eta hau da legearen aurka egiten duen edonoren kasua—, indar hori erabili duenganako guda egoeran ezarriko du bere burua. Egoera horretan, lotura guztiak deuseztatu eta eskubide guztiak bertan behera uzten dira; mundu guztiak du orduan bere burua defendatzeko eskubidea eta erasotzaileari aurre egitekoa. Hau hain da argia, Barclay bera ere, erregeen boterearen eta izaera sakratuaren defendatzaile sutsu hori, behartua dela aitortzera kasu jakin batzuetan herriak legitimo-ki aurre egin diezaiokeela erregeari; lege jainkotiarra herriaren edonolako erreboltaren aurka dagoela frogatu nahi duen kapitulu batean aipatzen du hori. Hortaz, bere doktrinaren arabera ukaezina da ere, zenbait kasutan herriak aurre egin dezakeenez, printzeen aurkako erresistentzia oro ez dela errebolta. Hauek dira bere hitzak: «*Quod si quis dicat, ergone populus tyrannicae crudelitati et furori jugulum semper praebebit? Ergone multitudo civitates suas famae ferro, et flamma vastari, seque, conjuges, et liberos fortunae ludibrio et tyranni libi-*

dini exponi, inque omnia vitae pericula omnesque misérias et molestias a rege deduci patientur? Num illis quod omni animantium generi est a natura tributum, enegari debet, ut sc.; vim vi repellant, seseque ab injuria tueantur? Huic brevitur responsum sit, populo universo non negari defensionem, quae juris naturalis est, neque ultionem quae praeter naturam est adversus regem concedi debere. Quapropter si rex non in singulares tantum personas aliquot privatum odium exerceat, sed corpus etiam reipublicae, cujus ipse caput est, i.e. totum populum, vel insignem aliquae ejus partem immani et intoleranda saevitia seu tyrannide divexet; populo, quidem hoc casu resistendi ac tuendi se ab injuria potestas competit, sed tuendi se tantum, non enim in principem invadendi: et restituendae injuriae ilatae, non recendi a debite reverentia propter acceptam injuriam. Praesentem denique impetum propulsandi non vim praeteritam ulciscenti jus habet. Horum enim alterum a natura est, ut vitam scilicet corpusque tueamur. Alterum vero contra naturam, ut inferior de superiori supplicum sumat. Quod itaque populus malum, antequam factum sit, impedire potest, ne fiat, id postquam factum est, in regem authorem sceleris vindicare non potest: populus igitur hoc amplius quam privatus quispiam habet: quod huic, vel ipsis adversariis iudicibus, excepto Buchanano, nullum nisi in patientia remedium superest. Cum ille si intolerabilis tyrannus est (modicum enim ferre omnino debet) resistere cum reverentia possit.» *Barclay contra Monarchom*, L. 3, c. 8.

Hona hemen itzulpena:

233. Atala. Alabaina, norbaitek galdetuko balu: herriak men egin behar al dio tiraniaren krudelkeria eta amorruari? Ikusi behar al dituzte hiriak lapurreriek hondatuta, errautsetaraino txikituta, seme-alabak eta emazteak tiranoaren lizunkeria eta bortizkeriak pairatzen, eta eurak eta senitarteak hondamendian, txirotasunaren premia gorrian murgilduta, eta oraindik ere isilik jarraitu? Gizakia izanen al da indarrarekin defendea-

tzeko ahalmen komun hori ukatu zaion izaki bakarra, naturak hain gustura eskaini dionean animalia guztiei kalteetatik babes daitezen? Ene erantzuna da norberaren defentsa lege naturalaren parte dela, eta ezin zaiola erkidegoari ukatu, ezta erregearen aurka egitea suposatzen badu ere. Hala ere, honen barne ez dago hartaz mendekua hartzeko eskubidea, legea ez baita hainbesteraino iristen. Hortaz, erregea gorrotagarri bilakatuko balitz, ez bakarrik pertsona gutxi batzuekin, errepublikaren gorputzarekin ere, honen buru errege bera delarik, eta tirano batek bezala krudelki eta modu txarrean jardungo balu herriarekin edo honen zati garrantzitsu batekin, kasu horretan, herriak eskubidea du kalte horretatik babestu eta defendatzeko. Ondoko salbuespenarekin: hiritarrak defenda badaitezke ere, ezin diote euren printzeari eraso egin. Jasotako minak konpon ditzakete, baina ezin diete probokazioei amore eman eta erreberentzia eta errespetuaren mugak gainditu. Uneko saiakeri aurre egin dakieke, baina ezin da iraganeko biolentziagatik mendeku hartu. Bizitza eta gorputza defendatzea zilegi da, baina naturaren aurkakoa da azpiko batek gorenekoa zigortzea. Mehatxatzen duen kaltea gerta baino lehen saihets dezake herriak, baina behin gertatuta, ezin du erregeaz mendeku hartu, bidegabekeriaren egilea bada ere. Horrela, bada, hori da herriak orokorrean duen pribilegioa, hortik aurrera pazientzia baino ez zaio geratzen, gure aurkariak ere aitortzen duten bezala (Buchanan-ek ezik); baina herriaren gorputzak aurre egin diezaioke, dagokion errespetuaz, jasanezin den tiraniari; beti ere hau maila ertainekoa bada soilik, orduan, beharrezkoa da hura nozitzea.

234. Atala. Hori da botere monarkikoaren defendatzaile sutsu horrek erresistentziaren alde dioena.

235. Atala. Egia da, hala ere, muga bi ezarri dizkiola, xederik ez dutenak:

Lehenik, dagokion errespetuarekin aurre egin behar dela dio.

Bigarren, ezin da konponbiderik eskatu ez eta zigorrik ezarri; honetarako arrazoia delako azpikoak ezin duela goragokoa zigortu.

Lehenik eta behin, benetan trebea izan behar du batek norbaiti aurre egiteko kolpeak itzuli gabe, edo eta jakiteko nola kolpatu daitekeen dagokion errespetuz. Ezkutu batez soilik babesturik, edo oraindik errespetu handiagoz, ezpatarik gabe, erasotzailearen konfiantza eta indarraren aurka egiten bada, laster ondorioa jasateko kemenik gabe geratzea izanen da, eta bat konturatuko da, aurre egiteko modu horrekin, defentsa horrekin ez doala inora. Modu hau Juvenal-ek aipatzen zuena bezain irrigarria da: *ubi tu pulsas, ego vapulo tantum* («zuk egurtzen nauzun heinean, nik jasoko dut»). Eta borroka horren garaipena leku berean aipatzen diguna bezalakoa izanen da:

Libertas pauperis haec est:

Pulsatus rogat, et pugnīs concisus, adorat,

Ut liceat paucis cum dentibus inde reverti.

(Hau da txiroari dagokion askatasun mota:

Kolpatzen zaionean erregutuko du, eta arrenka eskatuko,

Ukabilkadaz lurrera botatzen dutenean,

Handik hagin gutxi batzuekin itzultzen utz diezaioten.)

Hori da irudizko erresistentzia horrek beti izanen duen bukaera, ezin badira jasotako kolpeak itzuli. Hortaz, aurre egin dezakeenak, kolpatzeko aukera izan beharko du. Utziko diogu gero gure autoreari edo beste edonori saia daitezen buruetan kolpeak edo aurpegietan ebakiak jasotzen, nahi duten erreberentzia eta errespetu guztiarekin. Ene ustez, kolpeak eta erreberentzia adiskidetu ditzakeenak, merezi du errespetu osozko jipoi adeitsu bat, aukera aurkezten denean.

Bigarrenik, orokorrean egia da azpikoak ezin duela goragokoa zigortu, beti ere goragokoa bada. Baina indarrari indarraren bidez aurre egiten zaionean, guda egoeran sartzen da bat,

eta egoera horretan aurretik zeuden erreberentzia, errespetu eta nagusitasun harreman guztiak deuseztatuko dira. Geratuko den diferentzia bakarra ondokoa izanen da: erasotzaile bidegabeari aurre egiten diona haren goitik edo nagusiago izanen da, irabaziz gero erasotzailea zigortzeko eskubidea baitu, bakea haustegatik eta ondoren izandako oker guztiengatik. Barclayk beste leku batzuetan bere buruarekin koherentzia handiagoa erakutsiko du, esaten baitu ez dela legitimoa inoiz ere erregeari aurre egitea. Aipatzen ditu, ordea, modu bi errege bati bere erregetasuna galarazi ahal dizkionak. Hauek dira bere hitzak: «Quid ego nulline casus incidere possunt quibus populo sese erigire atque in Regem impotentius dominantem arma capere et invadere jure suo suaque autoritate liceat? Nulli certe quamdiu rex manet. Semper ex divinis id obstat, *Regem honorificato*; et *Qui potestati resistit, Dei odinationi resistit*: Non alias igitur in eum populo potestas est quam si id committat propter quod ipso jure rex esse desinat. Tunc enim se ipse principatu exiit atque in privatis constituit liber: Hoc modo populus et superior efficitur, reverso ad eum scilicet jure illo quod ante regem inauguratum in interregno habuit. At sunt paucorum generum commisa ejusmodi quae hunc effectum pariunt. At ego cum plurima animo, perlustrem, duo tantum invenio, duos, inquam, casus quibus rex ipso facto ex rege non regem se facit et omni honore et dignitate regali atque in subditos potestate destituit; quorum etiam meminit Winzerus. Horum unus est, si regnum disperdat, quemadmodum de Nerone fertur, quod is nempe senatum populumque Romanum, atque adeo urbem ipsam ferro flammaque vastare, ac novas sibi sedes quaerere decrevisset. Et de Caligula, quod palam denunciarit se neque civem neque principem senatui amplius fore, inque animo habuerit interempto utriusque ordinis electissimo quoque Alexandriam commigrare, ac ut populum uno ictu interimeret, unam ei cervicem optavit. Talia cum rex aliquis meditator et molitur serio, omnem regnandi curam et animum ilico abjicit, ac proinde imperium in subditos amittit, ut dominus servi pro derelicto habiti dominium.»

236. Atala. «Alter casus est, Si rex in alicujus clientelam se contulit, ac regnum quod liberum a majoribus et populo traditum accepit, alienae ditioni mancipavit. Nam tunc quamvis forte non ea mente id agit populo plane ut incommodet: tamen quia quod praecipuum est regiae dignitatis amifit, ut summus scilicet in regno secundum Deum sit, et solo Deo inferior, atque populum etiam totum ignorantem vel invitum, cujus libertatem sartam et tectam conservare debuit, in alterius gentis ditionem et potestatem dedit; hac velut quadam regni ab alienatione effecit, ut nec quod ipse in regno imperium habuit retineat, nec in eum cui collatum voluit, juris quicquam transferat; atque ita eo facto liberum jam et suae potestatis populum relinquit, cujus rei exemplum unum annales Scotici suppeditant.» *Barclay contra Monarchom*, 3. lib., 16. Kap.

Hau da itzulpena:

237. Atala. Horrela, bada, ez al da kasurik herriak esku-bidea izanen duenik armak hartzeko, bere kabuz eta autoritate propioarekin, eta beraien gainean tiranikoki inposatzen ari den erregeari aurka egiteko? Bat ere ez, hura errege den artean. *Ohora ezazue errege eta Haren botereari aurre egiten dionak, Jainkoaren legeari aurre egiten dionak*, orakulu jainkotiarrek dira baimena edozein kasutan ezeztatuko dutenak. Hortaz, herriak erregearekiko ez du inoiz botererik izanen, ez bada hark bere erregetasuna galaraziko dion zerbait egiten ez duelako. Koroa eta dignitatea galtzen dituenean, hiritar arrunt bat izanen da ostera ere, eta herria aske eta nagusi berriz ere, errege koroatu baino lehenago, interregnum garaian zeukatzen egoerara bueltatuko baitira. Gutxi dira ordea egoera horretara bultzatuko dezaketen hutsak. Alde guztietarik begiratu ondoren, bi baino ez datozkit gogora. Bi dira, bada, errege batek *ipso facto* errege izateari utziaraziko dizkionak eta herriarekiko duen botere eta autoritatea galarazi egiten dionak, Winzerus-ek ere aurkitu ditu.

Lehena erregea gobernua hausten saiatzen denean sortzen da; hau da, erreinua eta errepublika hondatzeko asmoa eta

helburua badu, Neron-ek egin omen zuen moduan, Erromako senatua eta herria akabatzea erabaki baitzuen, hiria odoleztatu eta erre, eta beste leku batera alde egin. Edo Kaligulak bezala, honek argi aitortu zuen ez zuela jarraituko herriaren eta senatuaren buru izaten eta bi estamentu horietako pertsonarik baliotsuenak hiltzeko asmoa zuela, ondoren Alexandriara erretiratzeko; esan zuen ere herriak lepo bakarra izatea gustatuko litzaiokeela, horrela ezpatakada bakarrarekin moztuko ahal baitzuen. Errege batek horrelako asmoak dituenean eta burutzen saiatzen denean, errepublikari zor zaion ardurari ez dio jaramonik egiten, eta hortaz hiritarrak gobernatzeko boterea galduko du, bere esklaboak abandonatzen dituen nagusiari gertatzen zaion moduan.

238. Atala. Bigarren kasua errege batek bere burua beste errege baten menpeko egin eta arbasoek eta herriak bere esku utzitako erreinu askea beste baten menpe jartzerakoan gertatuko da. Ezen, erregearen asmoa ez balitz ere herria kaltetzea, ekintza honekin bere errege duintasunaren zatirik nagusia galduko du, hau da, jainkoaren ondoren herriaren gobernari gorena izatearena; baita herria —honen askatasuna zaindu behar zuelarik— atzerriko herrialde baten botere eta mendetasunera bortxatu edo traditu zuelako. Erreinuaren —nolabait esatearren— alienazio hori dela-eta, daukan boterea galduko du, eta ezin die botere hori igorri transferitzea pentsatzen zuen inori. Ekintza horrekin, bada, aske lagako du herria honek bere kasa egin dezan. Eskoziako historian aurki daiteke honen adibide bat.

239. Atala. Monarkiaren defendatzaile sutsu horrek, Barclayk berak, aitortu behar du badirela kasuak errege bati aurre egin dakiokeenak, hark bere errege izaera galtzen baitu. Laburbilduz eta kasuetan larregi ez luzatzearren, autoritatea ez daukan gaitan ez da errege, eta aurre egin dakioke. Autoritaterik ez denean, erregerik ere ez, eta errege dena gairontzeko pertsona autoritategabeak bezalakoa bilakatuko da.

Hemen aipatzen diren bi kasu hauek ez dute alde handirik lehenago, gobernuak haustera daramatzan kasuak ikusterakotan, aipatu ditugun horiekiko; hala ere, alde batera utzi da doktrina honen oinarria: non datzan konfiantzaren haustura, hau da, adostutako gobernu modua ez mantentzea eta berez gobernuaren xede dena ez bilatzea, xede hau guztion ona eta jabetzaren iraupen eta babesa baino ez delarik. Jakin nahi nuke zer dioten Barclayk eta bere jarraitzaileek honakoari buruz: zer gertatzen den errege batek bere burua tronutik kendu duenean eta herriarekin guda egoeran ezarri, orduan ez da egonen ezer herriari eragotziko dionik dagoeneko errege ez den horren atzetik joan dadin; jada ez baita erregea, gainontzeko pertsonak bezalakoa baizik, eta hauekiko guda egoeran dago. Gainera, errepara diezaiogun Barclayk dion honi: «Herriak kaltea saihets dezake hau gerta baino lehen». Hortaz pentsa daiteke erresistentzia zilegi ikusten duela tirania oraindik asmo bat bakarrik den artean. Honela jarraitzen du: «errege batek horrelako asmoak dituenean eta burutzen saiatzen denean, errepublikari zor zaion ardurari ez dio jaramonik egiten»; honekin ulertu behar da guztion onetik aldentzen denean asmoa ere badela, edo behintzat aurre egiteko arrazoi nahikoa ematen du. Eta honetarako guztirako arrazoia ondoko hitzekin adierazten du: «herria —honen askatasuna zaindu behar zuelarik— traditu edo bortxatu zuelako». Ondoren adierazten duenak, hau da, «atzerriko herrialde baten botere eta mendetasunera» esaldiak, ez du funts handirik; eskubidearen galera eta hutsa, hark babestu behar zituen askatasunen galeratik dator, eta ez da diferentziarik egin behar norekiko mendetasuna dagoen gai horretan. Herriaren eskubideak zapaltzen dira bai barnetik bai kanpotik datorren norbaitek esklabo egiten badi-tu; eta horretan datza kaltea, eta hori da defendatzeko eskubide-a ematen diena. Herrialde guztietan aurki ditzakegu adibideak frogatzen dutenak ez dela gobernarien hiritartasun edo nor-tasun aldaketa delitua eragiten duena, gobernu aldaketa baizik. Bilson-ek, gure elizako artzapezpiku eta printzeen botere eta

prerogatiben defendatzaile handi horrek, kristau sumisioari buruzko tratatuan aitortzen du, ez banabil oker, printzeek euren boterea eta hiritarren obedientziarako titulua gal ditza-ketela. Eta beste autoritate batzuk aipatu beharko banitu arra-zoia hain argi den honelako kasu batean, ene irakurlea Bracton, Fortescue, *Mirrou*-en egilera edo beste batzuegana igorri beharko nuke; haietarik inor ez daiteke susmagarri izan gure gobernuaz ez ezagutzeaz edo honen arerio izateaz. Hookerren testigantza baliagarri izan dakiekeela uste dut, harekin hainbeste fidatzen diren arren elizaren gobernuari dagokionean, arraroa bada ere, haren oinarri diren printzipio-ak ez dituzte onartzen. Hobe dute begiratu ez ote diren ari euren eraikina botatzeko prest dauden langile azkar horiei tres-nak zorrozten. Gauza batez ziur nago, haien politika zibila gobernariantzat eta herriarentzat hain da hondagarria, arrisku-tsua eta berritzailea, beste garai batzuetan ez litzaieke ezta aipatzen ere utziko. Espero dezagun, denborarekin, egiptoar langilezain horiez gogaiturik, lausengatzaile morroi horien oroimena ere gorrotatuko dutela, horiek gobernuak —arreta merezi ziela bazirudien ere— tirania absolutu bihurtu zituzten eta zeukaten benetako nahia pertsona guztiak beraien arimak hain ondo egokitzen ziren horretan jaiotzea zen, esklabotasu-nean hain zuzen.

240. Atala. Ziurrenik, puntu honetara iritsita, baten batek planteazake ohiko itauna, ea nor izanen den printzeak edo botere legegileak beraiegan ezarritako konfiantza traditu dute-la erabakiko duen epailea. Izan ere, egon daitezke pertsona erre-boltari eta maltzurak ideia okerra zabal dezaketanak jendearen artean, printzea bere prerrogatiba behar bezala erabiltzen ari bada ere. Honi ihardetsi behar diot herria epaile izanen dela, berau baita bere ordezkariak behar bezala jarduten duen eraba-ki behar duena, eman zaion konfiantzaren arabera; herriak aukeratzen duenez, konfiantza tradituz gero, herriak kendu beharko du kargutik. Honek arazo pribatuetan zentzuzkoa ema-

ten badu, garrantzi handiagokoetan berdin behar luke, milioika pertsonen ongizatea jokoan baitago, hortaz, kaltea askoz ere handiagoa da ez bada garaiz saihesten, eta konponbidea askoz ere zailagoa, arriskutsuagoa eta kostu handiagokoa.

241. Atala. Baina galdera hau egiteak (ea nor izanen den epaile) ez du esan nahi epailerik ez dagoenik; Lurrean ez bada inor giza arazoetan epaia erabakiko duenik, kasu horietan Jainkoa da Zerutik epaile izanen dena. Izan ere, bera da zuzenbidean epaile bakar. Alabaina, beste edozein egoeran bezala, pertsona bakoitzak bere kabuz epaitu beharko du norbait noiz ezarri den berekiko guda egoeran eta Epaile Gorenera jo ala ez; Jeftak egin zuen moduan.

242. Atala. Hiritarren eta printzearen artean eztabaidaren bat sortuko balitz legeak ezer ez dioen arloren batean, eta kasua garrantzi handikoa balitz, egoera horretan ene ustez arbitratze egokiena herriaren gorputzak eginen luke. Printzeak herriaren konfiantza badauka eta ez badie legeak inposatzen dituen arau arruntei men egin behar, orduan, norbait kaltetuta sentitu eta pentsatuko balu monarkak bere esku utzitako konfiantzaren aurka egiten duela edo hartatik haratago doala, ez da posible herria baino epaile hoberik aurkitzea (honek utzi baitzuen haren esku konfiantza hasiera batean) erabaki dezan noraino iristen diren printzearen eskuduntzak. Printzeak edo administrazioan dagoenak arbitratze honi uko egiten dionean, ordea, Zerura jotzea baizik ez da geratzen. Lurrean epailerik ez dagoenean, guda egoerara iristeko arriskua dago, ez baitago Zerura jotzea baino, eta baldintza horietan kalteturiko alderdiak epaitu beharko du bere kabuz noiz den apelazio mota hau egin eta beronen eskutan jartzeko unea.

243. Atala. Finitzeko, gizabanako bakoitzak gizartean sartzerakoan esku ematen duen boterea ez da berarengana ostera itzultzen gizarteak dirauen artean, aitzitik, beti jarraituko du erkidegoaren baitan; ez balitz horrela, ez legokeelako erkidegorik, edo errepublikarik, eta hau jatorrizko akordioaren

aurka letorke. Modu honetan, gizarteak botere legegilea biltzar batean ezarri duenean, pertsona horiek eta ondorengoek gauza dezaten eta oinordekotza nola burutu behar den argi azalduz eta baimenduz, botere legegilea ez da herrira itzuliko gobernuak dirauen artean. Botere legegileari betiko iraun behar duen ahalmena eman diotenez, zeukaten boterea eman dute eta ezin da berreskuratu. Hala ere, botere legegile horrek badu iraupen muga bat, eta botere hori pertsona batek edo zenbaitek izanen dute, baina soilik aldi baterako; autoritatea dutenen akatsek berau galarazten badie, kasu bietan —eskubidea galtzeagatik edo denbora igaro delako— boterea berriz ere itzuliko da gizartera, eta herriak eskubidea du botere goren moduan jarduteko eta berori botere legegile bihurtzeko, edo egitura berri bat sortu, edo aurrekoa mantenduz beste norbaiten esku uzteko, hoberen iruditzen zaion bezala.

FINIS

Oharrak

¹ Oso litekeena da, filosofoetarik handienak zioen bezala, familia bu-ruak erregeren moduan jardutea. Horrela, bada, zenbait familia elkartu zirenean gizarte zibilak eratze-ko, erregeak izan ziren lehen goberna-riak eta apika horregatik ere «aitak» zeritzaizoten aita izatetik gobernari izatera pasa zirenei. Beharbada gobernariak Melchizedec-ek bezala jarduteko antzinako ohitura ere hor-rik dator, honek errege zelarik apaiz- go funtzioak ere hartu zituen bere gain, lehenago aitei ere zegozkienak. Dena dela, ez da hau munduan izan den erregimen bakarra. Batzuek dauzkaten akatsak, beste hainbeste asmatzera bultzatu ditu gizakiak. Hitz gutxitan, edozein erregimen publiko, dena delakoa, berau erabil- garri eta egoki kontsideratzen duten gizakien kontseilu, kontsulta eta akordio deliberatutik sortzen da, eta ez dago naturaz posibilitaterik giza- kia erregimen publiko hauetarik aparte bizi izateko (Hooker, *Ecc. Pol.*, I. lib., 10. atala).

² Gizarte ororen botere publikoa gizarte hori osatzen duten arima guz- tien gainetik dago, eta botere horren eginkizun nagusia berorren menpe daudenei legeak eskaintzea da. Unea

iritsita, guztiok obeditu beharko ditu- gu lege horiek, arrazoiaren legeak edo Jainkoarenak aurkakoa esaten ez digun artean behintzat (Hook. *Ecc. Pol.* I, 16. atala)

³ Naturazko egoeran gertatzen diren elkarren arteko kalte, min eta arran- gurak saihesteko, pertsonen arteko paktu edo akordio batera iristea beha- rrezko suertatu zen, eta nolabaiteko gobernu publikoa osatu eta honen mende geratzea. Modu honetan ondokoa bilatzen zen: gobernatzeko autoritatea zuten haiek gainontzekoei bakea, lasaitasuna eta zoriontasuna zekarzkien gauza horiek eskaini zie- zaietela. Gizakiak beti jakin du, bere aurka biolentzia eta indarra eta bide- gabekeria eragiten direnean, bere kasa defendatzen ahal dela. Badaki ere, norberak bere erosotasuna bila- tzen duen arren, norbaitek beste bati kalte eginez lortu nahi balu, ezin lite- keela onartu eta denok erabili behar- ko genituzkeela gure indarrak horre- lako ekintza bati aurre egiteko. Azkenik, gizakiak badaki ere ez dela bidezkoa pertsona batek erabakiak hartzea eta epaitzea berak asmatu- riko zuzenbide baten arabera, gauza jaki- na baita guztiok garela partzialak parte garen auzitan, gure interesak

edo gugandik hurbilekoenak tartean daudenean; hortaz, auziek eta arazoez ez lukete bukaerarik, ez balitz posible elkarren arteko akordioa, eta honen arabera ez bagenie guztion gustukoak diren pertsona batzuei gobernatzen utziko. Adostasun honen faltan ez legoke arrazoirik pertsona bat gainontzekoen jaun edo epaile bilaka zedin (Hooker, *Eccl. Pol.* I, 10. Atala).

⁴ Hasiera batean, nolabaiteko erregimena sortu zenean, beharbada ez zen gobernatzeko moduaz ezer erabaki, eta gobernariaren jakintza eta zuhurtasunean konfiantza izatea zen ohikoena. Esperientziak ordea irakatsi zizkien honek guztiontzat zekartzan eragozpenak; konponbide bezala sortua zenak, okerra areagotu baino ez zuen egin. Konturatu ziren gizaki bakarraren nahiaren menpe bizitzea giza kalamitate guztien jatorria zela. Horrek bultzatu zituen legeak sortzera; modu horretan, pertsona bakoitzak jakingo zuen zeintzuk ziren bere betebeharrak, eta hauek hausteak zekartzan zigorrak (Hooker, *Eccl. Pol.* I, 10. Atala).

⁵ Lege zibila gorputz politiko osoaren egintza izanik, gorputz hori osatzen duten ataletako bakoitzera zabaltzen da bere ezarpen eremua (Hooker, *ibid.*).

⁶ Hasiera batean, nolabaiteko erregimena ezartzean, baliteke gobernu moduaz ezer ere ez zehaztea, gobernariaren jakinduria eta zuhurtasunaren esku uztea guztia. Esperientziak ordea irakatsi zien zer arazo zekarzkie guztiei, erremedio bezala jarritakoak azkenean okerra areagotu baitzuen. Ulertu zuten gizaki bakarraren

borondatearen menpe egotea giza miseria guztien sorburu zela. Lege batzuk sortu behar izan zituzten, horrela guztiek jakingo zituzten beraien betebeharrak, eta ez betetzeak zekarzkie zigorrak (Hooker, *Eccl. Pol.*, I, 10. Atala).

⁷ Gizarte politiko osoari dagokio berau gidatuko duten legeak egiteko botere legitimoa. Horrela denez, botere hau bere kabuz soilik darabilen Lurreko edozein printze edo handiki ez da tirano bat baizik, ez badio Jainkoak boterea zuzenean eta adierazita eman, edo gizarte horren bat-etortzetik datorren autoritateak. Beraz, onespén publikoa jaso gabe egin diren legeak ez dira lege (Hooker, *Ecc. Pol.* I, I, 10. atala).

Gai honen gainean ondokoa azpimarratu behar dugu: inork ez duenez naturaz gizatalde politikoak gobernatzeko botere perfektu eta osoa, ez bagenu gure onspén emanen, inork agindu gabe biziko gintezkeela. Goberna gaitzaten, onesten dugu partaide garen gizarteak aurretik onetsitakoa, orduetik ez delarik onspén hau natura bereko akordio unibertsal batez baliogabetu.

Giza legeek, beraz, direnak direla, baliagarritasuna adostasunetik baizik ez dute jasoko (*ibid.*).

⁸ Gizarte publikoek bi oinarri dituzte: alde batetik, gizakiek bizitza sozialerako eta adiskidetasunerako duten joera naturala, bestetik, elkarrekin bizitzeko modua finkatuko duen ordena adierazi edo adierazigabea. Azken hau da normalean errepublikaren legeak deritzeguna, gorputz politiko baten benetako arima; legea baita gorputz horren atalak biziaraz-

ten dituen, elkarrekin mantendu eta guztion onerako beharrezko den horretan lanean jartzen dituen. Gizakien bizitza manatu eta arautuko dituzten lege politikoak ez dira inoiz behar bezala antolatuko baldin eta ez bada suposatzen gizakiaren nahiera berez setatia, bihurria eta bere naturaren lege sakratuen obedientziaren aurkakoa dela. Hitz batean, ez badugu suposatzen gizakiaren natura gaiztoak basapiztia moduko zerbait bihurtzen duela, legeek ezin izanen dute eguneko ekintzak bidera ditzagun lagun, guztion ona lortzeko bidean oztopo bat izan gabe; guztion ona erdiesteko osatu baitziren gizarteak.

Ez badira oinarri horretatik abiatzen, legeak ez dira perfektuak (Hooker, *Eccl. Pol.* I, 10. atala).

⁹ Legeak gizakiak gidatuko dituzten neurriak dira; hala ere, arau nagusiago batzuetan oinarritu behar dira, eta horien bidez neurtuko dira. Lege goren horiek bi dira: lege naturala eta Jainkoarena. Hortaz, giza legeek naturaren lege orokorren araberakoak izan behar dute eta ez dute Eskritura Santuen lege positiboekin kontrajarriak izan behar, bestela, ez lira-tekeelako zuzenak (*Ibid.* 3, 9. atala). Gizakiak bidegabekeriak egitera behartzea ez dirudi bidezkoa (*Ibid.*, I, 10. atala).

Aurkibidea

HITZAURREA.....	7
BIBLIOGRAFIA.....	27
SARRERA	34
I. KAPITULUA	36
II. KAPITULUA	38
III. KAPITULUA	46
IV. KAPITULUA	50
V. KAPITULUA	52
VI. KAPITULUA	67
VII. KAPITULUA	83
VIII. KAPITULUA	94
IX. KAPITULUA	111
X. KAPITULUA	115

XI. KAPITULUA	116
XII. KAPITULUA	123
XIII. KAPITULUA	125
XIV. KAPITULUA	133
XV. KAPITULUA	139
XVI. KAPITULUA	142
XVII. KAPITULUA	155
XVIII. KAPITULUA	156
XIX. KAPITULUA	163
OHARRAK.....	187